

Lierni Alkorta Zeberio eta Aitor Zuberogoitia Espilla

MASA-KOMUNIKAZIOTIK INFORMAZIOAREN GIZARTERA

Euskararen bideetan barrena




ueu

MASA-KOMUNIKAZIOTIK INFORMAZIOAREN GIZARTERA

EUSKARAREN BIDEETAN BARRENA

Lierni Alkorta Zeberio eta Aitor Zuberogoitia Espilla

Udako Euskal **Unibertsitatea**
Bilbo, 2009

© Udako Euskal Unibertsitatea

© Lierni Alkorta Zeberio eta Aitor Zuberogoitia Espilla

ISBN: 978-84-8438-284-3

Lege-gordailua: BI-3537-09

Inprimategia: CUATROAS, Bilbo

Azalaren diseinua: Iñigo Ordozgoiti

Hizkuntza-zuzenketen arduraduna: Ander Altuna Gabiola

Banatzaileak: UEU. Erribera 14, 1. D BILBO telf. 946790546 Faxe. 944793039

Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.org

www.ueu.org

Elkar Banaketa: Igerabide, 88 DONOSTIA

Galarazita dago liburu honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara delarik ere, edizio honen Copyright-jabeen baimenik gabe.

*Eskerrik asko Edorta Arana, Joxe Aranzabal, Iratxe Bidaola,
Andres Gostin, Gilles Haran, Iker Martinez de Lagos,
Joxe Rojas eta Bingen Zupiriari, liburua osatzeko premiazko
genuen informazioa eskura jarri eta ekarpenak egiteagatik.*

Aurkibidea

1. Masa-komunikazioaren hastapenei buruzko sarrera orokorra	9
2. XIX. mendearen amaiera: euskarazko prentsa abian Ipar eta Hego Euskal Herrian	23
3. 1936ko Gerra aurreko prentsa abertzale euskaldunaren eztanda Hegoaldean. <i>Pizkundea. Argiatik Egunara</i>	33
4. Gerren eragina Ipar Euskal Herrian: <i>Aintzina</i> mugimendua; <i>Eskualdunatik Herriara; Enbataren sorrera</i>	43
5. Euskarazko prentsaren birloratzea Hego Euskal Herriko gerraostean: <i>Egan, Euzko Gogoa, Argia, Anaitasuna, Goiz-Argi</i>	53
6. Euskarazko estreinako irratsaioak mugaz alde bietan.	61
7. 1970eko hamarraldia Hego Euskal Herrian: «Gu gara euskal prentsa» aldarria	73
8. Zinema-industria abiatu nahian.	83
9. Euskarazko liburugintza: buztinezko zangodun industria.	97
10. Ipar Euskal Herriko euskal irratien sorrera eta garapena	109
11. EITBren sorrera eta bilakaera	121
12. Tokiko prentsaren eztanda	139
13. Kazeta nazionalen ugalketa.	151
14. Muga fisikoak apurtzen: unibertso elektronikoaren garaia	167
15. Digitalizazioa gurean	191

1. Masa-komunikazioaren hastapenei buruzko sarrera

1.1. ZER DA MASA-KOMUNIKAZIOA?

Trantsizio-garai betean sartuta dago komunikazioaren mundua: azken bi mendeetan nagusi izan den eredia (masa-komunikazioarena) atzean geratzen hasi zen Interneten jaiotzarekin, eta, mende berriarekin batera, Informazioaren Gizartea, Sare Gizartea gailendu zaigu. Funtsezko aldaketak ekarri ditu Informazioaren Gizarteak; honako hauek, besteak beste: informazioaren joan-etorri etengabea, bat-batekotasuna, interaktibitatea eta norabide bakarreko mezuen gainbehera, eduki-sorkuntzaren demokratizazioa, horizontaltasun handiagoa, audientzien zatikatzea, teknifikazioa edota multimedia-elementuen ugalketa.

Neurri handi batean Sarearen sorrerak eragin du aldaketa, beraz, baina, behin beroni buruz berbetan hasita, komeni da hizpide ditugun kontzeptuak lehenbailehen definitzea. Has gaitezen masa-komunikazioari buruzko oinarrizko argibideak ematen. Kontzeptu horren dimentsio osoaz jabetu gura izanez gero, nahitaezkoa da XIX. mendera atzera egin eta garaiko gizartean gertaturiko aldaketak ulertzea. Masak ez ziren berez, bat-batean sortu. Jose Ortega y Gasset-ek *La Rebelión de las masas* lanean dioenez, hiru faktore nagusiren nahasketatik jaio ziren: demokrazia liberalak, esperimentazio zientifikoa eta industrializazioa, hurrenez hurren. Izan ere, XIX. mendea industrializazioaren garaia izan zen: biztanleriaren zati handi bat, herrietako bizitza utzita, hirietara bidean jarri zen, landako bizimodu gogorretik ihesi eta etorkizun hobe baten ametsak bultzatuta. Ondorioz, hirietan biztanleria etengabe haziz joan zen eta bertan metaturiko lagun talde handi horiek, lan-guneak eta egunerokotasuna partekatzearen poderioz, kultura komuna sortu zuten apurka-apurka.

Masa gero eta uniformeago horren komunikazio-beharrei erantzuteko (eta haiei esker negoziario egiteko) sortu ziren masa-komunikabideak (masaren ideietan eragiteko asmo nabarmenarekin ia beti, ezen, aurrerago ikusiko dugun moduan, nola Euskal Herrian hala munduan, polarizazio politiko-ideologiko handiko urteak izan baitziren haiek); jende-olde horiei zuzenduko zitzaizkien eta guztiengana helduko ziren hedabideak, zehazki.

Testuinguru historiko horretan, 1930eko hamarkadaren amaiera aldera sortu zen *masa-komunikazio* kontzeptua ere. Briggs eta Burke-k (2002: 11) dioskutenaren arabera, XX. mendeko 1920ko hamarkadan hasi zen jendea *media* edo hedabideei buruz berbetan; haien iritziz, hala ere, XIX. mendearen hastapenetarako (egunkarietako kontzientzia nazionalak moldatzeari ekin ziotenerako, alegia) dagoeneko hasia zen azaleratzen masekiko ardura. Ordukoa da, haien ustez (2002: 15), masen hizkuntzaren sorrera ere.

Masa-komunikazio terminoak, ordea, konnotazio gehiegi ditu gehiengoak onartuko lukeen eta aldi berean zehatza litzatekeen definizio bat ezartzeko. *Masa* hitzak berak balio ugari ditu bere baitan, eta *komunikazio* hitzak, berriz, oraindik ez du adostasun erabatekoa biltzen duen definiziorik. Edonola ere, posible da terminoari lanerako definizio bat eman eta ezaugarri orokorrak ezartzea. *Masa* terminoak bolumen, eremu edo azalera handi bat hartzen du bere baitan. *Komunikazio* hitzak, aldiz, mezuak transmititu eta jasotzeari esangura ematea eta ateratzea esan nahi du. Janowitz-en definizio honek, adibidez, hauxe dio (McQuail, 1985: 41):

La comunicación de masas incluye las instituciones y técnicas mediante las cuales unos grupos especializados emplean artilugios tecnológicos (prensa, radio, cine, etc.) para diseminar contenidos simbólicos a públicos de muy amplia naturaleza, heterogéneos y sumamente dispersos.

Harluxet Hiztegi Entziklopedikoak, aldiz, honela definitzen du kontzeptua (1995: 1.936): «Masari edo publiko zabal eta heterogeneoari mezu ugari eta desberdinak helaraztea ahalbidetzen duen komunikabide-multzoa, mass media». Definizio horiek eta antzeko beste zenbaitek, ordea, *komunikazio* hitza igorlearen ikuspuntutik abiatutako transmisioaren zentzuarekin erabiltzen dute, terminoaren zentzu osoa ulertu beharrean, hau da, erantzuna, trukea eta elkarrekintza ere kontuan izan beharrean¹.

Izan ere, bakoitza bere garaiaren kume baita: duela urte batzuk inor gutxi aurreratuko zuen gaur egun begi-bistakoa den interakzioaren dimentsio hori. Denis McQuail, barbarako, gisa honetan mintzo zen hedabideen jardunaz «Masa-komunikazioaren prozesua» azpiatalean (1985: 40-41):

(...) la fuente no es una sola persona sino una organización formal, y el 'emisor' suele ser un profesional de las comunicaciones. (...) La relación entre el emisor y el receptor es unidireccional y rara vez recíproca, necesariamente impersonal (...) La distancia social conlleva una relación asimétrica, puesto que el emisor, si bien carece

1. Janowitz, adibidez, *talde espezializatuek* mintzo da masa-komunikazioko mezuen igorleak hizpide hartzean. Ez alferrik, 1968koa da definizioa. Egun, ordea, Dan Gillmor-ek ondo azaltzen duenez (2006), teknologiaren garapenak arlo hori hein batean demokratizatzen lagundu du, talde espezializatuei ez ezik, gizabanakoei zein erakunde xumeei ere aukera eman baitie masentzako mezuak kodetu eta zabaltzeko edota beste batzuen mezuei erantzun eta haiengan eragiteko.

de poder formal sobre el receptor, suele tener más recursos, prestigio, pericia y autoridad².

Basterretxea eta Gonzalezek ere ildo beretik jo zuten (1997: 20):

Masa-komunikazioaren iturria (...) erakunde formal bat da, erakunde formal handi bat. (...) Masa-kultura kontsumo handirako pentsatu da, masa-hedabideek berek zabaltzen duten kultura da, goitik behera hedatzen dena, elite zuzendari batek masa handi bati igortzen diona. Masa-kultura erabat estandarizatua da. Jendeak kultura kontsumitzen du, behiek pentsua legez.

Haatik, hasieran esan dugun moduan, aro digitalak paradigma-aldaketa ekarri du. Dan Gillmorren *We the media* lana da garai berrien bandera-ontzi nabarmene-netariko bat. Hara zer dioen Gillmorrek lan horren hitzaurrean —aipu luze bezain argigarria da— hizpide dugun kontuaren harira (2006: XXIII-XXIV):

In the twentieth century, making the news was almost entirely the province of journalists, the people we covered, or ‘newsmakers’, and the legions of public relations and marketing people who manipulated everyone. The economics of publishing and broadcasting created large, arrogant institutions call it Big Media, though even small-town newspapers and broadcasters exhibit some of the phenomenon’s worst symptoms.

Big Media, in any event, treated the news as a lecture. We told you what the news was. You bought it, or you didn’t. You might write us a letter; we might print it. (If we were television and you complained, we ignored you entirely unless the complaint arrived on a libel lawyer’s letterhead.) Or you cancelled your subscription or stopped watching our shows. It was a world that bred complacency and arrogance on our part. It was a gravy train while it lasted, but it was unsustainable.

Tomorrow’s news reporting and production will be more of a conversation, or a seminar. The lines will blur between producers and consumers, changing the role of both in ways we’re only beginning to grasp now. The communication network itself will be a medium for everyone’s voice, not just the few who can afford to buy multimillion-dollar printing presses, launch satellites, or win the government’s permission to squat on the public’s airwaves.

Prosumer-en garaia da, beraz, gurea: jendea eduki-sortzaile (*producer*) eta kontsumitzaile (*consumer*) da aldi berean.³ Masa-komunikazioaren paradigmatic

2. McQuailek ez zuen aurreikusiko ausaz interakzioarena, baina igarri zion, igarri zionez, gerora etorriko zen beste aldaketa bati (1985: 46): «Si alguna tendencia cabe observar, es la de alejarse de la experiencia “masiva” y de los medios de comunicación “masivos”, pues los nuevos progresos en los sistemas de distribución y la difusión de los medios de comunicación de propiedad particular (cámaras de cine, magnetófonos, computadoras) es probable que reduzcan la distancia entre los emisores y los receptores y que desmitifiquen, a la vez que desmasifiquen, los medios de comunicación de masas».

3. Marshall McLuhan eta Barrington Nevitt-ek 1972an kaleraturiko *Take Today* liburuan iragarri zuten teknologia elektronikoarekin kontsumitzailea ekoizle ere bihurtuko zela. Behin haiek bidea erakutsita, Alvin Toffler-ek *prosumer* terminoa plazaratu zuen 1980an *The Third Wave* liburuan, aurrerantzean ekoizleen eta kontsumitzaileen rola nahasi egingo zirela (are: rol biek bat egingo zutela) iragarrita.

beste paradigma batera igaro garela, alegia: Informazioaren Gizartearen paradigmara. Miquel de Moragas-ek modu honetan azaltzen du jauzi hori (2000: ork. gabe):

(...) estamos en una etapa de tránsito, de la era de la comunicación de masas a una nueva era de la información multimedia y en red. (...) es necesario cambiar el enfoque de nuestra docencia e investigación: no estamos en la sociedad de los *mass media* sino en la sociedad *de la información*. Nuestro objeto de estudio, y nuestro referente para la formación profesional, trasciende ahora a los *mass media* en todas sus direcciones, desde la comunicación interpersonal, hasta la comunicación interactiva, *on line*, por Internet.

Errealitatea dinamikoa dela, berba batean, eta ez fenomeno aldagaitza. Lan honen izenburuan, bestalde, masa-komunikaziotik Informazioaren Gizarterako aldaketarainokoak euskararen bideetan barrena jorratuko ditugula iragarri dugu. Haatik, euskaraz ere gorpuztu den fenomeno ote da bada masa-komunikazioarena? Baietz uste dugu guk. Har dezagun masa-komunikazioaren definio kanoniko bat gure baieztapena arrazoitzeko. John B. Thompson-ek (1998) bost ezaugarri esleitzen dizkio fenomeno horri. Lehenaren arabera, masa-komunikazioak hainbat produkzio- eta hedapen-medio tekniko eta instituzional dauzka bere baitan. Ezaugarri horrek lortu du arreta gehien hedabideei buruzko bibliografia espezializatuan. Horregatik, argi geratzen da hedabideen garapena, lehen inprimatze-tekniketatik egungo telekomunikazio-eremuko garapen berrienetaraino, bere ustiapen komertziala ahalbidetzen duten berrikuntza teknikoetan oinarritu dela. Hau da, masa-komunikazioaren garapena eta industria mediatikoaren garapena banaezinak direla, elkarrekin doazela.

Kontsumo forma sinbolikoen produkzioa da bigarren ezaugarria. Thompsonen arabera, forma sinbolikoen kontsumorako produkzioa balorazio mota zehatz bat da, hau da, objektuei balio jakin bat emateko modua. Forma sinbolikoak bi balorazio motari loturik daude bereziki: balorazio sinbolikoa eta balorazio ekonomikoa. Lehenaren bidez, forma sinbolikoei balio sinbolikoa ematen zaie. Balorazio ekonomikoaren bidez, aldiz, forma sinboliko horiei balio ekonomikoa ematen zaie, merkatu batean trukatu ahal izateko balioa, hain zuzen.

Hirugarren ezaugarriaren arabera, masa-komunikazioan haustura egituratua gauzatzen da: forma sinbolikoen ekoizpenaren eta haien harreraren arteko haustura egituratua, hain justu. Zertaz ari gara, baina? Kontua da masa-komunikazio modu guztietan ekoizpenaren testuingurua hartzailearen testuinguru(eta)tik banatuta dagoela normalean. Hots, ondasun sinbolikoak testuinguru zehatz batean ekoizten direla eta urruneko kokaleku askotarikoetan dauden hartzaileei helarazten zaizkiela. Horren adibide dugu, esaterako, Hollywood. Gugandik hain urrun egonagatik eta filmak urruti ekoitziak izanagatik ere, berauek sorturiko imajinarioak presentzia handia du gure bizitzetan. Mezuak jasotzeko moduari dagokionez, berriz, haustura egituratuak esan nahi du mezu mediatikoen hartzaileak ere aske egotea. Hau da,

hartzaileek mezu batekin nahi dutena egin dezakete, ekoizlea ez baitago bertan interpretazio okerrak zuzentzeko edota ñabardurak eransteko.

Forma sinbolikoen erabilgarritasuna espazioan eta denboran hedatzea da laugarren ezaugarria. Ezaugarri hau hertsiki loturik dago aurrekoarekin; izan ere, hedabideek ekoizpen-testuinguruen eta jasotze-testuinguruen arteko banaketa eragiten dute, eta, beraz, mezu mediatikoak ekoizpen-lekutik urrun jasotzen dira. Ondorioz, normalki, espazioan elkarrengandik urrun dauden gizabanakoek jasotzen dituzte mezuok, eta oso litekeena da denboraz ere ekoizleengandik urrun egotea.

Bosgarren ezaugarriak hizpide ditu forma sinbolikoen zirkulazio publikoak. Industria mediatikoen produktuak erabilgarri daude, printzipioz askotariko hartzaileentzat egon ere. Kopia kopuru handitan ekoizten dira edo hartzaile kopuru handi bati helarazten zaizkio, eta, beraz, mezu horiek jasotzeko bitarteko teknikoak, gaitasunak eta beharrezko baliabideak dituen edonoren esku geratzen dira. Horri gagozkiola, masa-komunikazioa bereizi egiten da beste komunikazio moduetatik —telefono bidezko elkarrizketak edota etxeko bideo-grabazioak, konparazio baterako—, haiek, nahiz eta bitarteko tekniko berberak erabili, hartzailea murriztagora zuzendurik daudelako. Edonola ere, eta printzipioz masa-komunikazioaren produktuak hartzaile ugarentzat eskuragarri egon arren, errealitatean, hainbat arrazoi direla medio, produktuok soilik gizartearen sektore jakin batean hedatuko dira azkenean.

Behin ezaugarriok aztertuta, beraz, berritu dezagun aurrez ere egindako itauna: euskarazko hedabideez mintzo, ba ote dago masa-komunikazioaz berba egitearik? Ñabardurak ñabardura, baiezko erantzuna eman dakioke galdera horri. Azalerari eta biztanleriari so eginda, Euskal Herria ez da oso lurralde handia, ezta eremu jendetsua ere. Eta zifra horiek are murriztagoak dira euskaldunetz (euskal hiztunetz) ari garenean. Hala ere, Thompsonnek ezarritako lehen bi ezaugarriekin ez dago zalantzarik: batetik, euskarazko masa-komunikazioak ere hedapenerako bitarteko tekniko eta instituzionalak ditu bere baitan, eta, bestetik, euskaraz ere kontsumo-forma sinbolikoen ekoizpena gertatzen da eta merkatuan trukutzen dira produktu horiek.

Elkarrekin estuki loturik dauden hirugarren eta laugarren ezaugarriei gagozkiela, baina, zehaztasunen garrantzia areagotu egiten da, Euskal Herrian ekoizpen-testuingurua eta hartzailearen testuingurua ez baitaude elkarrengandik oso urrun, ez baitago mezuak lekutara helarazi beharrik. Dena dela, Euskal Herrian ere bada kilometrorik iparretik hegora, mendebaldetik ekialdera, baita distantzia sozio-kulturalik ere eremu ezberdinen artean. Urruntasun hori areagotu egiten da, gainera, diasporari, mundu globalari erreparatzen badiogu: gero eta euskaldun gehiago bizi dira mundu osoan zehar barreiatuta (Argentinan, AEBetan, Txinan, nongura), eta haiengana ere ailegatzen dira euskaraz ekoiztiriko produktuak.

Hartzaile kopuruari dagokionez (Thompsonen aipaturiko bosgarren ezaugarria dugu hizpide honenbestez: forma sinbolikoen zirkulazio publikoa, hots, produktua kopia kopuru handitan ekoiztea edo hartzaile kopuru handi bati helaraztea), komunitate txiki samarra da euskaldunena, baina gero eta masa itxura handiagoa hartzen ari da: CIES etxeak 2009ko maiatzaren 20an ezagutarazitako datuen arabera⁴, berbarako, EITB taldeko euskarazko irratiek 200.000 entzule baino gehiago zituzten aste barruan Nafarroan eta EAEn (Ipar Euskal Herriko entzuleak zenbatu barik, beraz): 105.000 Euskadi Irratiak eta 98.000 Euskadi Gazteak (EITBkoek EITB Irratia musika-katearen 20.000 entzuleak ere zaku horretan sartu zituzten, baina kate horretan euskara bezainbat gaztelania entzun daiteke); ETB 1-i, berriz, 197.000 ikusle eman zizkion (Ipar Euskal Herriko ikusleak gehitu behar zaizkio zifra horri); CIESen 2009ko lehen ikerketa horrekin jarraituz, bestalde, *Berria* egunkariak 79.000 irakurle zituen egunero: 64.000 paperean eta 15.000 gehiago webgunean (www.berria.info); produktu horiek eta beste batzuk kudeatzen dituen Euskarazko Komunikazio Taldeak (EKT) 2008ko uda-atarian martxan jarritako *Iragarki Laburrak* proiektuak ere masa-produktuaren tankera dauka: iragarki merkeen euskarazko atari horrek 100.000 aleko botaldia daukan paperezko produktua du osagarri. Topagunea Euskara Elkartearen Federazioan bildutako aldizkarien paperezko edizio guztien artean ere 135.000 etxe ingurura iristen dira. Eta liburugintzari dagokionez, ere aintzat hartzeko moduko zifrak daude: Harry Potter-en bildumako lehen liburuaren euskarazko itzulpena, esate baterako, 17.000 ale saltzera ailegatu zen. Euskarazkoari buruz ari garela ere, beraz, eta eskala txikian izanagatik, badago masa-komunikazioari buruz jarduterik.

Behin puntu honetara iritsita, ohar bat egin beharrean gara liburu honen egi-leok: lan honen zati handi batean masa-komunikazioaz dihardugun arren, aztergaietatik at utzi dugu musika. Arrazoi bi izan ditugu horretarako: batetik, aditu guztiak ez datozelako bat musika-ekoizpena masa-komunikazioaren alorrean sailkatzerakoan (ikus, adibidez, McQuail, 1985: 37: «(...) no siempre se considera que la música grabada constituya un medio de comunicación de masas diferenciado»); eta, bigarrenik, ikerlana ahalik eta gehien zedarritu eta gure ahalmenaren neurrira ekarri gura genuelako.

Puntuok argituta eta ikergaia definituta, beraz, masa-komunikazioaren estreinako urratsei begira jartzeko moduan gara dagoeneko.

1.2. MASA-KOMUNIKAZIOAREN LEHEN ADIERAZPIDEAK

Informazioa finkatzeko eta garraiatzeko gizakiak abian jarri dituen aurrerapenen artean, tipo higikorren inprimategia izan da aipagarriena, hots, hedabide idatzien geroragoko aurrerapen guztiak baldintzatu dituen inprenta modernoa.

4. Ikus horri buruz <<http://www.eitb.com/korporatiboa/albisteak/osoia/151859/eitbko-irratiek-miloi-erdiko-marka-hautsi-dute>>.

Ekialde Urrunean agertu zen testuak behin eta berriro egiteko eta erreproduzitzeko joera; Txinan egin zen, hain zuzen ere, lehen kopiatze-saioa, Konfuzioren testuak kopuru handitan kaleratzeko. Aldez aurretik landuriko egurrezko oholtxoen bidez egin zen erreprodukzio hura. Hala ere, Ekialdean ez baina, Mendebaldean garatu zen bereziki erreprodukzioa. XV. mendera arte eskuz kopiatzen zen informazioa Europan, baina kultura-ereduak aldatzen hasteak eta Mendebaldeko dinamikotasunak iraultza ekarri zuten hainbat urte geroago komunikazio idatzien esparrura⁵.

Izan ere, Ekialdeko tipo mugikorren teknika Mendebaldeko beharretara egokituta, Johannes Gutenberg alemaniarrek asmatu zuen inprimategi modernoa 1450 inguruan, eta asmakizun horren bidez bermatu zen XVI. mendean izkribuak kopuru handitan egin ahal izatea, paperean edo beste edozein materialetan. Edonola ere, XIX. mendera arte liburuen produkzioa artisauen lana izan zen, testuak banan-banan antolatu eta eskuz bustita inprimatzen baitziren orriak. XIX. mendean inprimategiak mekanizatu egin ziren eta kalitatea nabarmen hobetu zen. Kulturaren ekoizpena industrializatzen hasi zen eta liburua masa-produktu bilakatu zen. Liburuen ekoizpenak gora egin zuen eta ekoizpen-kostuek, aldiz, behera.

Inprimategiaren garapena Euskal Herrira ekarrita, lehen inprimategia 1492an sortu zuen Iruñean Arnaldo Guillermo Brocar-ek.⁶ Euskal Herrian inprimaturiko lehen liburua, berriz, Joan Frantzisko Tornamira tuterarrak medikuntzari buruz idatzirikoa izan zen. Brocarrek Iruñetik alde egin behar izan zuen, ordea, eta Miguel Egia Lizarrakoak —famiaren ikasle eta koinatua zenak— bigarren moldiztegia jarri zuen martxan, Iruñean bertan. *Vocabularium ecclesiasticum* izan zen bertan argitaraturiko lehen lana. Adrian Anversen eskuetatik igaro zen moldiztegia ondoren, eta 1583an Pedro Borgoña soldaduak erosi zuen.

Bizkaian 1577an zabaldu zen lehen inprimategia, Matias Maresen zuzendari-tzapean. Gipuzkoan, bestalde, 1585. urtera arte itxaron behar izan zen lehen liburua argitaratzeko; oititz-liburu bat, hain zuzen ere. Iparraldeko hiru herrialdeak eta Araba izan ziren inprimategien garapenean azkenak. Baionan 1642an zabaldu zen lehen inprimategia eta Gasteizen, berriz, 1722an.

5. McQuailek, adibidez, hauxe dio (1985: 21): «La historia de los medios de comunicación modernos comienza con el *libro impreso*, que sin duda fue una especie de revolución». Briggs eta Burkek, dena dela (2002: 34-35), uste dute iraultza hori ez zela bat-batekoa izan, prozesu luze bat baizik, eta, horregatik hain justu, galdera egiten dute puntuan: iraultza bat bizkorra, bat-batekoa ez bada, benetan ote da iraultza? Interesgarria, era berean, McQuailek dioen beste gauza bat (1985: 21): inprimatzea, berez, lehendik ere kopiatzen ziren testuak ugariago erreproduzitzeko teknika bat baino ez zen izan hasieran, eta gerora baino ez zituen ekarri eduki-aldaketak (liburu sekularragoak, praktikoagoak, herrikoigoak, herri-hizkuntzetan idatziak), gradualki ekarri ere. Hedabide gehienekin gauza bertsua gertatzen ez ote den (lehenbizi teknologia garatu, horrek masa-komunikaziorako izan ditzakeen ondorioetan erreparatzeke, eta gero etorri aplikazioak —eta eduki-aldaketak— masa-komunikazioan), hori datorkigu burura, bereziki iratiaren eta Internet sarearen sorrera-garaiak gozotan izanda.

6. Joan Mari Torrealdaiak diokunez (1997: 69) «(...) lehen euskal liburua atera zenerako Euskal Herrian bazen inprimategirik. 1489tik dago Brocar Iruñean (...)».

Euskaraz idatziriko estreinako liburuen berri izateko, ordea, euskal mugetatik kanpora egin behar dugu; Okzitaniara, zehazki. Haren izenburuak argi adierazten duen moduan, Etxepareren *Lingua vasconum primitiae* izan zen euskaraz inprimaturiko lehen liburua. Bordelen ikusi zuen argia, 1545ean. Joanes Leizarragaren Biblia ere (Joana III.a Albretekoa buru zuten protestanteek sustaturiko *Iesus Christ Gure Iaunaren Testamentu Berria*) Arroxelan argitaratu zen lehen aldiz, urte batzuk geroago (1571n).

Idazkiak kopuru handiagoan ekoizteko zegoen aukera aprobetxatuta, XVII. mendean lehen almanakak (ipuinak, laborarientzako aholkuak, efemerideak, anekdotak, erlijio-kontuak eta antzekoak bildu ohi zituzten urtekariak) eta egutegiak sortu ziren Europan. Almanakak maiztasun erregularra izan nahi zuten, argitaratzen zuten informazioa askotarikoa izatea zen haien helburua, publikoak ziren eta kalean zuzenean banatzen zitzaizkien herritarrei, zirkulu itxietatik kanpo. Hiru aitzindari nagusi dituzte almanakak: Samuel Dilbaum-ek Ausburgen 1597az geroztik kaleratzen zuen informazio-hilabetekaria, 1605ean Anberesen argitaraturiko merkataritza-hamaboskaria eta 1620an karrikaturiko Londresko astekaria.

Protoprentsa horri esker nabarmen areagotu zen iritzi politikoak plazaratzeko aukera, eta horrek ardura sortu zuen agintarien artean; izan ere, bai botereak eta baita boterearen aurkako disidenteeek ere euren helburuak eta ideiak helarazteko tresna berria zuten erabilgarri. Ondorioz, prentsaren hazkundera prentsaren jazarpenarekin edo prentsaren aurkako errepresioarekin batera garatu izan da beti, botereak bere betebeharrak bezala hartu izan baitu une oro prentsa kontrolatzea.

Le Journal de Paris izan zen Frantzian argitaraturiko lehen egunkaria; 1777an ikusi zuen argia. Frantziako Iraultzak prentsa-askatasunaren aldeko jarrera erakutsi zuen beti, nahiz eta behin Iraultza gauzatuta gobernu berriak beraren aldeko prentsa baino *askatu* ez. XVIII. mende amaiera hartatik aitzina aurrerapen teknologiko ugari gertatu ziren, eta baliabide berri horiek posible egin zuten abiadura handiko prentsa. Burgesiak, kinka berri horretan, bere helburu politikoak lortzeko tresna gisara erabili zuen prentsa. Langileriak, aldiz, nahikoa lan izan zuen hasiera batean (industrializazioaren eztanda-garaian) prentsaren babesa topatzen, ezarian-ezarian fenomeno berriari neurria hartu eta bere argitalpen propioak kaleratzeari ekin zion arren.

Klase ertainaren garrantzia areagotzearekin batera ailegatu zen egunkarien urrezko aroa Ipar Amerikara. Industrializazioarekin batera klase ertain hori *publiko* bihurtu zen eta albiste egarri itzela zeukan: hasieran gai ekonomikoetara mugatzen zen egarri hori, baina, ondoren, gainerako albisteetara ere hedatu zen: gai politikoak, literarioak eta abar.

Editoreek prentsa ulertzeko zuten modua ere apurka-apurka aldatzen joan zen eta horrek eragin handia izan zuen prentsaren garapenean eta hedapenean, ordura

arte harpidetza bidez jardun bazuten ere, egunkari merke eta deigarriak kaleratzeko erabakia hartu baitzuten. Ondorioz, klase ertaina ez baina masak hartu behar zituzten gogoan egunkari berriek. Egunkarien garapen eta iraultzatxo hori, espero baino motelago ailegatu zen, XIX. mendean. Benjamin Day editorea izan zen estilo berri horretan arrakasta izaten lehena. 1833an *New York Sun* argitaratu zuen, harpidetzarik gabe kalean saltzeko. Herritarren artean babesa jaso zuen eta lehen egunetik bertatik hiriko albisteak, gizarte-gai eta erreportaje sentsazionalistak plazaratu zituen. Beste egunkarientzat eredu bilakatu zen *New York Sun*. Hamarkada ugari iragan dira ordutik eta prentsak bere bidea egiten jakin du, nahiz eta egun bizi duen egoera zalantzasz beterikoa izan. Ez alferrik, unibertso elektronikoaren etorrerak bere burua berrasmatzera behartu du ohiko kazetaritza. Haatik, horiek beste kontu batzuk dira eta aurrerago jorratuko ditugu. Gatozen orain bueltan prentsaren sorrera-garaietara eta pausa dezagun soa Euskal Herrian.

1.3. MASA-KOMUNIKAZIOAREN AURREKARIAK IPARRALDEAN ETA HEGOALDEAN: ALMANAKAK

Almanakak ezinbesteko erreferentziak dira euskarazko kazetaritzaren hastapenez mintzatzerakoan; egin kontu Ipar Euskal Herriko kazetaritzaren protohistoria (baita orokorrean Euskal Herri osokoa ere) almanakekin hasi zela. Hainbat kasutan almanakak egutegi soilak izan baziren ere, haien helburu nagusia informazioa helaraztea zen. Kontuak kontu, euskarazko almanaken lehen adibideak ez ziren egutegi hutsak baino askoz gehiago. Joanes Leizarragarena zen *Kalendrera*, euskaraz idatzi eta 1571n argitaraturiko lehen almanaka. Hego Euskal Herrira etorrita, Jose Pablo Ulibarri arabarraren egutegia aipatzea ere badago. Politikari eta idazle euskaltzale⁷ hura Bilbon bizi zen 1815. urtean eta *Egutegi eusquerazcoa erderazcotik itzuliya, Vizcai, Guipuzcoa ta Arabaco Proviñziarentzat, 1815garren urteraco* kaleratu zuen. Arazo ekonomikoak zirela medio, ordea, Ulibarriren egutegi hark ez zuen jarraipenik izan.

Nolanahi dela, almanakak ezinbesteko erreferentzia diren moduan, halaxe dira baita errelazioak ere. Maria Gonzalezek dioenez (2008: 14), «noizbehinka argitaratutako orriskak batzuk» ziren, eta horrelako batean atera zen euskaraz emandako lehen albiste, 1766an:

Frantziako Errege Luis XVI.aren aitaren heriotzaren berri emateko, frantsesez idatzitako bederatzi orriko itzulpena da. Honela zuen euskarazko titulua: '*Jaun Dauphin cenaren eritassuneco circunstancia berecien errelacionea, haren coffessorac argitara emana*'. Baionan argitaratuta, lapurteraz idatzita, Iparraldeko euskaldunek Frantziako erregearen aitaren azken egunak nolakoak izan ziren jakin ahal izan zuten.

7. Harluxet Hiztegi Entziklopedikoak dioskunez (1995: 3.111), Ulibarri «Gernikako batzarretan Abandoko ordezkari (1814, 1829) eta erregidore (1829, 1836) izan zen; kargu horretan, eskoletan euskaraz irakats zedin ahaleginak egin eta laguntza ofiziala lortu zuen 1836an».

Hona, beraz, euskarazko lehen albiste horren pasarte bat, kontuari traza har diezaiozun, irakurle (Gonzalezek aipatua in 2008: 14):

Ene desseinua ez da, agueri den beçala, Jaun Dauphinaren historia iscribatcea (...). Contentatuc-naiz explicatceaz, manera simple eta lano batean, haren azquen circunstancia bereciac (...)

Abendoaren hamabortcetic hamaseiraco gaüa hainitz içan-cen tcharra. Printceac erakharri-ninduen goiceco sei orenetan, eta nahi-içan-çuen iaquin ene ganic cer cioten haren estatuaz.

XIX. mendea aurrera joan ahala, bestalde, Gipuzkoan eta Bizkaian beste komunikazio mota batzuk ere agertu ziren, Karlistaldiekin batera bereziki. Gerra-egoera hartan bertsoak ohiko komunikazio-bide genituen, ezen, toki guztietan eza-gutu eta kantatzen zituztenez, propagandarako tresna interesgarriak baitziren. Bertso propagandistikoek gain, ordea, bazen bertso informatiborik ere. Ahoz aho ibiltzetik paperetarako jauzia egin eta inprimatu ere egiten zituzten sorta horiek. Ondoren, bertso-paperak merkatu, feria eta herri guztietan saltzen zituzten; irakurleria berri baten agerpena izan zen hura. Euskarazko prentsa sortzeko momentua iritsia zen, horrenbestez.

Liberalak izan ziren euskaraz idatzitako prentsaren aitzindari eta haiena izan zen lehenengo euskal aldizkariaren proiektua. Bidean galdu zen asmo hura (euskarazko argitalpena kaleratzeko Espainiako Isabel II.a erreginaren baimena ere lortu zuten; ikus horri buruz Diaz Noci, 1995: 30-31; ikus, halaber, Gonzalez, 2008: 15), baina 1834an *El Correo del Norte* aldizkarian lehen aldiz euskarazko testuak argitaratu ziren. Aldizkaria Donostiako liberalena zen eta astelehenero eta ostiralero kaleratzen zen Ignacio Ramon Barojaren inprimategitik. Euren mezua eta ideiak Gipuzkoako nekazariengana ailegaraztea zuten helburu liberalek⁸, baina ez zuten eragin handiegirik izan. Banaketa-arloan zituzten arazoak argudiatuta, urte bereko ekainean bertan behera geratu zen aldizkariaren argitalpena.

Orain arte esanikoak argi uzten duenez, euskarazko prentsa une historiko jakin batean sortu zen, modernizazioaren ezaugarriak bereganatzen ari zen gizarte berria eraikitzen hasi zen unean, hain zuzen. Ideien polarizazioa handia —gero eta handiagoa— zen gizartean, eta, giro horretan, publizitate, propaganda eta informazioarako tresna gisara jaio zen prentsa, bai Hego Euskal Herrian, baita Ipar Euskal Herrian ere (nahiz eta mugaz bi aldeetara egoera oso ezberdina izan). Gatazka horien lekuko eta bozeramaile izan zen prentsa.

Euskarazko lehen testuetatik harago, Agustin Xahoren ekimenez heldu zen 1848an euskara hutsezko lehen kazeta: *Uscal Herrico Gaseta*. Astekari izan nahi

8. Tankera honetako mezuak idazten zituzten horretarako (1834ko maiatzaren 5eko zenbakikoa da ale hau, Gonzalezek jasoa in 2008: 15): «Erritar maiteac, zuben biziyac eta zubez dezuten guzia galdutzero zuazte, ez sinistu esan disquitutzen gaucic».

zuen kazeta hark, baina soilik bi aldiz kaleratu zen, bi hilabetez jarraian. Frantzia eta Espainiako albisteak bazekartzan ere, garai hartan ohikoa zen legez, iritzia zen nagusi *Uscal Herrico Gasetan*. Xahoren gogoia ere Ipar Euskal Herriko nekazariengan eragitea zen, nekazarien iritzia apaizen —*xurien* edo erreakzionarioen— menpe baitzegoen⁹. Horregatik hain zuzen, erradikala eta errepublikazale samarra izan zen Xahoren *Gaseta*.

Nolanahi dela, XIX. mendea almanaken mendea izan zen, ezen hurrengo atalean sakonago aztertuko dugun Xahoren ahaleginetik harago, 1880ko hamarkadara arte urteroko almanaketara (eta arestian aipaturikoaren gisako errelazio solte bakaretara) mugatu baitzen euskarazko kazetaritza. 1848an (*Uscal Herrico Gasetaren* argitaratze-urte berean), esate baterako, Jean-Baptiste Etxeberrri apaizaren *Escualdun laborarien adiskidea* almanaka argitaratu zen. Lehen urtean egutegi hutsa izan zen, baina ondorengo urteetan politika-gaietan murgildu zitzaigun eta, ondorioz, informazio eta iritzia asko ugaritu ziren bere orrialdeetan. 1852an, aldiz, *Egunari berria edo conseillu oneco almanaca* errepublikazalea sortu zen euskal mugetatik kanpo, Pauen. Euskal errepublikazale ugari bizi zen bertan eta haiek izan ziren proiektuaren bultzatzaileak. Pare bat hamarkada geroago, 1879. urtean, errepublikazaleekin egiten dugu topo berriro, *Almanaca berria edo egunaria* kaleratu baitzuten Baionan.

1880ko hamarkada oso emankorra izan zen Ipar Euskal Herrian euskarazko komunikabideei dagokienez. 1885 eta 1886an, berbarako, *Escualdun almanaca edo egunari berria* agertu zen Baionan. Bi urte geroago, 1888an, *Armanak Uskara* almanaka, kasu honetan Zuberoan. *Xurien* ideologia hedatzeko tresna garrantzitsua izan ziren almanaka horiek, Frantziako Errepublikako agintariek bultzaturiko legeen aurka gogor egiten zuten-eta (hurrengo atalean jorratuko dugu sakonago gai hori). XIX. mendea agortu eta XX. mendean sartu arren, almanaka *xuriek* jarraitu egin zuten, polarizazio politikoa bortitza baitzen oraindik.

Muga igaro eta Hego Euskal Herrira jauzia eginda, XIX. mendean Ipar Euskal Herriko almanakak baino garrantzi politiko gutxiagoko almanakak topatzen ditugu bertan. Oro har, egutegi hutsak izan ziren Hegoaldekoak, baina bazen almanaka literarioen bat ere, Serafin Barojarena kasu. Bizkaian, lehenago aipaturiko Ulibarrirenaz gain, 1858 eta 1859. urteetan *pronosticuac* deituriko bi almanaka argitaratu zituen Josef Gorosabelek¹⁰. Astrologiarekin lotuta zegoen, bestalde, 1865

9. Gonzalezek ondo dioenez (2008: 16), «Iparraldean, xuri ezizenarekin erlijioso eta kontserbadoreei esaten zitzairen. Gorriak, aldiz, errepublikazaleak eta liberalak ziren, 1789ko Iraultzaren aldekoak, baina Napoleon Enperadorearen aurkakoak. Irain moduan, xuriek gorriei sozialista eta komunista esaten zieten».

10. Gorosabelen 1859ko almanakak (*Eusquerasco, pronosticua milla ta zorcireun ta iruro gueiraco Vizcairaco, Guipuzcuaraco ta Aravaraco. Eta dá ateria icusbide luce batzuc daucazan Mendi altu batetic, derichona hermita bat Santa Eufemia. Eta da Medicua Arlabanco erditic. Aurtengo urteraco dauca epactida zazpi, 1859*), berbarako, tankera honetako testuak zekartzan (Gonzalezek aipatua in

eta 1866an Tolosan kaleraturiko *Euscaldun necazarien adisquidea eta guitaria* almanaka ere. Besteren artean «Demboraldi sonatuac», «Temporac», «Arguigueac edo eclipsea» eta «Feriac eta mercatuac» izenburuak zituzten almanaka horren hainbat atalek. Almanaka serioa izatea zuen helburu, eta baita nekazariak euskaraz irakurtzen ohitzea ere.

Euskarazko kazetaritzaren hastapenak ulertzeko ezinbestekoa da, beraz, Euskal Herrian sorturiko almanaken berri izatea, eurek ireki baitzizkioten atea euskal prentsa sendoago eta serioago bati. Euskal prentsa horrek Euskal Herrian zein hasiera eta garapen izan zuen azaltzen saiatuko gara, hain zuzen, hurrengo atalean.

ATALEAN BALIATURIKO ITURRIAK:

- Basterretxea, J. I. eta Gonzalez, M. (1997): *Semiotika eta masa komunikazioa. Panorama europarra*, UEU, Bilbo.
- Basterretxea, J. I. (2002): *Kultura-aniztasuna eta gizarte-komunikazioa*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- Briggs, A. eta Burke, P. (2002): *A social History of the Media. From Gutenberg to the Internet*, Polity Press, Cambridge. Gaztelaniaz in *De Gutenberg a Internet. Una historia social de los medios de comunicación*, Taurus, Madril.
- Diaz Noci, J. (1995): *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Gillmor, D. (2004): *We the media. Grassroots journalism, by the people, for the people*, O'Reilly, Sebastopol (Kalifornia) [paperezko azaldun argitalpena, 2006].
- Gonzalez, M. (2008): *Euskal Herriko prentsa. XVIII. mendetik 1945era*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.
- Klaudio Harluxet Fundazioa (1995): *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa*, Klaudio Harluxet Fundazioa, Donostia.
- Moragas, M. (2000): “Las Facultades de Comunicación en el umbral de la era Internet”, *Chasqui. Revista Latinoamericana de Comunicación*, **72**. [lineal] 2009-10-15eko kontsulta: <<http://www.monografias.com/trabajos912/las-facultades-comunicacion/las-facultades-comunicacion2.shtml#xloscam>>.
- McQuail, D. (1983): *Mass communication theory. An Introduction*, Sage, Londres [Gaztelaniaz *Introducción a la teoría de la comunicación de masas*, Paidós Comunicación, Bartzelona, 1985].

2008: 17): «[...] Aurtengo urte onec / asco emoteco. / Labrancia goxectic / ondo eguiteco. / Berandu dabiliena / ezdala seguru / neure borondatia / onetara dozu. / Egurra ta icatza / gambaran daucanac / ahi ce aundija potza / echian sartubac. / Baña onetaraco / eguin aleguiña / cergaitic izango dan / guztien premiña. / Contuac etarai zus / cer esan nai dodan / aleguiñac eguizus / dempora onetan [...]».

Ortega y Gasset, J. (1998): *La rebelión de las masas*, Castalia, Madril.

Thompson, J. B. (1995): *The media and modernity. A social theory of media*, Stanford University Press, Cambridge [gaztelaniaz *Los media y la modernidad*, Paidós Comunicación, 1998, Bartzelona].

Torrealdai, J. M. (1997): *Euskal kultura gaur. Liburuaren mundua*, Jakin, Donostia.

2. XIX. mendearen amaiera: euskarazko prentsa abian Ipar eta Hego Euskal Herrian

2.1. EUSKARAZKO PRENTSAREN HASTAPENAK IPAR EUSKAL HERRIAN

XIX. mendearen amaieran abiatu zen euskal prentsa (hots, gurean zein atzerrian euskaraz edo nagusiki euskaraz idatzitakoa). Aurrekarien artean nabarmenena (almanaka eta errelazioez gain) aurreko atalean aipatu dugu: Agustin Xahoren *Uscal Herrico Gaseta*. Atharratzeko semea borroka politikoan buru-belarri murgilduta zebilen eta bere ideia ezkertiarak haizatzeko *Ariel* izeneko kazeta eman zuen argitara 1844an. 1852ra arte iraun zuen frantsesez idatzitako kazeta horrek. Haatik, 1848an, urte hartako iraultza burgesaren zurrunbiloan propaganda-lana modu eraginkorragoan egin guran, bere mezua euskaraz ere zabaltzea otu zitzaion Xahori; asmo horri jarraiki, *Arielen* anaia bizkia, *Uscal Herrico Gaseta*, plazaratu zuen.

Kazetaritza euskaraz egiteko desafioari ekitearekin batera, bestalde, hizkuntza estandar bateratuaren faltak eragindako arazoei egin behar izan zien aurre Xahok. 1848ko ekainaren 30eko datarekin *Uscal Herrico Gasetaren* lehen zenbakiko 2. orrialdean kaleraturiko testu honek, esate baterako, Axularrek *Geroren* hasieran azaleraturiko kezka hura dakarkigu gogora (Gonzalezek aipatua in 2008: 16):

Hobe liçate guisa-batez gouretaco, hobequi counprenituric içateco, Uscara-bat-baïcic ezpaliz; eta horren-gagnen, erran ahal dioquegu, goure aberatstarçunian praübe guirela. Cer eguin? Ahal beçala imprimatu, batian Ciberoutarra, bestian Bache-Nabartarra, Laphourtarra edo Guipuzcoarra, iracourçaliac Uscara subertiac oro balaquitça beçala, eztaquitçanac ikhasbitça.

Gainerakoan, honako hauek ziren Xahoren xede nagusiak: ideia errepublikazaleak hedatzea, *Ancien Regime* delakoaren kontra egitea eta bere hautagaitzaren aldeko kanpaina sustatzea (politikan sartuta baitzebilen atharraztarra). Haatik, nola erlijioak hala ideia tradiziozaleek gotorleku sendoa zeukaten garai hartan Ipar Euskal Herrian; pentsatzekoa da, hortaz, Atharratzeko semearen testuek zer esana emango zutela. *Gasetaren* 2. zenbakitik hautaturiko lagin honek, adibidez (Gonzalezek aipatua in 2008: 16):

Bakhotçac bere oficio: apheça eliçan, redactorea bere gasetan. Etcitalia ocupa goure mundu hountaco aferez, nahi ezpaduçu çoure beste munduco eta Erreligioneco sinhestiaz ocupa guitian. Gaseta eguille jalkhitcen bacira, ni pheredicari bilha niteçu, eta beharbada, nour nahic beçain ountsa erran dioquçut noun den Ifernia, noun den Pharadusia.

Kontuak kontu, aurreko atalean aipatu bezala, saio anekdotiko samarra izan zen, idazki politiko-propagandadunetz jositako bi zenbaki baino ez baitzitu argitara eman (urte hartako ekain eta uztailean). Edozelan ere, bidea urratzen hasi izanaren meritua aitortu behar zaio.

Aurreko atalean ikusi dugu, bestalde, zelan hasi ziren agertzen euskarazko almanakak (ipuinak, laborarientzako aholkuak, efemerideak, anekdotak, erlijio-kontuak eta antzekoak bildu ohi zituzten urtekariak), kasu askotan Xahok eta beste hainbatek zabalduzako ideiei aurre egin eta mundu-ordena zaharrari eusteko asmoz (*Gaseta* plazaratu zen urte berean, esate baterako, Uztaritzeko Etxeberri abadeak bere almanaka kaleratu zuen). Saio horietatik ateratako produktuek, hala ere, ez zeukaten gutxieneko maiztasunik kazeta modura bataiatu ahal izateko.

Azpimarragarria da, horrez gain, orain arte aipatu ditugun aurrekari guztiak Ipar Euskal Herriko jendearen ekimenez jaiotakoak izatea (lehen liburuak ere halaxe sortu ziren, Juan Perez Lazarragaren izkribuen salbuespenarekin). Halaxe sortu zen, halaber, nagusiki euskaraz ondutako estreinako kazeta ere: *Eskualduna*, 1887an plazaratua¹¹. Zein ingurumaritan sortu zen, baina, *Eskualduna*? Polarizazio politiko itzela indarrean zen sasoiari: Hegoaldean karlisten eta liberalen arteko borrokekin bezala, Iparraldean ere gizartea zatituta zegoen. Errepara diezaiozun, batetik, botere-esfera guztiak lortu eta merkatuak zabaldu guran zebilen burgesiaren oldarrari: ordukoa da ezkontza-hausteei buruzko lehen legea, orduan hasi ziren halaber erlijio-ikurrak toki publikoetatik kentzen, eskola laikoak ere gero eta indar handiagoa zeukan...

Egitate horiek guztiak Ipar Euskal Herriko gotorleku tradiziozalean hedatu guran, Paueko errepublikazale talde batek *Le Réveil Basque* izeneko astekaria atera zuen Baionan 1886an. Astekari horren herena inguru euskaraz zetorren. Ez zen hura momentu jakin bateko beroaldia, arnasa luzeko egitasmoa baizik: 1894ra arte astero-astero ideia berriak hedatzen jarraitu zuen *Le Réveil*ek. Bere jarrera ez zen, ordea, batere muturrekoa; 1887ko urtarrilaren bigarreneko azalean agerturiko testu hau dugu esandakoaren adibide (Gonzalezek aipatua in 2008: 20):

Réveil Basque da jurnal bat sinheste guziak errespetatzen dituen, erreligioneari batere gerlarik egin gabe. Nahi du bakea eta unioea; nahi du Frantziaren handitasuna ta fortuna; ezin gehiago da atchikia Frantziari eta Eskual Herriari [...]

Bere tonu leuna gorabehera, *Le Réveil Basque* min egiten zien hainbati, eta, haren eraginari zelan edo halan aurre egin behar ziotela-eta, *Eskualduna*

11. Izan zen pare bat urte lehenago (1885ean) hiru zenbaki kaleratu zituen beste euskarazko kazeta bat ere: Martin V. Bizkailuzek Kalifornian argitara emaniko *Eskualdun Gaseta* (aurrerago egingo dugu berba berari buruz, 2.3. azpiatalean). Haatik, nola Xahoren ahaleginari hala Bizkailuzenari dagokien meritua aitortu arren, saiok, *Eskualdunak* ez bezala, hastea besterik ez zuten egin, ez ziren gutxieneko iraupenera iritsi. Horregatik *Eskualduna* nagusiki euskaraz kaleraturiko estreinako kazeta sendo modura jotzearena.

hamaboskaria (astekari bihurtu zen gerora) sortu zuten Baionan bertan, Luis Etxeberri Donazarreko diputatugaia buru zutela. Erlijio katolikoa, errepublikaren aurkako jarrera¹², familia eta tradizioa ziren haren ardatzak, eta euskara baliatu nahi zuten mundu-ordena berriaren aurkako babes-hesi modura.

Izan ere, *Eskualdunan*, *Le Réveil* ez bezala, euskara zen nagusi (3/4 inguru). Nagusitasun hori areagotu egin zen Jean Hiriart-Urruti kazetan idazten hastearekin batera (1891 aldean). Euskaltzalea zen Hiriart-Urruti (hori argi geratzen da haren idazkietan; kazetak berak ere, bere mantxetaren aldamenean, Iparragirrenen esaldia eraman ohi zuen sorrera-urteetan: «Herrialde guzietan toki onak badira / bainan bihotzak dio: zoaz Eskual-herrira») baina ez abertzalea, edo ez euskal abertzalea behinik behin. Frantzia zen haren aberri maitea eta oroz gain defendatu zuen hori; hori dela-eta, Xipri Arbelbide kazetariak (1996: 46) *Eskualduna* «muñetara-dino ideologiaz frantsesa» zela deritzo (12. oin-oharrean paratu dugun testuak ere ematen du hori ondorioztatzeko biderik).

Edozelan ere, 1903an jabez aldatu zen aldizkaria eta, ondorioz, sendotu egin zen Hiriart-Urrutik bertan zeukan aginpidea. Kontua da apezpikuarekin izaniko haserrealdi batzuen ostean Luis Etxeberri (hasierako buruzagiak) kazeta utzi egin zuela eta Nicolas d'Arcangues jabetu zela hartaz. Etxeberri, ordea, *Eskualduna* izena berak erregistraturikoa zela esan eta hura erabiltzea debekatu zien. Horren ondorioz, 1903 eta 1908 bitartean *Eskualdun Ona* izenez plazaratu zen astekaria, harik eta 1908an Etxeberri hiltzean haren alargunak berriz jatorrizko izenez baliatzeko baimena eman zien arte.

Hiriart-Urrutik, gidaritza hartzeaz batera, zenbait aldaketa bultzatu zituen: batetik, euskararen erabateko nagusitasunari bide eman zion, eta, bestetik, informatiboago bihurtu zuen kazeta, horretarako berriemaile-sare zabala eratuta (horri eta laborantzari, jaiei eta tokian tokiko albisteei leku asko eskaini izanari esker, produktua sakon errotu zen orduko Ipar Euskal Herriko gizartean). Ez hori bakarrik: zuberotarrak ere bildu zituen manexen aldamenara eta aldizkariaren ortografia bateratu zuen.

Aldaketa horiek guztiek begi-bistako eragina izan zuten. Egin kontu 1903an 1.000 bezero inguru zituela aldizkariak; 1907rako, aldiz, 7.000 inguru ziren jada (gehien-gehienak Ipar Euskal Herrikoak; alderaketa argigarri bat: mende bat georago, 2003an indarrez itxi zuten unean, euskara batuta eta administrazioan eta hezkuntzan sartuta ordurako, Euskal Herri guztiko 11.000 bezero zeuzkan

12. Hara zelán mintzo zen 1887ko urriaren 24ko zenbakiko azalean (Gonzalezek aipatua in 2008: 21): «Europako populu guciac gidatiac izan dira Erreguez edo Emperadorez (...). Ochala! Guc ere Errege edo Enperadore bat bagindu gidaritaco! Bainan, ehun bat urthe huntan, Frantzia gaichuac ikhusi ta hirur erreboluzione izigarriez bere Erregue edo Emperadore maiteac desterratuac, eta heien plazan hirur Errepublica. Bethi eta bethi Frantziaren caltetan izan da ezic Errepublicac ez daucu ekhari nahaskeria, inyustizia eta miseriaric beizic».

Euskaldunon Egunkariak). Oinarriak sendo jarrita zeuzkan, beraz, 1887an abiarazitako *Eskualduna* proiektuak (kazeta horri eta bertan Hiriart-Urrutik kaleraturiko testuei buruz gehiago jakin gura duenarentzat, erreferentzia guztiz gomendagarria da Xabier Alzibarrek apailaturiko edizio bikaina, hitzaurre mamitsu eta guzti: Hiriart-Urruti, 2004).

2.2. EUSKARAZKO PRENTSAREN SORRERA HEGO EUSKAL HERRIAN

Ipar Euskal Herrian *xurien* eta *gorrien* artean bezala, Hego Euskal Herrian ere gizartea karlisten eta liberalen artean zatituta zegoen euskara kazetetan agertzen hasi zen garaian. Egin kontu 1876an II. Karlistaldia amaitu eta pare bat urtera kaleratu zutela Kanpion eta enparauek euren *Revista Euskara* (1878tik 1883ra plazaratu zen Iruñean, edukiaren % 25 inguru euskaraz zeukala).

Karlistaldien biharamunak, gauza jakina da, eragin latza izan zuen Hego Euskal Herrian: aduanak Ebrotik kentzea, derrigorrezko soldadutza, foruen galera, derrigorrezko eskolatzea (gaztelaniaz, bistan denez)... Liberalek, neurri horiez guztiez gainera, ekoizpen-modu berria zekarten eurekin: garai hartan abiatu zen industrializazioa Hegoaldean (Bizkaian eta Gipuzkoan batik bat), eta fenomeno berriak jende-mugimendu itzela eragin zuen (Euskal Herriko landa-guneetatik hirietarako ez ezik, baita Espainia aldetik Euskal Herrirako ere).

Euskara gai zen mundu-ordena zaharra azaltzeko. Are gehiago, ordena hartako eguneroko bizimodurako ere balio zuen (bai inguruko mundua izendatzeko, bai inguru horretako biztanleekin komunikatzeko). Landa-guneetatik aldendu ahala, ordea, ordena horrek indarra galtzen zuen eta industria-sistema gailentzen zen. Eta han euskarak ezer gutxirako balio zuen.

Paradigma berria ari zen gailentzen, eta, berarekin batera, euskararen iraupe-nari buruzko kezka. Ordukoa da, adibidez, Felipe Arrese Beitiaren *Ama euskeriari azken agurrak* olerkia (1879), eta apur bat geroagokoak Unamuno eta Barojak euskarak mundu modernorako zeukan baliagarritasun ezaz esanikoak. Ordukoa da, halaber, horren guztiaren aurkako erreakzio modura, Euzko Alderdi Jeltzalearen sorrera. Sabindarrek kazeta ugari sortu zituzten euren ideiak zabaltzeko, baina euskara bazter-hizkuntza izan zen beti lehen urteetako kazeta horietan (sekula ez zuen % 15 inguruko langarik gainditu berauetan¹³).

13. Hona kazeta horietako batean, *Bizkaitarran*, 1894ko azaroaren 30ean agerturiko testu esan-guratsu bat, derrigorrezko eskolatzeko indarrean jarri berriaren eragina erakusten duena (Gonzalezek aipatua in 2008: 22): «Ihazoten da Bizkaijen erri batzuetara etortie maixu erdera bakarrik dakijenenak [...]. Ezpadago barriz ume erderaz dakijenenik, gogue bete gure badau maixuek, emon bierko dau eskuez edo bestela berezko agiriren bat, edo jhun daguen tokire [...]. Aituko dan edonok, lelengo euskeraz ikasi biar litzekeiala, eta gero sustraijak artutakoan, nai etsian bada bere, izketa orretan erderazko ikastegikua ikasiko dabe euskeldunak».

Baziren jeltzaleez gain beste sektore filoabertzale batzuk ere, foruzaleen artean batik bat. Sektore horretako lagunek *Euskalduna* astekari liberal foruzalea argitaratzeari ekin zioten Bilbon 1896an. Ramon M. Sota abokatu eta ontzigilea zuten buru. Sotak, besteak beste, Arrese Beitia eta Resurreccion Maria Azkue erakarri zituen bere aldamenera. Kazeta autonomiazale elebidun horrek euskararen aldeko jarrera erakutsi zuen hasieratik; 1898ko otsailaren 13an argitara emaniko testu hau esanikoaren adibide dugu (Gonzalezek aipatua in 2008. 25-26):

Euskaldun arteko askok dauke alper edo ezer ezetako gauzatsak euskeraz berba egitia, eta kaltarkizun arteraiño be (...). Ama euskalherriaren seme onak diriala daukenak egiñik euren buruak, egiñ bihar leuke egitiarren berak itz egin eban itzkuntzan. Baña euskalherriak orain be euskeraz itz egiten dau, eta bere semiak egin bihar dabe beti euskeraz, dakienak, eta eztakienak bihar dabe ikasi (...). Ez dakite lege zarra ta euskeria egon diriazala alkaturik beti, ez dabelako euskeriak sartzen itsi geure mendietan izkune ta gogamen tsarririk.

Azkue ere tartean zebilen, beraz; lekeitiarra gizon pragmatikoa zen: berba-jardun hutsean geratu beharrean, euskararen aldeko egitasmoak gauzatzea zuen lehentasun, eta horretarako agintari eta dirudunekin tratuan jardun behar bazuen, hala egingo zuen (horrela jarri zuen berriro Euskaltzaindia martxan, barbarako, 1936ko gerraosteko estreinako urteetan). Estrategia horri jarraiki, makina bat sos eskuratu ahal izan zuen Sota eta beste batzuegandik Bilbon Euskal Ikastetxea, Euskaldun Biltokia, Euskeria abesbatza eta Alkartasuna elkarte sortzeko.

Ez zen hor amaitu, ordea, bere lana: prentsa lortzen ari zen indarraz jabetuta, euskarak ere tresna hori baliatu beharra zeukala iritzi zion, eta, horretarako behar zuen dirua bildurik, Hego Euskal Herriko estreinako euskara hutsezko astekaria plazaratu zuen Bilbon 1897ko urtarrilaren 3an: *Euskalzale*, zortzi orrialdeko kazeta iragarki eta argazkiduna.

Zuhurra zen Azkue, ez zuen bere egitasmoa arriskuan jarri gura; hori dela-eta, hasiera-hasieratik saihestu zituen politika-gaiak. Horien ordez, kantuak, pasadi-zoak, xelebrieriak eta erlijio-kontuak bildu zituen aldizkari berriaren orrietara, eta baita Hego zein Ipar Euskal Herriko eta atzerriko berri laburrak ere¹⁴. Garaiko sona handiko zenbait idazlek ere idatzi zuten *Euskalzalen* (Felipe Arrse Beitiak eta Arturo Kanpionek, besteak beste).

Alabaina, Azkueren zuhurtzia gorabehera, 1899ko irailaren 27an Bizkaiko Gobernadore Zibilak *Euskalzale* ele bitan argitaratzera behartu zuen Azkue; ez hori bakarrik: urrian garai hartako 100 pezetako isuna ezarri zion agindua ez bete-tzeagatik.

14. Hona horietako bat, 1897ko urtarrilaren 3an argitaratua, garaiaren erakusgarri (Gonzalezek aipatua in 2008: 23): «Bizkaian [...] Gernikan ia ia Pancorbon baino Sanchez gehiago dagoz. Euretariko bat eidago geure *Zugatz* maitea ta Batzar-etsea iagon edo zainduten».

Pare bat hilabete aldizkaria ele bitan argitaratzen eman ostean (orriak bi zutabetan banatu zituen horretarako: ezkerrean euskarazko testua jarri ohi zuen eta eskuinean gaztelaniazko itzulpena), 1899ko abenduaren 24an argitaratu zuen azken zenbakia: gehiegizko lanak eta diru-galerek mendean hartu zuten Azkue.

Egoskorra izan gizona, baina, eta ez zuen beste barik etsi. Tomas Epalzaren arrimura hurreratuta, diru-bilketari ekin zion berriro. Horrez gain, euskarazko kazetaritzaren erreferentzia saihestezin baten laguntza ere erdietsi zuen: Ebaristo Bustintza «Kirikiño»rena, hain zuzen. Bataren zein bestearen laguntzari esker, *Ibaizabal* astekaria atera zuen Bilbon, 1902ko errege-bezperan.

Honela mintzo zen Azkue *Ibaizabalen* lehen zenbakian:

(...) minduteko gauzea da izan be, Europa guztiko izkuntzetan albistariak ikustea, gueu bakarrik gareala ainbakoak. Gure anaia Prantzes-Euskaldunak daukee bat Donibane Lohitzunen (San Juan de Luz) amabost urte onetan, *Eskualduna* derichona, erdizka Prantzesez eta Euskeraz eguiña; beste bat eidauee Kalifornian, ara bizi izaten joan direanak sorturikoa (...)

Kirikiñoren aholkuei jarraiki, gipuzkeraren eta bizkaieraren arteko hizkera laua, ulertterraza hobetsi zuen Azkuek *Ibaizabalerako*, garai hartako jeltzaleen neologismo ulergaitzetarako joera baztertuta. Haren aholkuei jarraiki, halaber, gaztelaniatik aldenarazi zuen ortografia, ordura arteko *catu*-ak *katu* eta *cecen*-ak *zezen* bihurtuta (hala ere, *guizon* eta *dericho* bezalako grafiei eutsi zien).

Edukiei gagozkiela, politika-kontuetatik eta alderdikieretatik ihesi ibili zen *Ibaizabal*, haren aitzindari *Euskalzale* moduan; hala ere, ohar hau argitaratu zuen Kirikiñok 1903ko azaroaren 29ko 99. zenbakian, Sabin Arana Goiri hil ostean:

Aziak emon dau landarea, ta landara onek bota dauz sustarr sendoak Bilbon, da emendik zabaldu dira ia Bizkaiko ta Guipuzkoako erri askotara, ta gaurko gazteria guizondu daitenean ikusiko dau bizi izango danak zelango sendotasuna ta indarra artuko daben landara onek (...)

Ibaizabalen aldean, bestalde, berriemaileagoa zen *Euskalzale*, pasadizo eta ipuin gutxiago eta han-hemengo albiste gehiago ageri ziren bere orrietan. Horretarako, hainbat herritako 22 berriemailek osaturiko laguntzaile-sarea eratu zuen Azkuek: haietako 15 Gipuzkoako herrietakoak eta gainerako zazpiak bizkaitarrak. Horri loturik, esan dezagun Bizkaiko zortzi herritan eta Gipuzkoako 12tan banatu ohi zela aldizkaria. Bilbon zeukan bezerorik gehien, eta, horren ostean, Errenterian (zenbakiko 160 ale saldu ohi zituen bertan).

Ez zeukan, dena dela, Baionako *Eskualdunak* izan zuen zabalkunderik, ezta hurrik eman ere. Ez dago horri buruzko datu zehatzik, baina batez beste zenbakiko 2.000 ale bota ohi zituela aipatzen da. Kopuru horiek ez zuten haren iraupena bermatu eta 1903ko hondarrean desagertu zen, abenduaren 27an 103. zenbakia kalera-tu eta gero.

Bai *Euskalzaleri* bai *Ibaizabali* Hego Euskal Herrian euskara hutsezko kazetaritzaren bidea urratu izana aitortu behar zaie, beraz. Aldizkari jeltzaleren batek ere jarraitu zion gerora ildo horri, baina horien kasuan euskara ideologia baten zerbitzura jarri zuten, kazetaritzaren zerbitzura beharrean. Azkuek Bilbon zabalduzako ildo horri Donostiako *Argia* astekariak jarraitu zion urte batzuk geroago, 1920ko hamarralditik 1936ko gerraurrera arte. Aurrerago jorratuko dugu gai hori.

2.3. EUSKAL PRENTSAREN SORRERA AMERIKETAN

Bitxia badirudi ere, Xahoren 1848ko ahaleginaren ondoren Amerikako Estatu Batuetan (AEB) suspertu zen euskara hutsez edo nagusiki euskaraz idatzitako prentsaren garra, Ipar Euskal Herriko euskaldunen ekimenez, *Escualdun Gazeta* (1885-1886) eta *California-ko Eskual Herria* (1893-1897) astekariekin. Egin kontu immigrazio itzela egon zela XIX. mende amaiera aldera Hego zein Ipar Euskal Herriatik Ameriketara (zela Hegoaldean indarrean ezarri berri zuten soldadutzatik ihesi, zela baserri-giroko ekonomiaren estutasunek bultzaturik). Haietariko askok Ipar Ameriketako mendebaldeko kostaldean egin zuten habia. Haiei zuzenduta ateratu zuen Martin V. Bizkailuz legegizonak 1885eko abenduan *Escualdun Gazeta* Los Angelesen. Hiru zenbaki baino ez zituen plazaratu, eta hurrengo urteko urtarrilaren 16an amatatu zen bere argia.

Bizkailuzek berak argi eta garbi eman zuen bere asmoen berri lehen zenbakian bertan, 1885eko abenduaren 24an (Gonzalezek aipatua in 2008: 18):

Gazeta hunen eguileak iskiriatcen du Gazeta hau, erakusteko beste nasioner Escualdunak ser diren eta ser eguiten ahal duten eta posible dela Escuaras ere gazetaren eguitia edosoin beste lenguayas besen¹⁵ (...) Gazeta hunen eguileak eguiten du gazeta hau kuriositates, seren eta franko aldiz errana isanis Eskuarasko Gazeta bat es othesen eguiten ahal herri huntan. Orai eguiten dut hau modeletsat. Ikhusten badut pagatuko duela imprimatceko gastuyak astean behin eguinen dut bat eta herriko berri gusiak emanen tut eta ere Estado Unidocoak eta Europacoak [...]

Astekari informatiboa zen, beraz, Los Angelesen jaiotako hura. Aldizkariaren % 25 inguru publizitateak betetzen zuen, eta iragarki horietan abokatu, sendagile eta negozio-gizon euskaldun, frantses eta amerikarrak agertu ziren. Amerikar gizartean ongi antzean finkaturik zeuden euskaldunak politikan ere murgilduta zeuden, eta, ondorioz, hauteskunderen eta politika-kontuen berri ere eman zuen *Escualdun Gazetak*, aho-bizarrik barik gainera. Hona adibide bat, 1886ko urtarrilaren 16an kaleraturiko hirugarren zenbakitik ateratakoa (Gonzalezek aipatua in 2008: 19):

15. Txikiaren patua/madarikazioa da, nonbait, ahulezia-aitorpen inplizitu hori, une oro bere burua justifikatzen ibili behar hori: Etxepare liburuak euskaraz idaztea posible zela erakutsi nahian, Larramendi bere gramatikari *El Imposible Vencido* deitzen...

Askenean hasi dira Washingtonen behien pushkabat arhitzten (...). Hombeste urthe hotan, General Crook isenaduen imbecil, cobarde bati beha egon gira orai harthan (...) Espero dugu oraico aldiian Gobernuyak sanyatuco duen eta sarrico duen norbeit bere nacionia errespetatcen duena.

Horrez gain, Ameriketari bizi ziren txinatar eta indiarrez ere jardun zuen (zentzu negatiboan hainbatetan), baina, logikoa denez, euskaldunak ziren protagonista nagusi: euren lanbideez, etorreraz, heriotzez eta gaixotasunez aritzen zen batik bat Bizkailuz.

Escualdun Gazetak iraupen laburra izan zuen, ordea. Edonola ere, urte batzuk geroago arrakasta handiagoa izango zuen *California-ko Eskual Herria* Ameriketako beste euskarazko astekariari bidea irekitzeko balio izan zuen¹⁶.

Escualdun Gazeta irakurri ohi zuen jende-talde berberari begira argitaratu zuen, hain zuzen, Jean Pierre Goitinok *California-ko Eskual Herria* euskara hutsezko astekaria, aurrekoa baino zazpi urte geroago, 1893ko uztailean. 1897ko urte amaierara arteko iraupena izan zuen larunbatero kaleratzen zen kazeta horrek. Haren sustatzaile nagusia, esandako moduan, Jean Pierre Goitino izan zen, abokatua hau ere, baina Bizkailuz baino errealistagoa; bere kazeta 1893ko uztailearen 15ean agertu zen estreinakoz, eta, handik aurrera, larunbatero kaleratu zen 1897ko abenduaren 18ra arte. Lehenengo zenbakian (1893ko uztailearen 15ekoa) egitasmo jaiotze berriaren xede nagusia azaldu zuen Goitinok (Gonzalezek aipatua in 2008: 19):

Bertze nazione guziek beren gazetak badituzte eta gu haimbertze garelarik hedatuak Pacifico-ko kostan ez da yustu baizik yunta guten denac berriketari baten medioz. Gure intresak —hemen bederen— igualtsuak dire eta gure mintzo ederraren medioz bat bertzen berriak yakiten ahal ditugu gure lekhutik higitu gabe (...).

Kazeta honen helburu nagusia ere, hortaz, informatiboa zen; Goitino saiatu zen lehen zenbakitik bertatik ematen, AEBetako informazioaz gain, Europakoa (Espainia eta Frantziakoak, baina bereziki, irakurleen jatorriagatik, Ipar Euskal Herriko albisteak), eta baita Ameriketako beste lurralde batzuetako berriak ere. Publizitatea ere bazeukan, *Escualdun Gazetak* bezainbeste. Albisteak laburrak izaten ziren nagusiki, euskara garbiz idatziak eta iritzi gutxirekin. Goitino bera olerkaria izanda, literaturarentzako lekuri ere bazegoen bere orrialdeetan.

Escualdun Gazetaren eta *California-ko Eskual Herriaren* ondoren, ordea, hurrengo belaunaldiek ez zuten euskaraz idatzitako aldizkariaren beharrik izan edo sentitu, amerikar gizartean gero eta integratuago baitzeuden.

16. Azkuek ere bazuen nonbait azken kazeta horren ezagutza, *Ibaizabalen* lehen zenbakiko aipu lehenago ere orriotara ekarriak adierazten duen moduan: «Prantzes-Euskaldunak (...) beste bat eidaueke Kalifornian, ara bizi izaten joan direanak sorturikoa. (...)».

Aipaturiko aldizkari eta kazetok XIX. mendean zabalduriko bideak eredu izan ziren ondorengo urteetan (Espainiako Gerra Zibilera bitartean) Euskal Herrian jaio ziren euskarazko beste hainbat ekimenentzat. Ailegatzear ziren hamarkadak benetan emankor izango ziren euskal prentsarentzat; are gehiago, emankor... eta baita mugarri ere.

ATALEAN BALIATURIKO ITURRIAK:

- Arbelbide, X. (1996): *Enbata: abertzalegoaren historia Iparraldean*, Kutxa Fundazioa, Donostia.
- Diaz Noci, J. (1995): *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Gonzalez, M. (2008): *Euskal Herriko prentsa. XVIII. mendetik 1945era*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.
- Hiriart-Urruti, J. (2004): *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio* (Xabier Altzibarren edizioa eta hitzaurrea), Labayru-BBK Fundazioa, Sutondoan sorta, Bilbo.
- Zuberogoitia, A. (2003): *Euskararen presentzia gaur egungo prentsa elebidun abertzalean*, Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen-zerbitzua, Bilbo.
- Zuberogoitia, A. eta Zuberogoitia, P (2008): *Bertan Bilbo. Bizkaiko hiriburua eta euskara: XX. mendeko historia*, Bilboko Udala, Bilbo.

3. 1936ko Gerra aurreko prentsa abertzale euskaldunaren eztanda Hegoaldean. *Pizkundea. Argiatik Egunara*

Aurreko atalean ikusi bezala, eredu interesgarria abiatu zuten Hegoaldean *Euskal-zale* eta *Ibaizabal*-ek. Haatik, azken hori desagertu ostean, hamarraldi luze batez basamortuko zeharkaldia egin behar izan zuen euskarazko prentsak Hegoaldean (Iparraldean, bien bitartean, bere garairik onenak bizi zituen *Eskualdunak*), harik eta 1910eko hamarraldian euskarazko kazetak berriro agertzen hasi ziren arte. Azkuek sorturiko kazeta horiek ez zeukaten sor-marka estuegirik (ez politikari ez erlijioari zegokienez), ahalik eta jende-esparru zabalenarengana iriste aldera. Hurrengo hamarkadakoak, aldiz, Elizaren edota Euzko Alderdi Jeltzalearen gerizpean sortu ziren.

Horren lekuko da isilaldiaren ostean jaiotako lehena, 1916an Bilbon kaleratutako *Euzko-Deya*, euskara hutsezko kultur hamaboskaria. Haren mantxetan azpitu-tulu modura ageri zen leloak ez zuen zalantzarako tartetik uzten: «Jaungoikua eta Lagi-Zarra». Arsenio Beaskoetxea eta Josu Telletxeak sortu zuten; haren 12 orrialdeak, berriz, Bizkaiko hiriburuan 1910ean jaiotako Euzkeltzale Bazkunakoek bete ohi zituzten¹⁷.

Zelako gaiekin bete ohi zituzten, baina, orriok? Eduki zehatzeko atal batzuen aldamenean (*Lugintza-gayak baserritarrentzat*, *Itxaskuntza-gayak*, *Euzkadi'ko izparrak*), autore atzeritarren itzulpenak eta ipuin eta kontakizunak tartekatzen zituzten. Politika, berriz, «Jel-Aziya» eta «Idazki aberkoyak» ataletan jorratzen zuten, eta Kirikiñok berak ere bere ekarria isuri zuen «Barriketak» sailera. Azpimarratzeko modukoa da, halaber, Xabier Lizardik bertan eman zituela argitara bere estreinako olerkiak, Kepa Enbeitaren bertsoak ere sarritan agertu zirela orrialde horietan, eta baita zenbait emakumeren poemak ere (Tene Mujika eta Irene Gorosabelenak, besteak beste).

17. Azkueren eta Bustintzaren ikasle ziren Euzko Gaztediko hainbat kidek sortu zuten Bilbon *Euzkeltzale Bazkuna* elkarte. Euskaltzaindiaren gidaritza onartzen ez zuen talde horrek, *Euzko-Deya* izeneko aldizkaria argitaratzeaz gain (1916), *Euzkerea* aldizkaria ere kaleratu zuen. Horrez gain, *Método gradual para aprender el euzkera* izeneko euskara ikasteko metodoa plazaratu zuen, eta baita urtero egutegi bat atera ere.

Etapa bi izan zituen kazeta honek: lehena, 1916tik 1920ra; bigarrena, 1920tik 1923ra. Anekdotak modura baino ez bada ere, bestalde, hona datu bitxi bat: bere estreinako zenbakian euskarazko kazetaritzaren aitzindarietako baten heriotzaren berri eman zuen *Euzko-Deyak*; Juan Bautista Bilbao «Batxi»ren heriotzaren berri, hain zuzen¹⁸. Jelkidea zen, beraz, *Euzko-Deya*. Alabaina, haren ondoren plazaratu ziren euskarazko kazetak elizkoiak izan ziren jelkideak baino gehiago.

3.1. ALDIZKARI ERLIJIOSOEN NAGUSITASUNA

Euskarazko prentsak eta komunikabideek goia jo zuten 1920 eta 1930eko hamarkadetan. 1920ko hamarkadan, hala ere, euskarazko kazetak ugalduta ziren arren, irakurleak ez ziren hein berean hazi. Hara bestela *Jaungoiko-Zalaren* 206. zenbakian (1922ko azaroaren 15ean) agerturiko kexua:

Baña irakurgayak geituten diran neurrijan geitu ete dira irakurliak be? Agirijan dago gaur euskaldunak zerbait irakurten dabela, orain ogetamar urte baño askoz geyago. Baña ondiño asko dira ezertxu be irakurten ez dabenak (...).

1920ko hamarkada igarota, Primo de Riveraren diktaduratik ateratzeak ekarri zuen, batez ere, kazetagitzaileen eztabaida 1930eko hamarkadan Hego Euskal Herrian (eta baita Espainian ere). Errepublikaren ezarpenak askatasun handiagoa ekarri zion gizarteari eta, era berean, polarizazio politikoa areagotu egin zen; aniztasun horrek euskal kazetagitzaileen ugaritzea eragin zuen.

Gauzei perspektiba apur batekin erreparatze aldera, esan dezagun 1920ko hamarraldiaren hasieran (1922an, zehazki) euskara hutsezko hamar kazeta zeudela Euskal Herrian, eta horietako zazpi elizkoiak zirela. Honako hauek, hain zuzen: *Jaungoiko-Zale*, *Irujarrengo Prantziskotarra*, *Irujarrengo Irakaslea*, *San Francesen Deia*, *Jesus'en Biotzaren Deya*, *Fedearen Propagacioneco Urtecaria* eta *Zeruko Argia*.

Datu horrek adierazten duen legez, euskarazko aldizkari erlijiosoak oso iraunkorrak izan dira beti Euskal Herriaren historian; iraunkortasun horren eredu nabarmena da *Zeruko Argia* bera. Espainiako Gerra Zibilaren aurretik sortua zen arren (1919an, hain zuzen), 1950eko hamarkadan argitaratzen jarraitu zuen. 1910eko hamarkadan, halaber, *Jaungoiko-Zale* eta *Jesus'en Biotzaren Deya* jaio ziren, biak ere aldizkari oso garrantzitsuak. *Jaungoiko-Zale* oso eraginkorra izan zen eta Errepublika garaian sorturiko *Ekinek* ere (*Jaungoiko-Zalaren* jarraipena zena) bide berari jarraitu zion. Batak zein besteak hainbat esparru jorratzen zituzten, baina beti ere ardatz nagusi erlijioa izanik. 1914ko urtarrilaren 4an *Jaungoiko-Zale* k argitara emaniko testu honek haren izaeraren berri damaigu:

18. Juan Bautista Bilbao «Batxi» euskal idazlea Arratzun (Bizkaia) jaio zen 1887ko irailaren 7an eta 1916ko urtarrilaren 16an hil zen Ozeano Atlantikoan, I. Mundu Gerra betean bere itsasontziak mina bat jo eta gero. Bere kronikak *Hau mundu arrano hau* liburuan irakur daitezke (Zarautz: Susa, 1997).

Arerijuak egin dabena:

- 1° Abadia eskoletatik urrindu.
- 2n. Euzkeraz irakastia eragotzi.
- 3n. Maisuai ez eroan-azo umiak elexara.
- 4.n Ikaskizun geyegi ipini, ta orregaz dotriñarako astirik itxi ez.
- 5n. Maisuak leusindu, alogerak geituta.
- 6n. Maisu barri askori dotriña gaitzoak irakatsi.
- 7n. Gurasuen eskubidiak gitxitu.
- 8n. Geure aldeko legiak auzi.

Guk egin bihar doguna:

- 1° Abadiak ez urrindu eskoletatik.
- 2n. Alegindu euzkeraz irakatsi dagijoen umiai dotriña.
- 3n. Elexara maisuak eruan dagijezen alegiña egin.
- 4n. Egunian bein behintzat dotriña eskolan irakastia lortu arte ez gelditu.
- 5n. Au egiten daben maisuak saritu iñundik al bada, edo goratu ta euren aldez ein.
- 6n. Maisu-geyak billatu euzkeldunen artian, eta lagundu ikasi dagijen.
- 7n. Edegi euzkerazko ikastolak geuk zuzentzeko.
- 8n. Legiak emoten dauskuzan eskubide guztijak jagon.

Jaungoiko-Zale izen berdina zuen bazkunaren babesean jaio zen eta haren bozeramaile lanak egin zituen. *Jaungoiko-Zale Bazkuna* Zornotzan sortu zen 1912an, katixima batzeko eta euskara bultzatzeko helburuarekin eta izen bereko aldizkaria ere urte berean hasi zen argitaratzen. Honela, 1920. hamarkadarako *Jaungoiko-Zale* aldizkaria ongi finkaturik zegoen. Hala ere, Errepublika garaia ailegatu zenean izena aldatzeko erabakia hartu zuten eta *Ekinek* hartu zuten *Jaungoiko-Zaleren* bidea.

Zeruko Argiari dagokionez, berriz, 1919ko urtarrilean sortu zen Iruñean. Kaputxinoen ekimenez jaio zen eta 1919ko urtarril hartatik aurrera hilabetero argitaratu zen. Euskarazko kazetaritzaren historian eta aldizkari erlijiosoei dagokienez, *Zeruko Argiak* iraun zuen gehien, 1936ko Gerrako geldialdiaren ostean berriro ere argitaratzeari ekin baitzioten, 1980eko hamarkadan *Zeruko* hitza bidean galdu, kaputxinoen magaletik irten eta kooperatiba bihurtuta, gaur egungo *Argia* bihurtu zen arte. Guk, ordea, *Zeruko Argiaren* lehen aldiari egingo diogu so, hau da, 1936. urtera arte eginiko ibilbideari. Damaso Intzaren zuzendaritzapean, formatu eta tamaina txikiko aldizkaria zen hastapenetan eta bere helburu nagusia erlijiosoa zen, 1919ko urtarrilean *Zeruko Argiaren* beraren lehen zenbakian argi adierazi zuten moduan:

Gure erlijioiko asko gauza etzaizkigu argi erakutsi oraindikan euskeraz. Txoko asko arkitzen dira argitu bearrak. Euskal-etxe batzuetan eztaquite dotriña buruz, ez gazte ta ez zarrak. (...) ZERUKO ARGIAk bear ditu ba txoko oiek argiz bete, buru oietako illunak aienatu ta ez-jakiñen begi aurrean jakin bear guztiak argi-argi jarri.

Helburu erlijiosoak izan eta erlijioari loturiko gaiak jorratuagatik ere, *Zeruko Argia* ez zen, kaputxinoek nahiz frantziskotarrek aurretik argitaraturiko beste hainbat aldizkari ez bezala, soilik erlijiosoei zuzenduriko aldizkaria, jende-talde zabalagoei begira osaturikoa baizik. Pentsa daiteke eliztarrek mundura ateratzeko gogoia zutela, euren eremu hertsitik irten eta gizarte osora ailegatzeko nahia zutela, alegia. Baina, zergatik aldaketa hori? Hedabideek gizartean eragiteko gero eta indar handiagoa zuten eta Hego Euskal Herrian ere laizismoaren mamua gainean ikusten hasita zegoen Eliza. Hori dela-eta, espiritu-aldaketa hori beste aukera bat zen euren propaganda gizarteko eremu guztietara ailegatzeko. Hala ere, *Zeruko Argia*-k ez zuen *Jaungoiko-Zalaren* bide bera hautatu eta ez zituen erlijiotik kanpo zeuden gaiak —politika edo hezkuntza, esaterako— jorratu.

Gizarteko eremu guztietara heltzeaz gain, geografikoki ere Hego Euskal Herriko txoko guztietara iristeko apustua egin zuten *Zeruko Argiaren* arduradunek. Horrela, 1921ean Gipuzkoa eta Bizkaiko leku ugarian saltzen zen (sorleku zuen Nafarroan baino gehiago). Gipuzkoan, Donostian, Hondarribian, Tolosan, Soraluzen, Arrasaten, Villabonan edota Deban saltzen zen. Bizkaian, aldiz, Lekeition, Algortan, Plentzian edota Portugaleten. Araban, berriz, Gasteizen eta Gaztelun.

3.2. ALDIZKARI EZ ERLIJIOSOAK: EKIMENEZ GAINEZKA GUTXIENGO IZANAGATIK

Aldizkari erlijiosoak alde batera utzi eta garai hartan erlijio-mundutik kanpo argitaratzen ziren kazetei begiratuko diegu jarraian. Aipaturiko 10 aldizkarietatik hiru ziren, esan bezala, ez-erlijiosoak: honezkero ezagun ditugun *Euzko-Deya* eta Baionako *Eskualduna* (nahiz eta azken honetan abade asko egon tartean), eta, hirugarrena, Donostiako *Argia* astekaria, *Euskalzale* eta *Ibaizabalen* ereduari jarraitu ziona: ez zen politika-kontuetan itsu-itsuan sartzen, ez zen Elizaren gerizpean sorturikoa (haren zuzendaritzako sei kideetatik hiru elizgizonak izan arren) eta berriemailea zen iritzi-emailea baino gehiago.

Espainiako Gerraren aurreko urteetako euskal kazetaritzak Hego Euskal Herrian eman zuen aldizkaririk iraunkorren eta eraginkorrenetakoa izan zen *Argia*; donostiar astekariaren ekarpen nagusietako bat da Hegoaldeko ordura arteko beste euskarazko kazetek baino askoz zabalkunde handiagoa erdietsi izana (eta, beraz, jendea euskaraz irakurtzera ohitu izana: egin kontu 1921eko apirilean lehen zenbakia kaleratu zuenetik 15 urte geroago 1936ko Gerra piztu eta aldizkaria desagertu zen arte ia 800 zenbaki atera zituela eta garairik onenetan 7.000 bezero zeuzkala). Esan bezala, sei bultzatzaile nagusi izan zituen *Argiak*, sei euskaltzale sutu: Bitor Garitaonaindia «Garbi», Ramon Intzagarai «Elurmendi» eta Jesus Karrera elizgizonak eta Gregorio Muxika «Jeme», Ander Artzeluz «Luzear» eta Antonio Lizarraga sekularrak. Taldetxo horri beste izen bi ere gehitu behar zaizkio: Ambrosio Zatarain eta Ricardo Leizaola, hain zuzen ere.

Euskara bultzatzea eta, batez ere, euskaraz irakurtzen ez zutenek euskaraz irakurtzeko ohitura hartzea zituen xede nagusi *Argiak*. Hori argi ageri da, esate baterako, 1922ko irailaren 10eko 73. zenbakian plazaratu zen testu honetan:

Euskerarik irakurtzen ez dutenen aoetatik makiñabat aitzakia entzun ditugu. A udala eta ura dala... Batez ere, euskera zalla darabilgula alde guzietan. (...).

Bi zailtasun izan ditezke euskera irakurtzean. Bat: **irakurtzeko** zailtasuna; bestea: irakurritakoa **ulertzeko**, entenditzeko, zailtasuna. Besterik ez. Ta entzun zazu, setatsu horrek. Bigarren zailtasun au ez degu emen esango. Nik emen esango detana irakurtzen badezu, ederki ulertuko dezu (...).

¿Ta beste zailtasuna? ¿Zuk ez dakizula euskeraz irakurtzen? ¿Nola jakingo dezu, beñiere ez zera ari ere-ta? Baña entzun berriz: artu zazu asteroko au, egunero-egunero hogeitaz, hogeitaz ilara irakurri itzazu (ja zer lana, bost minutuko lana!) ta illabete barru errex-errex irakurri ezin badezu gure euskera, sendagillari (medikuari) deitu zaiozu, burutik gaxo zaude-ta (...).

Bada alderik, sabindar zorrotzenek baliatzen zuten estilotik hona... Hizkuntza lau eta errazean nekazarietarako irakurgaiak eskainita euskararenganako zaletasuna piztea zen, beraz, helburu nagusia. Ezin ahanzi, hala ere, kazeta horren beste zenbait ardatz garrantzitsu, hala nola herrietan eta euskaldun komunitatean fedeari eta kristautasunari eustea edota nekazaritaz eta orokorrean irakurleen bizimoduaz ardura adieraztea. Politika, aldiz, bazter utzi zuten lehen aro batean, harik eta Espainiara Errepublika ailegatu zen arte.

Egin kontu *Argia* sortu eta bi urte pasatxora, 1923ko irailean, Primo de Rivera jeneralak estatu-kolpea eman zuela Espainian. Egoera zail hartan (eta baita beronen ondoren etorritako diktadurak iraun zuen ondorengo urteetan ere) oso jarrera zuhurra hartu zuen *Argiak*. Nabarmetzeko modukoa da, adibidez, 1924ra arte astekarian Primo de Riveraren aipamenik ez agertzea eta soilik Espainiari buruzko albiste onen berri eman izana. Aldizkariaren izaera abertzalea ezin zuten inolaz ere islatu, ez behintzat berau legalki argitaratzen jarraitu nahi bazuten. Horiek horrela, bi faktoreen baturak aurrera egiten lagundu zion astekariari: batetik, *Argiak* garai hartan harturiko jarrera zuhurak; bestetik, orduko gobernadore militar Juan Artzadunen euskaldun izaerak. Izan ere, gobernu berriak aldizkariak euskaraz kaleratzea debekatu zuen arren, Artzadunek jarraitzeko baimena eman zien euskaraz ateratzen ziren kazetei. Dena dela, gaztelaniaz irakurtzen ez zekitenentzat atal berezi bat ateratzeko baldintza ezarri zien: «Euskerazko berba bakoitzaren ondoan gaztelaniazko berba ipiñi bearr euan»¹⁹. Era berean, 1924ko martxoaren 3tik aurrera esaldi hau azaldu zen *Argiaren* orrialdeetan: «Zenbaki au gudari (militar) nagusien baimenez argitaratzen da». Horregatik guztiagatik, politika-gaiak alde batera utzi eta euskararen, fedearen eta nekazarien alde aritu zen *Argia* urte luzez, eta gero eta garai arrakastatsukoak bizi izan zituen horri esker. Oztopoak oztopo, gero eta

19. Javier Diaz Nocik jaso (1995: xx).

proiektu sendoagoa eta finkoagoa zen *Argia*, eta 1926 eta 1930 urteen artean garai bereziki onak bizi izan zituen.

Argiaren historian ezin da aipatu gabe utzi, era berean, sustatzaile haien eskutik ailegaturiko beste hainbat proiektu ere. Astekariaren eragileek ez zuten bertan-goxo egin eta gogotsu saiatu ziren kazeta ateratzeaz gain beste egitasmo batzuk ere bultzatzen. Horren adierazgarri dira, besteak beste, euskarak irratian zeukan presentzia handitzen eginiko ahalegina²⁰, 1927an plazaraturiko *Txistu* izeneko komiki-aldizkaria, eta, oroz gain, euren bultzadaz (Lizardiren eta beste zenbaiten laguntzarekin batera) sustaturiko euskarazko egunkari-egitasmoa.

Kontua lehenagotik zetorren eta 1929ko ekainean egitasmoa gauzatzear zegoela ematen zuen, Euskaltzaleak elkarteak²¹ gaiari buruzko txostena argitaratu baitzuen *Argian* (euskarazko egunkariaren jaiotza iragarri zuten bertan). Uztailearen 14an, berriz, euskal egunkariaren lagin bat kaleratu zuten *Argiak*ok, eta abuztuan diru-bilketari ekin zioten; ez hori bakarrik: estiloa, itxura, edukiak eta enparauak zehazten ere ibili ziren. Besteren artean, erosle kopuruaz ere egin zuten berba. Lizardiren arabera, 3.000 erosle behar zituen euskarazko egunkariak bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko. Ondorengo ere adierazi zuen 1929ko ekainaren 27an *Eusko Ikaskuntzaren Deiaren* orrietan:

Nire aburua zan astekari-egunkariak BAT egitea. Artara, egunkaria besterik elitzake izango, ta onek, astean bein, ale berezi bat ateratze'aaluke. Astearen egunetarik bostean, beraz, egunkaria eskuan dezutenaren aundiko litzake. Igandeetan, berriz, ale berezia, ale aundia: au da, egun ari dagokion egunerokoa ta, erdian sartuta, beste ainbesteko astekaria.

Proiektu horretan buru-belarri zebiltzala, lehen aldiz, arazo ekonomiko larriak etorri zitzaizkion gainera Donostiako astekariari. Egoera hartan, Lizardik akzioak atera eta euskaltzale dirudunei laguntza eskatzearen aldeko apustua egin zuen. Edonola ere, bazirudien une eta testuinguru hartan euskarazko egunkaria posible zela: egoera politikoak (Primo de Riveraren diktadura onenak emanda ordurako), lehen aldiz, antzeko proiektuak aurrera ateratzeko tarteazutzen zuen eta, esan bezala, *Argiak* irakurleria sendo eta finkoa zeukan jadanik. Horrek guztiak proiektua are bideragarriago bihurtzen zuen.

Dena prest zegoela ematen zuenean, ordea, beste hautu bat hobetsi zuen garai hartako kultur eragile nagusi eta EAJren *factotum* Jose Ariztimuño «Aitzol»ek: egunkari elebidun (diglosiko) baten alde egitea, jende gehiagorengana heltzeko

20. 6. atalean ikusiko dugun moduan, *Argiako* Ander Arzelus «Luzear»en eta beste zenbaiten lana tarteko (Joseba Zubimendi, esate baterako), 1932an euskarazko lehenengo programa finkoa (ordubete astean) lortu zuten Unión Radio San Sebastián-en (garai hartan Hego Euskal Herriko irrati bakarra).

21. Euskaltzaleak elkarteak 1927an sortu zen Arrasaten, euskal prentsa sustatu eta euskara eta euskal literatura hedatzeko xedearekin. Eusko Ikaskuntzaren babesean jaio zen eta Lizardi eta Aitzol izan zituen bultzatzaile nagusi.

asmoz. *El Día* zen egunkari hura²². Euskal Herriko euskara hutsezko lehen egunkaria izan zitekeen *Argiak* bultzaturiko beste hura, horrenbestez, egia bihurtu gabeko amets izan zen zenbait urtez: zazpi urte igaro behar izan ziren, hain justu, euskarazko lehen egunkariaren ametsa *Eguna* egunerokoaren bidez errealitate bihurtzeko.

Esan bezala, EAJren apustu horren ondorioz sortu zen *El Día* egunkaria Gipuzkoan 1930ean. Bai igarri ere *Argiak* egunkari berriaren sorrerari: batetik, aste-kariaren zuzendari Ander Arzelus «Luzear»ek *El Díara* alde egin zuen, bertako euskarazko eguneroko orrialde erdiaren ardura hartzera; bestetik, *Argiaren* salmentak jaitsi egin ziren, irakurle asko egunkari berriko bezero izatera pasatu baitziren. Gain-behera horretan murgilduta, 1936an Espainian pizturiko gerraren ondorioz desa-gertu zen behin betiko *Argia*.

Euskarazko egunkariaren aldeko apustua egin beharrean *El Díaren* sorrera sustatu izanak zenbait euskaltzaleren kexuak eragin zituen. Nemesio Etxanizenak, esate baterako. Hauxe idatzi zion horrek Ander Arzelusi, *El Díaren* euskara kopuru urria (orrialde erdi) gogoan (Etxaniz, 2000: 33):

Gutxitxo dugu hori, gutxitxo eguneroko euskaltzale batek eskeintzeko. Ez ote da hori ejemplo txarra ematea herriari? Gure esanak esan, euskara txoko estu batean gordetzen badugu alperrik herriari jardungo diogu euskaltzaletasunean aurreratzeko deadarka.

Aitzoli, berriz, modu honetan zuzendu zitzaion Etxaniz (2000: 34):

Eguneroko euskaltzaleenak ere euskara hain gutxi ekartzeak herria erderara gehiago erakarri du: nire ustez (barkatu) gure artean izan ditugun erdal irakasle guztiak baño erdera gehiago sartu digute herrian *El Día*-k eta *Euzkadi*-k. (...) Jauregik zuzen dioenez, erderaz egin beharra ere badugu; baiña beti edo ia beti erderaz idatzi beharrik ez tugu. Hasi bada Jauregi, Artetxe, Aitzol ta beste idazle izen haunditxoak duzutenok, euskeraz sarri eskribitzen.

El Díak, dena dela, bide-erakuslea izan zuen Bizkaian: 1913an Bilbon sortutako *Euzkadi* egunkari jeltzalea, hain zuzen. Zabalkunde handiko kazeta zen hura (10.000 ale zenbakiko) eta «Euskal Orria» izeneko euskarazko atala zeukan. Sail horri esker, euskarak estreinakoz egin zuen leku bat eguneroko prentsan. Laster ezagutuko dugun *Eguna* jaiotzearekin batera desagertu zen «Euskal Orria» *Euzkaditik*, baina, ordura arte, itzal handiko jendeak hartu zuen sail horren ardura (Kiri-kiñok lehenengo, Orixek ondoren eta Lauaxetak azkenik).

Egia esan, aurrez ere izan zuen eten bat egunkari horren euskal atalak: Primo de Riveraren diktadura-garaian, hain justu. Behin diktadura hori amaituta, *Euzkadiren* euskarazko atalarekin batera, beste hainbat argitalpen eta ekimen iritsi

22. Prozesu honi buruz gehiago in Zalakain, 1993, eta Diaz Noci, 1995

ziren (ez alferrik, *Pizkundera* deitu ohi zaio orduan hasi eta 1936ko Gerrara arte iraun zuen aro laburrari).

Argitalpenen artean pare bat nabarmen daiteke: batetik, 1929ko *Euzkerea* kultur hilabetekari elebidun bilbotarra (bi hilero kaleratuko zen gerora), 1919an sortutako Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkariari aurre egin gura ziona, ez baitze-torren haren hizkuntza-irizpideekin bat (*Euzkerea* sabindarra zen, goitik behera; Euskaltzaindiaren agerkarian, aldiz, Azkueren irizpideak ziren nagusi). Bilbotar kazeta horretan garai hartan euskal kulturaren nor ziren gehienek idatzi zuten, hala nola Kirikiñok, Kepa Enbeitak, Sebero Altubek, Lizardik, Lauaxetak...

Bestetik, Euzkeltzale Bazkunakoek, diktadoreekin batera *Euzko-Deya* galdu eta gero, beste egitasmo bat ontzeari ekin zioten behin Primo de Riveraren agintaldia amaituta; ahalegin horren ondorio izan zen 1932an plazaraturiko euskara hutsezko *Euzko* astekari politiko bilbotarra. Jeltzalea zen, goitik behera, bere aitzindari *Euzko-Deya* moduan, eta kazetaritza-munduan Kirikiñorekin trebaturiko Manuel Ziarsolo «Abeletxe» zeukan zuzendari. Astekariarekin batera, gainera, *Gastetxu* komiki-orria ere banatzen zuten. Ez luzaroan, ordea, 1934an hondoa jo baitzuen astekariak, zorrek itota. Hain markatua ez zen *Argiak*, aldiz, sekulako arrakasta zeukan garai berean, baita Bizkaian bertan ere (Ondarroan, berbarako, 70 harpidetik gora zeuzkan).

Edozelan ere, *Euzkerea* eta *Euzko* baino askoz garrantzitsuago izan zen 1937ko Urteberri egunean jaiotako beste kazeta bat: *Eguna*, euskarazko lehenengo egunkaria. Gauzak zer diren, garai lasaiagoetan bazter utzitako egitasmoa bultzatzea erabaki zuten jeltzaleek, noiz eta Hego Euskal Herria gerran zenean (gerra-garaian, halaber, EAE-ANVK gobernatzan zuten Nekazaritza Sailak *Ereintza* aldizkaria atera zuten euskara hutsean, baserritarrei zuzendurik).

Jaurlaritza sortu berriaren aginpidea baliatuta antolatu zuten jeltzaleek *Eguna*, eta eurengandik gertu-gertuko pertsonak jarri zituzten ardura-karguetan: Manuel Ziarsolo «Abeletxe» zuzendari, Agustin Zubikarai erradakzio-buru eta Eusebio Erkiaga, Alexander Mendizabal eta Jose Maria Arizmendiarieta (gerora Arrasateko kooperatiba-mugimenduaren aitzindari-lanetan ibiliko zen berbera) kazetari. Lana beltz egin behar izan zuten denek ere; ezin ahaztu, dena dela, laguntzaile-talde zabala zeukatela (Iñaki Eizmendi «Basarri», Jesus Insausti «Uzturre» edota Ander Arzelus «Luzear», besteak beste).

Une berezian sortua izaki, gerrako kontuak jorratu ohi zituen batik bat *Egunak*; horrek, bistan denez, sentimenduak borborka zirela idaztea esan gura zuen. Hona, konparazio baterako, 1937ko apirilaren lehenean (frankistek Durango bonbardatu eta biharamunean) haren azalean argitara emaniko testua:

Paxisten egazkiñak Tabira zarraren gañean. Durango'ko Miren Deunaren Elizara bonba ugari jaurti zituen. Kristo'ren Odol deuna orma eta zoztor artean ixurita. Otoi

egiten egoazan monja bigunak il. Jaunartzeko ziran gudariak odoletan, gorputzak zatituta. Meza esaten inarduen abadeak, berun ilkorrak jota. Tabira odoletan!

Unerik onenetan 20.000 ale bota zituzten zenbakiko; gehien-gehienak dohain-ik banatzen ziren fronteko gudarien artean (horrek asko baldintzatu zuen testuen jitea, albiste ezkorren ifrentzua azaleratzen saiatzeaz gain, *Egunan* maiz ageri ohi baitziren gudariak adoretzeko idatziak). 1937ko ekainaren 13an kaleratu zen azkeneko biderrez, faxistek Bilbo mendean hartu baino egun batzuk lehenago. Bere kasua ez zen, ordea, salbuespena izan, Espainiako Gerra Zibilak Hegoaldeko euskarazko kazeta guztiak desagerrarazi baitzituen. Urte batzuk beharko ziren apurka-apurka behartutako lozorro hartatik ateratzen hasteko.

ATALEAN BALIATURIKO ITURRIAK:

- Diaz Noci, J. (1995): *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Etxaniz, N. (2000): *Lan hautatuak* (Mikel Atxaga, Guillermo Etxeberria eta Pako Suduperen edizioa), Hiria, Alegia (Gipuzkoa).
- Gonzalez, M. (2008): *Euskal Herriko prentsa. XVIII. mendetik 1945era*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.
- Zalakain, J.M. (1993): *Joxemiren uzta. Euskal prentsa herri proiektua da*, Txalaparta, Tafalla.
- Zuberogoitia, A. (2003): *Euskararen presentzia gaur egungo prentsa elebidun abertzalean*, Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen-zerbitzua, Bilbo.
- Zuberogoitia, A.; Zuberogoitia, P. (2008): *Bertan Bilbo. Bizkaiko hiriburua eta euskara: XX. mendeko historia*, Bilboko Udala, Bilbo.

4. Gerren eragina Ipar Euskal Herrian: *Aintzina mugimendua; Eskualdunatik Herriara; Enbataren sorrera*

4.1. ESKUALDUNA-TIK HERRIA-RA. BI ALDIZKARI, BIDE BERBERA

Oinarriak sendo jarrita, momenturik gozoenean utzi dugu *Eskualduna* astekaria 2. kapituluan, 1907 inguruan, 7.000 bezero inguruk ematen zioten bermearekin. Ikusi dugu zelan erlijioaren eta mundu-ordena zaharraren gotorleku izateko bokazioz jaio zen; bada, hurrengo urteetan ere ez zen bigundu kazeta horren jarrera integrista; horren froga da, barbarako, 1936ko Gerran Francoren alde agertu izana (ez hori bakarrik: baita Hegoaldetik Iparraldera ihesi joan zirenen kontrako giroa hauspotu izana ere)²³.

Horren froga da, halaber, II. Mundu Gerran izan zuen joera alemanzalea (oso lagun zuten, adibidez, Ibarnegarai ministro uhartearra)²⁴. Piarres Lafittek dioenez (1971: 34), Xalbat Arotzarena *Eskualdunaren* azken zuzendaria «*Libération*-ean arrestatu eta jujetarat jaulkitu» zuten. Horren ostean, Lafitte beraren arabera, «Arotzarena preso hartu zutelarik, *Eskualduna* ere kondenatu zuten, haren sosak eta liburuak norapait ereman. Eta hola bururatu zen haren iraupen luzea!».

Alabaina, ordura arteko ibilbide luze horren lekukoa hartu zuen berehala beste kazeta batek. Hara zelan kontatzen duen hori Lafittek (1971: 34):

L. Léon, Uztaritzeko jaun erretor nausia penatua zen Eskualdunek ez zutela gehiago beren kazetarik. Ez zitakela hola egon deus egin gabe, adixkide eskualzale zombait asaldatu zituen, hala nola *Mgr* Saint-Pierre, Louis Dassance, Oxobi, Zerbitzari, Duhour, Dufau... Eta pentsatu zuten Lafitte ezarri behar zutela kazeta berri baten

23. 1937ko maiatzaren 7ko zenbakiak (1.931.a), barbarako, hau zioen Gernikako bonbardaketa hizpide hartuta: «(...) Guernicako arbola ez omen dute haatik hunki. Molaren Eskualdunek zaintzen dute arbola saildua. Geroztik izan diren kaseta egile Frantsesek diote gorriek berek dutela eman sua (...)». Pare bat aste lehenago ere (1937ko apirilaren 23an, 1.929. zenbakian) *Eskualduna* gogor mintzatua zen Agirre lehendakariaren aurka, hura frankisten kontrako borrokarekin tematuta zebilelako: «Bizkaian aro onaren beha dago Mola azken jauziaren egiteko Bilbao barneraino. Kurritzen hasi zen elhea baizik ere Eskualdun gobernioa gerlari uko eginik Francorekin baketzera zohala. Bainan ez, Aguirrek jakin arazten du biphilki. Holakorik ez dutela gogoan iragan ere eta ari direla beren lanari etsaiaren ez uzteko Bilbaorat hurbiltzera (...)».

24. Maria Gonzalezek dioenez (*Diario Vascoi* eskainitako elkarrizketa, 2009-02-09), adibidez, Hitler «gure führer handia» zen *Eskualdunako*entzat.

moldatzaile: inprimeriako lanetan ez omen zen hain arrotz eta bertzale orok jakinki ez zela behin ere Alemanen aldekoa izan, memento hartan gauza premiatsua baitzen. L. Léon, jin zen bada Uztaritzeko Semenariorat Lafitten mintzatzerat. Hunek ez zuen ezetz erran (...). Bilkura egin zen. Oro akort, behar zela eskuarazko astekari bat muntatu, eta dotzen-erdi bat izenen artetik hautatu zuten *Herria*. (...) Eta Lafitte kargatu zuten *Herria* delakoaren jalgi-arazteko urhatsez.

Eskualduna zarratu zuten urte berean abiatu zen, beraz, *Herria*, Baionan bertan eta Lafitteren zuzendaritzapean. Zenbakiko 2.000 ale pasatxo botaz ekin zion astekari berriak bere ibilbideari. Garairik onenean (Aljeriako gerra-sasoian, hara joaniko hainbat euskaldun harpidetu egin baitziren) zenbakiko 5.000 ale botatzera heldu ziren. Gaur egun, sorrera-garaietan bezala dabilta eta ia 3.000 harpidedun dituzte (ikus Bidegain, 2009).

Urteetan zuzendu zuen Piarres Lafittek *Herria* (1944tik 1967ra), eta urte horietan guztietan kazeta ez zen abertzale agertu, ez behintzat modu agerikoan. Lafittek bazekien abertzaletasuna adieraziz gero, irakurleriak behera egingo zuela, eta, horrenbestez, Iparraldean euskarazko kazeta batek bizirik eusteari eman zion lehen-tasuna. Aldiz, eta itxura batean kontraesankor dirudien arren, ageriko abertzale askok frantseserako joera handiagoa izan dute.

Gainerakoan, *Eskualdunaren* oinordeko da *Herria* gauza askori dagokionez: astekaria da, euskara da nagusi bere orrietan (zenbaki bakoitzean artikulua bat frantsesez sartu izan zuten 1990eko hamarkadara arte, frantses-legeek hartara behar-tzen zituztela pentsaturik; gaur egun, aldiz, euskara hutsez plazaratzen dute), eta, *Eskualdun* bezala, garrantzi berezia ematen diote tokian tokiko informazioari, berriemaile-sare zabal batek lagundurik. Peio Jorajuria *Herri*ko egungo soldata-peko kazetariak dioenez (Bidegain, 2009: 3), «denboran, Eliza ingurukoak ziren; orain, pentsamendu guztietakoak badira, alderdi guztietakoak, frantses eskuine-koak, abertzale ezkertiarak, ABkoak, EAJkoak... Baina denak euskalzaleak dira». Orotara berrogei kolaboratzaile inguruko sarea osatzen dute.

Alabaina, zenbait kontutan *Eskualdunaren* oinordeko izan arren, Bidegainek dioen moduan (2009: 2), «Frantziarengan hain leial agertzen zen *Eskualduna*-k ez zuen ukan *Herria*-k ukanen zuen auzirik». Zein auziri buruz ari da? Hona erantzuna (Bidegain, 2009: 2):

Aljeriako gerla garaian, Piarres Larzabalek artikulua batzuk idatzi zituen *Herria*-n, eta horietatik bat aljeriarren aldekoa eta Frantziako armadaren kontrakoa zen. *Herria* astekariak auzi bat ukan zuen, artikulua harengatik. “Debekatu nahi izan zuten” [Peio Jorajuriaren berbak dira azken horiek].

Aipa dezagun, azkenik, sarean ere irakur daitekeela *Herria*, nahiz eta webgune propiorik eduki ez. Izan ere, 2007ko ekainaz geroztik Euskosare-ren webgunean agertzen da kazetaren zenbaki bakoitza, PDF formatuan, paperean plazaratu eta bi hilabete geroago.

4.2. AINTZINA, EUSKALHERRIZALEEN MUGIMENDUAREN FRUITUA

Eskualduna ez bezala, *Herria* sekula ez da integrismora lerratu, demokrazia kristau euskaltzalea izan du beti ipar²⁵. Joera horrek izan zuen aitzindaririk Iparraldeko kazetetan. Izan ere, Lafittek berak eta *Eskualdunaren* orduko joerarekin bat ez zetozen beste zenbaitek, *Aintzina* hilabetekari elebiduna sortu zuten 1934an. Bi urte lehenago, (Piarres Lafitte Uztaritzeko seminarioan irakasle zen garaian), sorturiko Euskalherrizaleen mugimenduan zuen, ordea, jatorria *Aintzinak*.

Garai hartako Ipar Euskal Herriko euskarazko kazetaritzaz jardun gura izatekotan, bertako abertzaletasunaren garapenez berba egin beharra dago, ezinbestean, bata eta bestea estu loturik doazelako. Horrela, *Aintzinakoek* defendaturiko «Euskalherriaren alde» programak elebitasunaren bidezko euskararen ofizialtasuna eskatzen zuen, eta baita autonomia pixka bat ere Frantzia federal batean biziko zen Ipar Euskal Herriarentzat. Jeltzaleen programari zenbait eraldaketa eginda berau Iparraldera egokitzen saiatu ziren, baina Euskal Herriaren batasunaz eta burujabetasunaz inoiz ere ezertxo esan gabe. Ez zuten, azken beltzean, Frantziatik bereizi nahi, jakin bai baitzekiten jende ugari zela horren aurka. Adierazgarri da Lafitte beraren iritzia hau ere (Arbelbidek aipatua in 1996: 47):

A ceux qui ont peur d'un Etat Basque indépendant, nous disons: il nous serait impossible de former une nation euskarienne capable de tenir sa place dans le monde comme la Suisse ou la Belgique. Un Etat Basque divisé géographiquement par une chaîne de montagnes ne pourrait pas tenir... Nous l'avons déjà dit, Basques de France et Basques d'Espagne, nous sommes un seul peuple et comme tels nous demandons des rapports spéciaux entre les deux versants, mais nous ne cherchons pas l'établissement d'un état Basque qui ne pourrait subsister dans les conditions actuelles et occasionnerait peut-être la mort de notre peuple.

Aspektu sozialei ere egiten zien so programa horrek eta emakumeentzako bozkatzeko eskubidea aldarrikatzen zuen, besteak beste. Kultura- eta politika-gaiak jorratu ohi zituen bereziki, dena den, *Aintzinak*, eta bere testuetan nabarmena zen Hegoaldean sortu berria zen abertzaletasun modernoaren eragina. Edonola ere, abertzalea barik erregionalista zen Euskalherrizaleak mugimenduen programa eta *Aintzina* hilabetekaria ia bere osotasunean frantsesez argitaratzen zen. 230 bat harpidedun izan zituen orotara eta denetarik zen horien artean. Batzuek Hegoaldearekiko lotura handia zuten, bertako prentsa irakurtzen zuten edo mugaz bestaldeko mitinetara joaten ziren; abertzaleak ziren horiek. Haietako askok aurrerago Ipar Euskal Herrian indartuko ziren abertzale-mugimenduetara egin zuten jausi: Iratzeder, Pierre Duhour, Jean eta Madeleine Jauregiberri, Andre Ospital eta abar. Beste hainbatek, ordea, ez zuten hain argi Frantziaren ala Euskal Herriaren aldekoak ziren: Michel Diharce eta Jean Richter azpimarra daitezke taldetxo horretan.

25. Peio Jorajuriak berak ere hala dio (Bidegain, 2009: 3): «Buruzagitzan, denak kristau-demokratik dira, nahiz eta kronikalari batzuk ez diren fededunak».

Egin kontu bi gizon horiek Saint Cyr-eko eskolan sartu zirela Frantziako armada-
ren aitzindari izateko...

Iparraldean egoera hori zelarik lehertu zen Espainian Gerra Zibila; Hegoaldeko euskaldun askok eta askok *gorrien* alde egin zuten borroka. Mugaz bestaldera, ordea, eskuina zen nagusi eta Elizak ezer eta inor baino gehiago kritikatzin eta baztertzin zituen komunistak. Baita *Aintzinak* berak ere. Hegoaldearen eta Iparraldearen artean tirabirak eragin zituen, beraz, egoera korapilatsu horrek. Hara zer zioen horren harira Jean-Louis Davantek 1963ko urrian laster ezagutuko dugun *Enbata* astekarian (29. zenbakian):

(...) hamalauko gerlaren ondoriozko frantses nazionalismo gogor baten pean zagon ipar alde: bere abertzaletasuna errejionalisma epel batean ito behar zuen *Aintzina*-k. Laster etorri zen hogoi-ta-hamaseieko guda eta hemengo abertzaleak Franco-ren kontra oldartzea oso gaizki hartu zuten hango Eskualdunek, ezen hori komunistak abertzaleak zuten. Fin gaixto egin zuen *Aintzina*-k.

Zuberotar euskaltzainak berak esana da beste hau ere (Zuberogoitiak jasoa in 2003: 286): «Espainiako gerla denboran *Aintzina* ezabatu zen ezin baitzuten pentsatzin zutena agertu». Bai: 1937an bertan behera utzi zuten aldizkaria, Ipar Euskal Herriko gizariek ez baitzuen barkatu Hegoaldeko iheslarien aldeko jarrera hartu izana²⁶. Edonola ere, *Aintzinak* ez zuen sekula bere jarrera modu argian erakutsi. Hona zer zioen aldizkariak 1936ko uztailean, «Lutte fratricide» izenburupean: «*Aintzina* a des amis dans les deux camps. Et les deux camps croient avoir raison. En réalité, il est bien difficile de juger». 1939a ailegatzearekin batera *Aintzina*ren lehen aroaren amaiera heldu zen, Espainiako Gerra Zibila bukatu berritan Alemaniaren aurkako gerrara joan baitziren *Aintzina*ko kide ugari urte horretan bertan.

Hiru urte itxaron behar izan ziren berriro ere *Aintzina* bizirik ikusteko. 1942an Lapurdiko Haltsu herrian finkatu zuten *Aintzina*ren egoitza berria Marc Legasse eta Jean Mari Diharce «Iratzeder»ek. Legassek *Gure Herria* hilabetekaria berriro ere martxan jartzea proposatu zion Piarres Lafitteri²⁷; *Gure Herria*ren zuzendaritza ez zen proposamen horrekin bat agertu, alemaniarrek oraindik hurbil zeudela eta geldirik egotea hobe zela pentsatuta. Artikuluak prest ziren, ordea, eta Laffitek Legasseri esan zion *Aintzina* izenaren jabe bera zela eta, horrenbestez, 1942an *Gure Herria*ren itxurarekin kaleratu zen berriro ere *Aintzina*.

Apurka-apurka, Marc Legasse eta Andre Ospitalen ardurapean, zenbaki berriak kaleratzen joan ziren: bizirik zen *Aintzina*, Legasseren diruari esker bereziki.

26. Historiak buelta handiak eman ohi dituzenez, egoera bitxia ikusi zen handik sei urte ingurura Iparraldean bertan: Francoren aurka borrokatu izana gaitzetsi zuen askok eta askok Errusiarekin borrokan bat egitea defendatu zuten orduan, Francoren lagun zen Hitler mendean hartze aldera.

27. Maria Gonzalezek jasoa duen moduan, (2008: 35), «naziek Ipar Euskal Herrira sartu eta bertan argitaratzen ziren bi kultur aldizkari mututu zituzten: *Gure Herria* eta *Euskaltzaleen Biltzarra*, hain zuzen ere». Bata zein bestea kazeta elebidunak ziren.

Gainera, ohorezko talde baten babesa ere bazuen. Besteak beste, St. Pierre apezpikua, Georges Lacombe, Jauregiberri anderea, Jean Elizalde, Aita Donostia, Jauregiberri medikua eta Leon Leon, Moulier eta Piarres Lafitte apaizak. Bigarren aro horretan, Lafitteri berari eskaini zioten bigarren *Aintzina* horren ardua hartzea, baina aurrez *Gure Herriaren* kasuan ateratako antzeko ondoriora heldu zen Lafitte: alemaniarrek oraindik hurbil zirela eta ez zegoela idazteko behar bezainbat askatasun. Edonola ere, erronkari baiezkua eman zion eta hartu zuen *Aintzina*ren gidaritza; ez hori bakarrik: denbora gutxian argitaletxe bilakatu zuen. Horrela, aldizkari formatuan ez baina liburuxka itxurarekin eman zituen argitara zenbait ale. Euren artean: *Errepikan* kantu bilduma, Oltsobiren alegiak, Axularri buruzko zenbaki monografikoa eta abar.

60 bat gazte biltzen zituen bigarren aroko *Aintzina*k eta 500 bat aleko botaldia zeukan. Aldizkariarekin batera, ordea, dantza, txirula, kantua, antzerkia, pilota eta gisakoak sustatzearen alde egin zuen. Talde barneko konponezinek eraginda, baina, 1943an plazaratzeari utzi zion.

Pare bat urte geroago, II. Mundu Gerraren amaierarekin heldu ziren, 1945eko irailean, kantonamenduetako hauteskundeak, eta euskal abertzaleak lehen aldiz bozketan presente izan ziren, Ipar Euskal Herriko kostaldean. *Nationaliste Basque* izenarekin aurkeztu ziren Marc Legasse Donibane Lohizunen eta Joseph Darmendrail Baiona iparraldean. Pierre Landaburu eta Andre Ospital, berriz, *Indépendants* bezala Miarritze eta Baiona mendebaldean.

Kalean zen ordurako *Herria* ere, euskaraz baina abertzale agertu barik. *Aintzina*k, aldiz, hautu garbia egin zuen bere garaian: gizartearen eragin politikoa izan guran, frantsesaren aldeko elebitasun diglosikoa hobetsi zuen, jende gehiagorengana ailegatze aldera. Bide berari ekin zion berak baino lehen *Gure Herria* kultur hilabetekariak (gerora bi hilez behin kaleratuko zuten). 1921etik 1939ra arteko lehen aro bat izan zuen kazeta horrek (zeina, lehen esan dugun moduan, alemanen etorrerak moztu baitzuen), eta II. Mundu Gerra amaitutakoan berragertu zen, 1950ean.

Bidea, beraz, markatuta zegoen: *Aintzina* eta *Gure Herriaz* geroztik etorriko ziren kazeta abertzaleak frantsesez mintzatuko ziren batik bat.

4.3. KULTURA ETA POLITIKA UZTARTUZ: ENBATA

1945eko hauteskundeak igarota, abertzaletasuna, politikari dagokionez, kinka larrian izan zen hamabost bat urtez (harik eta *Enbata* sortu zen arte), nahiz eta *Herria* edo *Gure Herriaren* tartean behin artikuluren bat agertzen zen. Aldizkari horiek lan ugari egin zuten euskal nortasunaren kontzientziari eustearen alde. Esate baterako, dantza-taldeak sortu ziren Euskal Herri osoan eta haiekin bat garatu zen ikurrinaren hedapena eta ezagutza ere.

Gizartea, baina, aldaketa handiak ari zen jasaten. Euskaratik frantseserako jauzia gertatzen ari zen eta Elizan, adibidez, frantsesak gero eta indar handiagoa zeukan. Era berean, nekazaritza eta abeltzaintza ere modernizazio-prozesuan murgildurik zeuden: traktoreak sartu ziren eta, ondorioz, eremu handiagoak landu-gatik ere, sektoreak gero eta behargin gutxiago behar zituen. Gazteak, beraz, XIX. mendean bezala, Ameriketara alde egin beharrean izan ziren. Eta Ameriketara ez bazen, Parisera edo Bordelera. *Enbata*ren arabera, garai hartan urtero batez beste 2.000 gaztek alde egiten zuten Euskal Herritik; 1954ko eta 1962ko biztanleria-kontakteten arabera, biztanleriaren % 8,9 galdu zuen Atharratzeko kantonamenduak, % 7,5 Iholdikoak eta % 6,6 Garazikoak.

Enbata aipatu berri dugu. *Enbata*ren aurretik sortu zen, ordea, *Embata*, 1950ean, Mathieu, Intxauspe, Arribillaga, Etxeberri eta beste zenbaiten bultzadaz. Lehen hamarkada hartan ez zuten euren kazeta aldizkari politikotzat jotzen. Hona, esanikoaren lekuko, 1957ko ekaineko zenbakian idatzi zutena: «C'est une amicale qui s'adresse à tous les étudiants et étudiantes du Pays Basque, quelles que soient leurs opinions politiques ou religieuses».

1960ko hamarkada ailegatu eta aldaketa nabarmen bat gertatu zen *Embatan*. Kazeta apolitikoa zen ordura arte, beraz, baina lema-kolpe bortitza eman zioten Ximun Haran, Mixel Labegerie eta beste hainbatek 1960 amaieran. Sortu berri zuten mugimendu abertzalearen dekalogoak paratu zuten kazetaren azalean. Ikasle-elkarteko gainerako kideek ez zuten begi onez ikusi lema-kolpe hura eta *Embata* izena erabiltzea debekatu zieten Haran eta gainerakoei. Hauek, berriz, «b» hizkiaren aurretik «m» ez baina «n» hizkia jartzeko erabakia hartu eta, hizki bat aldatuta, kazeta *Enbata* izenez kaleratzeari ekin zioten. 1961eko otsailean ikusi ahal izan zuten irakurleek, lehenez, aldaketa; euren mugimendu politikoaren bozeramaile izan zen aurrerantzean hilabetekari hura.

Abertzaletasuna indartzen ari zen apurka Iparraldean, baina beste hainbat eremutan ere mugimendu ugari ari ziren gertatzen. Parisen euskara hutsezko *Igela* agerkari satirikoa sortu zuten Jon Mirande eta Txomin Peillenek 1962ko otsailean eta *Enbata*ren sortzaileetako bat (Piarres Larzabal, hain zuzen) euskaltzain oso izendatu zuten 1963an. Baionako Euskal Erakustokian euskara ikasten ere hasi ziren 30 gazte inguru Beñat Dagorretekin. Beste hainbatek ere gauza berbera egin zuten Donapaleu eta Donibane Lohizunen. Egoera horren baitan sortu zen, lehen aldiz, *euskaldun berri* kontzeptua.

Bazen euskararekiko itxura bateko kontzientzia, baina *Embatan* oso leku urria zeukan hizkuntza horrek. Euskararen presentzia hutsala zela-eta, hain zuzen, kritika egin zuen irakurle batek eta honela erantzun zioten *Enbatatik*. «Anderea arrazoina duzu, baina hemen berean ikus otoi Sehaska kantua eta bertzerik ere

baduzu»²⁸. Gehiago ere adierazi zuten gaiaren inguruan; egin kontu orrialde oso bat hartu zutela *Enbata* euskaraz ez baina frantsesez zergatik zen argudiatzeko: eraginkortasunagatik... eta euskara salbatzeko. Hori bai: *Herrian*, abertzale ez zen *Herrian*, euskaraz idazten zuten artikulu-egile berberak.

Laborantzas, industriaz eta turismoaz ere baziharduen *Enbatak*. Baina, batez ere, abertzaleek euskal kulturaren gutxieneko jakintza bat izan zezaten egin zuen lan aldizkariak. Haien ustez Euskal Herriari buruz jakin beharrekoak ziren oinarritzko kontuak agertzen ziren zenbakiz zenbaki, hilabetez hilabete. Esate baterako, zenbait artikulu luze plazaratu ziren XVI. mendeko ustezko sorginei buruz, Hegoaldeko sindikatuez edota Euskal Herriaren historiari buruz: Jesus Galindezen desagerpena, Eusko Jaurlaritzako ministro komunistak, Orreagako gudua, Gernika, Agirre, Landaburu, Xaho, Matalas, Garat, Arana Goiri, Pointe du Grave-ko gudua eta abar. Euskal literaturaren oinarritzko jakintza eskaintzen ere saiatu ziren: Etxepare, Axular, Oihenart, Gazteluzar, Larramendi, Etxeberri, XVIII. mendeko antzerkia, Juan Amendux, Mendiburu, Peru Abarka, Lhande... Horrez gain, euskal arteaz eta pilotaz ere mintzatzen ziren.

Enbatak berak bere barneko orrialdeetan ziurtatzen zuenez, 1963. urtearen hasieran zenbakiko 4.500 ale botatzen zituen jada. Gainera, 1963ko urtarrilaren 13an kazeta eliza-atarietan saltzeari ekin zioten. Egun hartan, 204 ale saldu zituzten Hazparnen, 141 Donibane Lohizunen, 195 Donibane Garazin eta 90 Baigorri. Bi urte geroago, 1965ean, bestalde, lau egunean Zuberoan 600 ale saltzera heldu ziren, 300 Pauen eta 600 Bordelen (bertako euskaldunen elkartearen —Euskaltzaleen Biltzarra— jaietan batez ere).

Talde sendoa zuen kazetak atzean (Arbelbide, 1996: 111): «Hilabete guzietan militante guziak biltzen ziren kazeta plegatzeko, harpidedunen helbideak paperean idazteko eta kazeta igortzeko. Emeki emeki elgarren arteko loturak handitu ziren».

1963ko apirilaren 15a data esanguratsua da *Enbata*ren historian, lehen aldiz Aberri Eguna antolatu baitzuen, Itsasun. Jende oldea bildu zen bertara eta erabateko arrakasta izan zuen deialdiak.

Frantziaren jarrera politikoarekiko zalantzak ere areagotzen ari ziren *Enbata*ren baitan. Ez zuten ulertzen nola Afrikako 17 herrialdek independentzia lortu ahal izan zuten eta Euskal Herriak, aldiz, ez. Edota zergatik Aljeriatik ailegaturiko ehunka mila iheslari zuri diruz laguntzen zituzten erakunde publikoek eta Elizak, eta, aldiz, ez zuten dirurik ematen euskal preso eta iheslarien alde. Zalantza horiekin bat, mugaz bi aldeetako euskaldunen arteko harremanak ere aldatzen ari ziren. Hegoaldean ETA erakunde armatua sortu berri zen eta, horrenbestez, Hegoaldetik ihes egindako gero eta lagun gehiagok hartzen zuten aterpe Iparraldean. *Enbata*

28. «Eskuararen inportantzia». *Enbata*, 11. 1962ko otsaila, 8. or.

bera ere, mugimendu bezala, iheslari horien alde hasi zen lanean. Aldi berean, gainera, militanteen formazioari ekin zion. Garai zailak izan ziren haiek Jean Louis Davanten arabera (1997: 5).

1965 est un une année très dure, avec l'expulsion de quatre réfugiés travaillant à Hasparren (Benito del Valle, Txillardegi, Madariaga, Iñaki Irigarai) et le procès des deux derniers à Bayonne en janvier, puis l'incarcération à Pampelune de Christiane Etchalus, militante d'Enbata, le 2 février. Nous y répondons par la distribution répétée du journal au pont international d'Hendaye, souvent interrompue par des interdictions préfectorales et des séjours au commissariat. Mai sen même temps, nous constatons la chute libre des abonnements qui, en quelques mois, passent de plus de 700 à mois de 200: le risque de violence fait peur aux sympathisants. Christiane étant accusée par la guardia civil de collaboration active avec les premières explosions symboliques d'ETA...

Funtsean, eta batez ere denboraren joanarekin indartuta, mugimendu politikoa izan zen *Enbata*, baina, Xipri Arbelbidek dioen legez (1996: 292), «kultur munduan du menturaz eragin handiena izan *Enbata-k*». Azpimarragarria da adibidez Mikel Laboak nola aitortu izan duen *Embataren* izenean Ximun Haranek sorturiko euskal disko bildumari esker ezagutu zuela euskal kantua. Antzerki-munduak eginiko ibilbidean ere *Enbatak* eraginik izan zuela esan daiteke Arbelbideren arabera; *Matalas* eta *Orreaga* lanak ez zirela kasualitatez sortu deritzo berak, ezta *Euskal Dantzarien Biltzarra* bera ere. Euskara batuari buruzko lehen bilkurak ere *Enbataren* magalean egin ziren, Ipar eta Hego Euskal Herriko kideen elkarlanari esker: 1964ko udan egin zen lehen kongresu hura Baionan, eta 50 bat euskaltzale inguru bildu ziren bertan.

Enbata astekaria da gaur egun, eta, orduan bezala, bigarren mailakoa da bertan euskararen presentzia. Ezen *Gure Herriak*, *Aintzinak* eta *Enbatak* atek parez pare zabaldu baitzizkioten elebitasun diglosikoari eta Ipar Euskal Herrian harrezkero sorturiko kazeta gehienek bide hori urratu baitute.

Salbuespenen artean, jada izendatua dugun *Herria* da nagusi. Izan dira euskarazko beste saio batzuk ere, bizitza laburrekoak guztiak (1945eko *Oiarzuna*. *Eskualdun Emazten kazeta*, 1950eko *Pottolo*. *Eskualdun haurren agerkaria*, 1960 eta 1962 artean plazaratu zen *Pan-Pin* haurren hilabetekaria, *Otoizlari* erlijio-kazeta edo 1970eko hamarraldiko *Hitz* eta *Zabal* aldizkari politikoak, besteak beste), baina, ahaleginak ahalegin, kontua da euskarazko prentsak garai batean izaniko erreferentzialtasuna galdu duela Ipar Euskal Herrian, eta, itxura guztien arabera, senperrenak egin beharko dituela erreferentzialtasun hori berreskuratzeko.

ATALEAN BALIATURIKO ITURRIAK

- Arbelbide, X. (1996): *Enbata. Abertzalegoaren historia Iparraldean*, Kutxa Fundazioa (1995eko Irun Hiria Literatur Sariak), Donostia.
- Bidegain, E. (2009): “Astez aste, ibilbide luzea”, *Berria* egunkariaren *Igandea* gehigarria, 2009-03-22, 1-5.
- Davant, J.L. (1997): “36 ans de journalisme abertzale”, *Enbata*, **1.500**, 3-6.
- Gonzalez, M. (2008): *Euskal Herriko prentsa. XVIII. mendetik 1945era*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.
- Iriarte-Urruti, J. (2004): *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio* (Xabier Altzibarren edizioa eta hitzaurrea), Labayru-BBK Fundazioa, Sutondoan sorta, Bilbo.
- Lafitte, P. (1971): “Euskal astekariaren ixtorioa (1887-1969)”, *Gure Herria Almanaka*, Baiona, 17-49.
- Sudupe, P. (2001): “*Aintzina* petainzalea?”, *Jakin*, **127**, 89-107.
- Zuberogoitia, A. (2003): *Euskararen presentzia gaur egungo prentsa elebidun abertzalean*, Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen-zerbitzua, Bilbo.

5. Euskarazko prentsaren birloratzea Hego Euskal Herriko gerraostean: *Egan, Euzko Gogoia, Argia, Anaitasuna, Goiz-Argi...*

5.1. GERRAREN OSTEAN, LEHEN AHALEGINAK

1936an hasitako gerra 1937an amaitu zen Hego Euskal Herrian, frankista, falangista eta erreketete osteak Bilbon sartzearekin batera. Francoren erregimenak beste urte bi behar izan zituen Espainian gailentzeko, baina behin 1939az geroztik erabateko agintea erdietsi zuen. Horrek, gauza jakina da, ez zion ezelako mesederik egin euskarazko komunikazio-munduari, justu kontrakoa baizik: nola ordura arte Hego Euskal Herrian euskaraz kaleratu ohi ziren kazeta guztiak hala euskarak irratian izan ohi zituen agerraldi bakanak desagertu egin ziren, salbuespen barik. Bizitza publikoan euskarak zeukan presentzia oro ezabatu zuten, azken batean, frankistek.

Ondorioak, bistan denez, latzak izan ziren: euskaraz ziharduten ordura arteko idazle zein kazetari gehienak edo gerran hil ziren (zituzten) edo atzerrian zeuden. Erregimenak, gainera, luzaroan irauteko itxura zeukan. Kinka zail horretan, posibillismoaren aldeko hautua egin zuten batzuek; hots, orduko muga estuen barruan, garai hartako zirrikitu eskasak baliatuta, euskararen iraupena bermatuko zuten erakunde zein dinamikak berpizten/eraikitzen saiatu zirela. Hara bestela zer dioen *Argiak* kaleraturiko txostenak (1988: 253):

Hegoaldeari dagokionez, frankismoak agintea hartu zuenetik kasik hogeitau urteko isilunea dago aldizkarigintzaren alorrean. Orden erlijiosoan babesean hasi ziren lehen urratsak burutzen: frantziskotarrek sortu zituzten *Anaitasuna* (1953) eta *Jakin* (1956), kaputxinoek *Zeruko Argia*-ren etapa berria, eta karmeldarrek *Karmel* (1956). Beste batzu instituzio ofizialen babesean eragin ziren: *Egan*, 1954an euskaldun bilakatu zena; eta *Euskera*-ren bigarren aldia (1956).

Bide hori urratu zutenen artean Resurreccion Maria Azkue lekeitiar bilbotartua nabarmendu zen batik bat. Azkuek Erregimenarentzat batere susmagarri ez ziren lagun batzuegana jo zuen (Julio Urkijo deustuar karlistarengana eta Antonio Arrue asteasuar frankistarengana, besteak beste) Euskaltzaindia berriro abiarazteko asmoz. Baita lortu ere, haien bitartekaritza lagun, diputazioekin eta orduko agintariekkin tratuan jardun eta gero.

Azkueren azken urteetan haren aldamenean izan zen Alfonso Irigoienek ere lekeitiarraren eskolari eutsi zion eta horri esker lortu zuen, besteak beste, gerra osteko estreinako bertsolari txapelketak antolatzea (milaka lagun bildu ziren Bilboko Areatzan 1950eko hamarraldiaren amaieran) edota legeztatzea, Euskal Herrian estreinako biderrez, ikastola bat, non eta Bilboko bihotzean²⁹.

Kontua da Azkuek irekitako zirrikitu horiek apurka-apurka euskara hedabideetara itzularazteko bidea zabaldu zutela. 1948an eman zen estreinako urratsa norabide horretan, *Egan* aldizkariaren jaiotzarekin batera. Aldizkari hori politika posibilstaren isla dugu, frankisten susmopean ez zeuden elkarte biren babesean jaio baitzen: Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte³⁰ batetik, eta Gipuzkoako Diputazioa bestetik. Literatura-buletin bezala sortu zen, urtean lau zenbaki argitaratuta; hizkuntza bitan plazaratu ohi zen hasierako urteetan, gaztelaniaz eta euskaraz, eta erbestean ez zeuden izen handiko euskal idazleek idatzi ohi zuten bertan, hala nola Gabriel Celayak, Jose Artetxek, Jose Miguel Azaolak, Mariano Ciriquiainek, Federiko Krutwigek, Salvatore Mitxelenak, Emeterio Arresek edota Koldo Mitxelenak. 1953an, Antonio Arrue, Koldo Mitxelena eta Aingeru Irigaraik kazetaren zuzendaritza euren gain hartu zutenean, bira itzela eman zuen aldizkariaren hizkuntza-politikak eta euskara hutsezko bihurtu zen *Egan*. Hiru kideok 1954ko 2-4 zenbakian *Asmo Berri* izeneko editoriala argitaratu zuten. Aldizkariarekin zituzten helburuak eta etorkizunera begirako asmoak azaldu zituzten bertan.

1953tik 1987rako aroan *Egan* aldizkariaren 55 zenbaki plazaratu ziren eta euskal kultura eta literaturako izen garrantzitsuenen lanak irakurri ahal izan ziren: Koldo Mitxelena, Jon Mirande, Txomin Peillen, Txillardegi, Gabriel Aresti, Manuel Lekuona, Antonio M. Labaien, Nemesio Etxaniz, Piarres Larzabal, Jon Etxaide, Piarres Lafitte, Gurutz Ansoa...

Frankismo-garaian egin zuen ibilbideari gagozkiola, nabarmentzekoak dira haren ezaugarri batzuk: batetik, bere garaian izan zela belaunaldien arteko zubi eta erbestean ez zeuden euskal kulturako izen garrantzitsuen plaza nagusi; horrez gain, edukien aldetik ere ekarri zuen berrikuntzarik. Euskararentzat ordura arte arrotz ziren hainbat gaitan murgildu zen aldizkaria: literatur kritikan, artikulugintzan, zinema-kritiken eremuan nahiz sorkuntza-arloan, barbarako. Azpimarragarriak dira, esaterako, Koldo Mitxelenak eta Gurutz Ansolak egindako zinema-kritikak edota *Jan Edanak* sailean Antonio Arruek gastronomiaren inguruan idatzirikoak. Antzerkiari dagokionez ere bere ekarpena egin zuen *Eganek* eta Labaien, Lizardi, Zubikarai, Larzabal, Etxaide eta beste zenbaiten obrak argitaratu zituen. Horrez

29. Ikus honi guztiari buruz gehiago in Aitor eta Pedro Zuberogoitia, 2008.

30. Ilustrazio garaian Xabier Munibe Peñafioridako kondeak sorturiko arlo zientifiko eta kulturaleko erakundea. Elkartearen helburu nagusia da, hasiera-hasieratik, hainbat gai, arte, diziplina, zientzia edota literatura-, gizarte- eta giza jarduera lantzea eta sustatzea. Azkoitiko Insausti jauregian du egoitza nagusia eta azken urteetan, garai berrietara egokitzeaz gain, argitalpen interesgarriak plazaratzen ditu urtero.

gain, euskara batuari buruz gizartean zegoen eztabaidaren isla ere izan zen eta kazetako orrialde ugari hartu zituen gaiak.

Frankismoaren azken txanpan eta Francoren heriotzaren ondorengo urteetan plazaratu berri ziren idazle eta kultura-eragileentzat ere agertoki ederra izan zen *Egan*: idazle ugari artikulu-zerrenda luzea argitaratu zuen urteotan. Harrezkero ibilbide luzea egin du kazeta horrek: 1948tik 1987ra arte (Koldo Mitxelena zendu arte, beraz) 74 zenbaki atera zituen. Hasiera batean urtean lau zenbaki kaleratuz, urte batzuetan hiru zenbaki, beste zenbaitetan bi, eta baita hainbat urtetan zenbaki bakarra ere. Mitxelenaren heriotza ostean 1988a kaleratzeke eman eta gero, 1989an beste talde batek hartu zuen bere gain aldizkariaren ardura, eta gaur egun ere plazaratzen jarraitzen du.

Eganek Euskal Herrian bertan eta Erregimenak ezarritako muga estuen barruan ekin zion, beraz, bideari. Urtebete geroago, 1949ko abenduaren 26an, Guatemalan erregistratu zuen Jokin Zaitegi Plazaolak euskara hutsezko beste aldizkari bat: *Euzko Gogo*a. Jokin Zaitegi 1937. urtean ailegatu zen Ameriketara, Belgikatik. Panama izan zuen lehen geldileku eta El Salvador ostean. Irakasle-lanetan jardun zuen San Carlos Unibertsitatean eta America Institutuan eta Mexikon eman zuen argitara, 1946an, bere lehenengo poema-liburua: *Goldaketan*.

1949a baino lehenagotik zerabilen buruan Zaitegik euskara hutsezko aldizkari baten asmoa; hain zuzen ere, bi urte lehenago jada bere ideien berri emana zion gutun bidez Andima Ibiñagabeitiari. Esan bezala, 1949ko azkenetan erregistratu zuen, ordea, *Euzko Gogo*a, 739 zenbakiarekin Guatemalako Posta Etxean. Urtearen amaiera izanik, 1950ean atera zen estreinako zenbakia inprimategitik (Hispania inprimategitik), mundu osora hedatzeko. Kultura-gaiei emana zen batik bat: literatura, artea, musika, filosofia, historia, linguistika, klasikoek itzulpenak (Shakespeare, Virgilio, Zizeron eta beste zenbait)... Denbora gutxian euskal kultura modernoaren euskarazko agerkari garrantzitsuenetarikoa bilakatu zen.

Hasierako hilabeteetan Orixe izan zuen Zaitegik lankide nagusi (Argentinatik joanda), eta Andima Ibiñagabeitia gero (Orixek agerkariko lana utzi zuenean). 1954a zen Ibiñagabeitia *Euzko Gogo*ari atxiki zitzaionean; ordutik aurrera Zaitegiren lankide-buru izan zen. Aldizkariak, berriz, aro bi izan zituen: Guatemalan lehena, 1950etik 1955era (27 zenbaki orotara, 1953an argitaratu ez zen arren), eta Miarritzen bigarrena (17 zenbaki 1956tik 1959ra). Lehen etapan hurrenkera honetan argitaratu ziren zenbakiak: zazpi 1950ean, sei 1951n, sei 1952an, bost 1954an eta hiru 1955ean. Maiztasun aldakorra izan zuen, beraz, eta folio neurriko formatuari eutsi arren, orri kopuruak ere aldaketak izaten zituen zenbaki batetik bestera.

Bigarren aroari dagokionez, berriz, honela banatu ziren argitaraldiak urtez urte: sei zenbaki 1956an, bost 1957an, lau 1958an eta bi azken urtean, 1959an. Azken zenbakia, baina, 1959ko martxo-ekaina dataz plazaratu arren, 1960ko uztailean

inprimatu zuten, arazo ekonomikoak tarteko. Izan ere, *Euzko Gogoak* bere ibilbide osoan (Guatemalan zein Miarritzen) banaketa- eta diru-arazo larriak izan zituen: egin kontu erbestean Euskal Herrian adina harpide zeuzkala (Txilen, Venezuelan, Frantzian, Argentinan...) eta izugarri zaila eta garestia zela horiei guztiei kazeta helaraztea.

Testuinguru horretan eman zituen bereak, beraz, *Euzko Gogoak*. Lan zail hori egin izana bada berez nahikoa meritu, baina beste lorpen bat ere aitortu behar zaio: «Jaungoikua eta Lagi-Zarra» lelopean hazitako belaunaldi zaharra (Nemesio Etxaniz, Antonio M. Labaien, Salvatore Mitxelena, Manuel Lekuona...) eta bestelako burubideak zekartzan belaunaldi berria (Txomin Peillen, Jon Mirande, Txillardegi, Gabriel Aresti...) bere orrialdeetan biltzen asmatu izana, hain zuzen. Gerra aurrea, erbestea eta euskal literatura modernoa uztartzea, funtsean.

5.2. KAZETA BERRIEMAILEEN LORALDIA

Edozelan ere, atal honetan orain arte aipaturiko kazeta biak (bai *Egan*, bai *Euzko Gogoak*) kultura-aldizkariak ziren, ez kazeta berriemaileak. Euskarazko kazeta berriemaileak urte batzuk geroago hasi ziren loratzen Hego Euskal Herrian, aurrez aipatu bezala, ordena erlijiosoen magalean betiere: frantziskotarrek, barbarako, sortu zituzten *Anaitasuna* (1953-1982), *Jakin* (1956; hau ez da berriemailea, pentsamendu-aldizkaria baizik) eta *Goiz-Argi* (1958-1982); karmeldarrek, *Karmel* (1956; kultura-aldizkaria hau ere); kaputxinoek, azkenik, 1919an jaiotako *Zeruko Argia* berriz kaleratzeari ekin zioten 1954an. Kazeta elizkoi horien guztien arteko salbuespena (Elizaren magalean plazaratu ez zen bakarra, alegia) Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkaria izan zen, 1956an berragertua (urtean hiru zenbaki) eta garai haietan eginkizun zen euskara batuaren eraikuntza-prozesuan garrantzi handia izan zuena.

Agerkari horiek aipatuta, ezinbesteko zaigu une batez soa haiengan fokatzea, labur antzean bada ere. *Karmel* aldizkaria, esaterako, historia luzeko aldizkaria da. 1931-1936 urteen arteko *Karmengo Argia* aldizkari herrikoian du jatorria. Ondoren, bere ibilbideari jarraitu zion *Karmengo Amaren Egutegi* bezala 1951-1956 bitartean, 1957an berriro ere aldizkari-formatura itzultzeko. 1961ean, ordea, Gobernuak debekatu egin zuen, eta *Karmelek* ez zuen argirik ikusi 1970ean berriz ere hura argitaratzeari ekin zitzaion arte; harrezkero, gaur egunera arte jarraitu du. Egun, hiru hilez behin kaleratzen da *Karmel*, eta 112-128 orrialde inguruko aldizkari mardula da.

Azpitarragarria da *Karmelen* gehigarri gisara jaiotako *Olerti* aldizkaria ere. 1959an atera zen lehenengo zenbakia, Zornotzako Larrean atera ere. Hamarkada oso batez (1969ra bitarte) hiru hilez behin kaleratu zen poesiari bete-betean emaniko agerkari hori; 28 zenbaki utzi zituen orotara, eta baita idazle zerrenda luzea ere:

Amaia Lasa, Andima Ibiñagabeitia, Balendin Enbeita, Bitoriano Gandiaga, Gabriel Aresti, Gaztelu, Jean Louis Davant, Jon Lopategi, Jon Mirande, Joxe Azurmendi, Joxe Mari Satrustegi, Juan Mari Lekuona, Manex Erdozaintzi-Etxart, Orixe, Telesforo Monzon, Txomin Peillen, Xabier Iratzeder... Alabaina, 1970ean Espainiako Gobernuak argitalpena kaleratzen jarraitzea debekatu zuen. Normala ere bai, neurri batean behintzat, bere ibilbide guztian intsumisioaren aldeko hautua egin baitzuten kazetaren sustatzaileek (eta, horrenbestez, baita *Olertik* ere), Onaindiak berak aitortzen zuen gisara³¹: «Ziur nekian baimenik ez eustala gobernuak emongo, eta Suplemento Poético de Karmel jarri neutson kaparra sartu gurarik». Horregatik sei-zazpi aldiz jaso zuen poliziaren bisita, Manuel Fraga Iribarne ministroak 1970ean berau erabat debekatu zuen arte.

Hamar urte geroago berpiztu egin zen, Eusko Ikaskuntzaren magalean, eta 1984tik aurrera *Olerti* erakunde horren «Cuadernos de Sección, Hizkuntza eta Literatura» agerkariarekin batera banatzen hasi ziren, gehigarri bezala.

Jakin pentsamendu-aldizkariari dagokionez, bestalde, 1956an sortu zen, Arantzazuko frantziskotar ikasleen ekimenez, Seminario Nagusiaren eta legearen baimenik gabe. Bost urte geroago, 1961ean, lehen debekua pairatu zuen, baina berriro abiatu zen 1964an. Une horretan bertan hasi zen Joan Mari Torrealdai idazle, kazetari eta soziologoa *Jakinen* lanean, eta aldizkariaren zuzendari modura dihardu 1967az geroztik.

1968an, bestalde, *Jakinek* gai erlijiosoetatik gai kultural, soziopolitiko eta ideologikoetarako jauzia egin zuen, eta, modu horretan, publiko orokorarentzako aldizkari bihurtu zen. Kazetaren ibilbide euskaltzale, sozialista eta erregimenaren aurkakoa aitzakiatzat hartuta, Fragaren legeak bigarren debekualdia ekarri zion *Jakini* 1969an eta, ondorioz, isilik izan zen hurrengo hilabeteetan, harik eta 1977an, Franco hil eta pare bat urtera, debekua bertan behera geratu zen arte.

Aldizkariaren zuzendaritzari erreparatuta, 1967ra arte Arantzazuko ikasleen esku izan zen eta ez zuen, horrenbestez, zuzendari egonkorrik izan. 1968ko jauzi kualitatiboak zuzendaritza-politikaren aldaketa ere ekarri zuen: testuinguru hartan, Karlos Santamaria, Rikardo Arregi eta Joan Mari Torrealdaik hartu zuten aldizkariaren zuzendaritza. Une horretatik aurrera zuzendaritza finkoa izango zuen *Jakinek*. Maiztasunari dagokionez ere, aldakorra izan da aroz aro. 1967ra arte urtean hiru zenbaki kaleratu ziren, 1967-1968an lauzpabost urtean, 1969an bi, launa zenbaki 1977-1989 bitartean, eta urtean sei 1989tik gaur egunera arte.

Kontuak kontu, kazetaritza berriemailerako benetako jauzia 1960ko hamarraldian eman zuen Hego Euskal Herriko euskarazko prentsak, Espainiako legeak apur bat malgutu zirela baliatuta. Hara bestela zer zioen *Zeruko Argi*ako kide ohi

31. Ikus horri buruz <http://andima.armiarma.com/oler/> web orrialdea.

Mikel Atxagak 1987ko *Euskal Kulturaren Urtekarian*, Espainiako gerraostez mintzo zela (*Argia*, 1988: 247):

Frankismoaren garaian ere, nolabait, guk nahi genuen euskara batetik, baina bestetik geure eritziak eta abertzale sentimenduak-eta, arrazoi horiek plazaratu. Hori jira-biraka ibiltzen da gure aldizkarietan. *Egan* eta *Euzko Gogo*a beste moeta batekoak ziren; herriari begira hasten dira *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna* —geroztikako kontua da *Goiz-Argi*-ren kasua—, ni ez nintzen sorketa momentu haietan han, baina suposatzen dut egundoko zirrara sortuko zutela euskaldungoan, artean ez bait zuten alderdi honetan behintzat horrelako aldizkaririk.

Horrela izan zen, bai: Arantzazuko frantziskotarrek 1958an sorturiko *Goiz-Argi* aldizkaria (zeina *Arantzazu* hilabetekariaren nekazarientzako eranskin bezala kaleratu izan baitzen), esate baterako, informazio orokorreko bihurtu zen 1960an (1982ra arte iraun zuen). Ramirez de la Piscina horri buruzko argibide gehiago damaigu (1998: 194):

Goiz-Argi (1958-1986) Arantzazuko gordelekuaren itzalean sortutako aldizkaria dugu. Jose Antonio Garate izan zen hasierako zuzendari eta bultzatzailea. Garai hartan *Arantzazu* aldizkariaren eranskina izan zen. Bertan, erlijiosoak ez ziren idazleek idatzi zuten, batez ere, nekazaritzari lotutako gaiak. Maiztasuna eta orri-kopurua ere aldakorra izan da aldizkariaren historian. Azken fasean (...) hilabetekari bihurtu eta informazio orokorreko gaiak agertzen zituen.

Zeruko Argiak ere, Espainiako Turismo Ministerioak 1960an ezarritako debekuari buelta eman eta, 1963an astekari bihurtuta, erlijio-gaien pisua arindu eta garaiko eztabaidei heldu zien. Aldaketa handia izan zen hura, eta horri esker *Zeruko Argiak* erreferentzialtasuna eskuratu zuen tokiko informazioan, bere orrialdeetara gazte-jendea erakartzeaz gain. Mugarri izan zen beraz, 1963. urtea *Zeruko Argiarentzat*, Txema Ramirez de la Piscina ondo dioenez (1998: 187):

Zeruko Argia-ren historian 1963ko urtea giltzarri gertatu zen, hasierako egitasmo hura orduan birkaleratu eta birmoldatu egin baitzen, goitik behera gainera. Batetik, astekari bihurtu zen eta bestetik, informatiboa egin. Harexek eman zion behin betiko bultzada *Zeruko Argia*-ri. Orduko aldaketen erantzulea Agustin Ezeiza izan zen. Bera izan genuen benetako sortzaile, sustatzaile eta gidatzaile³². Zentsuraren arazo asko

32. Hara zelan oiroitzen dituen Ezeizak berak garai haiek (*Noticias de Gipuzkoa*, 2009-03-17): «Orduan [1950eko hamarraldi amaieran] hamabostaldikoa izatera aldatu nahi izan zuten [*Zeruko Argia*], baita azalez eta formaz egokitu. Hiru zenbaki atera eta berehala Ministerio de la Información delakoak eten egin zuen. Garai hartan hark agintzen zuen eta ez zegoen ezer egiterik; apropos baimena eman zuen pixka bat zorrak sortu arte eta gero kendu. Orduan, 1962an *Pan Pin* izeneko haur aldizkaria zuzentzeko agindu zidaten. Hori bideratu ondoren pentsatu nuen *Zeruko Argia* astekaria kaleratzeko aukera egongo zela, baina beste zabaltasun batez eta informazio orokorrarekin. Garai hartan, Fraga Iribarnek prentsako lege berria atera zuen eta hura aprobetxatuz lortu genuen baimena astekari gisa sortzeko. Kazetari bat eskatzen zuten eta lehenengo zailtasuna kazetari euskalduna aurkitzea zen. Gainera, Iruñean edo Nafarroan aritu behar ginen, guk ez genuelako Donostian atera

izan bazituen ere (adibidez *Aberri* hitza ezin zuten erabili), aldizkariak euskaltzaleen etxeetan sartzea lortu zuen, pitinka-pitinka. Izan ere, Nemesio Etxaniz eta Rikardo Arregi bezalako idazleek dezente lagundu zioten haizea hartzen hauspo hari. Orduko bultzagileek garbi asko zeukaten alderdikeria eta taldekeria guztietatik libro bizi behar zuela aldizkariak, eta horretan ahalegindu ziren.

1953an sorturiko *Anaitasuna* hilabetekari bizkaitarra, azkenik, hamaboskari bihurtu zen 1967an eta belaunaldi berriek hartu zuten haren ardura (euskara batua-
ren eta abertzaletasun ezkertiarren sustapenean nabarmendu zen aurrerantzean kazeta hori, harik eta zuzendaritza-aldaketa askoren ostean, 1982an desagertu zen arte).

Kazeta berriemaileen aroaren oinarriak ezarrita zeuden, beraz. Aurrerago aztertuko dugu horrek guztiak zertzuk aldaketa ekarri zituen. Ikus dezagun orain zein zen euskararen presentzia irrati-uhinetan hedabide berri hori asmatu eta ondo-
rengoko urteetan.

ATALEAN BALIATURIKO ITURRIAK:

Argia (1988): “Euskal prentsak 100 urte bete ditu”, 1987, *Euskal kulturaren urtekaria*, Argia, Argia, Donostia.

Ibiñagabeitita, A. (2000): *Erbestetik barne-minez*, Susa, Zarautz.

Ramirez de la Piscina, T. (1998): *Kazetari-lana Euskal Herrian. Interpretaziorako eta espezializaziorako abiaburuak*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.

Zalakain, J.M. (1993): *Joxemiren uzta. Euskal prentsa herri proiektua da*, Txalaparta, Tafalla.

Zuberogoitia, A. (2003): *Euskararen presentzia gaur egungo prentsa elebidun abertzalean*, Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen-zerbitzua, Bilbo.

Zuberogoitia, A. eta Zuberogoitia, P. (2008): *Bertan Bilbo. Bizkaiko hiriburua eta euskara: XX. mendeko historia*, Bilboko Udala, Bilbo.

nahi. Bagenekien Donostian ateraz gero bizpahiru zenbaki plazaratu eta itxi egingo gintuztela. Orduan, kaputxinoen buruak Iruñean zeuden eta han kokatu genuen astekaria, nahiz eta Donostian prestatu. Ez dakit nola gertatu zen, baina badakizu zein izan zen *Zeruko Argiaren* lehen kazetaria? Iñaki Gabilondo. Prestatu zen eta gugan konfiantza guztia jarri zuen. Horrela hasi ginen, zailtasun horiekin guztiekin, baina hasi ginen. Hasieran ez genuen ez lokalik ez bilgunerik. Idazleak eta kazetariak ez genituen ia ezagutzen. Baserritarrak kenduta, irakurle berriak sortu behar genituen. Astekari bezala irauteko iragarkiak ere lortzea beharrezkoa zen. Euskal Herriko jaiak aprobetxatu nituen jaietan zeuden herriek iragarkiak ipintzeko. Horrekin ere nahiko protesta izan nituen, baina azkenean aurrera egin genuen (...)».

6. Euskarazko estreinako irratsaioak mugaz alde bietan

6.1. EUSKALDUNAK IRRATIAN: GALDU EZ ZEN TRENA

Beste berrikuntza batzuk gurera berandu samar iritsi ziren arren, ezin dugu gauza bera esan irrati bidezko komunikazioari dagokionez. Egin kontu Guglielmo Marconi-k 1897an patentatu zuela hari gabeko telegrafia (baita Wireless Telegraph Signal Company sortu ere) eta 1920ko hamarraldia hasierarako irrati-entzuleen elkarteak sortu zirela Bilbo eta Donostian, Marconiren asmakizuna ezagutarazteko eta komunikabide berriaren hedapena hauspotu guran. Hamarkada horretan ezarri behar da, beraz, Euskal Herriko irrati-hedapenaren abiapuntua. Amezaga, Arana eta Azpillagak dioten moduan, Frantzian zein Espainian ere garai beretsuan ekin zion bideari irratigintzak (2010: ork. gabe):

Espainiar Estatuan eta Frantziar Estatuan, bultzada pribatuak eta gerrek markatuko dituzte neurri handian irratigintzaren sorrera eta hasierako garapena. Joan den mendeko bigarren hamarkadan, lehen irrati emandegi komertzialak aireratu ziren (*Radio Ibérica* 1912an eta, jada egonkor, *Radio Barcelona* 1924an, eta Frantzian, 1922an, *Radiola*, geroago *Radio Paris* izango zena), eta handik urte gutxira irrati publikoak sortu ziren, beti ere, militarki, politikoki eta komunikatiboki tresna huts bihurtuta munduko zein Espainiako gerrek iraun zuten bitartean, eta baita ostean ere.

Garai horretakoa da, halaber, irrati-komunikazioa arautzeko Espainiako estreinako legea. Horrela, 1923ko otsailean Espainiako Gobernuak irratia arautzeko dekretua eman zuen argitara; urtebete geroago (1924ko maiatzean, hain justu) jarri zen indarrean, Primo de Riveraren gobernupean. Arautegi horren arabera, Estatuaren irrati-hedapenaren zerbitzuaren jabea, baina Gobernuak emandako kontzesioen bidez irratien kudeaketaren ardura esku pribatuetan geratzen zen. Behin legea ezarrita eta irrati-entzuleen elkarteek hazia ereinda, laster erne ziren Euskal Herriko lehen kateak ere: Radio Club de Vizcaya, Radio Vizcaya SA eta Radio San Sebastián, hurrenez hurren.

Radio Club de Vizcaya-ri dagokionez, aurrez hainbat emisio solte egin bazituen ere, 1925eko martxoaren 4an ekin zion lanari erregulari, EAJ-9 adierazlearekin ekin ere, Bilboko Carlton Hoteletik. Hasiera hartan 19:00etatik 21:00etara jardun ohi zuen egunero; 415 metroko uhin-luzera zeukan, eta 1 kW-eko indarra (50-60 kilometrotan entzun ohi zen, baina 2.500 kilometro harago ere iritsi bide

zen batzuetan haren seinalea). Irratsaioen arrakasta ikusita, ordutegia luza-tzearen aldeko apustua egin zuten Radio Club de Vizcaya-ko arduradunek, eta, horrenbestez, arratsaldeko hasiera-ordua 19:00etatik 18:00etara aurreratu zuten. Zer zeukan, baina, irradi horrek euskaldunetik? Ezer gutxi, egia esan. Domeketan izan ohi zuen euskarak presentzia apurren bat bere programazioan, egun horretan irradi bidezko euskara eta esperanto eskolak ematen zituzten-eta.

Aurrerago ikusiko dugunez, hori baino apur bat euskaldunagoa zen Sabino Uzelaietaren ekimenez sorturiko Radio San Sebastián. Hori izan zen Euskal Herriko estreinako irradi lizentziaduna, 1924ko azaroaren 24an erdietsi baitzuen emititzeko baimena, EAJ-8 adierazlearen baitan. Edonola ere, urtebete geroago ekin zien emanaldiei: 1925eko urriaren 5eko arratsaldeko 17:00etan egin zen ekitaldi ofiziala, hiriko agintariak ere bertan zirela. Igeldon kokaturiko *kaiola* motako antena zeukan Radio San Sebastián-en irradi-igorgailuak eta, 500 watteko antena horri esker, hedadura-eremua oso zabala zen. Atzerritik ere entzuten zen, beraz, eta, ondorioz, gaztelaniaz ez ezik frantsesez ere jardun ohi zuen, eta, batzuetan, baita euskaraz ere. Arratsaldeetan egiten ziren emanaldiak, bi zatitan banatuta: 15:00etatik 17:00etara lehena, eta 21:00etatik 23:00etara bigarrena. Orduko kroniken arabera, 1925eko irailaren 29an zabaldu zen euskara aurrenekoz irradi bidez. Hona hemen, esaterako, *Argian* Nabarriztarrak nola deskribatu zuen Radio San Sebastián (Diaz Noci, 1995: 230):

Irratizkin au (...) bi zatitan dago: irragiña Txubillo-mendian (Igeldo ez da mendi orren izena, andik ordu-erdiko bidean dagon errairen baizik), eta irratola (estudio) Donosti uri barrenean.

Irratin-gayak Western Electric Company batzak egiñak dira. Goi-aria burizko bi zatikako luzien artean dago lurretik 40 neurkin (m.) goyak. Irragiña jartzeko toki oberik ezin zitekean asmatu.

Irratola ere ondo jarrita dago. Emen esan, abestu edo jotzen dana, iru aneurkin (km.) luze dan iristen da irragiñera, ta onek ortzai (eter) bidez alde guzietara irradaten du. Oraingo irragiñak 500 watt-neurriko indarra egiten du; bi illabete barru edo, ordea, oingoa kendu ta erosi duten berria jarriko omen dute, lau bider indar geigo egingo duna. Erabiltzen dun ortzai-ozka (onda) 343 neurkiñekoa da (...).

Armando Oterok sortu zuen, bestalde, EAJ-11 adierazlea zeukan Radio Vizcaya SA emisora, Bilbon. 1925eko maiatzean hasi zen emititzen Bilboko *La Terraza*-tik. Proba moduan igorri ziren lehen saio haiek, eta ekainaren 19an lortu zuen jarduera-baimen ofiziala. Alderdi teknikoei dagokienez, igorgailua 418 metroko uhin-luzeran kokatzen zen, eta hedadura-eremu zabalera ailegatzeko gaitasuna zeukan.

Edozelan ere, hamarraldiaren amaieran Unión Radio espainiar taldeak irentsi egin zituen Hego Euskal Herriko irratia oro. 1926ko apirilean Espainiako Gobernuak irratitari buruzko arautegian eginiko erreforma zegoen horren jatorrian.

Zehazki, 29. artikulua aldaketak irratilizentzien salerosketa posible egin zuen; testuinguru horretan, Unión Radio taldea irratiluzen bereganatzen hasi zen Espainiako estatu osoan eta, beraz, baita Hego Euskal Herrian ere. 1927ko apirilean, konparazio baterako, Radio Club de Vizcaya emisoraren jabe egin zen. Radio Vizcaya-ren txanda izan zen ondoren; aste batzuk geroago, urte bereko ekainaren 26an, Radio San Sebastián irratiluzen jabe egin zen Unión Radio (ikus horri buruz Garitaonandia, 1988: 38). Horrenbestez, hiru euskal irratia Espainiakoekin katean emititzen hasi ziren.

Ez zen hori izan hurrengo urteetako aldaketa bakarra: 1930eko hamarraldia hastearekin batera, bilbotar irratiluzen desagertu egin ziren, Unión Radio San Sebastián bakarrik utzita. Bilbok, hortaz, 1932ra arte itxaron behar izan zuen berriz ere irratiluzen kontzesio bat izateko. Lehorte-egoera hartan, Donostiakoa zen Hego Euskal Herriko emisor bakarra, eta baita Iberiar Penintsulako iparraldeko irratiluzen nagusia ere. Horrez gain, donostiar irratiluzen aitzindari izan zen euskara uhinetara eroateko zereginean; eta hala izan zen, batez ere, *Argia* astekarikoek ulertu zutelako hura euskara hedatzeko tresna ezin hobea zela (aurreragoko atal batean aztertuko dugun moduan, paralelismoak egin daitezke Interneten estreinako hedapen-urteetan Luistxo Fernandez, Pello Zubiria eta beste zenbaiten izaniko jarraitarekin). Ander Arzeluz «Luzear», Joseba Zubimendi eta beste zenbaiten lana tarteko, 1932an euskarazko lehenengo programa finkoa (ordubete astean) lortu zuten: herrietako kronikak, hango eta hemengo txistulari eta abeslariak eta sona handiko esatariak (Lizardi, Aitzol, Monzon...) bildu ohi ziren bertan (egin kontu saioak zuzenean egin behar zirela, ezinbestean). Kontuak kontu, eta programazioan musika nagusi zen arren, erlijioak ere bazuen garrantzia, Diaz Nocik ondo zehazten duenez (1992: 370): «Erlijioak ere garrantzi handia zuen. Euskaltzaleek irratiluzen izan zezakeen garrantzia, euskara ez ezik katolikotasuna ere zabaltzeko ikusi zuten».

1936ko gerra baino lehen beste irratiluzen batzuk ere sortu ziren Hegoaldean: Radio Navarra 1932an, Radio Emisora Bilbaína 1933an —ingelesari eta frantsesari adina leku egin ohi zioten bertan euskarari: minutu batzuetako eskolak astean eta kito— eta Radio Vitoria eta Radio Tudela 1934an.

6.2. GERREN ERAGINA MUGAZ BI ALDEETAN

1936ko Gerrak, beste hainbat arlotan bezala, irratigintzan ere bazterrak astindu zituen: Donostia frankisten esku geratu zenean, Radio Requeté hasi zen emititzen Radio San Sebastián-en lizentzian. Radio San Sebastián bera, berriz, Radio Euzkadi-Euzkadi Irratia bihurtu zuen Jaurlaritzak. Espainiar Errepublikako Gobernuak, bestalde, Radio Emisora Bilbaína bahitu zuen. Aipagarria da, horri gagozkiola, 1937ko apirilaren 26an Alemaniako Condor Legioak Gernika bonbardatu ostean irratiluzen horrek garai hartako lehendakari Jose Antonio Agirreren ohar bat irakurri izana. Era berean, bonbardaketa igaro eta zenbait egunetara —maiatzaren 4an,

zehazki—, Gernikako sarraskiari buruzko irratsaio berezia egin zuen Radio Emisora Bilbaina-k, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak antolatuta. Bertan, Gernikako alkate Jose Labaurik bere testigantza eskaini zuen, Eusebio Arronategi apaizak bezalaxe. Telesforo Monzon Gobernazio sailburuak bestalde, bonbardaketaren ondorioen berri eman zuen; Jesus Maria Leizaola Justizia eta Kultura sailburuak, azkenik, hildakoen zerrenda luzea irakurri zuen.

Frankistak Hego Euskal Herri guztian gailentzean ihes egin behar izan zuten galtzaileek. Espainiako mugen barruan jarraitzen zutenentzat, ordea, gero eta beharrezkoagoa zen Francoren aginteak kontrolatzen ez zuen informazioa jasotzea. Informazio-truke hori sustatzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzak mezuak Radio Paristik zabaltzeari ekin zion hasiera batean, irrati hark utzitako tartetean; oposizio komunistak, aldiz, Radio España Independiente (La Pirenaica gaitzizenez ezagunagoa) baliatu zuen, Moskutik hasieran eta Bukarestetik gero. Espainiako estatuko gainerako herriek bezala, Euskal Herriak ere bere tartea zeukan programazioan («Antena de Euskadi» saioaren bidez, hain zuzen). Pedro Felipe eta Mikel Antia ziren esatariak (azken horrek ezkutuan bidaltzen zituen kronikak Bilbotik). Euskararen presentzia hutsaren hurrengoa zen, ordea, bertan. Adolfo Suarez Espainiako presidentearen gobernuak PCE (Partido Comunista de España) alderdia legez tatu zuenean utzi zituen emanaldiak La Pirenaicak, 1977an.

Han baino apur bat euskara gehiago (ez askoz gehiago, hala ere) entzun zitekeen 1946an uhin laburrean emititzen hasitako Euzkadi Irratian. Radio Paristik behin-behinean egiten ziren emisioak ordezkatzeko eta Jaurlaritzaren mezuak euskal herritarrei bidaltzeko bitarteko gisara sortu zen Euzkadi Irratia. Akizetik hasi zen proban 1946ko azaroaren amaieran eta abenduaren hasieran, eta abenduaren 21ean egin zen lehenengo emanaldi ofiziala. Mugererra aldatu zen gero. Mugerren izan zen denboran asteen zehar gauez emititzen zen eta bazkalorduan, berriz, jaiegunetan. Arazo tekniko ugari izan zituzten aro hartan, baina, edonola ere, Euskal Herri ia osora heltzea lortzen zuten (Iparraldeko zenbait gunetan, hori bai, entzuteko hainbat arazo izaten ziren). Haren hedapena zela medio, Espainiako agintariek Euzkadi Irratia isilarazteko saiakera ugari egin zituzten (emisio-maiztasunean interferentziak sartuz, adibidez). Maiztasunen eta emanaldien ordutegiak aldatuta, ordea, etsaiaren trikimailuak saihestea lortzen zuten sarritan Euzkadi Irratikoek. Are gehiago: 1948an Radio San Sebastián emisoraren emanaldietan sartzea ere lortu zuten (uztailaren 18an eta abuztuaren 15ean, hain zuzen).

Ziburura aldatu zen irratiaren egoitza 1949an. Han izan zen 1954ra arte, eta aro horretan ere arazo tekniko handiei egin behar izan zien aurre Euskal Herri osora ailegatzea lortzeko. Egunean hiru emanaldi eskaintzen zituen Euzkadi Irratiak, nazioarteko albistez osaturiko informazioa nagusi zela (zaila baitzen Euskal Herriko albistek ematea): goizeko 8:30ean, arratsaldeko 14:00etan eta gaueko 22:00etan, guztietan ordu erdiko iraupenez. Haatik, aliatuak Francorekin eskuzaba-

Iago jokutzen hastearekin batera, Frantziako estatua utzi behar izan zuen, Parisko agintarien debekua jaso ostean. Alabaina, ez zen hor amaitu bere jarduna, 11 urtez isilik egon ostean 1965eko irailaren 15ean berriz uhinetara egin baitzuen jauzi, 1977ra arte Caracastik (Venezuela) jarduteko. Urte horretako apirilaren 30ean egin zuen azken emanaldia. Euskarari dagokionez, emanaldietan bereziki gaztelania zen nagusi, nahiz eta euskal kultura eta euskara sustatzeko helburua lortzeko asmoz euskarazko saioak eta abestiak ere eskaintzen zituen³³.

Komeni da gogoratzea, bestalde, gerraosteak Espainian ez ezik Frantzian ere utzi zuela ondoriorik (kasu honetan, II. Mundu Gerrak): naziek irratia gerra-propagandarako baliatu zuten, Estatuak bitarteko hori aurrerantzean bere kontrolpean izan behar zuela ebatzi zuen. Hori zela-eta, 1980ko hamarraldiaren hasierara arte RTFRk izan zuen irratigintzaren monopolioa estatu hartan.

Irrati publiko frantsesa 1963an hasi zen Baionatik emititzen³⁴; emankizunak batik bat turistei begira eginikoak ziren eta aldi behin euskarazko meza ere sartzen zuten. Hala ere, hango egoitza ez zen 1967ra arte finkatu; orduan abiatu ziren euskarazko emankizunak ere, Maite Barnetxe esatari eta Ramuntxo Kanblong, Gexan Lantziri, Jakes Etxeberri, Janbattit Dirassar eta Pierres Narbaitz laguntzaile zituela: bost minutu izaten zituzten egunero 12:15etan eta ordu erdiko elkarrizketak igandeetan. Hara zelan deskribatzen dituen garai haiek Xipri Arbelbidek (2002: 7):

Astegunetan, egun bakotzak bazuen bere mintzalaria bakotxa bere gaiarekin: Beñat Dassance laborantzaz astelehenetan, Sauveur Narbaitz errieta lehenik eta gero Ramuntxo Kanblon kulturaz asteartetan, Gexan Lantziri eta gero Henri Duhau sozialaz asteazkenetan, Jakes Etxeberri *Herria* astekaria aurkezteko ostegunetan, Jan

33. Amezaga, Arana eta Azpillagak ere hizpide dute, zeharka, euskararen presentzia irrati horretan, eta, horrez gain, atzerritik eta euskaraz jardun zuen beste emanaldi baten berri damaigute (2010: ork. gabe): «Erbestetik eta nagusiki gaztelaniaz aireratzen ziren *Radio Euzkadiren* emisioak eta Buffalotik (Wyoming, AEB) ia berrogei urtez Amerikako *Far Westera* emigratutako artzaintzat lanean aritu zen euskarazko *Basque Program* (1956) emisorarenak izan ziren euskaratik erabat aldentuta zegoen irrati ereduaren salbuespen bakarrak».

34. Xipri Arbelbidek dioenez (2002: 5), lehenago, 1961eko udan (hilabete bat eta erdiz) ekin zion Radio Côte Basquek («Parisko irrati ofizialaren adarra») Biarritzeko kasinotik emititzeari: «Ez zuten euskaldunik bazenik ere gogoan hartu irratia sortzean. Bainan Jean Garreto baitzen emankizun horien arduraduna, bi zilo bazituen bere programazioan. Pantxo Etxezaharreta Donibaneko irrati saltzailea ezagutzen zuten mundu horretan, honek lagundu baitzituen antenak ematen Larrun gainean. Honekin, solasean ari zirela, aipatu zituzten delako bi zilo horiek: oren erdi bat ostegunetan, oren bat eta erdi igande goizetan. Etxezaharretak pilota punpean hartu berehala eta proposatu zilo horien tapatzea, euskaraz. Haiek ere lan eginarekin akort, eta euskarazko emankizun horiek deus ez zitzaizkiela gostako ikusirik, baia eman zuten. Urrun, arrotz herri zenbeitetan zirelako sendimendu gozoño bat ere sendituko zuten turistek zenbeit minutoz. Horra nola sortu ziren lehen aldikotz euskarazko emankizunak Frantziako irrati ofizialetik, Iparralde honetan. Ikaragarriko arrakasta izan zuten berehala. Gaitzeko lana egin zuen hor Piarres Larzabalek, Telesforo de Monzon, Roger Idiart, Marie Jeanne Minaberri eta beste zenbeiten laguntzarekin. Bainan udatiarrak joan eta agur irratia! Gaineratiko urte osoan deus ez».

Battitt Dirassar pilotaz ostiraletan, Narbaitz kalonjeak frango librea zeukala bidea larunbatetan. Maite [Barnetxe] denen arduradun.

Laster, Maite Barnetxe eta Jan Battitt Dirassar gelditu ziren bakarrik. Ez zen informaziorik sartu behar euskarazko emankizunetan nahiz Dirassar kasetari profesionala zen. Ez goizetako 5 minututan, ez eta astean behingo oren erdian. Dena bai, bainan hori ez! Magazina moduan mugatu behar zuten. Zer nahi gerta zedien hemen, ez zuten aipatu behar. Mintza laborantzaz, mintza pilotaz, edo kulturaz nahi zuten bezenbat, bainan ez hunki aktualitatea.

Hurrengo atal batean ikusiko dugu zelan aldatu zen panorama hori 1980ko hamarraldiaren hasieran. Gatozen orain Espainiako gerraostera, frankisten garaipenak gauzak zelan utzi zituen ikustera.

6.3. GERRAOSTEAN, APURKA-APURKA LEKU EGINEZ

Espainiako gerraostean ere monopolioa zen nagusi: 1936ko Gerra betean sortutako Radio Nacional-ena, batetik, eta Unión Radio-ren oinordeko zen SER irrati-katearena, bestetik (azken hori 1940an sortu zen eta egoitza bana zeuzkan Bilbon eta Donostian). 1952ko dekretu batek eman zuen monopolio hori arrakalatzeko hasteko bidea, hiru kategoriatan sailkatu baitzituen Espainiako irratia oro: Estatuarenak (publikoak), eskualdekoak, eta lokalak (publiko zein pribatuak). Horri esker, Red de Emisoras del Movimiento (REM) kate barruko La Voz de... izeneko emisorak sortzen hasi ziren. Irrati txikiak ziren oso, lokalak eta emisio-potentzia kaskarra zeukatenak. Hiru izan ziren Hego Euskal Herrian kate horren baitan sorturiko irratia: La Voz de Álava 1953an, La Voz de Guipúzcoa 1956an eta La Voz de Navarra 1957an. Arabakoa izan zen, beraz, kate horren baitan Hegoaldean sorturiko lehen emisora. Rafael Gutierrez Benito eta Luis Alfaro ziren sortzaileak eta Gasteizko autobus-geltoki zaharretik ekin zioten irrati-jardunari. 1966an, baina, izena aldatu eta Radio Álava deitu zen. Irrati komertziala izanik, probintziako berriak eta kirolak ziren programazioaren oinarri.

La Voz de Guipúzcoa-ri dagokionez, berriz, Ulia mendian zeuzkan antena eta igorgailua, eta programazio komertziala osatzen zuen honek ere. Baina bere programazioan euskara apur bat sartzearen aldeko apustua da, bereziki, La Voz de Guipúzcoa irratiaz mintzo garenean azpimarragarriena. Laster hobeto ezagutuko dugun Enrike Zurutuzak ere hori azpimarratzen du (Elustondo, 2009: 10):

(...) kuriosoena da euskara estu-estuenean zegoenean, itozteko zorian, hasi ginela gu programa egiten, 1955ean, La Voz de Guipúzcoa irrastian.

Pio XII.a Aita Santuak Konkordatua sinatu zuen Espainiako gobernuarekin, eta haren arabera, elizak beste inork ez zeukan euskaraz egiteko lizentzia. Elizaren baimenez etorri zen *Baserría* irrati-programa.

Elizaren baimenez... eta falangista baten laguntzaz. Hara zer dioen horri buruz Zurutuzak (Elustondo, 2009: 10-11):

Harrigarrikoa!!! Hain estu egon gauza, kalean hizketan ikusi eta salatu egiten zintuzten igual! Bada, irratsaioa egiteko atea ireki zizkiguten. Eta ireki, falangista batek! Baina euskaltzalea izan! Ez al da harritzekoa?³⁵ (...) Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipaleko zuzendariak ari naiz, Don Carlos Lanfus. Falangista, *número dos* [bigarrena] Donostiakoa. Bada, zer egin zuen Lanfusek? Falangeko irrati emisoreari ordubete erosi Kutxako diruarekin, zertarako zen esan gabe. Kontratua sinatu zuenean zer egingo eta euskara sartzen hasi irratian! Sartu zien ziria, horratik! Gobernadorea dena aztoratuta! Ondoren, Lanfusek gobernadorea konbentzitu ahal izan zuen programaren erdia euskaraz eta erdia erdaraz egiteko. Horrela etsi zuten. Gure lema zen, etsaiarekin egin behar bazen ere, guri komeni bazitzaigun, egin, beti! Eta haiekin lan egin genuen, ez haietakoak ginelako, euskaraz lan egiten uzten zigutelako baizik.

Badakigu, beraz, 1955ean La Voz de Guipúzcoa abiaturiko euskarazko irratsaioaren izena «Baserría» zela eta Enrike Zurutuza tartean zebilela. Nortzuk gehiago zituen lagun, baina? Eta zelakoa zen irratsaioa bera? Zurutuzak berak argituko digu hori guztia (Elustondo, 2009: 11):

Programa egiten hasterako, Lanfusek zenbait laguni hots egin zigun. Gu ezagunak ginen ordurako, zenbait aldizkaritan argitaratu izan genituen lanak zirela-eta. Talde bat osatu genuen: Manu Oñatibia eta biok —albaitariak ginen biok—, Maria Dolores Agirre, Basarri bertsolaria, Joxemari Etxebeste...

(...) Programan, nork bere sekzioa zuen. Maria Doloresek emakumeen gaiak, haien lanak aitatzen zituen: josten nola ikasi, sukaldaritza kontuak eta horrelakoak. Albaitaritzako atalean, baserritarrei azalpentoak ematen genizkien Oñatibia eta biok³⁶. Basarrik asteko kronika egiten zuen eta bertsoen bat edo beste ere kantatzen zuen. Etxebeste, kantaria genuen...

Horiez guztiez gain, Nemesio Etxaniz abadeak ere parte hartu ohi zuen irratsaioan. Etxanizen presentziak, ordea, gobernadorearekin gatazkarako bidea sortu zuen eta, ondorioz, Jose Arretxek kontatzen duen bezala, abadeak La Voz de Guipúzcoa uzteko erabakia hartu zuen (Agirrek jasoa in 1999: 52):

Irratsaioaren kudeatzailea falangista izanik ere, arazo larriak izan zituen gobernadorearekin, taldean Nemesio Etxaniz zegoelako batik bat. Une batean Nemesio

35. Harrigarria izan daiteke, bai, baina ez da kasu bakarra. Ikus, adibidez, 1936ko Gerraren ostean Antonio Arrue asteasuar euskaltzain falangistak euskara kontuetan izaniko jokabideari buruzkoak in Zuberogoitia A. eta Zuberogoitia P., 2008.

36. Enrike Zurutuza eta Manu Oñatibiaren ardurapean eginiko atal hori, «Joxe Miel eta Don Antonio» izenekoa, bereziki arrakastatsua izan zen. Joxe Miel baserritarra zen (Enrike Zurutuzak interpretatua), eta Don Antoniori (Manu Oñatibia) ganaduari buruzko azalpenak eskatu ohi zizkion: behiak zaindu edota saltzeko moduei zein haien gaixotasunei buruzkoak, hango edo hemengo azoken gaineko aholkuak eta informazioa... Ikus atal horri buruzko kontu gehiago in Elustondo, 2009: 11.

irratsaiotik bota edo bestela itxi egingo zuela agindu zuen gobernadoreak. Guk planto egitea erabaki genuen, baina Nemesiok berak esan zigun oso garrantzizkoa zela euskararentzat guk aurrera segitzea eta utzi egin zuen.

Enrike Zurutuzak ere ondo gogoan dauka gorabehera hori (Elustondo, 2009: 11):

Arrankatu genuen eta rau!, lehenengo zentsura: Nemesio Etxaniz bidaltzeko! Gobernadorearen agindua. “*Persona non grata*”, beste esplikaziorik gabe. Eman zigun amorrurekin, guk ere huelga egin genuen. “Denok bagoaz, orduan!”. Eta Nemesio Etxanizek, erdi negarretan: “Jaungoikoagatik, ni kendu arren ez ezazue horrelakorik egin. Horrelako pausoa eman denez gero, programa galtzea ezin litekeena da. Estimaten dut zuen solidaritate hori, baina ez ezazue irratia utzi!”. Eta berriz hasi ginen. Gainera, poliki-poliki erdara kentzen jardun genuen. Saioak bereal-diko arrakasta izan zuen, oso handia. Iragarki eta propaganda handia biltzen zuen!

Zurutuzak berak aitortzen duenez (Elustondo, 2009: 11), hamarren bat urte geroago, «ikastolak irekitzen hasi zirenean-eta, gurea alferrik zegoen, eta bukatu egin zen *Baserria*». Ikastolek ez ezik, sasoi hartan Gipuzkoan bertan sorturiko beste irratia batzuek ere izango zuten zerikusia horretan (irratia sorberri horiek dezenteko lekua eskaini baitzioten euskarari). Edozelan ere, horiek laster ikusiko ditugun kontuak dira, baina goazen orain Gipuzkoatik Nafarroara. Izan ere, REM kateko Euskal Herriko hirugarren irratia dagokionez (La Voz de Navarra), aurrekoen antzera irratia komertziala zen, baina bazuen La Voz de Álava eta La Voz de Guipúzcoatik bereizten zuen ezaugarri bat: oso emisio-indar handia zeukala, hain zuzen, eta, ondorioz, Nafarroaz kanpoko inguruko herrialdeetan ere entzun zitekeela.

Garai berean (1950eko hamarkadaren amaieran eta 1960koaren hasieran) hasi ziren sortzen eliza-irratia, Ebanjelioaren mezua helarazteko tresna egokitzat hartuta. Antzeko ezaugarriak izan zituzten, gainera, Hego Euskal Herrian sorturiko eliza-irratiek. Oro har, baserri-eremuetan kokatuta zeuden eta Ebanjelioa biztanle guztiei helaraztea zuten helburu. Horietako batzuk euskarari lekua egiten saiatu ziren, gainera: Segura Irratia eta Arrate Irratia nabarmendu ziren batik bat arlo horretan (euskararen presentziak oztopo eta arazo ugari sortu bazizkien ere).

1956ko apirilaren 2an hasi zen emititzen Segura Irratia, EOP-86 Radio Segura adierazlearekin. Zesareo Elgarreta apaiza izan zen bultzatzaile nagusia eta, horregatik beharbada, hasierako programazioa ia bere osotasunean erlijio-gaiei bideratuta zegoen: Errosario Santua, albiste katolikoak... Dena den, kirolek nahiz eskaintako disko eta euskarazko abestiek ere bazuten beren lekutxoak.

Arrate Irratia, berriz, Pedro Gorostidiren ekimenez sortu zen (apaiza hori ere). 1959ko abenduaren 23an ekin zion emisioari eta Arrateko Santutegiaren atzealdean zeukan egoitza. Erlijio katolikoa oinarri hartuta, euskaraz aritzeko aitzakia edo argudioa ere erlijioan topatu zuten Arrate Irratiakoek: kristau-ikasbidea baserritarrei

behar bezala helarazteko eta ulertarazteko, zer hoberik euren hizkuntzan eskaintzea baino?

1963ko urriaren 24ko dekretuak aldaketa ugari ekarri zituen. Dekretu horretatik eratorritako dial berrira egokitzeko ezinbestekoa zen hainbat baldintza tekniko betetzea, eta, haien faltan, tokiko irrati ugari itxi zituen Informazio eta Turismoko Ministerio espainiarrak 1964an, Segura, Tolosa eta Arrate irratiak kasu. Ez zen, ordea, irrati horien behin betiko heriotza izan, itxieratik aurrerako urteetan irratiok berpizteko ahaleginetan aritu baitziren zenbait pertsona. Hori da, adibidez, Zesareo Elgarretaren kasua. Segura Irratiak uhin ertainean jarduteko baimenik jaso ez arren, 1971n berriro abiatu zen FMn arituz. Jardun elebiduna eta erlijioa ardatz hartuta, 1977ko ekainaren 15ean lortu zuen aurrez hiruzpalau urtez ukatu zioten emititzeko baimena.

1964ko itxieraren ostean, bestalde, Arrate Irratiak ere berpizteko indarra izan zuen. 1978ko uztailean Eibarko irratiak berriz ekin zien emanaldiei, urte bereko azaroan berriz ere itxiarazi zuten arren. 1982ra arte itxaron behar izan zen, beraz, Arrate Irratia modu jarraituan entzun ahal izateko, eta 1989ra bitarte emititzeko baimena eskuratzeko.

Parrokia-irratiekin jarraituta, 1959an sorturiko Cadena de Ondas Populares-en (COPE) baitan, Iruñean, Bilbon eta Donostian irrati bana sortu zen hiriburu bakoitzeko gotzaindegien ardurapean; Jesusen Lagundiak, berriz, laugarren bat sortu zuen Loiolako Santutegian. Herri Irratien sarea abian zen, beraz. Iruñeko Herri Irratia izan zen Hegoaldeko hiriburuetan jaiotzen lehena, 1959ko abuztuaren 4an, zehazki, EAK-4 adierazlearekin. Urte berean sortu zen Bilboko Herri Irratia ere, EAK-13 adierazlea zuela; irrati horrek kultura- eta erlijio-gaiak jorratu zituen batik bat hastapen garai haietan. Gipuzkoako bi herri irratiak izan ziren jaiotzen azkenak: 1961eko otsailaren 11n hasi zen emititzen Loiolako Herri Irratia (EAK-66) eta 1962ko abuztuaren 15ean Donostiako Herri Irratia (EAK-44).

Sorrera-urte haiek ez ziren, baina, arazorik gabe igaro. Loiolako Herri Irratiaren kasuan, esaterako, 1965eko uztailaren 26an ixteko agindua jaso zuen, 1963ko dekretuaren harira. Hurrengo urteko uztailaren 31n berriz ere emititzeari ekin zion, ordea. Administrazio publikoaren aldetik oztopo ugari jasanagatik ere, herritarren babes beroa jaso zuen Azpeitiko irratiak eta Gipuzkoako familia ugarik euren babes ekonomikoa eman zioten, kuota ordainduz. Hona hemen Loiola Irratiko kazetari eta euskarazko irratigintzako lehen esatarietako bat izandako Karmelo Otaegik (Azpeitia, 1932) horri buruz emaniko argibide esanguratsuak (Arano eta Petrikorena, 1988: 36):

Borroka asko egin izan behar genuen, baina hala eta guztiz Madrileko ministeritzan ez genuen 'aita pontekorik' izan, eta aldiz, bai etsaia eta orduan hau istea erabaki zuten. Ikusten zen irteera bakarra, bai hemen bai Madrilén, F.M.ra pasatzea zen. Emisora bat F.M.n ipintzea orduan abentura haundia zen eta guk itxi aurretik

kanpaina bat eratu genuen jendeari zuzendua, ea prest egongo al ziren gu apoiatzeko. Herriaren erantzuna oso ona izan zen —geroago atentatua jasan genuenean bezalaxe—. Bost mila bazkide genituela baimenak eskatu eta F.M.n hasi ginen.

Irrati horiek oso garrantzitsuak izan ziren euskararentzat, oztopo ugariaren artean bazen ere, uhinetan gero eta leku gehiago irabaztea ahalbidetu zioten-eta: Bilboko Herri Irratiak, adibidez, Lehen Euskal Abesti Txapelketa antolatu zuen 1964an, Xabier Gereñok sorturiko CINSA etxearekin batera; irrati berbera euskara ikasteko saioa aieratzen hasi zen, berriz, 1965ean, Xabier Peñaren gramatika-liburuan oinarrituta. Sekulako arrakasta izan zuen saioak, horrenbestereinokoa non ikastaroa hasi eta bigarren egunean Peñaren liburua irratiaren bertan saltzen jarri izanak jende-ilarak eragin baitzituen irratiaren atarian; hirugarren egunerako, berriz, 2.000 aleko botaldia agortuta zegoen³⁷.

Iruñeko Herri Irratiak ere euskarazko eskolak eskaintzeari ekin zion 1969an; Loiolako Herri Irratian eta Donostiako Herri Irratian, azkenik, sator-lan handia egin zuten gerora beste arlo batzuetan ere nabarmendu diren profesional batzuek, hala nola Jose Mari Iriondok, Iñaki Zubizarretak, Jose Ramon Belokik, Jose Mari Oter-minek edota Txaro Arteagak³⁸.

Hain zuzen ere haiek izan ziren, besteak beste, euskal irratigintzaren historia-ko mugari garrantzitsu baten sustatzaile eta antolatzaileak; Donostian ospaturiko *24 ordu euskaraz* irratsaio/jaialdi arrakastatsuz ari gara: 1976ko martxoaren 27an izan zen hori, Espainiako trantsizio politikoaren zurrunbiloaren erdi-erdian; Donostia, Loiola, Iruñea eta Bilboko Herri Irratien ekimenez eta Jose Ramon Belokiren zuzendaritzapean egin ziren nola emankizun jarraitua hala amaierako jaialdia (Donostiako Belodromoko festa erraldoi hura). Jaialdia baino lehenagoko irratiemankizun jarraituari dagokionez, hara zer dioen beroni buruz Iñigo Aranbarrik (1999: 198):

Kultura izanen da emanaldien ardatz nagusi, eta hala prestatu da egitaraua, ezin beteagoa: hamahiru mahai inguru antolatu dira guztira (euskalduntze-alfabetatzea, poesia, folklorea, komunikabideak, ekonomia, Aranzadi eta inbestigazioa, margolari-eskulturagileak, liburu argitaldariak, antzerkia, nobela eta saiakera, bertsolariak eta kantari eta diskoetxeak), bi ordu eta erdiko mahainguru berezia euskal irakaskuntzaz, hogeita lau bailaratan euskal kulturaren egoera zer-nolakoa den kontatuko duten beste hainbat kronika, euskal kulturaren izena duten zenbait gizon-emakumeri egindako hogeita bost elkarrizketa, Euskaltzaindiaren batzarra, bertsolariak...

37. Xabier Peñak aparteko aipamena merezi du bestela ere: egin kontu garai hartan egunero-egunero joan ohi zela Bilboko irratiara euskarazko errosarioa zuzenean irakurtzera. Egungo perspektibatik ekintza anekdotikoa eman dezakeen arren, frankismopeko Bilbo hartan indar sinboliko handia zeukaten euskaraz aieraturiko minutu horiek. Ikus horri buruz gehiago in Zuberogoitia A. eta Zuberogoitia P., 2008.

38. Loiolako Herri Irratiak garai hartan euskararen alde eginiko lanaren lekukotza zinez gomendagarria da Jose Mari Iriondorena (Ubeda, 2008).

Horien guztien lanari esker, haria, mehea izanagatik, ez zen eten. Behin 1980ko hamarraldiaren hasierarekin batera, Iparraldean zein Hegoaldean politikaren haizeek beste norabide bat hartutakoan, euskarak errazago egin zuen lekua uhin artean, aurrerago ikusiko dugun moduan.

ATALEAN BALIATURIKO ITURRIAK

- Agirre, J. (1999): “Goenkale-ren irratiko aitzindari apalak”, *Gara* egunkaria, 1999-05-02, 52. or.
- Amezaga, J.; Arana, E. eta Azpillaga, P. (2010): *Hedabideak euskaraz*, EHU, Leioa (argitaratzeaz).
- Arano, J.M. eta Petrikorena, J. J. (1988): “Karmelo Otaegi: Euskal Irratigintza ez da behera joango”, *Argia*, **1.187**, 35-39.
- Aranbarri, I. (1999): *Gure mendea. Ehun Urte Euskal Kulturaren*, Komunikazio Biziagoa, Lasarte-Oria.
- Arbelbide, X. (2002): *Maite Barnetxe (1941-1986)*, Bidegileak bilduma, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.
- Diaz Noci, J. (1992): “Euskara Irratian: Gerra aurreko lehenengo urratsak”, *Revista Internacional de Estudios Vascos* aldizkaria, **37**, 365-374.
- , (1995): *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Elustondo, M. A. (2009): “Enrike Zurutuza. ‘Burgoseko frontean hartu nuen ebakuntzak egiteko eskarmentua’”, *Berria* egunkaria, *Igandea* gehigarria, 2009-08-02, 10-11.
- Garitaonandia, C. (1988): *La radio en España (1923-1939), de altavoz musical a arma de propaganda*, UPV-EHUko argitalpen-zerbitzua eta Siglo XXI argitaletxea, Bilbo.
- Gutierrez Paz, A. (2002): *Euskal irratigintzaren historia*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- Ubeda, J.A. (2008): *Jose Mari Iriondo. Euskal kulturaren komunikatzaile*, Andoaingo Udala, Andoain.
- Zenbait egile (2006): *Gu gara euskal prentsa. Hautu baten kronika 1976/2006* [DVD], Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- Zuberogoitia, A. eta Zuberogoitia, P. (2008): *Bertan Bilbo, Bizkaiko hiriburua eta euskara: XX. mendeko historia*, Bilboko Udala, Euskara Saila, Bilbo.

7. 1970eko hamarraldia Hego Euskal Herrian: «Gu gara euskal prentsa» aldarria

Azaldu dugu dagoeneko nola euskarazko aldizkariak 1950eko hamarraldian hasi ziren berriz loratzen Hego Euskal Herrian, ordena erlijiosoen magalean ia-ia beti. Kazetaritza berriemailerako benetako jauzia, dena dela, 1960ko hamarraldian eman zuen Hego Euskal Herriko euskarazko prentsak, Espainiako legeak apur bat malgutu zirela baliatuta: *Goiz-Argik* erlijioaz gain bestelako gaiak jorratzeari ekin zion 1960an; *Zeruko Argiak* ere, 1963an astekari bihurtuta, erlijio-gaien pisua arindu eta garaiko eztabaidei heldu zien, belaunaldi berriei leku egitearekin batera («Gazte naiz» sailean, barbarako, gerora zeresan ugari emango zuten luma berriak hasi ziren plazaratzen: Xabier Lete, Ibon Sarasola, Rikardo Arregi, Ramon Saizarbitoria...). *Anaitasuna* bizkaitarra, azkenik, hamaboskari bihurtu zen 1967an eta belaunaldi berriek hartu zuten haren ardura.

1970eko hamarraldiak are aldaketa handiagoak ekarri zituen: frankismoaren amaierarekin batera trantsizio-aroa ailegatu zen Espainiako estatura, eta horrek, hasierako momentu haietan behinik behin, hainbaten egitasmo politiko eta ametsei hegaldatzeko parada eman zien. Politika-arloan ez ezik, prentsari dagokionez ere aldaketa ugari jazo ziren; arestian aipaturiko euskarazko hiru aldizkari horiek, konparazio batean, informazio orokorreko kazeta izatea lortu zuten, eta, pauso hori eman izanaren ondorio logiko modura, formatua ere aldatu egin zuten, argazkien erabilera areagotu, titulu eta gai ausartagoei leku egin...

Goiz-Argik molde zaharreko perspektiba euskaltzale eskuindar-samar batetik jorratzen zituen berriak eta jarrera militantea zeukan euskara batuaren kontra eta *erribideko euskararen* alde (aldizkari honetako lagunek *Erria* izeneko egunkariaren egitasmoa ere ondu zuten hamarkada erdian, baina azkenean ez zuten proiektua gauzatu³⁹). *Goiz-Argik*oek lagun izan zituzten *Agur* astekarikoak (euskara batuaren aurkako euskaltzale tradiziozaleak hauek ere) Bizkaian; esanikoaren erakusgarri, hamaboskari zein astekari izaniko kazeta horrek 1975ean azken zenbakia ateratzearekin batera⁴⁰ bere irakurleei eginiko deialdia, *Goiz-Argiren* egitasmoa finkatzen lagun zezaten.

39. Ikus egunkari-egitasmo horri buruzko xehetasunak in Zalakain, 1993.

40. *Aguri* buruz gehiago in Zuberogoitia A. eta Zuberogoitia P., 2008.

Beste modu batekoa zen *Anaitasunaren* optika, euskara batuaren alde argi eta garbi lerratuta egoteaz gain, aldizkari horrek bere burua sozialistatzat baitzeukan. *Zeruko Argiak*, azkenik, *Anaitasunak* baino malguago jokatu zuen ideologia- zein hizkuntza-kontuetan, baina berak ere euskara baturantz eta ezker alderantz egiten zuen herren (gero eta nabarmenago gainera, urteek aurrera egin ahala).

Hiru kazeta horietatik landa, hutsaren hurrengo zen euskararen presentzia Hego Euskal Herriko garaiko kazetaritza berriemailean. Hori argi eta garbi geratzen da, esate baterako, Xabier Aranburuk 1977an Euskaltzaindiarentzat apailaturiko «Euskara erdal egunkarietan» txostentxoan. Beste datu deigarri batzuk ere ageri dira bertan; adibidez, Hegoaldeko egunkarietan beharrean ziharduten 178 kazetarrietatik zazpik baino ez zekitela euskaraz (egunkari horietako zuzendariei dago-kienez, berriz, bakar batek ere ez zekien hizkuntza hori).

Euskarak ezer gutxi espero zezakeen, beraz, gainerako kazeta horiengandik. *Anaitasuna*, *Zeruko Argia* eta *Goiz-Argi* ziren Hegoaldean euskararen nagusitasuna bermatzen zuten bakarrak; ematen zuen, gainera, hiru aldizkari horiek sasoiko ekin ziotela aro politiko berriari, garai hartan indar betean plazaraturiko elebitasunaren aldeko diskurtsoa gorabehera, eurek eskubide jakin batzuen aldeko apustu nabarmena egiten jarraitu baitzuten (euskaraz bizitzeko eta euskarazko informazioa jasotzeko eskubideei buruz ari gara nagusiki). Lehenago aipatu dugun moduan, formatu-aldaketaren eta kazetaritza ausartagoaren alde egin zuten. Ez hori bakarrik, 1976ko hastapen-egunetan are jauzi esanguratsuagoa eman baitzuen *Zeruko Argiak*: 1976 hura Euskal Kazetaritzaren Urtea izendatu zuen. Jose Inazio Basterretxeak dioenez, jauzi kualitatiboa zegoen izendapen horren atzean (Zenbait egile, 2006: ork. gabe):

76an euskaldunak erabaki zuen bazela *nor* hedabideen munduan, bazela subjektu beregaina (*igorle* moduan nahiz *hartzaille* moduan). Euskaldunak dio kokatu nahi duela hedabideen esparru zabalean bere burua, eta begitik begira so gura diela gainerakoei.

Deskriba dezagun garaiko ingurumaria, horrek Basterretxearen baieztapena hobeto ulertzen lagunduko digu-eta. Diktadorea hil berritan, Espainiako estatuan aldaketa-garaia abiatu berri zen 1976 hasiera hartan; aldaketa-giro horrek, aldaketaren behar horrek, nabarmen astindu zituen hautsak bai euskarazko kazetaritzan bai kazetaritza elebidunean.

Egin kontu Erregimenak 40 urte luze eman zituela indarrean. Ez dago hemen azaldu beharrik berrogeialdi berezi horrek euskal kulturaren eta, oro har, askatasun zibiletan izaniko eragina. Behin harenak eginda, hortaz, itxaropenerako urtea zen 1976 hura. Itxaropen-haize horiek hauspoturik, batetik, eta abiatzear zen arorako euskarazko prentsaren batasuna eta elkarlana aldarrikatuz, bestetik, lehenago esan dugun moduan Euskal Kazetaritzaren Urtea gisara bataiatu zuen 1976a *Zeruko Argiak*; *Anaitasunak* ere lema horri eutsi eta berehala egin zuen bat *Zeruko*

Argiakoek jotako erronkarekin. «Euskal kazetaritza irmo bat sortu behar dugu. Euskaldunon iritzi, lan-arazo, jokabide eta ametsen berri emango duen kazetaritza behar dugu» zioen *Zeruko Argiaren* editorialak 1976ko urtarrilaren 4an kaleraturiko zenbakian. Ondokoa ere bazioen editorial horrek: «1976garrengo urtea euskal komunikabideei, kazetaritzari bereziki, indarra emango dion urtea izan dezagula. Beronen garrantziaz euskaldun guztiok ohar gaitzela».

Aldarrikapenarekin bat eginez, modu honetara erantzun zion *Anaitasunak* urte bereko urtarrileko bigarren hamabostaldian:

Hasi dira gauzak aldatzen. Gure inguruko hiru euskal aldizkari arras aldatu zaizkigu. Zurrumuruak dioenez, euskal astekari-hamabostekari zenbaiten lanasmu eta proiekturik ez da falta. Bizpahiru ba omen datoz, euskaraz eta erdaraz. Zain gaude. Kezka batekin: zein leku izango du euskarak? Iturri onetik jakin dugunez, *Jakin* aldizkaria ere ba dator, hutsune bat betetzeko asmotan. Egunkari bat ere ateetan dugu, diotenez. Zalantzarik gabe, euskal kazetaritzak badu etorkizunik. Eta badu lanik. Orain arte sarritan bezala, negatiboaren positibotasunean ibiltzerik ez dugu. Geroz eta hizkuntza argiagoa behar dugu, zehatzagoa, jokabideak iradokiz ez baino, argi eta garbi papelean jarritz idatzi beharko dugu. Kazetaritza profesionala. Uste dugunez, aldakuntza handien atarian gaude.

7.1. KAZETA ELEBIDUNEN LEHORRERATZEA

Aro politiko berriak, alabaina, beste elementu bat ere ekarri zien aldizkari horiei: Hego Euskal Herriko erdarazko kazeten lehia. Bat-batean hainbat kazeta sortu zen bazterretan (*Garaia*, *Punto y Hora* eta *Berriak* 1976an, *Deia* eta *Egin* 1977an, *Ere* 1979an...), abertzale-jendeak eginikoak gehienak, euren orrietan euskara apurren bat ere sartzen zutenak eta euren buruak *euskal prentsa* modura aurkezten zituztenak.

Lehia sorberri horretan mugarri berezia izan zen 1977a, orduan kaleratu baitziren lehenengo biderrez *Deia* eta *Egin* egunkariak (ekainaren 8an eta irailaren 29an, hurrenez hurren). *Deia* izan zen bietan lehena. *Egin* egunkariaren sorreraren inguruko berriek akuilatu zuten lehendik ere bidean zetorren jeltzaleen proiektua, eta, EAJren bitartekoen nagusitasunaz baliatuta, lau hilabeteen katean zen *Deia*, presaren presaz *Egin* bera baino lehen. Jose Maria Gorordo izan zen bultzatzaile nagusietarikoak, Luis Mari Retolaza kazetako lehendakari eta Pantaleon Ramirez Olano zuzendari. Eta orduantxe hasi zen euskarazko aldizkariaren odoluste profesionala, euskarazko kazetaritzaren miseriatik ihesi, egunkari berrietara joateko hautua egin baitzuten profesional euskaldun askok. Hain zuzen ere, eta besteren artean, Martin Ugaldek eta Mikel Atxagak egin zuten *Zeruko Argi*atik *Dei*arako jauzia (dena dela, bi horietatik Mikel Atxagak baino ez ziharduen soldatapean *Zeruko Argian*⁴¹).

41. Mikel Atxagak berak modu honetan gogoratzen ditu bere hasiera zein amaiera garaiak *Zeruko Argian* (Millan, 2009: 58): «(...) *Zeruko Argian*, bersortu zenetik, idazten tarteka-marteka.

Hiru hilabete eta erdi geroago plazaratu zen *Egin* egunkariaren lehen zenbakia. Mariano Ferrer zuzendari zuen proiektu hark abertzale guztien bilgune izatea zuen helburutzat, baina, *Deiak* aurre hartu zionez, soilik abertzale batzuen egunkari izatera kondenatuta zegoen hastapenetatik. Horrez gain, eta bi egunkarien arteko lehiaren ondorioz, lehen urteak oso gogorak izan ziren *Egin*entzat, EAJren babes ekonomikoa galduta lanak izan baitzituzten gastu guztiei aurre egiten. Ezin ahaztu, era berean, egunkari horren baitan izaniko barne-liskarrak (Euskadiko Ezkerrarekin lerraturiko hainbat kazetarik alde egin zuten egunkaririk liskar horien ondorioz).

Bistaz denez, kazeta berrien sorrerak sekulako mina egin zien *Anaitasuna*, *Zeruko Argia* eta *Goiz-Argiri*, irakurleek ez ezik iragarleek eta kazetariak eurek ere arrapaladan egin zutelako ihes egunkari eta aldizkari sorberri haietara, merkatu handiagoen edota lanpostu hobeen bila. *Zeruko Argian*, barbarako, kazetari eta beharginen ihesa nabarmena izan zen: Amatiño *Deiara* joan zen (hala ere, bera ez zen sekula *Zeruko Argiako* kontratupeko behargin izan), Mikel Atxaga eta Martin Ugalde bezala; Donato Unanue eta Xalbador Garmendia, berriz, *Eginera*; beste batzuk, azkenik, aldizkari elebidun abertzaleetara (*Garaiarako* jauzia, adibidez, *Zeruko Argian* idatzi ohi zuen idazle dezentek eman zuen, euskarazko kazetaritazatik bizitza ia-ia ezinezkoa zelako garai hartan).

Kontuak kontu, kazeta elebidun abertzaleen lehorreratzearekin batera, gurmaz bete ziren bazterrak: *Eginen*, adibidez, ordurako *Zeruko Argia* eta *Anaitasunako* irakurleek ondo ezagun zituzten bi marrazkigileren (Antton Olariaga eta Jon Zabalera) marrazkiak ikus zitezkeen. Sailen izenak euskaraz zekartzan egunkari berriak, albiste batzuk ere bai, estreinako zenbakian Euskal Herriko zazpi herrialdeetako egunkaria zela zioen gainera... *Deiak* ere *Gure Lurraren Deia* goiburua zerabilen eta Mikel Atxagak eta Amatiñok idazten zuten bertan. Urtebete lehenago sortutako *Punto y Hora*, *Berriak* eta *Garaiak* ere euskal prentsa zirela eta ikuspegi abertzaleetik idazten zutela zioten... Zelan ez zen izango hori ere euskal prentsa, haiek ere *gureak* baziren? Hori guztia zela-eta, definizio-arazoa sortu zen bat-batean: zer da euskal prentsa? Bertako hedabideek egiten dutena? Ala bertako hedabide abertzaleek egiten dutena? Ala euskara hutsez egiten dena?

Usurbilera etorri nintzenez, berriz, nire kontu izan ohi zen asteroko editoriala. Handik laster, *Zeruko Argia*-ra joateko deia jaso nuen. Hantxe jardun nuen buru-belarri, Miren Jone Azurtzaren ondoan hasieran eta bakarrik geroxeago. Ondoren Pilar Iparragirre eta Elixabete Garmendia izan nituen lagun. *Deia* sortu zutenean Martin Ugaldek eta Jose Maria Gorordok egin zidaten eskaintza. *Zeruko Argia*-n onenak emanda nengoen eta, kostata, baietz erantzun nien. Hala ere jarraitu nuen, aldi batean, *Zeruko Argia*-rako editorialak egiten. (...) *Zeruko Argia* (...) informazio orokorreko astekari bihurtu genuen, baina ez genuen enpresa bezala antolatzea lortu eta itxaropen handienak genituen garaiko hutsune honen ondorioak geroxeago agertu ziren gordin-gordin. Badute merezimendurik zulo hartatik atera zutenek eta gaurko mailara ekarri dutenek. (...).

Kazeta abertzale diglosikoen lehorreratzeak nahasmen hori eragin zuela ikusita, autobaieztapen-saioari ekin zioten *Anaitasunatik*: argi utzi gura izan zuten euskara hutsez egiten zena baino ez zela euskal prentsa. Amatiñok, aurretiaz, hauxe idatzi zuen *Zeruko Argiaren* 675. zenbakian (1976-02-15, 18): «(...) euskal kazetaritzaren hauzia erdaraz konponduko denik ez dut uste (...)». *Zeruko Argian* bertan, hau irakur zitekeen astebete geroago: «(...) Euskal kazetaritza ahultzeko eta zapuzteko bide bilakatzen den erdal aldizkaririk euskaldunena ere ez bait daiteke onar». Joan Mari Torrealdai (Joan Altzibar gisara sinatzen zuen), berriz, honako hau idatzi zuen *Anaitasunaren* 323-324 zenbaki bikoitzean urte horretan bertan (1976-09-15, 25. orrialdea):

Euskal prentsa euskaraz dela aitortu, onhartu eta laguntzen ez duen erdal prentsak diglosia finkarazten du. Aldizkarien euskal izenak eta tituluak ez daitezela inoren gainutarako izan.

Hona hemen euskal kazetaritzaren puntu larri batzu. Aztertzeak merezi du, eta aurrez aurre ez ikusi nahia geure buruaren kaltetan da. Erdal eta euskal prentsaren arteko erlazio hau, euskal kazetaritzaren urtea amaitu orduko argitan jarri behar genukeen arazo bat da.

Pare bat urte igarota, euskarazko prentsan zihardunetek oraindik ozenago burutu zuten nahasmena gainditzea helburu zuen autobaieztapen-saioa. Hara adibidez zer zioen *Zeruko Argiak* 769. zenbakian (1978-01-15, 3. orrialdea):

(...) gauza jakin bat esan beharrean gaude: euskal prentsa euskaraz eginikoa da. Egun [Hego] Euskal Herrian “Anaitasuna” eta “Zeruko Argia” dira bakarrik euskal prentsa hori. Gustatu ala ez, baina hala da. Beste guztiak, bai egunkariak eta baita aldizkariak ere, Euskadin eginikoa —euskal ikuspegitik nahi baduzue dira, baina ez euskal prentsa.

Pare bat hilabete geroago, gisa berean mintzo zen *Anaitasuna*, baina hori bai, *Jakin* eta *Herria* ere euskal prentsaren zakuan sartuta.

7.2. KRISIAREN ZURRUNBILOAN: PRENTSA EUSKARAZ KANPAINA, ANAITASUNA ETA GOIZ-ARGI-REN IBILBIDE-AMAIERAK ETA ZERUKO ARGIA-REN BIZIBERRITZEA

Autobaieztapen-saioak eta bestelako sendotze-ahaleginak gorabehera, euskarazko prentsa krisi sakonean murgildu zen urte haietan, kazeta elebidun diglosiko sorberrien lehiari eutsi ezinda. *Argiakoek* 1987ko *Euskal Kulturaren Urtekarian* ziotenaren arabera, bi arrazoi nagusi izan zituen 1980ko hamarraldiaren hasierako euskal prentsaren krisi horrek: batetik, dagoeneko aipatua dugun kazeta elebidun diglosikoen lehia; bestetik, Eusko Jaurlaritza sortu berriaren laguntzarik eza (*Argia*, 1988: 254):

Azken bi faktore horiek euskal prentsaren behin-behineko porrota sortu zuten, eta 1982an aldizkariak antolatutako “Prensa euskaraz” kanpaina dugu berorren lekuko. Krisi horren ondorioz, “Anaitasuna” itxi behar izan zen [*Anaitasuna*-k ez ezik, *Goiz-Argi*-k ere behea jo zuen 1982an], eta ARGIA ere zenbait hilabetez kaleratu ezin izan zen.

Krisi horren azken datua hauxe izan zela esan genezake: prentsa elebiduna prentsa erdalduna bilakatzearen porrota. “Deia”n hasiera batetan egin zen planteamendu serioa (11 kazetari euskaldun), eta “Egin”en egindako estraineko saioa ere, pikutara joan ziren urtebete pasa baino lehen. Astekari “elebidunen” etorkizuna ere ez zen goxoagoa izan: “Garaia” eta “Berriak” berehala desagertu ziren, eta “Punto y Hora”k berrestrukturaketa gogor bat behar izan zuen iraua ahal izateko.

Egoera kaxkar horrek eraginik, «Prensa Euskaraz» kanpaina antolatu zen 1980ko azaroaren 14-16rako. *Anaitasuna*, *Argia*, *Herria*, *Jakin* eta *Saski Naski* aldizkariak bultzatutako kanpaina haren publizitateak «Harpidedun berririk gabe euskal prentsak ez du etorkizunik» zioen, eta esloganak «Euskal Prentsarik gabe ez dago Euskal Herririk».

Idea horiek zabaltze aldera, orotara 10.000 afixa eta 800.000 eranskailu atara zituzten antolatzaileek. Horrez gain, Hego Euskal Herrian zehar diru-bilketa ere egin zen azaroaren 14, 15 eta 16an. Ipar Euskal Herriari dagokionez, hara zer zioen *Ere* aldizkariak, kanpainaren atarian ateratako 61. zenbakian (1980-XI-12): «En todo caso, en Euskadi Norte la campaña tendrá un carácter distinto: será sólo de concienciación, pero no de recaudación». Estrategiak estrategia, Jexuxmari Zala-kainen arabera kanpaina hark ez zuen antolatzaileek gogoan zerabilten helburua erdiesterik lortu (1993: 46):

Kanpainak ez zituen lortu aldizkari bakoitzarentzat helburu ziren 4.000 (sic) harpidedun haiek. Neurtzekoa da kanpainaren izaerak berak izan ote zuen eraginik. *Bai Euskarari* kanpaina antolatu zuten berberaiek bultzatu zuten. Ramon Labaien eta Pedro Miguel Etxenikeren oneritzia izan zuen. (...) Kanpaina frakaso bat izan zen. *Argia* 1981-IXtik 1982-Iera bitartean atara ezinik egon zen. (...) *Anaitasuna* okerrago ibili zen, berriz, beherakada geldiezinan sartu baitzen.

Kanpainak porrot egin zuen, beraz, eta euskarazko prentsari ere gutxi falta izan zitzaion harekin batera hondoratzeko: 1982an *Anaitasuna* eta *Goiz-Argi* desagertu ziren, eta *Zeruko Argiak* ere gorriak ikusi zituen. Izan ere, 1980ko uztailan kaputxinoek aldizkariaren jabetza utzi egin zuten eta langile-talde baten esku geratu zen enpresaren ardura. Aldaketa hark izenaren aldaketa ere ekarri zuen berarekin: *Zeruko* berba utzi eta *Argia* huts bilakatu zen ordura arte *Zeruko Argia* izan zena. 1980 hartako abuztuaren 3ko zenbakian ikus zitezkeen aldaketa haiek guztiak, «»Zeruko Argiaren ilunabarretik ARGIAren egunsentira» izenburupean. Arazoak ez ziren, ordea, hor amaitu, kazetari-lehortek, irakurle eta iragarleen ihesak (kazeta elebidun abertzale sorberrietara maizenik), EAJko harpidedun askok harpidetza bertan behera utzi izanak edota hainbat gizarte-gaitan (abortuari

dagokionez, barbarako) izaniko jarrera ausartak *Argiari* nahikoa lan eman baitzioten. Hara zer zioten bertako beharginek 1987ko *Euskal Kulturaren Urtekarian*, 1980ko hamarkadaren hasierako garaiak oroituz (*Argia*, 1988: 257):

1980an susmatzen dira dagoeneko ARGIAren krisirik handiena suposatuko zuen egoeraren lehen datuak. “Egin” eta “Deia” egunkariak alde batetatik, eta erderazko astekari andana bestetik, 1977-78an sortu berriak izanik, astekariaren harpidedun kopurua piska bat gutxitu zen, horrekin batera aurretik zetorren diru-zuloari irtenbideak aurkitzeko arazo larriak planteatuz. 1980an izenez eta jabegoz aldatzen da. ARGIA sortzen da eta jabegoa Kaputxinoengandik “Zeruko Argia kooperatiba”ra pasatzen da. Urtebete buruan ordurarteko ekipo guztiak utzi egiten zuen, eta lekukoa hartuko zutenak gaur egungo ARGIAko ekipoaren hazia edo aintzindariak izan ziren. 1981 urte bukaeran hilabete batzuz eten egiten da astekariaren argitalpena, instituzioekiko tirabira gogor baten erdian.

1982an —eta instituzioen begirune minimorik gabe— berriz ere abiatzen da ARGIA, bost urteren buruan harpidedunen kopurua bikoiztuz, eta horrek (taldearen jarrera militantearen laguntzaz) segurtatzen dio astekariari iraupena.

Bestelakoa izan zen, ordea, *Goiz-Argi* eta *Anaitasunaren* kasua, bien ala bien ibilia 1982an iraungi baitzen. *Anaitasuna* itxi ostean, bertako beharginek, itxieraren nondik norakoen berri emateaz gain, euren babesa eta laguntza ere eskaini zitzioten *Argiari*. Hona zer zioen 1983ko martxoan *Anaitasunako* langileek kale-raturiko agiriak (pasarte luze xamarra izan arren bere horretan aldatu dugu hona, esanguratsua delakoan):

Gure diru-iturriak giltzaz zarraturik daude, ongi itxirik eta prezintaturik. Abonatuen artean, dena esan behar da, asko eta asko izan dira, urteko harpidetza ordaindu izan ez dutenak (erdiak azken urtean) eta, baldintza horietan, zintzoki pagatu dutenek ordaindu dutenaren erdia ere ez dute hartu guregandik⁴². Horiei ez dakigu zer esan ere, baina ulertuko dutelakoan gaude. Dena den, azalpen hau zor diegu gutxienez... Badira beste hainbat arazo. Publizitatea aldapan behera joan da. Gaur egun, erakunde publikoak diren eta diruz ondo dabilzan Aurrezki Kutxak berek ere gero eta gutxiago ematen duten, euskarazko aldizkarietarako behintzat; marketinzaleek diotenez, euskarazko iragarkiak ez ei dira errentagarri, agian, arrazoia dute, erabakia guztiz politikoa izanik ere... Prezioak gora joan direla esatea, betiko leloarekin ibiltzea da, bestalde... Eusko Jaurlearitzaren diru-laguntzak lotsagabeena ere lotsatuko luke... Eta abar... Horrela ez zegoen, geunden zulo sakonetik irteterik.

Eta itxi egin dugu aldizkaria. Ez utzi, itxi baizik. Oraingoz. (...)

Ez zaituztegu aspertu gura geure arrazonamendu eta buru-zuritze gogaikarriekin. Labur esanda, geure ahalmen laburrez *ARGIA* aurrera ateratzen lagundu gura dugu. Ez da gauza asko, baina geure artikulua horra bidaliko ditugu. Geure abonatuak ere bertara eraman nahi genituzke (ordaintzen dutenak, noski), horietako asko alde

42. Garai hartan *Anaitasunak* ez zion eutsi bere ohiko hamabosteroko maiztasunari eta ahal zuenean kaleratzen zen, modu aski irregularrean kaleratu ere.

aurretik. *ARGIA*ko harpidedunak direla jakinda. Ez dakigu ondo edo txarto egingo dugun; praktikak erakutsiko digu bidea. Edozertara, Bizkaiko idazle batzuen ahotsa apur bat gehiago entzungo da, oraindik Bilbotik urrun samar dagoen aldizkari horretan. Guztion mesederako geratuko ahal da!

Urte gogor batzuk pasatu eta gero, beraz, *Argiak*, *Zeruko* izenlaguna galdua, egoerari buelta ematea lortu zuen: produktua kaleratzeko beharrezko zen azpi-egituraz jabetu zen, kazetari gazteen talde zabala prestatu zuen (*Anaitasunatik* etorritako taldea ere lagun zutela) eta baita irakurle-esparru berrietara iritsi ere. Oinarri horiek ezarrita, hamarraldi amaieran hurrengo pausoa emateari ekin zion: *Euskaldunon Egunkaria* sortzeari, alegia.

Euskarazko egunkariaren proiektua aurreragoko atal baterako utzita, eta laburbiltze aldera, esan beharra dago 1976a mugaria izan zela euskal prentsaren ibilbidean. Euskarazko prentsaren aldeko aldarria ozen entzun zen Euskal Herri osoan eta euskarak kazetaritzan lekuri eta zeresanik bazuela erakutsi zuten erronka hartan sinetsi zuten haiek. Are: euskarak, zentraltasunik izatekotan, euskara hutsezko prentsan izango zuela erakutsi zuten, eta ez prentsa elebidunean. Jexux-mari Zalakainek modu honetan aztertu zuen kontua ia bi hamarkada geroago (Zenbait egile, 2006: ork. gabe):

Emaitzei begiratuta, ondorioak aztertuta —*a posteriori*, beraz— batzuk oso argi daukagu, apustu hura gabe, ez legokeela gaur egun daukagun prentsa euskaraz: egunkari bat, dozenaka aldizkari eta hainbat eta hainbat proiektu mamitu ezinik, dirua eta boterea daukatenez ez dutelako oraindik proiektu estrategiko hau aintzatetsi.

Aurrerago jorratuko dugu *Argiak*oen eginiko hurrengo urratsa (*Euskaldunon Egunkariaren* sorrera). Goazen orain 1980ko hamarraldi hartan abiatu nahi eta ezinean zebilen euskarazko masa-komunikazioaren beste arlo bati erreparatzera: euskarazko zinemagintzari, hain zuzen ere. Nolanahi dela, gauzak ganoraz aztertuko baditugu, soa urte batzuk lehenago pausatu beharra dago, ezinbestean.

ATALEAN BALIATURIKO ITURRIAK

Aranburu, X. (1977): “Euskara erdal egunkarietan”, *Euskara*, 22. zenbakiarekin (2. aldia) batera kaleraturiko separata, Euskaltzaindia, Bilbo.

Argia (1988): “Euskal prentsak 100 urte bete ditu”, 1987, *Euskal kulturaren urtekaria*, Argia, Donostia.

Millan, I. (2009): “Mikel Atxaga: ‘Prentsa elebidunean zaila da euskarak aurrera egitea’”, *Noticias de Gipuzkoa* egunkaria, 2009-03-16, 58. or.

Zalakain, J.M. (1993): *Joxemiren uzta. Euskal prentsa herri proiektua da*, Txalaparta, Tafalla.

Zenbait egile (1983): “*Anaitasunatik Argiara*”, *Anaitasunako* langileen agiria, 1983ko martxo.

Zenbait egile (2006): *Gu gara euskal prentsa. Hautu baten kronika 1976/2006*, [DVD], Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.

Zuberogoitia, A. (2003): *Euskararen presentzia gaur egungo prentsa elebidun abertzalean*, Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen-zerbitzua, Bilbo.

Zuberogoitia, A. eta Zuberogoitia, P. (2008): *Bertan Bilbo. Bizkaiko hiriburua eta euskara: XX. mendeko historia*, Bilboko Udala, Bilbo.

8. Zinema-industria abiatu nahian

8.1. HASTAPEN-GARAIAK: UKAZIOTIK ONARPEN BEHARTURA

1895eko abenduaren 28an abiatu zen zinemagintza moderno⁴³, Louis eta Auguste Lumière anaiek kamerari proiektorea eranstearekin batera. Bost hilabeteren buruan ailegatu zen zinematografoa Frantziatik Espainiara eta garai bertsukoak dira pelikula modernoan harturiko lehen euskal gaiak ere.

Biltegi bat izan zen Euskal Herriko lehen zinema-areto: Miarritzeko hondartza nagusian ezarritako biltegi bat, hain zuzen. Eta haren atzetik heldu ziren beste zenbait emanaldi ere: Donostian, Bulebarrean; Bilbon, Arriaga Antzokiko azpialdean; Iruñean Antzoki Nagusian eta Gaztelu Plazan; eta, azkenik, Gasteizen Florida kaleko Zirku Antzokian.

Oraindik zinema mutua zen arren, herria erdalduntzen zuela argudiatuta (beharbada arlo hori jorratzen zuten kazeta gehienetan erdarak leku zabala zeukalako) masa-komunikazioaren adierazpide berriaren aurkako jarrera hartu zuten hasiera batean euskal abertzaleek. Euskal herritarrek, ordea, mundutik zetozen irudi eta istorioez gozatzeko gogo itzela zeukaten. Horiek horrela, zinemaren beraren izena euskaratzeko ahalegina egin zuten euskal garbizaleek, zinema *idazpila*, *irudibil-mintza* edo *bizitelestia* hitzekin izendatuz.

Izena euskaldunduta ere, zinema etsaia zen abertzale askorentzat, eta, horregatik, zinemaren lehen aroan, *Euzkadi* egunkarikoek esaterako, uko egin zioten filmen berri emateari. 1916ko urtarrilaren 15eko “El Cine” izeneko artikulua hone-tan argi ageri da hori (Izagirrek aipatua eta itzulia in 1996: 27):

Lan immoral baten kondena, egun, erakargarri handia baita, kondena zonbatenaz eta sutsuagoa eta larriagoa izan, hainbatenaz erakarriagoa.

Ohartuko zineten *Euzkadi*-ko irakurleok itxiak dauzkagula zutabe hauek eta administraritzako dirukutxa txukuntasun publikoaren usteltzaileak diren zinema eta antzerki entresendako. Eta jakinik moral zentzudunaren eta gustu onaren gaiztotzea sinetsezineko punturaino heldu dela latinkeriaren aitzinamenduari eta kulturagintzari esker, Euzkadiko hiri handietan nagusiki, begiak, sudurrak eta ahoa itxi beharrean aurkitu gara, simaur oldarraren aitzinean.

43. Koldo Izagirrek dioskunez (1995: 13) data horretan banakakoa izatetik multzokakoa izatera pasatu zen zinemagintza, horrela zinema industria bilakatuz. Horra hor garai horretatik aurrera zinemagintza *moderno* gisara izendatzearen arrazoia.

Berrikuntza guztiak ziren etsai orduko euskal abertzaleentzat eta haserrea areagotu egin zen zinema-emanaldiak frontoietan (euskal kirolaren santutegi ziren horietan) egitearekin batera. Iruñeko Euskal Jai pilotalekuko ezker horman, esate-rako, zinema-emanaldiak egin ziren 30-40 urtez, 1924an Gernikan eraikiriko frontoi berriko kontrakantxaren zati bat ere apropos zuriz margotu zen bertan pelikulak proiektatu ahal izateko, Zarauzko frontoi berriak Frontón Cinema zuen izena...

Saioz saio euskal herritarren artean zinemak zuen arrakasta ikusita eta aretoak leporaino betetzen zirela ohartuta, urteak igaro eta gero zinemaren aurkako argitalpen abertzaleek zinemari lekutxo bat egitea beste irtenbiderik ez zuten ikusi. L. Ayenbe-k 1934ko abenduaren 30ean *El Dían* ateratako «Vehículo de ideas» artikulua esanikoaren lekuko da (Izagirrek aipatua eta itzulia in 1996: 31):

Guk nahi ala ez, egun ezin dira ukatu ez zinema eta ez zinemaren eragina gizartean. Honengatik, *El Día* egunkari honek, bere ideia katolikoei jarraituz, orrialde zinematografiko hau zabaldu du pantaila kristautzeko xedez, eta filme inmoral, eskandalagarri eta dekadenteek ikusleetan egiten duten kalteari buru egiteko.

Bilboko Iralabarri auzunean sortu zen 1923an Euskal Herriko lehenengo zinema-etxea, Academia Cinematográfica Hispania Film izenaren pean. Bertan sortua da, Gil del Espinar jaunaren eskutik, *Edurne, modista bilbaína* filma, Euskal Herrian eginiko lehen film luzea. Meategi- eta fabrika-eremuan girotu zen melodrama hura, eta 1924-25 bitarteko neguan Euskal Herriko txoko guztietan ikusi ahal izan zen.

Espainiako II. Errepublikarekin batera hedatu zen hitzezko zinema Hego Euskal Herrian. Primo de Riveraren diktadura-sasoiarekin alderatuta, giroa lasaiagoa zen orain Hegoaldean, eta arte-adierazpideetan ere handiagoa zen baimendutako askatasun-tartea. Liburugintzan, kazetagitzean zein irratigintzan gertatutako moduan, ordea, zinemagintzan ere berandu zebilen euskara. Batzuk, hori bai, ahaleginetan zebiltzan ordurako, Ander Arzelus «Luzear»ek 1935eko martxoaren 21ean *El Dían* ateratako «Zinea lagun...» artikuluan antzeman daitekeen bezala (Izagirrek aipatua in 1996: 51).

Iñoiz euskal zinerik egin al izatekotan oraintxe egin diteke ba. Ingeles eta aleman ortxe entzuten ditugu egunero, ta gaztelar izkiarekin azaltze utsa asko degu mintz edo pelikulak atsegin biziz ikusteko. Konplikazio aundirik gabekoak dira nagusitxo bezela azaltzen zaizkigunak: eresi, abesti ta maitasun gaiekikoak. Ereslari ta abeslariak ez ditugu palta. Zine antzezleri bezela jarriko lirake gureak ere noski. Ta Schubert'en «Ene abestiak egaz» bezin gauza politik ez ote genuke ba asmatuko? Orrelako bat naikoa berriz ludiko bideak irikitzeke. Ta euskera, irudibilmintzetan (zine pelikulatan) «etxeokandre». Alemana baño goxoagoa litzake behintzat, gaztelar belarrientzako izan ezik.

Ametsetan ari al naizen? Zer egingo zaio ba? Ezpaitu gizonak bizitzeko ogia bakarrik asko. Amets goi oietatik jexita ere zerbait egin diteke ordea, orra. Badakit nik

etxetako zinemintz saltzalle bat, Paris'ko olarekin tratuan ibillia dala. Illean onenbesteko bat saltzea eskatu diote: ortan ezin gindezke saiatu? Lenengo oinkada auxe izan diteke, “zinea” gure lagun egiteko. Ta zinea lagun izanik...

Hitzak hitz, saiakera edo nahi hark ez zuen fruiturik eman eta 1930era arte itxaron behar izan zen euskara lehen aldiz pantaila handian entzun ahal izateko: M. Champreux jaunak eginiko *Au Pays des Basques* dokumentalean, hain zuzen ere (Hego Euskal Herrian *Alma Vasca* izenburupean banatua). Dokumentaletatik harago, euskara fikziozko pertsonaien ezpainetan entzun ahal izateko denbora luzea iragan beharko zen oraindik.

Dokumentala izan zen euskaraz eginiko hurrengo lan zinematografikoa ere; *Euzkadi*, 1933ko abenduan estreinatu zena. 1898an Zizurkilen (Gipuzkoa) jaiotako Teodoro Ernardorena jeltzalea izan zen proiektu haren ekoizle exekutiboa eta baita zuzendari laguntzailea ere: funtsean, *Euzkadi* lanaren bultzatzaile nagusia. Produktu guztiz nazionalista izan zen hura (EAJren propaganda politikoa egiteko baliatu baitzuten), eta Jose Antonio Agirrereren, Telesforo Monzonen edota Teodoro Ernardorenaren beraren hitzaldiak ikus zitezkeen bertan. Horrez gain, soinua bera ere filmaren protagonista izan zen. *Euzkadi* filmaren bi kopiak, ordea, faxistek suntsitu zituzten, bata Bilbon eta bestea Bartzelonan, eta egun ez dago, beraz, lan haren aztarnarik.

Ezin ahantzi Imanol Intxaustik euskal zinemagintzari eginiko ekarpena ere. Eusko Ikaskuntzarentzako *Eusko Ikusgayak* izeneko sail etnografikoa filmatu zuen 1923-28 bitartean. Lan haietatik zortzik iraun dute gaur egunera arte eta azpimaragarria da nola intertituluak euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez ageriagatik ere, euskarak lehentasuna zuen, letra-tamaina handiagoarekin ageri baitzen.

8.2. FRANKISMO MINEAN ZIRRIKITU BILA

Lehen kimuak agertzen hasiak zirenean, baina, frankismoa iritsi zen, euskarazko kultur adierazpenen soroan sega xehe-xehe pasatzera etorri ere. Alabaina, izan zen errepresio haren pean bere hondar alea ezartzen saiatu zenik. Behin puntu honetara ailegatuta, ezin Gotzon Elortzaren izena aipatu barik utzi. Parisen bizi zen Elortza, baina euskararen kezkak bultzatuta eta Parisen zeuden Iparraldeko euskal herritarrei Hegoaldea erakusteko helburuarekin, 1960-64 bitartean Bizkaian barna ibili zen emaztea eta kamera lagun zituela. Hiru dokumental filmatu zituen denbora-tarte horretan: *Ereagatik Matxixakora*, *Aberria* eta *Erburua: Gernika*. Hiru dokumentalon ostean, *Avignon* lana egin zuen, Frantziako hiri horri buruzko euskarazko dokumentala.

Esan beharrik ez dago garai hartan euskaltzaleen artean oso txalotua izan zela Elortzaren ekimen hura, *Zeruko Argiako* 1966ko urtarrilaren 16ko iruzkin honetan ikus daitekeen moduan:

Abenduaren 15'an Baiona'ko "Euskal Idazkaritzan" lau euskal pelikula erakutsi zituzten. Mintz oiek egin dituana Gotzon Elortza da. Bilbotarra bera jaiotzez. Eztu lan makala egin. Arritzekoa da nola iritxi duan onelako lan nekeza burutzea.

Aurreneko pelikula edo mintza Bilbo erakusteko egiña da. Bizkai'ko uriburua ta inguruak ederki erakusten ditu euskal itzez adieraziak. Bigarrenak Avignon azaltzen digu. Bide batez, noiz Aita Santuak an egon ziren adierazten digu.

Irugarrenak, euskal nekazari etxetako bizitza erakusten digu. Ta nolako zirrada sortzen duten pasa-aldi batzuek! Laugarrenak "Gernika" du bere azalgarri. Dena euskeraz adierazia. Gotzon Elortza'ri eskerrak eman bearrean gera. Eta jarrai dezala bide ortatik.

1960ko hamarkadaren erdialdean, bestalde, Hego Euskal Herriko egoera politiko oraindik ere zaila zela, film luze serio eta sendo baten proiektua garatzeari ekin zioten Nestor Basterretxeak eta Fernando Larruquertek, elkarlanean: *Ama Lur* filmari buruz ari gara. 1964an ekin zioten euskal identitatearen berreskurapena helburu zuen film dokumental hura errodatzeari; *Ama Lurrek* heriotza, herri-kirolak, festak edota nekazaritza gaiak jorratu zituen. Haatik, filmaketa-lanei ekin baino lehen, dokumentala bera oraindik proiektua baino ez zela, 100 pezetako txartelak saldu ziren herritarren artean, egitasmoa herri-ekimenean oinarrituta garatzeko asmoarekin. Hara zelan oroitzen duen ekimen hura Xabier Kintanak (Zuberogoitia, A. eta Zuberogoitia, P., 2008: 192):

Film hori egiteko diru-bilketa egin zen; herriz herri ibili ziren hitzaldiak ematen (neu ere izan nintzen Gernikan eta Mungian filmaren esangura euskaraz azaltzen). Film horren aita ponteko estetikoak Oteiza izan zen.

Oteiza, beraz, tartean zebilen. Ez alferrik, poema bisuala izan zen *Ama Lur*; hala deritzo behinik behin Mikel Insaustik (2007: kontrazala): «(...) una creación poética plena de elementos simbólicos, que apelaba a la sensibilidad del espectador, y presentaba (...) un país y su identidad». *Ama Lur*, funtsean, tropa frankistek desagerraraziriko *Euzkadiren* berreskurapen modukoa izan zen, estilo aldetik aldaketak nabarmenak baziren ere. Euskararen presentziari dagokionez, berriz, gaztelania nagusitzen da filmean, eta euskara soilik aspekturik abertzaleenak eta folklorikoenak jorrazteko erabiltzen da.

Nolanahi dela, Manuel Fraga Iribarne Espainiako Informazio eta Turismo ministroak ezarritako zentsura gaindituta (eta hori posible izan zedin zenbait apo derrigorrez irentsita)⁴⁴, 1968ko uztailaren 10ean estreinatu zen *Ama Lur*, Donostiako Zinemaldiak eskainitako marko ezin egokiagoan estreinatu ere, eta oso harrera ona izan zuen ikusleen artean (Insausti, 2007: 13-15):

44. Picassoren *Gernikaren* plano batzuk, adibidez, kenarazi egin zizkieten, Gernikako Arbolaren planoak ere baztertu egin behar izan zituzten eta *España* berba hiru biderrez aipatzera derrigortu zituzten.

El pueblo vasco no hizo otra cosa que devolver a los autores justo lo que ellos le habían dado, incorporando al imaginario popular toda la carga mítica de “Ama Lur”. El pase fuera de concurso, pero dentro de la Sección Oficial, en el cine Astoria (el del Victoria Eugenia era más clasista), fue seguido con el local abarrotado de gente, tanta que hasta se agolpaba en los pasillos. El fundido final a negro a los sonos del “Agur Jaunak” fue coreado efusivamente por unos cientos de gargantas ahogadas por la emoción, a la vez que se frotaban los ojos ante el espectáculo audiovisual sin precedentes que acababan de contemplar. Los instantes previos a la proyección fueron asimismo de gran intensidad, según relatan algunos de los privilegiados asistentes. La rumorología consustancial a los tiempos de la clandestinidad se había disparado hasta formar una leyenda sobre lo que había dejado y no había dejado pasar la censura.

8.3. *TRANTSIZIOTIK JAURLARITZAREN 1984KO PLANERA*

Kronologiak dokumentaletara garamatza berriz ere, euskarazko dokumental sorta bat (*Ikuska* sorta, hain zuzen), kaleratu baitzen 1979-1984 urteen artean, Antxon Ezeizaren eta Luis Iriondoren koordinaziopean. Hainbat zuzendarik gidaturiko 20 dokumental labor filmatu ziren orotara, eta bakoitzak Euskal Herriko gai jakin bat jorratzen zuen: euskara, ikastolak, Araba, emakumeak, abeslariak, elebitasuna, etab. Sorta horrek euskal zinematografia berriaren oinarriak jartzea zuen helburu, Ezeizak berak zehazten duenez (*Zuberogoitiak* aipatua in 2003: 532):

(...) Quisimos poner las bases de la nueva cinematografía vasca. (...) Queríamos que los *Ikuskas* sirvieran de plataforma para hacer cine en euskara. Yo llevé la coordinación de todos ellos. Trabajamos en un equipo en el que había gente de aquí que tenía una formación euskaldun. No se concibe que alguien quiera realizar cinematografía francesa si no conoce a Corneille o a Racine y encima desconoce el francés”.

Garai berean (1978an, hain justu) heldu zen marrazki bizidunetako lehen euskal filma ere, *Ekialdeko Izarra*, Juanba Berasategiren eskutik. Goitik behera artisau modura egindakoa izan zen lan hura, baina egilea apurka-apurka teknika garatzen joan zen, eta baita, ondorioz, fruitu berriak sortzen ere. Elkarlanean sorturiko *Jaizkibel* ekoiztetxearen proiektua izan zen, berbarako, 1981ean pantailaraturiko *Fernando Amezketarra* film laborra. Lan horri esker Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko XXI. Jaialdian lehen saria jaso zuen Berasategik.

Berasategik berak zuzenduta egin zen marrazki bizidunen euskarazko lehen film luzea ere, 1985ean: *Kalabaza Tripontzia*. Koldo Izagirrerren gidoian oinarrituta eta Oskorriren doinuez musikatuta, euskal tradizioak emandako hainbat kon-daira eta ipuin ziren istorioaren zutabe nagusi. Arrakasta handia izan zuen filmak eta, besteak beste, Ohorezko Aipamena jaso zuen Donostiako Zinemaldian. Horrez gain, Espainiako Kultura Ministerioak hurrei bereziki gomendaturiko lana ere izan zen.

Koldo Izagirrek dioenez (1996: 116), Juanba Berasategi marrazki bizidunetan aitzindari izan bazen, gauza bertsua esan daiteke Anjel Lertxundiz irudi errealari buruz ari garenean:

Eusko Jaurlaritzak 1986an ekoizturiko hiru erdimetraietarik, berea izan zen, *Hamaseigarrenean Aidanez*, euskal aktoreekin euskaraz antzezteko borondate nabarmena erakutsi zuen bakarra eta —ondoko ñabardura biziki garrantzitsua da— bikain jakin izan zuen hausten telebistako bikoizketaren mota betibera eta dramatikotasunik gabekoa. Gainerako bi erdimetraiak, *Zergatik Panpox* eta *Ehun Metro*, urrun gelditu ziren.

Izagirreraren aipu horrek, beraz, bete-betean kokatzen gaitu 1980ko hamarkadako zinemagintzan (irudi errealeko zinemagintzan, zehazki). Esan bezala, 1985ean, *Hamaseigarrenean aidanez*, *Zergatik Panpox* eta *Ehun Metro* luzera ertaineko filmak ekoitzi ziren Euskal Herrian⁴⁵. Baina, nondik zetorren egitasmoa? Politika-munduko haize eta erakunde berriek izan zuten horretan eraginik. Izan ere, bost urte lehenago (1980an) sortu zen Eusko Jaurlaritza berria, eta hiru urte lehenago besterik ez Euskal Irrati Telebista. Urte berean (1982an) onartu zen EAEn Euskararen Legea ere.

Behin testuinguru politiko-kulturala pintzelkada lodiz marrazturik, esan dezagun ekoizpen haien jatorria Eusko Jaurlaritzak 1984an eginiko plan batean zegoela: plan horren arabera, Euskal Telebistak, euskaraz idatzitako sei eleberritan oinarriturik, sei film ekoiztiko zituen, guztiak ere Euskal Herriko aktore eta teknikariek eginak. Urtebete geroago, 1985ean, Eusko Jaurlaritzaren beraren eta Irati produkzio-etxearen ekimenez, aurrera atera zen proiektua, erdizka bazen ere (hiru film baino ez ziren egin azkenean).

Planaren arabera, pelikulek iraupen ertaina izango zuten, ordubetetik behe-rakoa, eta, printzipioz, telebistan erakusteko ekoizpenak egingo ziren. Aurrekontua 100 milioi pezetakoa izan zen, eta Jesus Acin eta Angel Amigo aritu ziren Irati produkzio-etxearen izenean.

Hona hemen film horiei buruzko zenbait datu (arestian aipaturiko datuak zein taula hau in Gostin, 2008):

45. Badago, hala ere, ahaztea komeni ez den beste erreferentzia bat: gaztelania eta euskara uztartu zituen 1983ko *Los reporteros – Erreporteroak* filma. Iñaki Aizpuruaren zuzendaritzapean egin zen film luze hori, Aizpuruaren beraren, Iñaki Uriaren, Juanjo Landaren eta Rosa Tolosaren gidoiarekin. Drama politikoa argumentutzat hartuta, 1980-1981 urteetako Euskal Herriko testuinguru politikoa lantzen da bertan, *free lance* gisara ari diren bi kazetariren ikuspegitik. Proiektu elebiduna izan zen aspektu guztietan. Hau da, proiektua bera, gidoia nahiz filmatzea euskaraz nahiz gaztelaniaz egin ziren, gidoiak hala eskatuta.

Urtea	Eleberria	Idazlea	Gidoigilea	Zuzendaria
1985	<i>Hamaseigarrenean aidanez</i>	Anjel Lertxundi	Anjel Lertxundi	Anjel Lertxundi
1985	<i>Ehun metro</i>	Ramon Saizarbitoria	Alfonso Ungria	Alfonso Ungria
1985	<i>Zergatik panpox</i>	Arantxa Urretabizkaia	Xabier Elorriaga	Xabier Elorriaga

Baina, zeintzuk ziren proiektu haren helburu nagusiak? Garai hartako Jaurlaritzako Kultura eta Turismo sailburu Luis Mari Bandresen egitasmoaren aurkezpen-ekitaldian jakinarazi zuenez, euskaraz egindako zinemari lagundu nahi zitzaion, ordura arte gaztelaniaz egin eta ondoren euskarara itzultzen ziren pelikulen dinamika hausteko asmoz⁴⁶.

Anjel Lertxundiren *Hamaseigarrenean aidanez* filma izan zen aurkezten lehena, eta baita arrakastarik handiena lortu zuena ere (Gostin, 2008: 38):

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak bultzatutako egitasmoko lehen pelikula, *Hamaseigarrenean aidanez*, 1985eko urriaren 11n estreinatu zuten, Donostiako Victoria Eugenia antzokian. Lehen estreinaldi horretara agintari politiko eta gizarte ordezkari ugari joan zen. Hurrengoetara, aldiz, inor gutxi agertu zen. (...)

Egitasmo horrek ez zuen jarraipenik izan, eta telebistako programazioa betetzeko osagarri gisa geratu ziren pelikulak⁴⁷.

Egitasmoak ez zuen, beraz, jarraipenik izan, eta, Amezaga, Arana eta Azpillagaren arabera (2010), beronen ondorioz arrakala nabarmena zabaldu zen Jaurlaritzaren eta ekoizpen-sektorearen artean; izan ere, Administrazioak esku-hartze zuzena izan zuen film horien produkzioan eta sektoreko profesionalek ez zuten hori begi onez ikusi.

1986an, berriz, eta Eusko Jaurlaritzaren ekimen horretatik kanpo, *Oraingo izen gabe* (iraupen ertaineko filma hau ere) filmatu zuen euskaraz Jose Julian Bakedanok. Jose Luis Borges idazlearen *La intrusa* narrazioan oinarrituta, Bernardo Atxagak egokitu zuen testua pelikularako. Zenbait euskal aktore ezagun bildu zituen filmak, hala nola Iro Landaluze, Felix Arkarazo, Elene Lizarralde edota Luis Iriondo.

Kareletik (1987) izan zen Anjel Lertxundiren bigarren lan zinematografikoa, hau ere euskaraz egin eta Irati produkzio-etxeak ekoitzia. Kasu honetan ere gidoi-gile eta zuzendari lanak egin zituen Lertxundik. Proiektu honek badu, gainera, azpimarratzeko moduko beste alderdi bat, diru-laguntzarik ez izan arren, film luzea

46. Ikus Bandresen agerraldiari buruzko informazio gehiago in *Deia*, 1985-07-19, 20. or.

47. Gostinen lana (2008) erreferentzia interesgarria da hiru film horiei buruzko informazio gehiago gura duenarentzat.

egin baitzuten, modu horretan mugarrira jarrita euskarazko irudi errealdun zinemaren historian.

Ondorengo urteetan, ordea, eredu diglosikoa izan zen nagusi Euskal Herrian eginiko zineman, *Ke arteko egunak* (1989) proiektuaren salbuespenarekin. Antxon Ezeizak zuzendu zuen film luze hori, eta Antxon Ezeizarena berarena, Koldo Izagirrerena eta Usoa Urbietarena zen gidoia. Ezeizaren *Ke arteko egunak* izan zen gainera, nazioarteko zinemaldi batean (1989ko Donostiako Zinemaldiko sail ofizialean) sarituriko irudi errealeko fikziozko lehen euskal filma (erdarazkoekin batera lehiatuta). Horrez gain, aurrez *Ehun metro* eta *Zergatik Panpox* filmek zabalduzko ildoa sendotu zuen, erakutsiz, modu horretan, euskaraz grabaturiko film batek ez zuela nahitaz baserri-girokoa edo tematika etnikoduna izan behar.

Lehentxoago, bestalde, EITBren sorrera aipatu dugu; Amezaga, Arana eta Azpillagak diotenez (2010), ondorio nabarmena izan zuen telebista autonomikoaren jaiotzak, film zein telesail ugari euskarara bikoizteari ekin baitzitzaion (1.500 ordu inguru urtean 1983 eta 1993 bitartean). Alabaina, 1980ko hamarraldi horretan ez zen ia sustatu euskarazko jatorrizko ekoizpen propiorik, eta euskarara bikoiztutako filmak zinema-aretoetan erakusteko zein euskarazko bideo-film mugimendua areagotzeko eginiko ahaleginak ere urriak izan ziren (Amezaga *et al.*, 2010: ork. gabe):

Eusko Jaurlaritzaren zine ekoizpena laguntzeko sistema hasi berriaren babesean (1980an hasi eta 1984tik aurrera finkatu zen sistema: dirulaguntza jasoz gero administrazioari euskarara bikoiztutako kopia bat aurkeztu behar zitzaion), film apur batzuekin egin ziren euskal ikusleen erreakzioa esperimintatzeko saiotoxo apalak. Alabaina, zenbait kasutan emaitzak interesgarriak izan ziren arren, adibidez, *Behiak* Julio Medemen lehenengo filmarenean, saio haiek ez zuten jarraipenik izan. Aurrerantzean, produkzioarako euskal laguntzek film euskarazko kopia bat egitera behartzen segitu zuten, baina kopia hura administrazioko tramitea betetzeko soilik egiten zen, inolako oihartzun publikorik gabe.

Bideoari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak euskarazko bideoak editatzea sustatzeko politika ezarri zuen 1987an, baina oso mugatua; horrela, 1990an 41 titulu editatu ziren, baina zaila da haien artean film arrakastatsu edo komertzialik aurkitzea, ez eta haurrentzat zuzendutakoetan ere.

8.4. 1990EKO HAMARKADAKO LEHORTETIK 2000KO PIZKUNDE APALERA

Ikusi berri dugun moduan, 1980ko hamarkadaren bigarren erdian euskarazko sei film ekoitzi ziren orotara. Hurrengo hamarkada guztian baino gehiago, beraz, 1990ekoan lau baino ez ziren-eta ekoitzi (haietarik hiru, marrazki bidez eginak)⁴⁸. Lehenengo biak 1992koak dira: Koldo Izagirreraren *Off-eko maitasuna*

48. 90eko hamarraldiko beste pare bat film luzetan ere (Arantza Lazkanoren *Urte Ilunak* eta Karlos Zabala eta Eneko Olasagastiren *Maité*) izan zuen presentziarik euskarak.

eta Maite Ruiz de Austri eta Carlos Varelaren *Ipar haizearen erronka* (azken hori marrazki bizidunez eginikoa). Bi urte geroago, 1994an, marrazki bizidunen jarraipena etorri zen: *Ipar haizearen itzulera*. 1997. urtean, berriz, Ibarretxe anaiek telebistarako euskaraz egindako film luzea ekoitzi zuten, lehenengo aldiz: *Agur, Olentzero, agur*. Txema Blasco, Loli Astoreka edota Juan Inciarte aktoreak izan ziren Iban Belastegi zuzendariaren aginduetara.

Salbuespen horiek salbuespen, baina, 1990eko hamarkadan euskaraz eginiko zinemaren lehortea ailegatu zen (aurrez ere berebiziko emankortasunik izan ez zuen arren). Izan ere, hamarraldi horretan euskal produkzio-etxeek ekoiztutako filmak gaztelaniaz grabatu ziren. Zergatik jazo zen hori? Hara zelan azaltzen duten kontua Amezaga, Arana eta Azpillagak (2010: ork.gabe):

ekoizpena sustatzeko sistemak izan ziren aldaketak ez ziren euskararen mesederako izan. Espainiar Estatuko dirulaguntza sistema eredu automatiko batera igaro zen eta Eusko Jaurlearitzak berriz, ekarpenak nabarmen murriztu zituen; horrez gain, *ETB* ere euskal zinemagintzatik urrundu zen, Mugarik gabeko Telebistari buruzko Europako Zuzentarauaren transposizioak aurrekontuaren % 5 Europako ikus-entzunezkoak ekoitzi eta eskubideak erostera bideratu beharri muzin eginda. Ondorioz, zinemagintzari loturiko arrisku ekonomikoak nabarmen gehitu ziren eta ekoizpeneko euskal enpresen jarduna izugarri murriztu zen⁴⁹.

Gaiaren inguruko kezka nabaria zen 90eko hamarkadan zein XXI. mendearen hasieran; *Jakin* aldizkariaren 144. zenbakian Fito Rodriguezek sinaturiko “Ikusezina izatetik ikusgarria izaterako bidean” artikulua esanikoaren erakusgarri da. Hona bertatik ateratako pasarte bat (2004: 18):

2002ko UEUko ikastaroetan, euskarazko ikus-entzunezkoen azken hamabi urteetako lehortearrekin kezkatuta, hainbat zinemagilek konpromisoa eskatu zion administrazioari eta, bide, batez, *ETB*ri, urtean gutxienez euskarazko bi film ekoitzi eta pantailaratu ahal izateko. Horretarako giza taldea nahikoa prestatuta dagoela sinetsita, 1.200.000 euroko aurrekontua aski izango zen.

Urrats bat euskal zinemaren alde lelopean bideratu ziren aldarrikapen horiek eta Eneko Olasagasti, Asier Altuna eta Koldo Almandoz zinemagileek aurkeztu zituzten. Ez dakigu zenbaterainoko eragina izan zuen zinemagileen eskaerak, baina kontua da hurrengo urteetan aldaketa nabarmenak izan zirela nola *EITB*ren hala

49. Dena dela, ikertzaile hauek diotenez, 90eko hamarraldian euskarazko zinema-produkzioak atzera egin zuen arren, euskarak aurreraka egin zuen *DVD*en ekoizpenean zein zinema-aretoetara eroandako film bikoiztuen arloan (2009: 32): «(...) Eusko Jaurlearitzak *DVD*tan editatzeari eta euskarara bikoiztutako pelikulak zinema aretoetan estreinatzeari zegokion politika handiguratsua garatu zuen hamarkadaren erditik aurrera, horretara xedatutako dirulaguntzen zuzkidura ondo gehituz. Horrek ez zuen eragin handirik izan hedapen komertzialeko aretoen merkatuko joera nagusiak aldatzeko, baina ondo etorri zen batez ere ikastegietara zuzendutako hasiberrien zirkuitua elikatzeko eta etxerako, bereziki haurrentzat, bikoiztutako pelikulen katalogoa osatuz joateko ere. Katalogo horren barruan, ordea, titulu komertzial nagusien hutsunea nabari da».

Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuaren politiketan. Amezaga, Arana eta Azpilagak zehatz azaltzen dute auzia. EITBri dagokionez, hona telebista horrek harturiko norabide berriari buruzko informazioa:

(...)azken hamarkada honetan, ordea, [EITBk] hiru akordio sinatu ditu Euskal Herriko ikus-entzunezkoen ekoizleekin (lehenengoa 2000tik 2002ra egon zen indarrean, bigarrena 2005-2007 artean eta oraingoa, 2008an sinatua, 2011ra arte luzatuko da), eta akordio horiei esker finantzazko oinarri sendoagoa izatea ahalbidetu dio euskal ekoizpenari. Hartara, 2005ean sinatutako akordioak *ETBk* urtean gutxienez euskal ekoizleek egindako fikziozko zazpi filmetan eta zazpi dokumentaletan parte hartuko zuela zioen; gainera, eta hau da euskararentzat esanguratsuen, urtero gutxienez fikziozko pelikula bat euskaraz ekoizten lagundu eta sustatuko zuela hitzematzen zuen. Orain indarrean dagoen akordioak handitu egin ditu konpromisoak: urtero hamaika pelikula eta hamaika dokumental laguntzeko betebeharra zehazten baitu, bai eta gutxienez euskarazko fikziozko bi pelikula sustatzeko ere”. (Amezaga et al., 2010: ork. gabe)

Eusko Jaurlaritzak, berriz, diru-laguntzen politika aldatu zuen eta horrek egonkortasun handiagoa eman zion sektoreari:

(...) Eskema horretan batetik lehentasunezko finantzatze lerroak daude, kosterik gabeak euskal ekoizleentzat, eta, bestetik, itzuli behar ez diren laguntzak, 1.720.000 koak 2008an, bi kategoriatan banatuta, egitasmoak garatzeko laguntzak eta ekoizteko laguntzak (fikziozko film luzeak, animazioko film luzeak, sortzezko dokumentalak eta film laburrak). Euskarazko ekoizpenari dagokionez, handitu egin da alderdi honen pisu egitasmoak balioesteko irizpideetan eta euskarazko proiektuek jaso litzaketen gehieneko kopuruetan —handiagoak, beraz—” (Amezaga et al., 2009: ork. gabe)

Espainiako Gobernuak ere, azkenik, hiru neurri garrantzitsu hartu zituen:

(...) nabarmen gehitu ditu dirulaguntzak, eta dirulaguntza automatikoa lortzeko txartel salmentatik atera behar den gutxieneko diru kopurua ere malgutu du euskaraz egindako filmentzat (...). Era berean, 2008an Zinemagintza Babesteko Funtsa handitu du, Autonomia Erkidegoetako hizkuntzetan egindako pelikulak promozionatzeko partidarekin; partida hori Autonomia Erkidegoen esku utzi da, eta erkidego bakoitzak kudeatu du (EAERI 126.000 egokitu zaizkio urte horretan)” (Amezaga et al., 2009: ork. gabe).

Horrenbestez, lehen aipaturiko *Jakineko* zenbaki hori kaleratu eta urtebetera euskarazko film luze bat ikusi ahal izan genuen pantaila handian. *Aupa Etxebeste!* lanari buruz ari gara: Ramon Agirre, Elena Irureta, Iban Garate eta Paco Sagarzazu aktoreek parte hartu zuten bertan, Asier Altuna eta Telmo Esnañen zuzendaritzapean. 2005ean aurkeztu zuten euren lanaren emaitza. 2006an, aldiz, Fernando Bernues eta Mireia Gabilondok zuzenduriko *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* plazaratu zen, besteak beste, Mikel Losada, Ainere Tolosa eta Mireia Gabilondo protagonista zirela. Eta, azkenik, Alberto J. Gorritiberearen *Eutsiren* txanda izan zen 2007an,

Anjel Alkain, Asier Ormaza, Oihana Maritorena eta Nagore Aranburu aktoreen parte-hartzearekin. Azken urteotako fruiturik esanguratsuenak hiru horiek izan badira ere⁵⁰, ezin ahaztu 2005ean (Bernardo Atxagaren izen bereko eleberrian oinarriturik) Aizpea Goenagak zuzenduriko *Zeru horiek* telefilma ere, Nagore Aranburu protagonistatzat zuena.

Telefilm-izaera hori bazter utzita ere, bada alderik aurreko hiru lanen eta Goenagak zuzenduriko beste horren artean: aurreko hirurak areto komertzialetan estreinatu ziren eta dezente oihartzuna izan zuten, batez ere *Aupa Etxebeste!*-k (70.000 ikusle) eta *Kutsidazu bidea, Ixabelek* (40.000); *Zeru horiek*, aldiz, ez dute oraindik telebistatik bota, TVEren ekimenez espresuki telebistarako egin bazen ere⁵¹.

Gainerakoan, ezin azpimarratu gabe utzi 2008az geroztik euskarazko film-egitasmoak dezente ugaldtu izana: 2008an bertan errodatu zuten *Ander* filma, Roberto Caston-ek zuzendua. Anjel Lertxundiren *Zorion perfektua* eleberrian oinarrituriko izen bereko filma ere (Jabi Elortegik zuzendua) urte berekoa da, Aizpea Goenagaren *Sukalde kontuak* bezala. Urte berean estreinaturikoa da, *Go!azen* gaztetxoentzat euskarazko film musikala ere. Jabi Elortegi eta Aitor Aranguren zuzendaritzapean eta abesti eta koreografiak haritzat harturik (*High School Musical* delakoaren arrakastan inspiratuta), apaizek gidaturiko udako barnetegi batean 16 urteko gazte talde batek bizitako abenturak kontatzen dituen. Film horrek izandako arrakastaren ondorioz, 2009-2010 denboraldian ETBko telesail bihurtu zen, gainera, *Go!azen*.

2008ko sukar txiki hori ez zen 2009an eten, urte horretan zuzendu baitzuen Mikel Ruedak bere lehen film luzea: *Izarren argia* (Baleuko, ETBren laguntzarekin), Barbara Goenaga, Itziar Lazkano, Klara Badiola eta Itziar Ituño (besteak beste) aktore-lanetan ari zirela. 2009koa da, era berean, Moriarti-ko Jon Garaño eta Jose Mari Goenagaren *Axun eta Maite* (Itziar Aizpuru eta Mariasun Pagoaga protagonista-lanetan). 2009ko urrian, azkenik, *Dragoi ehiztaria* errodatzeari ekin zioten Zurriola ekoizpen-etxeok, Patxi Barco zuzendari, Angel Amigo gidoilari eta Asier Hormaza eta Itziar Ituño protagonista nagusi zirela.

50. Helduentzako filmez ari gara betiere, baina gogoan izan behar da umeei zuzendutako marrazki bizidunen filmak direla nagusi euskarazko zinemagintzan: 2000tik 2009ra, berbarako, tankera horretako dozenatik gora lan egin dira euskaraz.

51. TVErekin eginiko hitzarmen horretan, hasiera batean hiru telefilm egiteko asmoa zegoen, hirurak ere nobela ezagunetan oinarrituak: *Zeru horiek* (Bernardo Atxaga), *Bihotz bi* (Ramon Saizarbitoria) eta *Zorion perfektua* (Anjel Lertxundi). *Zeru horiek* telefilma egin zen, baina TVEk ez du inoiz telebistatik bota, sekula argitu gabeko arrazoiak tarteko. *Zorion perfektua*, berriz, azkenean Pausokak ekoiztu zuen, pantaila handirako, eta ez dago *Bihotz biri* buruzko berririk. TVEk, hori bai, euskarazko beste zenbait film luze lagundu ditu gerora, hala nola laster aipatuko ditugun *Sukalde kontuak* edota *Dragoi ehiztaria* (EITB ere babesleen artean ageri da bi lan horietan).

Sukarra ez zen 2009an eten, beraz, eta ez du ematen oraingoz etengo denik; horren lekuko da, berbarako, Juanjo Olasagarrereren *Ezinezko mailetak* lana aintzat hartuta Eneko Olasagastik aurki egin gogo duen proiektua (euskal literaturaren eta euskarazko zinemaren arteko harremanaren erakusle hau ere).

Zinema-lanen ekoizpenean ez ezik, beste arlo bitan ere nabarmendu du aurre-rakada euskarak azken urteotan: euskarara bikoiztutako pelikulak zinema aretoetara banatzeko laguntzen aurrekontu-zuzkiduran, batetik, eta DVDko edizioei erantsitako euskarazko bertsioetan, bestetik, baina hor ere argilunak dira nagusi (Amezaga *et al.*, ork. gabe):

Urtero 10-15 pelikula estreinatu dira urtean zineman, eta 8-10 DVD editatu dira; horretarako hamarkada hasierako 450.000 tatak 2008ko 698.000 tara bitartean xedatu dira urtero. Ahalegin hori ez da, ordea, zinema banaketako multinazionalak jartzen duten muga handia hausteko nahikoa, oraindik euren estreinaldiak euskarara bikoizteari uko egiten diote eta. (...) zinemako bikoiztea eta banatzea babesteko politikaren irismena oso mugatua da oraindik, eta ez du haurren atalaren eta hezkuntzaren esparruko banaketaren muga gainditzea lortu. Horretan eragina izango du, agian, *ETB*ren emisioen politikaren bilakaerak, hasieran euskararako bikoiztea masiboa eta euskarazko emisioak erregularrak izan ostean, euskarazko kanalean film luzerik ia bat ere ez ematera igaro baita, eta horrela zaila da filmak euskaraz ikusi eta entzuteko ohitura sortzea.

Badirudi, bestalde, etorkizunera begira sor daitezkeen ekoizpen eta proiektuek oinarri apur bat sendoagoak izan ditzaketela aurrerantzean. Izan ere, azken aldi nongura ugaritzen ari diren jaialdi, *film commission* eta enparaez gain, bazterrotako ikus-entzunezkoen arloa sendotzen lagun dezaketen egitasmo bi sortu dira Gipuzkoan: Zinealdea Oarsoaldean eta Zuatzuko Ikus-entzunezko Berrikuntza Gunea Donostian⁵². Biek ala biek ikus-entzunezko industria eta ekoiztetxeak bultzatzea dute helburu, ikus-entzunezko sektoreko eragileen eta enpresen beharrei irtenbide integratua emanez.

Kontuak kontu, azken hiru hamarraldietako ibilbideak erakusten duenez, erakundeek diru-laguntza politiketan eta kultura-politikak diseinatzeko irizpideetan izaniko aldaketak daude azken boladako ugaritasun erlatibo horren oinarrian, eta aurrerantzean ere arlo horietan harturiko erabakiek markatuko dute hein handi batean euskarazko zinemaren etorkizuna.

52. <<http://www.zinealdea.com/>> eta <<http://www.fomentosanbastian.org/enpresak-sortzea/enpresa-sarea/berrikuntza-gunea.php>>, hurrenez hurren.

ATALEAN BALIATURIKO ITURRIAK

Amezaga, J.; Arana, E. eta Azpillaga, P. (2010): *Hedabideak euskaraz*, EHU, (argitaratzeaz), Leioa.

Euskal Filmotekaren funtsa.

Gostin, A. (2008): *Euskarazko idazlanen zinemarako lehen egokitzapenen azterketa narratiboa*, Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean (HUHEZI) ikerketa-nahikotasuna erdiesteko aurkezturiko lan argitaragabea, Eskoriatza.

Insausti, M. (2007): *Ama Lur 1968*, EKHE, Iruñea.

Izagirre, K. (1996): *Gure zinemaren historia petrala*, Susa, Zarautz.

Rodriguez, F. (2004): "Euskal Zinema: ikusezina izatetik ikusgarria izaterako bidean", *Jakin*, **144**, 11-40.

Zaldua, A. (2009): *XXI. mendeko euskal film luzeen azterketa tematikoa*, Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZI) Karrera Amaierako Proiektua, Eskoriatza.

Zuberogoitia, A. (2003): *Euskararen presentzia gaur egungo prentsa elebidun abertzalean*, Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen-zerbitzua, Bilbo.

Zuberogoitia, A. eta Zuberogoitia, P. (2008): *Bertan Bilbo. Bizkaiko hiriburua eta euskara: XX. mendeko historia*, Bilboko Udala, Bilbo.

9. Euskarazko liburugintza: buztinezko zangodun industria

9.1. BEHAR BESTE LORATU EZ ZIREN HAZIAK (ETXEPARE, LAZARRAGA, LEIZARRAGA)

Euskaraz argitaratu zen lehenengo liburua (Bernart Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae*) Gutenberg aroa hasi eta mende bat geroagokoa da, 1545ekoa. Gai ugari (erlijioa, maitasuna, euskararen gorazarrea) hizpide dituen bertso-bilduma da, funtsean, Etxeparerena. Amezaga, Arana eta Azpillagak ingurumaria politiko jakin batean kokatzen dute liburu horren sorrera (2010: ork. gabe):

Ez litzateke liburuaren argitalpena ulertuko urte haietan Espainiako eta Frantziako erresumen mende ez zegoen Nafarroako Erresuma izan ez balitz. Ingurumari berean, handik urte batzuetara (1571) Biblia euskaratuta argitaratu zen, Juana Albretekoa Nafarroako Erreginak, Joanes Leizarraga fraideari egindako mandatuz, Nafarroan protestantismoa hedatzeko. Erresuma hura Frantziako eta Espainiako koroekin behin betiko lotzeak euskara idatzizko kulturara sartzeko aukerak zapuztu zituen eta, horrekin batera, argitalpen bibliografikoa ere bai.

Etxeparek eta Leizarragak jarri zuten, beraz, abiapuntua ekialdean, eta Joan Perez Lazarragakoak mendebaldean (fenomeno bitxia da gaur egungo ikuspegitik begiratuta, euskara batua egiterakoan hegal bata zein bestea bazter utzi eta erdigunearen alde egin zelako, bi gune horiek periferikotzat jota). Izan ere, Lazarraga arabarrak paper sorta bat utzi zuen idatzirik 1567. urtearen inguruan, *artzain-nobela* batez (*Silbero, Silbia, Doristeo ta Sirena*) eta 21 koplez osatua. Euskarazko Wikipediak ondo dioen moduan⁵³, *Euskal Herria (eusquel erria)* kontzeptua idatzita dakarren lehen idazkia dugu Lazarragarena. Hiru bider agertzen da eskuizkribu osoan⁵⁴.

53. <http://eu.wikipedia.org/wiki/Joan_Perez_de_Lazarraga>.

54. Etxepare eta Leizarragari buruzko bibliografia oparoa dago. Lazarragari buruz gehiago jakin gura izanez gero, berriz, hona aukera bi: sakonagoa bata (Pruden Garziaren *Lazarraga: Ernazimendua euskaraz*, Iruñea: Pamiela, 2005), eta arinagoa bestea (Pruden Garziarena da hau ere: “Zazpi gauza jakin beharrekoak Lazarragari buruz”, *Jakin*, 170, 2009, 107.-129. or.).

XVI. mendean landaturiko hazi horiek, baina, ez zuten espero besteko fruiturik eman⁵⁵. Torrealdaik emaniko datuen arabera (1997: 54-56), barbarako, XVI. eta XVII. mendeetan 52 liburu baino ez ziren argitaratu euskaraz⁵⁶, eta gehien-gehienek (% 83,3) erlijioa zuten gaitzat. Argitalpen-gune nagusiei gagozkiela, hauxe dio *Jakineko* zuzendariak (1997: 69): «(...) ikusten dena zera da, libururik gehienak, lautik hiru, Euskal Herritik kanpo argitaratzen direla. Gehien-gehienak Frantzian, Bordeleko eskualdean batez ere, eta gero Parisen eta Paben. Euskal Herrian bertan lautik bat ere ez».

1700etik 1875era, berriz, dezenteko hazkundera izan zen⁵⁷, baina ekoizpenak apal antzekoa izaten jarraitu zuen: 671 liburu argitaratu ziren orotara epe horretan. Nabarmentzekoa da beste gai batzuk ere azaleratu izana (literatura eta giza eta gizarte-zientziak batik bat), baina, hala ere, lautik hiru liburuk erlijio-kontuak jorratzen zituzten oraindik. Epe horren bereizgarri da, bestalde, berrargitalpenen kopurua (% 56,8) titulu berriena baino altuagoa izatea. Aurreko epean ez bezala, era berean, produkzioaren zatirik handiena Euskal Herrian bertan inprimatu zen (Torrealdai, 1997: 77):

Atzerriko inprimategien indarra asko jaitsi da. Euskal Herria indartu da, hortaz. Bertako inprimategietan argitaratzen dira ia liburu guztiak.

Hegoaldean eta Iparraldean, bietan, argitaratzen da lehen baino askoz ere gehiago. Eta, gainera, lehenak aurrea hartu dio bigarrenari, Hegoaldean inprimatzen baita ekoizpenaren erdia, justu erdia. Eta Gipuzkoan Hegoaldeko gehien-gehienak (% 60,6).

Zergatik aldatzen da, baina, liburugintzaren ardatza Ipar Euskal Herritik Hegoaldera? Kasu honetan ere, beste hainbatetan bezala, ez dago arrazoi bakarra ematerik (Torrealdai, 1997: 78):

Lafittek Lapurdiren atzerapen ekonomikoa iradokitzen du arrazoi gisa, Utrecht-eko (1713) Itunaren ondorioz Donibane Lohitzuneko marinelak Ternua utzi beharrean aurkitu direla alegia.

Aipa daiteke, baita ere, 1789ko Frantziako Iraultza: Iparraldeak foruak galtzen ditu eta Behe Pirinioetako parte bihurtzen da. Ez ahaztu, orobat, Iraultzak euskarari eta

55. Amezaga, Arana eta Azpillagak, ikusi dugun moduan, Nafarroako Erresumaren gainbeherari egozten diote euskarazko kultura idatzia orokortu ez izana; Pruden Garziak ere (2009) faktore politiko-sozialak iradokitzen ditu Lazarragaren bideak jarraipenik zergatik ez zuen izan azaltzerakoan.

56. Sailkatze-irizpideen arabera, ordea, bestelakoak izan daitezke zifrak. Ikus adibidez Justo Maria Mokoroa «Ibar»ek eta Ibon Sarasolak mende horietako produkzioaz emaniko zenbakiak in Torrealdai, 1997: 41. Sarasolak, adibidez, 50 orrialdetik gorako literatura-liburuak baino ez ditu zenbatzen; edozelan ere, Torrealdaik dioenez (1997: 55), liburuxkek (5-48 orrialde bitartekoak) garrantzi berezia izan dute zenbait arotan (Eusko Pizkundean —1876-1935—, barbarako, produkzio totalaren % 42,5 izan ziren).

57. Torrealdaik dioskunez (1997: 91), «azken 25 urteetan [Erromantizismoaren eta tokian tokiko hizkuntzen loraldi-garai betean, beraz] dago jauririk handiena: urtealdiko produkzioaren ia erdira hurbiltzen da».

euskararen munduari egindako eraso, *patois* deklaratu. 1794ko Espainiaren eta Frantziaren arteko Konbentzio Gerrak ere ez zuen giroa hobetuko.

Hegoaldean, bereziki Gipuzkoan, kokatzeko eman diren arrazoiaren artean eite ekonomikokoak aipatzen dira sarritan. Hau da, euskararen aldeko mugimendu hau eta 'Real Compañía Guipuzcoana de Caracas' (1728) eta 'Sociedad Económica de Amigos del País' (1763) elkarri lotuz jartzen dira. Ez da erraz ikusten testuinguru ekonomiko eta soziokultural honen eta literatur susperraldiaren lotura, hala ere.

Hain zuzen atentzioa ematen duena bi mugimenduen arteko loturarik eza dela esango genuke. *Azkoitiko Zalduntxoak*-eta Ilustrazioaren zabaltzaileak dira, eta ez dute aintzat hartzen euskara. (...)

Hurrengo hirurogei urteak (1875etik eta 1936ra bitarteko epea) sasoi berezia dira; ez alferrik, euskarak garai hartan Euskal Herri guztian izaniko susperraldia gogoan, Pizkunde deritzo aro horri. Susperraldiak liburu-ekoizpenean ere izan zuen isla zuzenik: epe horretan 1.422 tituluraino igo zen kopurua, eta gaiak eurak ere asko ugaritu ziren; liburu erlijiosoek pisu espezifikoak galtzeaz batera (produktzio totalaren % 42 izaten jarraitzen zuten, hala ere), dezenteko indarra hartu zuen literaturak (% 29), baina baita giza eta gizarte-gaietako liburuek ere (% 15). Horrez gain, lehenengo biderrez ageri dira aisia-liburuak zein irakaskuntzakoak (azken horiek erakusten dute euskara hezkuntza-sisteman muturra sartzen hasia zela).

Torrealdaren arabera (1997: 113), bestalde, «Pizkunde-garaian Hego Euskal Herriaren garrantzia hazi egin da. Lautik hiru liburu Hegoaldean inprimatu dira. Gipuzkoak jarraitzen du aurren, baina Bizkaiak batez ere egin du gora⁵⁸. Proporziotan jaitsi egiten dira bai Nafarroa eta bai Araba».

Hego Euskal Herrian, baina, Francoren diktadurak errotik moztu zuen Pizkunde hura eta euskarazko liburuen ekoizpenak igarri zion horri. Hala ere, 1937tik 1974ra 1.733 liburu argitaratu ziren⁵⁹. Titulu kopurua hazi ahala hazi egin zen, logikoa den moduan, jorraturiko gai kopurua ere. Epe horretan zazpi gai-sail katalogatu zituen orotara Torreldaik (inoizko gehien); azpimarratzekoa da, horrez gain, erlijio-liburuek estreinako aldiz sailkapenean lehen postua galdu izana. Literatura-liburuek (% 33) hartu zioten aurrea urtez urte indarra galduz zihuan erlijioari (% 24).

58. Azpimarragarria da Bilboko zenbait inprimategik urte horietan eginiko lana; Verdes Atxirika etxea nabarmendu zen bereziki horien artean: Julene Azpeitiaren *Irakurri matte*, Lizardiren *Biotz begietan* eta Lauaxetaren *Bide barridak* eta *Arrats-beran* kaleratu zituen, esate baterako, atzerriko puntako idazleen itzulpenak argitaratzeaz gain (Joseba Altunak itzultitako Grimm anaienak edota Oscar Wilderenak, besteak beste, eta baita Orixek euskaraturiko *Tormesko itsu-mutila* zein *Mireio* ere).

59. Torreldaik modu grafikoan eman zuen Espainiako gerraostean euskarazko ekoizpenean izaniko hazkunde horren berri bere beste lan batean (1977: 509): «(...) hasta 1945 la producción de libros de la postguerra no alcanza el promedio de mil páginas por año; de 1950 a 1960 anda entre dos mil y cuatro mil; en 1963 se alcanzan las seis mil páginas y a partir de 1969 se han superado las once mil por año. La cima la ha alcanzado la producción de 1973 con veintitrés mil páginas escritas en libros».

Inprimatze-kontuen kokapen geografikoari gagozkiola, aurreko aroaren antzeko egoera dugu aro honetan ere: Hego Euskal Herria da nagusi (% 73,6; Ipar Euskal Herrian, berriz, % 14,5), eta beronen barruan Gipuzkoa gailentzen da (% 60,5). Nabarmenezko modukoa da, hori bai, Gerediaga elkarteak 1965ean Durangoko Liburu eta Disko Azoka antolatzeari ekin zionez geroztik Bizkaiko herri hori euskal liburu-industriaren epizentro bihurtu izana⁶⁰. Atzerriko produkzioak, azkenik, gora egin zuen apur bat epe horretan, diasporaren fenomenoaren tarteko (% 11,8).

Francoren diktaduraren amaierak aro berria zabaldu zuen Hego Euskal Herrian. Aro berri horren eraginez, eta erakundetze-prozesu berria zela tarteko, hazkunde handia izan zen euskarazko liburugintzan. Egin kontu 1976tik 1994ra (18 urte baino ez) aurreko aro guztietan baino titulu gehiago plazaratu zirela: 12.595. Amezaga, Arana eta Azpillagak ere azpimarratua dute hori (2010: ork. gabe): «Azkenean, XX. mendearen azken laurdenean eta XXI. mendearen hasieran politikan eta kulturaren izandako aldaketek argitalpenak nabarmen gehitzea ekarri dute, baita hizpide diren gaiak normalizatzea ere. Horrela, azken aldirian (1975-2004) 27.540 liburu argitaratu dira (Jakingunea)».

Hizpide diren gai horiei dagokionez, hara zer dioen Torrealdaiak 1976tik 1994ra bitarteko liburuek jorraturiko gaiez (1997: 56): «Irakaskuntzaren merkaturako egiten diren materialak eta literatur liburuak dira nagusi, eta horien atzetik helduen literatura. Liburu zientifiko, tekniko eta unibertsitarioek ere plaza hartu dute. Ez inportantea baina bai ohargarria da erlijio-liburuaren paraderoa». Epe horretan inprimaturiko lanen kokapen geografikoari gagozkiola, azkenik, hara zer dioen Jakinek (1997: 568): «Bertoko enpresa editorialek produzitzen dute % 45,6. Horri erantsi behar zaizkio bestelako produkzio-agenteen emaitzak, hala nola, elkarteak, erakunde publikoak etab. Kanpoko argitaletxeen indarra % 10 bat da aldi osoan. Gaur, gehiago».

9.2. 2007KO LIBURU-PRODUKZIOARI BEGIRADA

Zifra hauek guztiak tentuz aztertzea komeni da, dena dela. Hara bestela zer dioen azken urteotan ere kontulari lanetan jardun duen Torrealdaiak berak (2009: 12):

Lanak ditu sinesteak euskal liburu produkzioaren inguruan zein kopuru azaltzen diren. Negargarriak izan ohi dira Durangoko Azokaren bueltan agertzen diren zifrak, eta are okerrago, esango nuke, apirileko 23ko Liburuaren Egunaren inguruan zabaltzen direnak, inprobisatuagoak edo. Edozein zifra bota, eta lasai gelditu ohi dira iritzi emaileak zein kazetariak. Urtea joan eta urtea etorri, beti berdin.

2007ko produkzioa erreferentziatzen hartuta, berbarako, INEK (Espainiako Instituto Nacional de Estadística, zeinak Lege Gordailua hartzen duen oinarri

60. Maila apalagoan izanagatik, bada erreferentzia bihurtu den beste azoka garrantzitsu bat ere: 1983az geroztik Pazko astelehenarekin batera urteroko hitzordu dugun Sarako Idazleen Biltzarra eta Lapurdiko herri horretan eginiko liburu-azoka.

liburu-zenbaketarako) euskarazko 1.102 titulu zenbatu zituen; ISBN espainiar agentziak (editoreak hartzen ditu informatzaile nagusi modura), berriz, 1.231; Conecta ikerketa-etxeak (editore profesionali bidalitako galdetegi egituratua du datu-iturri nagusi), bestalde, 2.009; Torrealdaik berak (batez ere argitaletxeetan baina baita liburutegietan, Interneten eta ISBNko datu-baseetan bilduriko informazioa oinarri hartuta), azkenik, 2.135, denak ISBNdunak. Hori ikusirik, kezka agertzen du, batetik, Torrealdaik (2009: 12): «Badago alderik: 1.102 txikiena, 2.135 altuena. Ehun mila tituluko produkzioa balitz ez litzateke horren larria tarte, baina eskandalagarria iruditzen zait gure kasuan. Inortxok ere ez du konpontzeko ahaleginik egiten, gainera». Kezka agertzeaz gain, bestetik, begi-bistako ondorioa ateratzen du (2009: 12-13):

Non dagoke gakoa?

Datuak biltzeko moduan edo metodologian, oker ez banago. Bakoitzak ditu bere iturriak eta bere metodologia. Emaitzak ikusita, bistan da ez iturriak oro eta ez metodologia guztiek ez dutela fidagarritasun bera. (...)

Bi estatistika iturri nagusi horien [INE eta ISBN] fidagarritasuna auzitan jar daitekeelakoan nago. Aspaldi salatu dut. Gogoan dut bere garaian katalanek ere gogorki salatu zutela ISBN. (...)

Behin datuei buruzkoak berrogeialdian jarrita, beraz, ikus dezagun zertzuk alderdi azpimarragarri dituen Torrealdaik 2007ko euskarazko liburugintzari egini-ko azterketak. Esandako moduan, *Jakin* aldizkariko zuzendariaren arabera urte horretan 2.135 liburu atera ziren euskaraz⁶¹. Esan dezagun, bide batez, eta Torrealdairen datutegian oinarrituta betiere, XXI. mendean, oro har, gorakako joera erakutsi duela euskarazko liburugintzak (egin kontu 1.519 liburu argitaratu zirela 2000. urtean, 2007an baino 616 gutxiago⁶²; joera, dena dela, ez da erabat uniformea, 2001ean, 2004an eta 2006an jaitsierak izan zirelako aurreko urteekin alderatuta).

Argitaratzaileei gagozkiela⁶³, 284 ageri zaizkigu 2007an. Ahulezia-sintoma deritzo horri Torrealdaik (2009: 16):

61. Ramón Zaloren arabera (2006: 183-184), EAEn argitaraturiko liburuen 2/3 euskaraz argitaratzen da. Horregatik, besteak beste, hauxe dio (2006: 184): «La edición en euskera es una realidad pujante, a pesar de los problemas de coyuntura. De 1976 hasta hoy ha dado un salto cualitativo en novedades, traducciones y reediciones. Frente a las limitadas ediciones de épocas anteriores (1900-1939 y 1940-1975), el último período es de un importante volumen editorial».

62. Torrealdaik berak ere azpimarratzen du hori (2009: 24): «Garbi dakusagunez, 2000. urtearekiko 40,6 puntu gorago dago gaur ekoizpenaren kopurua, eta iazkoa baino ia 21 puntu goitik [2006an dezenteko jaitsiera izan zen produkzioan]».

63. *Argitaletxe* eta *argitaratzaile* terminoen arteko bereizketa egiten du Torrealdaik (2009: 16); lehena egitura profesionala daukan enpresa litzateke; bigarrena, berriz, era askotakoa izan daiteke Torrealdairen arabera: «(...) zerbitzu editoriala duen erakundea; autore editorea, talde, elkarte edo fundazioa; eta abar. Horiek eragile edo agente editoriak dira, ez propioki argitaletxeak. Eta horiek zein haiek, modu orohartzaillean hitz eginda, argitaratzaileak dira».

(...) ahuldadea da ugaritasun horren azpian ezkututzen dena. (...) Ekoizleen erdia eta gehiago dira (% 52,3) titulu bat bakarra atera dutenak. Hori nahikoa ez balitz, hona ahuldadearen beste datua: 10 titulu baino gutxiago kaleratu dutenak % 86 dira. Izugarria. Urtean 10 titulu edo gehiago atera dutenak % 16 bakarrik dira. Baina kasu!: horien artean ere bi azpimultzo daude: erdiek 10-20 titulu artean atera dute, eta beste erdiek hortik gora. Zer aberastasun da hori? Oreka balego multzo horrek erditik gorakoa beharko luke. Egoera saneatzeko ez du muntarik ekoizleen kopurua handitzeak, baizik eta argitaletxeak indartzeak. Bestela esan, batez ere urteko 20 titulutik gorakoak ugaltzea litzateke soluzioa. Sektorea da indartu behar dena, ez sektoretik kanpokoak ugaltu.

Panorama horri begira, atomizazioa azpimarratzeaz gain, beste alderdi bat ere nabarmentzen dute Amezaga, Arana eta Azpillagak (2010: ork. gabe):

Argitaletxeen industria, bestalde, atomizatuta dago, argitaletxe txiki ugarirekin. Administrazio publikoen presentzia argitaratzaile gisa oso txikia da (% 12), obrak euskaraz argitaratzen dituzten Euskal Herritik kanpoko argitaletxeen azpitik (tituluen % 21). Horrek dakar, euskaraz argitaratzeko dauden laguntza publikoak gorabehera, merkatuaren mende egotea neurri handian, 800.000 euskal hiztun baino gutxiagoko merkatu potentzialaren mende.

Laguntza publikoak aipatu dituzte, zeharka, ikertzaile horiek. Laguntzoi dagokienez, hau deritzo Ramón Zallok (2006: 185): «El Gobierno Vasco apoya la edición de libros en euskera, con importantes subvenciones a la edición, pero queda pendiente el desarrollo en tres orientaciones: el lado industrial del sector, la promoción de la autoría y el fomento y acercamiento de la lectura». Gainerakoan, honako ahuleziak ikusten dizkio Zallok EAeko liburugintzari (2006: 185):

(...) debilidad del mercado interior; hegemonía de los grandes grupos estatales y transnacionales; control por parte de una docena de grupos distribuidores que acaparan más de tres cuartas partes del mercado (con poco interés en distribuir el libro de pequeña difusión); reestructuración tecnológica lenta en las pequeñas empresas; librerías desplazadas por las grandes superficies...

Lehen aipatu ditugun 284 argitaratzaileetara bueltatuta, bestalde, zeintzuk dira horien artean nagusi? Honako *top ten* hau damaigu Torrealdaik (2009: 17):

- Ibaizabal-Edelvives (produkzioaren % 13,9)
- Elkar (% 11,7)
- Anaya (% 5,0)
- Elkar/Ikastolen Elkartea (% 4,2)
- Erein (% 3,7)
- Aizkorri-Everest (% 3,5)
- Ttarttalo (% 3)
- Zubia-Santillana (% 3)

- SM (% 2,4)
- Giltza-Edebé (% 1,9)

«Hamarron artean», diosku Torrealdaik (2009: 18), «ekoizpen osoaren erdia pasatxo osatzen dute: % 51,7. Aurreko urtean baino lau puntu gorago aurten. Produkzio horretan pisu handia du berrargitalpenak, % 48,5 (...). Nobedadeetan, aldiz, hamarron pisua arinagoa da askoz: % 37,6». Kontzentrazioerako joera, beraz, indartzen ari da sektore honetan ere, eta deigarria da, halaber, Euskal Herritik kanpoko (edo etxe nagusia Euskal Herritik at daukaten) enpresen presentzia: produkzio totalaren % 20,5 (betiere *Jakineko* zuzendariaren kalkuluen arabera). Hor dago, bestalde, koedizioaren figura ere, baina hor ere izan da aldaketarik urteotan (Torrealdai, 2009: 22):

(...) garai batetik hona aldatu egin da koedizioaren filosofia edo jardun-moldea, eta agian biak. Euskal eskolaren hasiera haietan kanpokoekin egin ohi zen koedizioa, hemengo hutsunea betetze aldera. Bertoko taldeak indartu zirenean eta kanpokoak bertokotu zirenean, bide hori bere horretan gelditu zen, irteera gabe.

Egungo edizioan jardun-molde hori liburu suntsikorretan soilki gauzatzen da, Tarttalok adibidez.

2007ko ekoizpenari dagokionez, era berean, % 72,5 titulu berriak eta % 27,5 berrargitalpenak direla azpimarratu behar da. Joera hori, gainera, antzekoa izan da azken urteotan (2000n, esate baterako, % 70,4-% 29,6koa zen proportzioa). Alabaina, Frantzia batek markatzen duen ereditik urrun gaude oraindik (% 45 inguru berrargitalpenak), eta hori, Torrealdairen irudiko, esanguratsua da (2009: 26): «Kultura bat zenbat eta helduagoa izan eta ekoizpen bat zenbat eta finkatuagoa izan, orduan eta altuagoak dira berrargitalpenaren balioak».

Euskarazko liburuen berrargitalpenei dagokienez, datu interesgarri gehiago damaizkigu Torrealdaik (2009: 32-34):

Lehen ediziokoak dira libururik gehienak, ohikoa denez: 1.511 titulu, hau da, % 71.

Berrargitalpenak % 29 suposatzen du, titulutan 624. Horietako gehientxoek bigarren edo hirugarren argitaraldia ezagutu dute, baina badira askoz gorago dabiltzanak. Bada 41. ediziora iritsi denik⁶⁴.

Gehien-gehienak (% 91,5 edo 572 titulu) hamar edizio azpikoak dira. Hori da normala. Hortik gorakoa da ezohikoa. 10-20 ediziotan dabilza % 7, hots, 44 titulu; eta hogeitik gora daudenak % 1,5 dira, zortzi titulu. (...)

2007an bi edizio izan dutenak 31 dira. Urte berean hiru edizio izan duten 4 daude. Lau argitaraldi izateraino iritsi da bat (...)"

64. Joxean Sagastizabalen *Kutsidazu bidea*, Isabel ospetsuak lortu du marka hori.

Eta titulu berrietan, zenbat dira jatorriz euskaraz sorturikoak eta zenbat itzulitakoak? Hara *Jakineko* zuzendariaren erantzuna (2009: 27): «Jatorrizko eta itzulitakoaren indar erlazioa, 2007ko liburugintzan, 65 vs 35 izan da». Joera hori ere ez da atzo goizekoa: egin kontu 1976-2005 bitarteko epean ere 66-34koa izan zela proportzioa.

Liburuok jorraturiko gaiei gagozkiela, argitaratutako liburuen % 32 irakas-kuntza-sistemara bideraturikoak dira. Bigarren postuan, zeharka bada ere, sektore horrekin zerikusia daukan beste genero bat dator: haur- eta gazte-literatura, % 26rekin. Ondoren, giza eta gizarte-zientziak, % 19rekin, helduentzako literatura-liburuak hurrena, % 13rekin, eta beste hauek segidan: zientzia eta teknika, % 6rekin, eta entretenimendua, % 3rekin (gainerakoa % 2ra ere ez da heltzen).

Amezaga, Arana eta Azpillagak, bestalde, botaldiei buruzko informazioa damaigute (2010: ork. gabe):

Titulu bakoitzaren tirada, batez beste, 2.211 zen 2004an, eta etengabe jaitsiz joan da azken urteetan: 2000 urtean titulu bakoitzeko 2.900 aleko tiradak egin ziren, batez beste⁶⁵. Jaitsiera horrek merkatura irten diren aleen kopuruaren ia laurdena galtzea ekarri du. Horrek esan nahi du argialetxeen egoera muturrekoa dela, edizio bat errentagarria izango bada ezin baita gaur egungo kopuruetatik askoz gehiago jaitsi.

Euskarazko liburu-ekoizpenaren datuei begira, beste ondorio nagusi hau ere atera dute ikertzaile horiek (Amezaga *et al.*, 2010: ork. gabe):

Emandako datu horietatik ondorioztatzen da euskarazko argialetxeen ekoizpena, neurri handian, hezkuntza sisteman duen presentziaren mende dagoela. Arlo horretara zuzendutako liburuek argitalpenen multzoan duten garrantzia areagotzen da 2004an argitaratu zirenen kopuruari aditzen badiogu (% 56), eta areago sortzen duten negozio bolumenaren aldean duten garrantziari begiratzen badiogu (euskarazko liburuen salmenta guztien % 68). Horregatik eragin du halako lurrikara alor horretan duela gutxi euskal erakundeek ikastetxeetan liburuak berrerabiltzeko politika bultzatzeko asmoa dutela iragartzeak, jarduera errentagarri gisa irautea zail izango zaiolakoan.

66. Ramón Zallo ere mintzo da fenomeno horretaz (2006: 184): «Se advierte un fuerte crecimiento en ejemplares y en títulos de la edición en euskera en los últimos cinco años. Esto es un serio problema en un mercado que no crece en ventas. La edición de muchos títulos, con escasa tirada, es una debilidad desde el punto de vista económico aunque sea una muestra de pluralismo cultural. Hay sobreproducción, lo que se traduce en una rápida destrucción de ejemplares, que dejan de estar en oferta viva». Torrealdaik ere antzeman dio joera horri, baina beste kultura batzuetan jazo den fenomenoaren gurean ez dela oraindik gertatu dio segidan (2009: 37): «(...) zein desberdina den tituluen eta tiraden ibilbidea. Bata etengabe gora doana, eta bestea pixkanaka beherantz datorrena. Baldin eta zifrak egiazkoak badira, esan behar da oraindik ez zaigula gertatu beste kultura batzuei gertatzen ari zaiena. Alegia, aletan neur daitekeen eskaintza (zinezko eskaintza, alegia) duela 10 urte baino murriztagoa izatea egun».

9.3. EUSKARAZKO LIBURU-EKOIZPENA ETA ETORKIZUN DIGITALA

Beste arlo askotan jazotakoa ez da salbuespena izan arlo honetan ere: unibertso digitalaren etorrerak liburugintzaren mundua ere goitik behera astindu du. Itau asko dabil airean, hegaka zoroan, erantzun argirik barik: zer gertatuko da ohiko argitaletxe, liburu-denda eta banatzaileekin? Liburu-irakurgailu elektronikoak eta softwarea kontrolatzen dituzten etxeak edukiak kontrolatzera ere iritsiko dira, liburugintzan muturra sartuta? Zertan geratuko da egile-eskubideen auzia liburu elektronikoa erabat zabaltzean? Egongo ote da pirateria geratzeko modurik? Askotariko iritziak daude gaion inguruan. Hara zelan deskribatzen duen kinka berria Gremio de Editores de Euskadi-Euskadiko Editoreen Elkarteak (*Jakin*, 2009: 98-99):

Esparru digitalean (...) eskaintza itzela izango da, hasiera batean liburu digitalak amaierarik ez duen biritza izango du, ebooka esportatu ahal izango da edo *print on demand* sistemaren bidez inprimatu ahal izango da. Horregatik guztiagatik, euskarazko liburuak galdu egin liteke oihan horretan. Horrenbestez, euskarazko liburuari datorkiona ez da hainbeste argitalpen modu berri batera egokitzea, baizik eta euskarazko edukiak ongi identifikatuko dituzten agregadoreak garatzea eta eduki horiek erraz eskuratzeko ahalmena edukitzea bilatzaileen, webgune espezializatuen, bilatzaileetan egindako sustapenaren eta abarren bitartez.

Gure ustez, euskarazko liburuak bi euskarritan —paperezkoan zein digitalean— biziko dira elkarrekin. Baina, une honetan tiradari dagokionez kopuru kritikotan gaudela aintzat hartuz, bizikidetzaren horren ondorioz paperezko liburuaren kopurua jaitsi egingo da, eta liburu elektronikoarekin bezero berriak erakartzea lortzen ez bada, euskarazko liburuaren lekua jaitsi egingo da merkatuan eta zenbait kasutan ezin irauneko egoerara iritsiko da.

Euskal Editoreen Elkarteak ere kezkarri deritzo liburuaren botaldien jaitsierari (*Jakin*, 2009: 92-93):

Paperean argitaratzen diren liburuaren kopurua 1.500en inguruan egonkoru bada ere (beherakako joeraz) azken urteotan, batez besteko tiradak oso murrizak dira, eta, krisiari eragotz dakizkiokenak alde batera utzita ere, gero eta zailagoa da euskarazko liburuarentzat harrera egokia lortzea merkatuan. Azken ondorioa: oso errentagarritasun tarte urri batez ari da lanean euskarazko liburugintzaren sektorea. Beraz, eta edizio digitalak paperezko edizioaren tirada murriztuko balu bihar edo etzi, aurreikustekoa litzateke berez meharra den errentagarritasun tarte hori meharragotzea, akaso sektorearen —edo sektorearen zati handi baten— bideragarritasuna kolokan jartzeraino. Zuhur jokatu beharko du sektoreak, beraz, eta garaiz heldu beharko die egituren eta prozesuen doitzeta eta egokitzeari, negozio eredu berrien bidean.

Alor honetan, eta euskal liburugintzaren esparruan eskumenik duten aginte publikoekiko lankidetzari dagokionez, tentu handiz neurtu beharko da aro digitalaren eragina gure kultur industriaren eremuan, laguntza publikoak ere errealitate berriei arian-arian egokitze aldera.

Hagitez baikorrago mintzo dira bai Euskal Idazleen Elkarte (EIE), bai Gipuzkoako Liburu Denden Elkarte. EIEren aburuz (*Jakin*, 2009: 106) ez zaio beldurrez begiratu behar etorkizunari: «Baikorrak izatera behartuta gaude, zeren, honekin guztiarekin, egilearen, hau da, idazlearen irudiak gero eta garrantzi handiagoa eskuratuko du eta, hizkuntza gutxituen esparruan gainera, aukera berri asko irekiko dira». Gipuzkoako Liburu Denden Elkarte ere baikortasunetik mintzo da (*Jakin*, 2009: 103-104):

(...) gaur egun inoiz ez bezala publikatu eta idazten da euskaraz, baina euskara eta euskal literatura maitatzen dugunontzat egoera horrek ez du gure nahia asetzen. Euskal literaturaren merkatua oso finkatuta dago eta oso zaila da hortik kanpo zabaltzea. Merkatua horrela izanda, liburu dendek euskarazko liburuei eskaintzen dieten lekua oso mugatua izaten da.

Euskarazko liburuarentzat aukera ezin hobea irekitzen da momentu honetan. (...) Ez bakarrik liburu elektronikoei esker, baizik eta sareak eskaintzen dituen erraztasunei esker. Liburu elektronikoa paperezko formatuaren osagarria izango da”.

Haatik, sarearen aukerak aipatu bai, baina lehen Gremio de Editores de Euskadi-Euskadiko Editoreen Elkarteak izendatu digun arriskua ere ikusten dute Gipuzkoako Liburu Denden Elkartekoei (*Jakin*, 2009: 104):

(...) euskal liburuaren arazoa identifikazio arazoa izango da. Mundu erraldoi baten barnean sartuko gara eta mundu horretan euskal liburu ikustea izango da arazoa. Hau da, erosleak nola iritsiko diren produktu horietara, sare infinitu horretan euskal liburuetaraino iristea izango da erronka. (...)

Hori guztia horrela izanda, liburu denda bakoitzak zenbat leku eskaintzen dien euskarazko liburuei, azken finean, dendaren jabearen edo kudeatzailearen erabakia besterik ez da izango. Baina argi dagoena zera da: liburu elektronikoa liburu dendak handitu egingo ditu, edukiak galdu, eskaintza biderkatu.

Betiko moduan, arriskuak eta aukerak eskutik helduta datoz arlo honetan ere; bere dohainik onenak baliatu beharko ditu, beraz, euskarazko liburuaren sektoreak, kinka konplexu honetatik etekinak ateratzen asmatzeko.

ATALEAN BALIATURIKO ITURRIAK

Amezaga, J.; Arana, E. eta Azpillaga, P. (2010): *Hedabideak euskaraz*, EHU, (argitaratzeaz), Leioa.

Garzia, P. (2009): “Zazpi gauza jakin beharrekoak Lazarragari buruz”, *Jakin*, **170**, 107-129.

Jakin (2009): “Liburu elektronikoa” [zenbaki monografikoa], *Jakin*, **173**, 9-110.

Torrealdai, J. M. (1977): *Euskal idazleak gaur*, Jakin-Euskadiko Kutxa, Oñati.

———, (1997): *Euskal kultura gaur. Liburuaren mundua*, Jakin, Donostia.

—————, (2009): “Euskal liburugintza 2007”, *Jakin*, **170**, 11-49.

Zallo, R. (2006): *El pueblo vasco, hoy. Cultura, historia y sociedad en la era de la diversidad y del conocimiento*, Alberdania, Irun.

Zenbait egile (2009): “Literaturaren sektorea: azterketa ekonomiko bat”, *Kalegats*, **17**.

10. Ipar Euskal Herriko euskal irratien sorrera eta garapena

Aurreko kapitulu batean ikusi legez, 1970eko hamarkadaren amaiera aldera, Ipar Euskal Herrian kazeta frantses elebakarrak edo elebidun diglosikoak ziren nagusi, aipaturiko salbuespenak salbuespen. Kazetez gaindi, ordea, euskararen arloan lan eskerga egiten ari ziren hainbat, 1969an Seaska Iparraldeko ikastolen elkarteak sortuta. Ekimen horren harira, ama-eskoletan eta lehen mailako eskoletan euskarazko irakaskuntza bermatuta zegoen. Hortik aurrerako mailetan eta unibertsitatean, ordea, egoera oso bestelakoa zen. Aurrerapausoak egin ziren, eta horrela, 1984rako 660 ume inguruk ziharduten euskaraz ikasten ama-eskolan zein lehen mailako eta bigarren mailako eskoletan. Garai bertsuan garatu zen Herri Taldeek bultzaturiko *Euskadin Euskaraz* kanpaina ere, hezkuntza-eremuan hori ere.

Hedabideetan euskarak espazio gutxi zuen, ordea. Aipatu bezala, prentsa idatzian eskas zen euskara, eta irrati-telebistetan ere egoera ez zen txapligu-botaka jarduteko modukoa. Piarres Xarrironen arabera (1979: 61), frantses-irratia 1963an hasi zen Baionatik lehen emankizunak eskaintzen. Turistei zuzenduriko programazioa zen nagusiki, baina tarteka euskal mezaren bat ere txertatzen zuten. Frantses-irradi publikoaren Baionako ordezkariak bertan behera uzten zituen, ordea, bere emankizunak turistak etxera bueltatzearekin batera.

Irrati publikoaren Baionako ordezkariak baliatuta entzun ahal izan ziren, beraz, lehen euskal emankizunak, Piarres Larzabal, Roger Idiart, Pantxoa Etxezabarreta eta beste zenbaiten eskutik. Hala ere, eta saio horien abertzale-kutsua zela medio, bizkor baztertu zituzten. 1967an, dena den, jauzi garrantzitsua eman zuen Baiona Irratiak Ipar Euskal Herriari dagokionez (Xarriron, 1979: 61-62):

1967an, irratilari-multzo bat ekarri zuen frantses irrati ofizialak Baionara eta hor jarri eguneroko emankizun labur batzu presta zitzaten erdaraz eta euskaraz. Ezen euskarazko emankizunentzat irratilari euskaldun bat bazen, Maite Barnetche. Honek bildu zituen laguntzaile berriak eta orai [1979an] egunero euskara izpi bat entzun dezakegu Baionako irrati ofizialetik: goizean, 7,15etan, agurra (minutu bat) eta 12,15etan, hitzaldi labur bat (bost minutu), Maite Barnetche bera, Ramuntxo Kanblog, Gexan Lantziri, Jakes Etcheverry, Janbattitt Dirassar eta P. Narbaitz kalongea aldizkatzen zaizkigula astelehenetik larunbatera.

Bestalde igande oroz Maite Barnetche eta Janbattitt Dirassarek ordu erdi bateko elkarrizketa bat emanarazten diote euskal kantari, bertsolari, idazle edo ezezagun

norbaiti. (...) Bospasei aldiz urtean entzuten dugu ere euskal meza bat Piarres Andiazabal-ekin. Besterik ez.

Saio horiez gaindi, euskararen presentzia oso urria zen Ipar Euskal Herriko irratietan. Are gehiago: Mattin Larzabalen arabera (1993: 221), «zuzendaritzak ez zituen uzten aktualitate sozio-politiko komentatzen mikrotik». Eta, horrek, noski, are zailago bihurtzen zuen egoera. Euskal Herri osoarentzat irradi baten ametsa indartsu zen, baina. Hara bestela zer zioen Xarritonek (1979: 63):

Gu, Iparraldeko euskaltzaleak, zain gaude oraindik euskaldun zahar eta berriok noiz izanen ote dugun aski indar eta kemen guhaurentzat guhaurk eraikitzen gaur eta egun osoko euskaraz Euskal Herri osoarentzat ariko zaigun irratietxea.

10.1. GURE IRRATIA, BIDEA EGINEZ

1980ko hamarkadan sorturiko zenbait irradi, euskarari zentralitatea emateko bidean ziren: Irulegiko Irratia, Xiberoko Botza eta Gure Irratia. Honelaxe bildu zuen Xarritonek berak irradi horien garrantzia ondoko testuan (1984: 109):

Xiberoko Botzak eta *Irulegiko Irratiak*, (...) frantsesa baliatuz ere, lehenetsuna nahi diote eman ahalaz euskarari. Lan ona egiten dute, nahiz eremu mugatua hartzen duten, beren izenak dioen bezala (...).

Baina oroz gainetik badugu orain Iparraldean (...) Milafrangatik ari zaiguna, eta beti euskaraz, *Gure Irratia*. Ahal bezala bizi izan da orain arte. Teknika aldetik eskas handiak ukan ditu. Orain ere Baigura-mendi gainean bere haga ezin finkatuz eta bere mintzalekua Baionan jarri nahiz dabil. (...) Hartze zituen laguntza guztiak ez ditu menturaz erdietsi, euskaraz baizik ez zuelako ari nahi; baina orain arte iraun du eta hastapeneko xedeari ez dio uko egin. Emeki-emeki Iparraldeko bazter orotan sartuko da (...). Orduan egiaztatuko da gaur egun dioguna: azken bost urte honetako gertakari nagusia Iparraldeko kultur alorrean euskarazko gure irratiaeren sortzea izan dela.

Hortxe, beraz, atal honen erdigunea: Gure Irratia, Irulegiko Irratia eta Xiberoko Botza. Hiru irration sorrera eta garapena ulertzeko, baina, ezin bazter utzi PSFren garaipena 1981eko Frantziako hauteskundeetan eta aldaketa politiko horren harira sorturiko irradi-lege berria (Larzabal, 1993: 220):

Irrati libreen bolada hasia zen Frantzian 1977-tik lekora. 1981-eko hauteskundeetan Sozialistek irabazirik perretxikoak bezala sortzen ziren garai haietan. Mogimendu horren oihartzuna etorria zen iparralderaino eta euskaltzale dinamiko guztiei keinka ona iduritu zitzairen irradi elebakarren sailaren idekitzeko.

Hasieran irradi libreen sareak baso librea zirudien: alde guztietan sortzen ziren irratia eta entzuleak tokiko espresabideari asko barkatzen zion. Oinarrizko irradi legea 1982-an atera zen [liberalizazioari ateak zabaldu zizkion lege hori iritsi arte Estatuaren irratia ziren irradi ofizial bakarrak] eta indarrean emateko lehen kontrolak batzuetan bederen zorrotzak izan ziren bereziki Parise inguruan, bertan baitzen uhain borroka zorrotzena.

Gure Irratiak lortu zuen Baiguramendiko Erregelu kaskoan antenaren emateko baimena. Legezko indarra kilo eta erdi batiotan mugatu genuen; antolaketa teknikoak luze joan ziren: uhain interferentziarik ez egiten ez genekien, Italian fabrikatu materiala ez bait genuen ezagutzen.

Gure Irratia abiatu eta laster sortzen dira beste bi irradi: *Irulegiko Herri Irratia* Benafarroko Irulegin eta *Xiberoko Botza* Zuberoan. (...).

Hiru euskal irratiez gaindi, ezinbestekoa da Radio Adour Navarre ere aipatzea, Lapurdin kokaturiko irradi horrek ere euskara erabiltzen baitzuen garai hartan. Radio Adour Navarrerren sorrera izan zen guztietan lehena. Noiz eta nola sortu zen baina? Horri buruzko zehaztapenak argi eskaini zituen garai hartan Loiolako Herri Irratiako zuzendari Ignacio Arregik *Deia* egunkariaren 661. zenbakiaren gehigarrian (1979-07-28: ork. gabe):

(...) En las provincias del Norte de Euzkadi, se experimenta cada vez, con mayor fuerza, la necesidad de contar con unos medios de difusión propios. (...) La Radio Nacional, única existente en el Estado francés, ofrece solamente dos espacios diarios de quince minutos de duración a través del reemisor de Bayona.

En esta situación, surge hace un año, por iniciativa privada, un grupo que se propone estar preparado para el momento en que el Gobierno francés autorice la creación de emisoras locales, no oficiales, en frecuencia modulada. La decisión que, en un primer momento, parece inminente, se retrasa. En esta espera, el equipo de trabajo de *Radio Adour*, a falta de emisora propia, se dirige a *Radio Popular de Loyola* solicitando la inclusión de algunos programas dirigidos a la población del Norte de Euzkadi y Las Landas. Y así, hace ahora un año, empezó a hacerse familiar, para los oyentes habituales de *Radio Loyola*, el nombre de '*Radio Adour*, la única estación de radio local e independiente de los países del Adour' (...).

Arregiren beraren arabera, hasieran ez zen erraza izan bi irratien arteko lankidetzeta, tokian tokiko komunitateei zuzenduriko irratiak baitziren biak. Arregiren hitzekin jarraituta, gainera, irratiak beregaintasunik ez izateak oztopo ugari ekarri zizkien:

(...) *Radio Adour* no emite con voz propia, por carecer todavía de la necesaria autorización del Gobierno francés para instalar su propio centro emisor. En esta espera, *Radio Adour* se limita a colocar dos emisiones diarias, dentro del horario de emisión de *Radio Popular de Loyola*.

Esta fórmula (...) ofrece sin embargo los inconvenientes de toda solución de compromiso. Si para los oyentes habituales de *Radio Popular de Loyola*, unas emisiones que se desarrollan en gran parte en francés resultan poco inteligibles, a su vez para los oyentes de Ipar Euzkadi son insuficientes por hallarse incluidas en una emisora que no es de su escucha habitual.

La verdadera solución tiene que venir de la creación, con las necesarias autorizaciones y los medios adecuados, de una emisora de radio con su propio centro emisor, al servicio de las provincias de Euzkadi Norte y de Las Landas".

Bi urte geroago ailegatu zen Radio Adour Navarrera, Alexandre De la Cerda (1982: ork. gabe) dioen legez, beregaintasuna lortzeko bidean eginiko urratsa:

... le 3 juillet 1981, était créé un moyen de diffusion local et indépendant qui a pris pour nom *Radio Adour Navarre*. Profitant de l'existence d'une frontière proche et du statut relativement plus libéral de l'organisation de la radio sur le territoire de l'Etat espagnol, il nous a été possible de disposer d'un émetteur en modulation de fréquence, *Radio Populaire de Loiola*, sur certaines tranches horaires, bien audible dans une grande partie de notre Pays Basque nord, bien que nous ne pouvions, pour des raisons techniques, bien couvrir certaines zones de l'intérieur, en particulier la province de Soule.

Autour des deux promoteurs originels, François Xavier de Gorostarzu et Alexandre de la Cerda, s'est vite constituée une équipe à la fois de journalistes, d'animateurs et de représentants de la vie culturelle et sociale basque, ainsi que tout un réseau de correspondants bénévoles dans de nombreux villages, même ceux que ne couvrait pas à l'époque notre aire de diffusion. (...)

Mais à côté de l'information générale sur le Pays Basque, et des émissions en langue basque, nous avons cherché la possibilité de diffuser sur nos antennes, tous les aspects de notre tradition culturelle, depuis les bertsulari jusqu'à la chanson et aux groupes populaires modernes sans oublier le sport et le rest de l'actualité.

PSFren hauteskunde-garaipenaren ildotik, irratiei buruzko legedi berria aurki ailegatuko zen eta guztiak ziren haren esperoan, oraindik ez baitzegoen argi nola egituratuko zen Ipar Euskal Herriko ikus-entzunezkoen mapa berria.

Kontuak kontu, eta legea iristeke bazen ere, Radio Adour Navarre ari zen bere bidea egiten (*Enbata*, 705. zenbakia, 1982-02-18: ork. gabe):

Irrati librean ildoan, *Radio Adur*'ek edo hobekiago erraiteko *Iparaldeko Herri Irratiak* egin du bide joan den ekainaz geroztik. Alabainan, 3 urtez *Loiolako herri Irratiaren* sabelean ibilirik bere emisorea eraikitzen zuen Mugerreko aldean eta emeki 18 oren emankizun apaintzen. (...) Irrati hunen hedadura zabala da: entzuten ahal da eta entzuna da Lapurdin, Baxe Nafarroan gairi eta Xiberuko zombait tokitan. (...)

18 oren emankizun beraz 40 laguneren eskuetan gutiz gehienak etortzen direnak beren laneko orenak bete eta. 5 dira bakarrik geldi geldia teknikan edo irratilaritzan dagotzinak.

(...) *Radio Adur*-en (...) beti euskal errealitateak bere tokia ukan du edozein gauzek baino gehiago. Hala ere elebitasuna erabilia da eta idekia da ere munduko errealitateen kudian hartuz hemengo egoera.

(...) Euskarazko emankizunetan egunero aurkitzen dira 8-tako informatiboak oren batetakoak eta arratseko 6,30takoak. Goizetan ere *berriketarien itzulua* egin da 9tan Xuberoa, Makea, Hazparne, Ziburu, Baztaneko berriketariekin. Gero emankizun batzu ere egiten dituzte Gau Eskolek, bertsulariak, eta bat ere osoki euskaraz arraintzaz, ahantzi gabe musika klasiko saio bat eta igandetako mezak. Kirola mailan ere lan ospagarria egin da alde hortarik.

Elebitasunaren bidea hautatuta zuen, beraz, Radio Adour Navarrek. Hona hemen zelan argudiatu zuten aurreko artikulua berberean, hautu hori:

Arazo asko badaude euskal emankizunen emendatzeko eta ontzeko. Lehenik, mikrofonoa ez da euskal tresna bat eta irratia inguruan badabil miztika azkar bat emeki emeki, jender buruz lan eginez hautsi behar dena. Bestalde, euskararen eremua nahiz aberatsa den ez da aski zabala mundu moderno hunen gaitiaz solastatzeko”.

Jende guztia ez zen, ordea, iritzi berekoa, eta, euskaraz edozertaz hitz egin eta eztabaida zitekeela iritzita, irradi berria sortzeko erabakia hartu zuten: Gure Irratia. Hona nola ematen duen erabaki horren berri Lucien Etxezaharreta Gure Irratiako lehen berriemaileak (Zuberogoitia, 2003: 360).

Oinarrizko gogoeta izan zen euskaraz soilik egin behar zela, euskarari espazio osoaren eskaintzeko, bestela betiko topikoetara eroriko zela —eta erortzen zen *Radio Adour Navarre*, irradi frantses publikoa bezala—. Hona topikoa: euskaraz aipatzen ziren bertsulariak, kantaldiak, mezak, nekazaritza, artzaintza... baina inoiz gauza modernoak. Asko aipatzen zen garai horretan (1980) *diglosia*, eta baita elebitasunak, demokrazia eta parekotasun idurizkoaren atzean, menpekotasuna zekarrela euskararentzat, biak bata bestearen alboan jarrita batakeriaz beste lehertzen zuela, frogatuz gainera *ez zela gai komunikaizo modernoarentzat*, alabaina dena lantzekoa baitzen alor horretan! Horrengatik harreman istilutsua gertatu zen *Radio Adour Navarre*kin, honek egia erran euskaltzaleen gehiengo handia biltzen zuela! Hala ere tinko eta fermu atxeki genuen eta agertu zen gure apustua premiazkoa zela: bide berdinetik gero hasi zen *Euskadi Irratia* 1982an”.

Bistan denez, eredu oso ezberdina garatu zuten Radio Adour Navarrek eta Gure Irratiak. Eta pentsatzekoa denez, horrek elkarren arteko tirabirak ere ekarri zituen. Tirabira horiek ulertzeko, ezinbesteko zaigu Gure Irratiaren nondik norakoan berri ematea. Entzun Ikus elkarteak sortu zuen Gure Irratia, baina zein tesuingurutan? Hona hemen Entzun Ikus elkartekoek emaniko argibideak (*Anaitasuna*, 415. zenbakia, 1981eko azaroa: 19): «Irrati legea aldatu zelarik irradi berri bat, librea ez estatuaren menpekora, martxan jartzea erabaki genuen, guztiz euskaldun izango den irratia, hau da euskara hutsean ihardungo duena».

Horren ostean, honakoa gehitu zuen *Anaitasunako* kazetariak:

(...) Elkarrearen inguruan hainbat jende bildu da, era guztietako gizonak: Manex Pagola, Eñaut Larralde kantaria, Txomin Heguy, Otxandabarats, sindikalista dena, Arbelbide, apezka, orain arte misiolari izana, Iturbide, Piarres Xarriton, Daniel Landart antzerki egilea... Elkarte zabala beraz, alderdikieriarik gabekoa: “*Gure politika bakarra euskararena da, ez dugu nahi ere politikariek beren eskuak sar ditzaten*”. Dena dela, deia zabaldu dute elkarte guztien laguntza jaso nahian eta elkarte batzuek (Euskaltzaleen Biltzarrak, esaterako) eta zenbait herri taldek baietza eman dute.

1981eko udan 30 euskaltzalek Baionako Erakustetxean eginiko bileran erein zen Gure Irratiaren hazia, Mattin Larzabalek dioenez (1993: 220):

Lehenbiziko ideia hauxe da: Iparraldeko euskararen berriz abiarazteko behar dira bai irrati bai telebista gateak euskara hutsez ariko direnak (...) botere publikoek ordaindurik. Segurtatu behar baita euskal dinamikak parte hartuko duela, eratzen dute elkarte bat: *Entzun-Ikus*, bi helbururekin: proposamen hori negoziatzeko botere publikoekin, eta euskal dinamikaren ordezkari izateko sortuko diren komunikabide berri horietan. Botere publikoek ez diote proposamen horri deusik erantzuten.

Benafarroko idazle ezagun den Xipri Arbelbidek abiatzen du orduan ikerketa irrati medioez. Ateratzen da irratiaren muntatzeko medio merkeak behar direla. *Entzun-Ikus* elkarteak lehen diru kapitala biltzen du eta Lapurdiko Milafrangan muntatzen dira lehen estudioa eta antena ipintzen Km. erdi urrunago 150 m-ko mendiska baten kaskoan.

Bilera horrek jarritako abiapuntuaz geroztik bizkor joan ziren gauzak, hain bizkor non 1981eko Gabonetan egin ziren lehen emankizunak. Hara bestela zer dioen jadanik ezagun zaigun Xipri Arbelbidek *Argiaren* 931. zenbakian (1982-04-25: 10):

(...) Bi hilabete du *Gure Irratia* sortu dela: eta jadanik frogatu dugu bide zuzenean gabiltzala. Egunean hiru orenekin hasi gira. Gero seietara pasatu. Orain zortzi ordutara pasatzekotan gaude: Hego Euskalerrian ere ez da horrenbeste euskara egiten duen irratarik!.

Garapen itzela izan zuen Gure Irratiak, ordu kopurua handitzeaz gain, entzuleen erantzuna ere oso positiboa ari baitzen izaten, Manex Pagolak aitortzen duen legez (*Herria*, 1.673 zenbakia, 1982-10-21: 3):

Bederatzi hilabete *Gure irratia* deitu radioa ari zaukula egunero bere emankizunak euskaraz emaiten. Hastean zenbait oren orai zenbait hilabete hautan 9 orenez mintzo zaiku (...). Mintzalari eta laguntzaileak ere emeki emeki emendatzen ari dira (...) eta badakigu entzule andana bat baduela guziz Lapurdi aldean (...).

1981eko abendua, beraz, oroitu beharreko data da euskal irratigintzaren historian, Mattin Larzabalen dioen bezala (1993: 220), artean ez baitzegoen Euskal Herrian euskara hutsez ziharduen beste irratarik:

Lehen hiru irratarilari euskaldunen izenak gure historia herrikoiak gogoan hartuko ditu: Lucien Etchezarreta, Jaki Lautre eta Ermi Madariaga. Azpimarra dezagun Euskal Herri guztiko lehen irrati euskalduna dugula *Gure Irratia*, Donostian *Euskadi Irratia* beranduago hasiko baita”.

Urteak igarota, eta Lapurdin euskaldunen ehuneko handiegia ez izanik, irrati euskara gizarteratzeko tresna izan daitekeela erakutsi dute urteotan Gure Irratiakoek. Horrez gain, euren proiektua sendotzeaz batera, hastapenetan baino sektore eta elkarte gehiagoren babesa izatea ere lortu dute. Milafrangan hasi ziren,

Baionan egoitza bitatik igaro ziren ondoren, eta 2006an Uztaritzera lekualdatu ziren; urte horretan bertan Uztaritzen sutea pairatuagatik, ez zuten emisioa eten eta herri horretan jarraitzen dute egun.

Mattin Larzabalen arabera, bestalde, beste bi aitorpen behintzat zor zaizkio Gure Irratiari: jende ezagun asko lehen aldiz euskaraz hizketan jarri izana eta zenbait eremutan informazioa ematen punta-puntan aritzea, hain zuzen ere (1993: 221-222):

Harrotasun pixka batekin entzun ditugu *Gure Irratiari* esker lehen aldikotz euskaraz publikoki mintzatzen: Dufourq, Martiaren eta Bideondo berezko pelotariak. (...) 1988an RPRko alderdikide historiko batek (...) onartzen du Frantxoa Maitia sozialistarekin eztabaidatzea *Gure Irratian*. Harrotasun zerbaitekin erran dezakegu hain segur ere lehen irratia izan garela alderdikide sukursalistak euskaraz mintza erazten.

(...) 1989an Jose Antonio Ardantzak Baionako udaletxean egingo duen hitzaldi historiko elebidunetik lekora, iparraldeko kargudunek deskubritzen dute Hegoaldea eta Nafarroa. (...) suertea da Baionako mintzaldi horretatik lekora hasten direla Paueko Batzar Nagusietan irratia euskaldunetaz konturatzen. 1991aren zain egonen gara diru laguntza erranahitsuaren eskuratzen hasteko.

Gure Irratiak bere bidea egin du, eta egiten jarraitzen du oraindik ere. Baina, zein da uneotan bere egoera lege aldetik? Hona Etxezaharretak horri buruz emandako azalpenak (Zuberogoitia, 2003: 372):

Elkarte irratiek bezala, *Gure Irratia* elkarte baten meneko da, honek *Entzun Ikus* izena du. Bere *statuts* edo araudiak aldatu ziren 2000. urtean eta bereziki kendu zen lehendabiziko helburua *zerbitzu publiko baten lortzea euskaraz*, horren ordez *euskal irratigintza sustatzea* jarrita. Frantzian entzun-ikus lege berria ez du oraindik [2001ean] bozkatu Jospinen gobernuak, eta aurreko egoeran gara beti: *Radio Locale Privée, A kategoriakoa*. A kategoriak dio *irradiaren diru iturrietan % 20 baino gutxiago datorrela publizitateetarik*.

10.2. IRULEGIKO IRRATIA, ASPALDIKO AMETSA

Irulegiko Irratiak Nafarroa Beherea du eragin-eremu nagusi; irratia hori 1982ko urtarrilean hasi zen zuzenean emititzen, Gure Irratia baino aste batzuk geroago. Ez zen, ordea, egun batetik bestera sorturiko proiektua izan, euskal probintzia horretako abertzaleen artean aspaldidanik sumatzen baitzuten behar hori. Zehazkiago esanda, urtebete lehenago egiten hasiriko bileretan zuen jatorria Irulegiko Irratiaren proiektuak.

Baina, nola izan zen Irulegiko Irratiaren sorrera? Errepara diezaiogun irratiko kideek eurek *Herriaren* 1.639. zenbakian (1982-02-18: 7) esandakoari:

Duela bospasei hilabete *Adour* Irratikoek proposatu zaukuten heien irratia beste hedatzaile bat barnekaldean ezartzea eta ber denboran zenbait emankizun gure gain hartzea. Geroztik, sozialisten gobernuak irriti libro bakotxari jakin-arazi zuen hedatzaile bat baizik ez zutela ukan behar. Horregatik asoziacione bat muntatzea pentsatu ginuen gure hedatzailea erosiz.

Iparraldean euskaraz (proportzio handiagoan ala txikiagoan) ziharduten bi irriti baziren ordurako (Radio Adour Navarre eta Gure Irratia); hirugarren irratia zen, beraz, Irulegiko Irratia. Zergatik hartu zen, horrenbestez, hirugarren irratia sortzeko erabakia? Hona irriti horretako kideek *Herriako* kazetariari (arestian aipaturiko artikuluan) emaniko arrapostua:

Lehenik erran behar da bi irriti horiek baterez edo arrunt gaizki entzuten direla gure eskualdean. Gero, inportantena behar bada guretako, orai artio guharen berriak kanpotik ukaitea usatiak ginen eta partikularzki irriti mailan, aldiz irriti libroen mogimenduaren gauza interesgarriena da lekuko jendeek parte hartzen ahal ukaitea eta mintzatzea bizi dituzten gauza guzietaz. Aipatu ditugun bi irratia kosta aldean dira; aldiz, barnekaldeko jendeek parte hartu nahi badute, biziki errexago izanen da hemen berean *studio* bat balin bada.

Aipatu bezala, 1982ko urtarrilean ekin zioten seinalea igortzeari, Irulegi bertako etxalde batetik ekin ere (Donibane Garazira aldatu ziren urteak geroago eta han jarraitzen dute egun). Hamabost boluntariok eta soldatapeko langile batek (Jojo Bidart) osatzen zuten hastapen-garaietako lantaldea, eta lehen emisio haietan Baigorri eta Garaziko kantonamenduetan zabaltzen zuten batez ere seinalea. Edonola ere, eta lantaldeko kideek aitortzen zuten legez, laburrak ziren hasierako emaldi haiek (*Herria*, 1.639. zenbakia, 1982-02-18: 7): «(...) egun guziz oren batez ari gira eguerdi eta erditarik oren bat eta erdi artio. Guhaurek usaia hartu eta emankizun denbora luzatzea pentsatzen dugu, hori jakin-araziko dugu kaseten eta irratien bidez».

Hastapen-garai haietan zehaztu beharreko beste zenbait aspektu ere baziren, eta horien artean leku berezia zuen hautatu beharreko hizkuntza-ereduak. Honela mintzo ziren garai hartan gaiari buruz Irulegiko Irratiako kideak (*Herria*, 1.640. zenbakia, 1982-02-25: 4):

Gure helburuetan bi puntu nagusi agertzen dira: lehena euskaraz, bestea hemengo jendeek balia dezaketen tresna bat. Baigorri eta Garazin euskara mintzatzen da bainan segur da gure mintzairaren atxikitze maila guzietan erabili behar dela eta horietan irratian. Hortako beraz emankizun gehienak euskaraz izanen direla erabaki dugu.

Ala ere euskara ez dakiten zonbaitzuk mintzatu nahi badute gure irratia idekia izanen zaie.

Euskara irratiko hizkuntza nagusi gisara ulertu arren, frantsesak izan du presentziarik Irulegiko Irratian. Horrela, Mattin Larzabalen arabera (1993: 220),

«1993an % 5 inguru emititzen zuten frantsesez». Urteak igarotzearekin, baina, ehuneko horrek gorantz egin du, Jojo Bidartek aitotzen duen legez (Zuberogoitia, 2003: 380):

Baxe Nafarroko biztanleriaren bi herenak euskara ulertzen duela kontutan harturik *Irulegiko Irratian* nagusiki euskaraz aritzea oso normala iduritu zauku eta entzuleek baikorki hartu dute hautu hori hasieratik.

Gaur egun, hasieran bezalaxe, gure emankizunetan euskararen proportzioa % 80koa da guti gorabehera.

Euskararen erabilera nagusi horrek, gainera, euskal hiztunen konplexuak baztertzen lagundu duela deritzo Pantzoa Irigarai Irulegiko Irratiako esatariak (*Argian* argitaraturiko elkarrizketa, 1.832. zenbakia, 2001-12-02: 21):

– Zer da *Irulegiko Irratiak* euskarari ekarri diona Nafarroa Beherean?

– Bere *ofizialtasuna*. Gurasoen belaunaldiei-eta, beti buruan sarrarazi diete euskara mintzaira minorizatua dela, baliorik gabea; baina irratitik egun guztiz euskara entzuteak, ofizialtasun bat eman dio. Erakutsi nahi izan dugu bizi eta komunikatzen ahal dela euskaraz, (...).

Lege aldetik Irulegiko Irratiak bizi duen egoerari dagokionez, aurrez jorraturiko Gure Irratiaren egoera berbera bizi duela dio Jojo Bidartek (Zuberogoitia, 2003: 381)

Frantziako legedian egina den sailkapenean *Irulegiko Irratia* elkarte-irradi bat da A kategoriakoa, erran nahi du elkarte batek kudeatzen duela, tokiko irradi bat dela edo lokala, sare bati lotua ez dena, eta komertziala ez dena (bere diru iturrietan % 20 baino gutiago da publizitatetik etortzen).

10.3. XIBEROKO BOTZA, ANAIA TXIKIA

Berriro ere 1980ko hamarkadari erreparatuz, ezinbestekoa zaigu Zuberoako beste irradi-proiektu garrantzitsu baten berri ematea, Xiberoko Botza irratia, hain zuzen. Euskarak Zuberoan garai latzak bizi zituen hamarkada hasiera hartan, eta, *Argia* astekariaren 942. zenbakiak biltzen duenez (1982-07-25: 8), egoera kaskar haren erantzun gisara sortu zen Xiberoko Botza:

(...) Zuberoan, irradi berri bat. Eta denbora gutxi barru, gainera. Horko elkarte guztiekin hitz egiten ari omen dira, denek parte hartu ahal izan dezaten. Dirudienez, euskaraz emanaldiak egin ahal izateko ba omen da zenbait arazo, horretarako gai izango den jende eskasiagatik batik bat.

Arazoak arazo, 1982ko udan ekin zioten seinalea aireratzeari (eguneroko emisioak irailean hasi baziren ere), Mauleko Udalak utzita, Gotaine-Irabarneko gazteluaren lehen solairuko lokaletatik (egun ere Maulen daude, baina beste egoitza batean). Gure Irratia eta Irulegiko Irratiaren urratsei jarraituz-edo sortu zen

Xiberoko Botza, bertako esatari Maite Lephaillek aitortzen duen legez (Zuberogoitia, 2003: 386): «Bai; Iparralde guzian eraman zen gogoeta komunikabideez, eta, *Gure Irratiaren eta Irulegiko Irratiaren* sortzearekin, beharrezkoa zen Xiberoran ere irrati baten sortzea».

Euskal kultura sustatzea zuen helburu nagusietarikoa Zuberoran sorturiko irrati berriak, baina, euskarak garai hartan Zuberoran bizi zuen egoera tamalgarria zela medio batik bat, oztopo ugari izan zituzten euskarazko emanaldiak aurrera eraman ahal izateko.

Xiberoko Botzak ere hizkuntzaren hautua unean uneko esatariaren arabera uzten du. Baina, errealitatean, zenbat denbora eskaintzen zaio, gutxi gorabehera, hizkuntza bakoitzari? Hona nola mintzo den Maite Lephaille horren inguruan (Zuberogoitia, 2003: 387-388): «Hasieran % 40 frantsesez zen, baina fite euskara sartu zen, xiberotar haboroxenek onartu zuten egoera horrelakoa zelakotz; orain gauzak aldatu dira eta % 70 bederen euskaraz da». Darabilten euskalkiari buruz ere mintzo da Lephaille; haren esanetan (Zuberogoitia, 2003: 388), eurenean «xiberotarra da erabilten nausienik».

Legeari dagokionez, berriz, Lephaileren arabera publizitatea mugaturik dute, laguntza publikoak jasotzen dituztelako; horrenbestez, beste bide batzuk erabiliz saiatzen dira irratiaren biziraupena bermatzeko diru-iturriak biltzen (Zuberogoitia, 2003: 391):

Publizitatea mugaturik da laguntza publikoak ditugulakotz, gure sustengu nausia baitator estatu frantsesetik (*fons de soutien à l'expression radiophonique* delakoa jasotzen dugu); gero, departamentuak ere laguntza ekartzen digu, eta baita Xiberoko herriko etxe zonbaitek (gure ustez ez dute aski laguntzen); horrez gain, behazaleek ere parte hartzen dute, urte guziz etxez etxe kanpaina egiten dugu, Xiberoko etxe guzietan ibiltzen gara sos biltzen. Bestalde, laguntzak badira ere Euskal Gobernamentutik eta ere Udalbiltzatik.

Horiek horrela, beraz, argi dago behe-behetik abiatutako hiru euskal irratiok beren bidea egiten jakin izan dutela hiru hamarkadotan zehar. Guztiek ere zentralitatea eman diote euskarari (Gure Irratiak hasiera-hasieratik, eta Irulegiko Irratiak eta Xiberoko Botzak denboraren poderioz) eta horietako bakoitza errealitate sendo bihurtu da bere herrialdean.

10.4. EUSKAL IRRATIAK TALDEA: IPARRALDEKO ELKARLANAREN IRUDI

Ipar Euskal Herrian erreferentzia diren hiru euskal irrati horiek (Gure Irratia, Irulegiko Irratia eta Xiberoko Botza), Euskal Irratiak izeneko federazioa osatu zuten 1997ko ekainaren 10ean, botere publikoekiko harremanak segurtatzea eta euskal irratiaren interesak laguntzea helburutzat harturik. 2001etik, ordea, lau kide

ditu Ipar Euskal Herriko tokiko euskal irratia batzen dituen federazio horrek, urte horretan jaio baitzen Hendaiatik Lapurdi mendebaldera eta Gipuzkoako iparraldera zabaltzen den Antxeta Irratia⁶⁶.

Federazioak ahalbidetzen duen koordinazioari eta elkarlanari esker, eguneroko programazioaren % 80 modu bateratuan osatzen dute, eta programazioaren gaineko % 20 betetzeko tokian tokiko gaiak jorratzen dituzte. Eta lan horrek eman ditu bere fruituak. Izan ere, 2007ko urrian IPSOS Mediak Iparraldean eginiko inkestak haxe ondorioztatu zuen: Euskal Irratiek 40.000 entzule dituztela Iparraldean, eta gehien entzuten den 2. tokiko irratit-taldea dela haiena. Eremuka zatituta, hona hemen Euskal Irratien entzuleen ehunekoak⁶⁷: % 9 Lapurdi kostaldean, % 12 Lapurdi barnealdean, % 39 Nafarroa Beherean, % 22 Zuberoan eta % 3 Baiona-Angelu-Biarritz eremuan.

Beraz, Euskal Irratiak federazioari, eta bertan lanean diharduten 31 soldatapeko langileei eta ehunka laguntzaileri esker, egunean 24 orduz eta urtean 365 egunez entzun daitezke aipaturiko irratioi Ipar Euskal Herriko edozein txokotatik. Oso aintzat hartzeko moduko errealitate bat, duda barik, Hego Euskal Herriko bizilagunek, oro har, berau behar den moduan ez ezagutu arren.

ATALEAN BALIATURIKO ITURRIAK

Arbelbide, X. (1982): “Euskal Irratiekin berriro bueltaka”, *Argia*, **931**, 10.

Argia (1982): “Ttanntaka atala”, *Argia*, **942**, 8.

Arregi, I. (1979): “*Solidaridad en las ondas, con Euzkadi Norte*”, *Deia* egunkaria, *Deia TV* gehigarria, 1979-07-28, **661**, orrikatu gabe.

De la Cerda, A. (1982): “*Radio Adour Navarre, une voix libre*”, in *Aburu (Enbata astekariaren gehigarria)*, 4. zenbakia, 1982ko urtarrila.

Eizagirre, E. eta Eizagirre, I. (2001): “Pantzoa Irigarai: Entzuleei hitza emanda lortzen da gertutasuna”, *Argia*, **1.832**, 18-23.

Enbata (1982): “Zuekin solasean: Iparraldeko Herri Irratia”, *Enbata*, **705**, orrikatu gabe.

Etchezaharreta, L. (2004): “Iparraldeko euskal irratia, elkarlanean aitzindari?”, Euskarazko kazetaritzaren I. Kongresuan aurkezturiko txostena, Bilbo. Eskuragarri in Zenbait Egile, *Kazetaritza euskaraz. Oraina eta geroa* [linean], EHU, Bilbo. 2009-12-11ko kontsulta: http://www.argitalpenak.ehu.es/p291-content/eu/contenidos/libro/se_indice_ciencinfo/eu_ciencinf/adjuntos/kazetari.pdf

66. Aintzat hartzeko modukoa da euskara hutsez edo nagusiki euskaraz jardutearen aldeko apustua egin duten irratit hauek izaniko garapena. Haien garai bertsuan sortu eta elebitasun diglosikoaren aldeko apustua egin zuen Radio Adour Navarrek, aldiz, ez zuen bide luzerik egin, RTL irratia irentsi baitzuen 1986an.

67. Gilles Haran, Euskal Irratietako ekonomia- eta gizarte-koordinatzaileak helarazitako datuak (2009).

- Herria* (1982a): “Irratia berri bat. Irulegi Menta-tik”, *Herria*, **1.639**, 7.
- , (1982b): “Irratia berri bat. Irulegi Menta-tik II”, *Herria*, **1.640**, 4.
- Larzabal, M. (1993): “Herri komunikabideak Iparraldean. Gure Irratia”, in Zebait egile, *Herri komunikabideei buruzko II. Jardunaldiak*, ARKO (Arrasate Komunikabideak), Arrasate, 217-222.
- Pagola, M. (1982): “Gure Irratia. 94,5 Mhz. Osoki euskaraz”, *Herria*, **1.673**, 3.
- Ugarriza, J. (1981): “Ipar Euskal Herrian lehen euskara hutsezko irratia”, *Anaitasuna*, **415**, 19.
- Xarriton, P. (1979) (*Xabier Gasteiz* modura sinaturiko lana): “Baionako euskal irrati-telebistak”, *Jakin*, **10**, 61-63.
- , (1984): “Kulturaren bilakaera Iparraldean”, *Jakin*, **32**, 105-109.
- Zuberogoitia, A. (2003): *Euskararen presentzia gaur egungo prentsa elebidun abertzalean*, Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen-zerbitzua, Bilbo.

11. EITBren sorrera eta bilakaera

11.1. EUSKARAZKO TELEBISTAREN HASTAPENAK: BI IZEN, BI ERREFERENTE

Aurrez izaniko saioak gorabehera, telebista nagusiki II. Mundu Gerraz geroztik sartu zen —abiada bizian sartu ere— Espainia eta Frantziako etxeetan (ikus horri buruz gehiago in Basterretxea, 1997). Liburu honetako ikergaiari helduta, 1971ko iraila jar dezakegu euskarazko telebistaren abiapuntu modura⁶⁸. Hona zelan azaltzen duen kontua Xipri Arbelbidek (2002: 9):

1971ko irailean izan zen telebistaren aldi euskararentzat, Mixel Intxauspe deputatuak eskaturik eta erdietsirik. Oren edo ordu laurdeneko magazina zen hilabetan bi aldiz. Hilabeteko lehen eta hirugarren larunbatetan pasatzen zen arratsaldeko seiak eta erditan [France 3 Frantziako telebista kate publikoan]. 80ko hamarkadan erdietsi zuten bigarren pasaldi bat izatea, 2. eta 4. larunbatetan, azpitoluak frantsesez idatzirik bigarren pasaldi honetan. Hogoituzte hori izan da Euskal Telebista bakarra, ETB sortu arte!

Euskarak telebistarako bidea egin zuen hartan, bistan denez, telebista-saio haien aurpegi izango zen pertsona bilatu behar izan zen. Beste zenbait hautagairen artean, irratia atala jorratzean ezagutu dugun Maite Barnetxek ere (Maite Ameztoui, hariak eta ezkondu zen arte) bere burua aurkeztu zuen emankizun haien aurpegi izateko. Barnetxe bera hautatu zuten gainera azkenean (Arbelbide, 2002: 9)

Hara nola pasatu zen irratitik telebistara. Molde jarraikian izan diren euskarazko lehen telebista emankizunak. Gure mintzairaren historiako gertakari nagusi bat eta Maite istorioko lehen telebista emankizun egilea euskaraz. Ez zuen uste gabetarik sortu Maite Barnetxe saria ETB-k 1994an. 1988an Zestoako herriak eman zion Euskal zinemaren saria. Bainan alferretan bilatuko duzue Maiteren izena gure kulturako “kutxak” diren entziklopedietan! Lehen Euskal Telebista egin zuenik ez dakite! Horiek egin dituzten erredaktore, aholkulari, zuzentzaile, oharregile eta gaineratiko taldeetako adituek ez zekiten Maite Barnetxe bat izan denik ere.

Irratian lan egindako Barnetxek, beraz, telebistarako jauzia egin zuen, eta ez zen jauzi batere erraza izan (Arbelbide, 2002: 10):

68. Bai behintzat modu jarraituan eskaini ziren saioei dagokienez. Edozelan ere, agerraldi puntualei gagozkiela, 1965 eta 1966ko esku-pilota txapelketetako finaletan agertu zuen euskarak estreinakoz bere burua telebistan (telebista espainiarrean, zehatzagoak izateko). Final haiek gaztelaniaz eta euskaraz bota zituzten, eta Jose Mari Iriondok jardun zuen esatari modura euskarazko emanaldietan. Iku horri buruz Iriondoren beraren lekukotza in Zenbait egile, 2006.

Telebistan deus ez ezagutzen eta hasieran, Bordaletik igorri zioten errealizadore bat. Lehen hiruzpalau emanaldiak berak prestatu zituen. Honekin ikasi zuen nola filmatu eta nola egin montaiak. Gero denak bere gain.

Lehen emankizunentzat, hartu zituen gai erretxak, ezagutzen zituenak: Bidarraiko eliza erromanikoa, Izurako historia, kantari batzu, bertsulariak. Lana gustatu zitzaion eta bide berriari jarraitzea erabaki zuen. Irratian emankizun bat egiten segitu zuen igandetean.

Orotara 300 bat emanaldi eta 75 ordu bete zituen Barnetxek euskaraz osaturiko telebista-saio harekin (1982ra arte iraun zuen). Etxahun Iruri, kontrabandistak, pilotariak, garaiko Ipar Euskal Herriko hainbat pertsonaia, zoko eta bazter agertu ziren pantaila txikian haren lanari esker, eta, hori zela kausa, Barnetxek euskarentzat irabazi zuen hedabide berria. Haatik, gazterik joan zitzaigun bidarraitarra, Xipri Arbelbidek dioen moduan, berak nahi besteko biderik egin ezinda (2002: 23):

Bordalen ez zuten euskal emankizunetan sinesten: *'Oi ei oi ei, Maite! Bi emankizun hilabetean? Bainan zer aipatuko duzu? Bat pilotaz, bestea dantzaz, gero bertsolarietaz. Bainan gero? Nola egingen duzu irauteko?'*

Hiruehun bat emankizun egin zituen orotara eta bazukeen beste milaren egiteko gaia. Bere oren laurdeneko emankizunaz gain, beste emankizun mota batzu ere amensten zituen. Bainan ez du amentsa gauzatzeko paradarik izan berak. 45 urte betetzera zoalarik utzi gaitu. 1986ko uda azken egunetan zelarik. Beti bere oren laurdenean mugatua egonik. Berriki sortua zen ETB-k egingen zituen euskal telebistaren beste urratsak. Eta 1992ko azaroan hasi zuen Iparraldearen orena, Iparraldean finkatu talde batek, Iparraldearentzat eginga. Maiteren ametsa!⁶⁹.

Ipar Euskal Herrian Maite Barnetxe bidegile izan zen bitartean, Hegoaldeari erreparatuta ezin ahanzi dugu Jose Mari Iriondo. Hego Euskal Herrian bere ahotik entzun genituen telebistako lehen euskarazko hitzak (1965 eta 1966ko esku-pilota final haietan), eta ondoren ere aitzindari izan zen Hegoaldean modu jarraitu batean euskarazko saio bat egiten: TVEren Bilboko Centro Regional del Norte zentroak (Telenorte izenez ezagunagoa⁷⁰) ekoizitako saio bat, hain zuzen ere. Hona nola oroitzen dituen Iriondok garai haiek (Ubeda, 2008: 27):

69. Amezaga, Arana eta Azpillagak diotenaren arabera (2010: ork. gabe), ETB bazter utziz gero, gaur egun Ipar Euskal Herrian «euskara [ohiko] telebista zirkuitutik kanpo dago, *France 3 Euskal Herrik* eguneroko albistegian euskaraz ematen duen erreportajetxoak kenduta». Haatik, digitalizazioarekin batera iritsitako telebista berrietan leku gehiago topatu du euskarak (Amezaga *et al.*, 2010: ork. gabe): «(...) uhin hertziarren bidezko telebista mugatzen duen lege frantziar zorrotza dela eta, kontuan hartzekoak dira noizbehinkako emanaldiak egin dituen Aldude Telebistaren esperientzia edo internet bidez emititzen dutenen (TVPI edo Ezpeleta Telebista berriagoa) urratsak».

70. Jose Inazio Basterretxearen arabera (1997: 17), «[TVEren] Bilboko Zentru Errejonala 1971ko maiatzean inauguratu zuten. Zentru honen *estaldurak* Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Logroño, Araba, Burgos eta Santander hartu zituen». Ikertzaile berak jarraian dioenez, zentro horrek 1974an ekin zion «informazio errejonala» bere kabuz igortzeari. 1974an sortu zen, azkenik (Basterretxea, 1997: 18-19), «gaur egun Telenorte moduan ezagutzen dugun Espainiako Telebista Estatalaren adar bilbotarra (...)

1975ean Loiolan ari nintzela bilera batera deitu ninduten Bilbora, astean behin programa bat egiten lagunduko al nien proposatuz. *Euskalerrria* izena jartzea erabakita zeukaten. Ez nuen esperantza handirik, garai hartan gauzak zeuden bezala ikusita. Bestalde, programa bera magazin modukoa zen, ateporala, informazio kutsurik gabea, bitartekorik gabea.

Hasiera batean oso programa juxtua zen, eta tartean haurrentzako atala sartzea erabaki genuen, *Pinpilipauxa* izeneko. Oso harrera ona izan zuen horrek.

Franco diktadorea hil baino hilabete lehenago jarri zen abian *Euskalerrria* saioa, eta ostegunetan zuen emisio-eguna, arratsaldeko 19:00ak aldera. Itilu eta borroka ugari izan zituzten arren, 1975eko abenduaren 12an hasita 1977ko abuztura bitartean iraun zuen *Euskalerrriak* (60 saio inguru orotara). Saioaren ardura-duna Jose Mari Iriondo zen, eta Joan Mari Iraolagoitia, Xabier Kintana eta Txo-xongilo taldeko Enkarni Genua eta Manolo Gomezek osaturiko lantaldea zeukan atzean (Manu Oñatibia, Martin Olazar, Joxe Mari Etxebeste, Anjel Unzueta eta Jose Mari Otermin ere ibili ziren tarteka laguntzen).

Joan Mari Torrealdai dioenez (1985: 13), «liberaturik, dedikazio osoz honetara emandakorik ez zen inor tartean, eta, beraz, tarteka-marteka egin behar zuten lana». Hori aski ez nonbait eta bitarteko teknikoak ere oso kaskarrak ziren. Horiek guztiak gogoan, saioaren arduradunek horrela jarraitzerik ez zegoela jakinarazi zioten gutun bidez Telenorteko zuzendariari. Gutun horretan, gainera, aurrera egiteko gutxieneko baldintzak ere zehaztu zituzten (Torrealdai, 1985: 13): «(...) eki-poa, berauek eratzea; kazetaritza-fakultatearekin harremanetan jartzea; lan-kondizio eta ekipamendu hobea, ekipoaren esku». Torrealdai dioenez, gutun horrek ez zuen erantzun ofizialik jaso. Hori bai, hilabete batzuk geroago Telenorteko arduradunek *Al fondo, el hombre* elkarrizketa-programa eskaini zioten Jose Mari Iriondori. Bi astean behin euskaraz egiten ziren elkarrizketa haiek, eta Iriondok euskarazko solasaldi haien ardura hartu zuen (Ubeda, 2002: 28):

1980ko Errege egunez Bertsolarien Txapelketa nagusia amaitu zenean, ordu erdiko erreportajea egin genuen. Hala ere, handik gutxira, 1983ko martxoan, Telenorte (TVE) utzi nuen ETBn parte hartzeko. Eta euskarazko atala erabat kendu zuten, ez dakit zergatik⁷¹.

⁷⁴az gero eguerdiro *Regional Informativo* izeneko hamabost minutuko albistegia aireratzen hasi zen. (...) *Regional Informativo* honen osagarri gisa Bilboko Zentruak *Telesport* izeneko kirol-magazina eskaini zuen astelehenero, arratsaldeetan, asteburuko kirol-albisteen jarraipena eginda».

71. Urteak geroago, 1997an, Jose Inazio Basterretxea kexu zen euskarak presentzia urria zeukalako Telenorten (1997: 20): «Gaur egungo Telenorten euskarak albistegien amaieretan eskaintzen diren berri-laburpenetarako eskubidea baino ez du eskuratu —izan ere albiste laburpen hauek erdaraz idatzitako azpitu-luek *lagunduta* agertzen dira—. Gaur egungo Telenortek ez dauka eduki ezelako programazio espezifikorik euskaraz: euskara, erreportaiaren batean edo bestean ez baldin bada (horietan ere erdara *lagungarri* duela), Telenorteren ekoizpenetan lekurik ez duen hizkuntza da». Hamabi urteren buruan, 2009an, euskararen presentzia erabat desagertu da Telenorteren ekoizpen bakarretik (*Informativo territorial* delakotik, alegia).

Bidearen hasiera egina zegoen, beraz, mugaz bi aldeetara. Erreferenteak baziren, eta telebista euskaraz egin egin zitekeela erakutsita zegoen⁷². Euskal Telebista sendo baten garaia hastear zen, horrenbestez.

11.2. EUSKAL TELEBISTAREN SORRERA: ERLOJUAREN KONTRAKO LASTERKETA

EITBren historiak lege jakin batean dauka jatorri ofiziala: Eusko Legebiltzarrak 1982ko maiatzaren 20an onetsitako Euskal-Irrati Telebista Herri-Erakundea sortzeko 5/1982 Legean, hain zuzen. Haatik, euskal irrati-telebista publikoen historia eta ibilbidea 1980. urtearen hastapenetan mamitzen hasi zirela esan daiteke. Izan ere, EAEko Autonomia Estatutua 1979ko urriaren 25an onartu zuten herritarrek, eta abenduaren 8ra arte ez zen Lege Organiko bihurtu. Haren ostean estreinako Jaurlaritza osatu eta gero (1980an) etorri zen arestian aipaturiko legea. Lege horrek zeregin hauek esleitu zizkion, besteak beste, eginkizun zen telebistari:

- Euskararen eta euskal kulturaren sustapen eta zabalkundea.
- Euskal herritarrek informazioa jasotzeko eta parte-hartze politikorako zeukaten eskubidea bermatzea.
- Euskal hezkuntza-sistemaren lagungarri izatea.

Francoren diktaduraren osteko lehen Eusko Jaurlaritza, esandako moduan, 1980ko martxoko hauteskundeetan hautatu zuten, Karlos Garaikoetxea lehendakaria buru zela. Horrela, ofizialki euskal irrati-telebistaren izenpean ez bazen ere, 1982ko maiatzaren 20ko legearen aurretik jende andana zebilen proiektu hartan lanean: Ramon Labaien eta Josu Zubiaur ziren egitasmo guztiaren arduradunak (Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua eta sailburuordea, hurrenez hurren). Horrez gain, euskaltzaleen artean ere nabarmen entzuten zen euskarazko telebista baten aldeko aldarria⁷³. Asmoa hasiera-hasieratik zetorren gainera, Ramon Labaien berak aitortzen duenez (Azurmendi, 2004: 12):

Gure lehentasun nagusietako bat euskara babestea eta bultzatzea zen, zeren eta, printzipio bezala, argi baikeneukan euskararik gabe ez zegoela Euskal Herririk. Argi geneukan, halaber, ez bazen euskarazko komunikabiderik sortzen euskarak ez ziola bereari eutsiko. Hortaz, 1980an osatu zen Eusko Jaurlaritzaren programan jasota zegoen euskara babesteko sortuko zen telebistaren asmoa.

72. Torrealdaik dioenez, Telenortek baino are denbora gutxiago eskaini zion euskarari Telenavarrak sorberriak (1985: 12), «1981ean eraiki zuen TVEk Telenavarra Iruñean. Minutu bat inguruko emanaldia eskaintzen du Telenavarrak euskaraz».

73. Euskal Herrian Euskaraz (EHE) taldeak, barbarako, *Gabonetarako irratia/telebista euskaraz* kanpaina antolatu zuen 1982an.

Azkar joan zen sorrera-prozesua; hain azkar non sarritan prozedura ofizialen aurretik egiten ziren izendapen eta plangintzak. Horrela, legea onartu baino lehen (1982ko apirilaren hasieran) osatu zen, Eusko Jaurlaritzaren izendapenez osatu ere, EITBren behin-behineko Administrazio Kontseilua.

Esan bezala, EITBren sorrera ofizialtzat har daitekeen legea maiatzaren 20an onartu zuen Eusko Legebiltzarrak, eta ekainaren 30ean osatu zen lehen Administrazio Kontseilu ofiziala. Uztailaren erdialdean izendatu zuten, bestalde, EITBko lehen zuzendari nagusia: Josu Zubiaur bera. Egun berean sortu zituen Kultura Sailak Euskal Telebista (ETB) eta Eusko Irratia (EI) sozietateak ere, EITBra bilduko zirenak.

Legea eta prozesu ofiziala indarrean jarrita, ekimen profesional eta teknikoei heltzeko garaia zen. Proiektua garatzeko erreferentziak falta ziren, baina, frankismoan sorturiko RTVE beste eredurik ez baitzen ezagutzen (ez zen Frantzia aldera begiratu, bistan denez). Jose Ramon Diez Unzueta eta Jose Mari Oterminen arabera (2006: 6), «herrialdean ez ziren dozena bat baino gehiago izango kamera erabiltzen zekiten profesionalak, eta gehienak RTVErentzat edo NODOrentzat ari ziren lanean». Oztopoak ziren, beraz, nagusi. Euskal Herrian ez zegoen ez azpiegitura egokirik ezta ekoizpen-etxerik ere. Bitartekoak falta ziren, baita jendea ere, profesionalki prestaturiko jendea.

Horiek horrela, denborarik galdu gabe abuztuan bertan ETBko 42 profesionalak osaturiko lantaldea Hanburgoko (Alemania) Studio Hamburg-era joan zen, aspektu teknikoetan zein teknologietan janzteko asmoz⁷⁴. Abenduaren 31 zuten helburu.

Abendua ailegatzearekin batera, aldaketak izan ziren Espainiako eta EAeko telebistetan. Madrilen, PSOEn garaipenaren ondorioz Jose Maria Calviño izendatu zuten RTVEko zuzendari nagusi; Euskal Autonomia Erkidegoan, aldiz, Andoni Areizagak ordezkatu zuen Josu Zubiaur, abenduaren 13an bertan. Urteamaiera hurbil zen, eta izendapenaren hurrengo egunean bertan hasi ziren ETBren lehenengo emisio-probak, J.J. Azurza eta Eugenio Iriondo ingeniariak prestaturiko sareari esker. Astebete geroago Areizagak EITBren Administrazio Kontseiluaren aurrean aurkeztu zituen Luis Iriondo eta Ignazio Arregi, ETBko eta Eusko Irratiko zuzendari berriak, hurrenez hurren.

Lehen emisioa ailegatzeko bezperetan, ordea, lan ugari zegoen oraindik egiteke. Estreinatzeraz zihoan telebista-kateak, esate baterako, ez zeukan oraindik logotiporik. Kike Gomez izan zen logotipoaren ardura bere gain hartu zuen pertsona, eta, lan eta zirriborro ugariren ostean, abenduaren 30ean ailegatu zen Durangora

74. Bingen Zupiriaren arabera (komunikazio pertsonala, 2009ko urria), Hanburgon jasotako formazioaren ondorioz RTVErenak ez bezalako lan-dinamika eta produkzio-moduak bereganatu zituen ETBren lehen lantalde hark.

behin betiko logoa izan zitekeenarekin. Gomezen lan hark, ordea, zenbait aldaketa behar zituen oraindik. Eta estreinaldirako egun bat besterik ez zen geratzen. Hurrengo eguerdirako amaitu zuen, orain bai, behin betikoa, hurrengo urteetan ETBren ikur nagusia izango zen logoa.

... eta konturatzerako, abenduaren 31ko gauerdia zen. 1983ko Urteberriaren ataria. Honela deskribatzen dute orduko urduritasuna Otermin eta Unzuetak (2006: 15):

Urduritasuna nagusi zen Unitate Mugikor hartan [Iurretan lanak amaitzeke baitzeuden oraindik], lehen irudiak igorri aurreko minutuetan. Gaueko hamabietan, puntu-puntu Euskadiko Orkestra Sinfoniko jaioberriak eskainitako *Agur Jaunak* kantak eman zion hasiera Euskal Tebistaren lehen emanaldiari. Musikarekin batera, aireak kulunkatutako ikurrinaren irudia agertu zen pantailan, antena paraboliko baten mastaren gainean.

Elene Lizarralde eta Mari Jose Insausti izan ziren une historiko hartako aurkezleak. TVEko Bartzelonako estudioetan lan egindako Xabier Elorriaga, berriz, aurkezpenaren zuzendari. Entsegu ugari egin ostean, honela agurtu zuten Euskal Herria Lizarralde eta Insaustik ETBren lehen emanaldi hartan (Diez Unzueta eta Otermin, 2006: 15):

Mari Jose: Ikusle maiteak, jaun-andreak, gabon. Gabon eta Urte berri on!

Elene: Urte berri on, bai, gure oso-oso berri Euskal Tebista estudioetik. Urte hau aurrekoa baino hobea izan dadila zuretzat, zure senideentzat, zure lagun eta adiskideentzat, herri honetako seme-alabentzat eta munduko herri guztikoentzat.

Mari Jose: Eta, lehen ordu hauetan, 1983ko lehen minutu hauetan, Euskal Tebista honek bere lehen programari ekiten dio. Bere lehen probatuko programari.

Elene: Nahiz eta erabateko egia izan ez, pentsa dezagun unetxo batez gure Euskal Tebista hau erabateko errealitate bat dela, eta Euskadi osoa gu ikusteko eta entzuteko antenaz beterik dagoela. Euskadiren zerbitzuan jaiotzen da Tebista hau; ikusteko eta entzuteko, hain zuzen ere.

Mari Jose: Eta zergatik ez, hau guztia errealitate izango da laster asko. Eta, horretarako, hori guztia egia izan dadin, gaur, 1983. urtearen sorreran, jendaurreko lehen pauso hauek ematen ditugu, benetan uste duguna baino gehiago zaretelakoan. Zorionak, bada, eta aurrera.

Elene: Eta, hasteko, hona Karlos Garaikoetxea lehendakariak urte zaharraren inguruan emandako mezua. Adi-adi bazaudete, gu ere aipatzen gaituztela konturako zarete”.

Hiru orduz goitiko iraupena izan zuen estreinaldiak, 1982ko abenduaren 31ko 23:50ean hasita. Hona hemen egun historiko hartako eta biharamuneko programazioa:

1982ko abenduaren 31:

- 23:50 Probako karta
- 24:00 Hasiera
- 24:03 Lehendakariaren Urteberriko mezua
- 24:10 Dokumentala: Rutas de Euskadi
- 24:22 Marrazki bizidunak: *Espaziozainak*
- 24:45 Telefilma: *Pospoloak saltzen zituen neskatoa*
- 01:10 Amaiera

1983ko urtarrilaren 1a:

- 10:30 Probako karta
- 11:00 Hau da ETB
- 11:40 Marrazki bizidunak: *Ehiza-katuak*
- 12:03 “Euskadi 82”. Urteko balantzea eta mahai-ingurua
- 12:45 Internacional 82
- 13:15 Telefilma: *Herensugearen urtea*
- 13:40 Elkarrizketa EiTbko zuzendari nagusiarekin
- 13:45 Musika. Euskadiko Orkestra eta Bergarako Orfeoia

Programazio sinbolikoa izan zen 1982ko Urtezahar gauekoa. Honela oroitzen du Labaienek berak ere (Azurmendi, 2004: 20):

1982ko Gabon zahar gaueko programazioa sinbolikoa izan zen eta Euskal Herriko leku askotan ikusi ere ez zen egin, baina une aparta izan zen benetan. Saio xumea izan bazen ere, hitza betetzeko eta aurreneko pausoa emateko egina, hunkigarria izan zen, eta irudia asko zaindu genuen.

Ramon Labaienek ongi azpimarratzen duen legez, ordea, ETB ez zen Euskal Herri osora ailegatu. Izan ere, arrazoi teknikoak zirela medio, Donostian, esate baterako, ikus-entzuleen % 30ek bakarrik sintoniza zezakeen telebista-kate berria, eta % 10ek besterik ez Gipuzkoako gainerako eremuetan. Señalea ongi ailegatzen zen, ordea, beste bazter batzuetara; Durangaldera, besteak beste (Diez Unzueta eta Otermin, 2006: 15):

Urte Zaharra izan arren, Durangoko taberna batzuk irekita zeuden, eta zenbaitek Iurretako erredakziora deitu zuten, telebistan señale berria ikusten ari zirela esateko⁷⁵. Batek baino gehiagok argiro ikusi zuen emanaldi berri horrek hautsi egiten

75. Bingen Zupiriak dioskunez (komunikazio pertsonala, 2009ko urria), hiru errepikagailu prestatu ziren señalea EAEko hiru herrialdeetan zabaltzeko: bata Bilbon, bestea Gasteizen eta hirugarrena Donostian. Alabaina, Gasteizkoa matxuratu egin zen eta, horrenbestez, Durangaldean, Bilbo inguruan eta Gipuzkoako zenbait bazterretan baino ez ziren ikusi irudiak.

zuela TVEk urtetan izandako monopolioa, eta euskal ikus-entzuleek, azkenean, bazutela beren aukera propioa, Hamburgen eta Lakuan hilabete gutxi baina emankor batzuetan prestatutako lehen profesionalek sortutako aukera, alegia.

Lanak oraindik amaitzeke zeuden arren, erredakzioa Iurretan zegoen, Diez Unzueta eta Oterminek ondo dioten moduan. Kokapenaren kontuak, hori bai, tira-bira handi samarrak eragin zituen bai EAJren baitan, bai alderdi horren esku zeuden hiru Foru Aldundietan zein Eusko Jaurlaritzan. Egin kontu zenbaitek (Ramon Labaien bera tartean) ETBren egoitza nagusia Donostian gura zutela, telebistak hiribururik euskaldunenean egon behar zuela argudiatuta. Azkenean, ordea, Bizkaiko Diputazioa ibili zen bizkorren: Iurretan lurak erosi eta telebistarentzat zirela iragarri zuen, eta hori egin izanak bere aldera erorarazi zuen balantza⁷⁶.

Esandako moduan, hasierako emanaldi hartan, seinalea ez zen Euskal Herri osora ailegatu, eta urteak behar izan ziren gainera ETB euskal lurralde osoan ikusi ahal izateko. Horrela, Iurretako ETBren egoitza nagusitik bidaltzen zen seinalea, apurka-apurka joan zen Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan hedatzen, eta 1983ko udan iritsi zen EAeko herri guztietara. Nafarroan, berriz, denbora gehiago behar izan zuten seinalea jasotzeko, eta horretarako ezinbestekoa izan zen gizarte-eragileen presioa eta lana. Hala, 1985ean egin zen lehen emisioa San Migel santutegitik, eta orduan hasi zen apurka ETB Nafarroan hedatzen. Egun, aldiz, kontuak aldatu egin dira seinale digitala abian jartzearekin batera. Hona bestela zer irakurri genuen 2009-11-23an *Argiaren Haria* buletin elektronikoa⁷⁷:

Urtarrilaren 10etik aurrera telebista-seinale analogikorik ez dute jasoko Nafarroan. Errepikagailu analogikoak desaktibatu egingo dira. Tira, errepikagailu analogiko legalak. ETBk baditu aparailu alegalak Nafarroan, 1990eko hamarkada hasieratik, eta horiek funtzionatzen jarraituko dute, itzalaldi analogikoa EAera heldu bitartean. Alegia, apirilera arte. Ordura arte ETBren seinalea Nafarroako etxeetara helduko da, baina zer gertatuko da gero? Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak dute azken hitza. Badirudi gaiak luze joko duela. ETB-digitala Nafarroan ikusteko traba tekniko batzuk gainditu behar direla diote bi aldeek. Gainera, Miguel Sanzek esan du ETBk Nafarroaren izaera propioa errespetatu beharra duela. *Diario de Noticias* egunkariak beste eragozpen baten berri eman du. Ez Nafarroako Gobernu ez Eusko Jaurlaritza ez daude ETB ikusteko behar diren milioi bat euroak jartzeko prest. Irailean ikusiko dugu gauzak zertan diren.

76. Herrialdeen arteko tirabirak, dena dela, ez ziren oraindik baretu (orduak dira Lurralde Historikoen Legearen inguruan pizturiko liskarrak ere). Anekdota polita kontatzen du horren harira Ramon Labaienek (Zenbait Egile, 2006): *The Love Boat* teleseriean bizkaieraz berbetan jarri ei zuten itsasontziko tabernari beltza, eta hori ez ei zitzaion batere gustatu orduko Bizkaiko Ahaldu Nagusi Jose Maria Makuari: EAeko lehendakari Garaikoetxeari idatzi ei zion gutuna, sututa, eta Garaikoe-txeak berak, berriz, Labaieni kargu hartu ei zion. Berak auzi horri buruz ezer ez zekiela dio Labaienek.

77. <<http://www.argia.com/albiste/itzalaldi-analogikoa-nafarroan-etb-ikusteko-oztopoak-2>>.

Biharamuneko *Berriaren* edizio digitalak informazio gehiago erantsi zion albiste horri⁷⁸:

Nafarroako Gobernuko bozeramaile Alberto Catalanek atzo adierazi zuen gobernu foralake ez duela inolako ekarpen ekonomikorik egingo Nafarroan ETB LTD bidez ikus dadin. «Euskal Telebistak berak eta Eusko Jaurlaritzak bere garaian azaldu zuten ez zutela nahi ETB Nafarroan jasotzearekin Nafarroako Gobernuak dirurik jartzea», azaldu zuen Catalanek. Halaber, Nafarroako Gobernuak zain dago Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmen bat sinatzeko, «legalki Nafarroan ETB1 eta ETB2 ikus daitezzen». Itzalaldi analogikoa egin duten Nafarroako hegoaldeko herrietan ETBren seinale analogikoa hartzen dute, baina ez dute ETB3 ikusten.

Iparraldeari erreparatuta, azkenik, ezinbestekoa da bi errealitate bereiztea. Izan ere, Lapurdiko kostaldean hasieratik jaso zen ETBren seinalea Jaizkibelgo igorgailuari esker. Ipar Euskal Herriko barnealdean, aldiz, 1998an Frantziako Gobernuarekin sinaturiko hitzarmen baten ostean ikusi ahal izan zuten lehen aldiz Euskal Telebista.

Gainerakoan, isilik egin zuen bidea Euskal Telebistak. Lehentasunak argi markaturik zeuzkan, baina gizarteari begira isilik aritu ziren lanean. Isilik eta presaka, hala azpimarratzen du Labaienek berak (Azurmendi, 2004: 13):

Orduan dena zen hemen presazkoa, larritasun halako bat zegoen. Gaurko zirkuntantzetan, agian, beste era batera egingo ziren gauzak, baina orduan ez genekien noiz arterainokoak izango ginen. Gaur egun gobernuak sinesten du iraungo duela eta gauza formala dela, baina orduan ez genekien zenbat iraungo zuen sistemak. Tartean, besteak beste, 1981eko otsailaren 23ko estatu-kolpe saiakera izan genuen. Nork esan zezakeen ez zela besterik izango? Presa genuen gauzak egiteko eta geneukan diru apurra gatzatzeko. Eta presazkoenetakoa euskarazko telebista martxan jartzea zen.

11.3. LEHEN ALBISTEGIAK ETA PROGRAMAZIOAREN SENDOTZEA

1983ko otsailaren 1eko 21:00etan aireratu zen ETBko lehen albistegia, Elene Lizarralde eta Xabier Zaldia aurkezle zituela. Ordu erdi iraun zuen euskarazko albistegi hark (berez 20 minutukoa behar bazuen ere) eta erantzun ona jaso zuten egindako lanagatik. Horren erakusgarri da Durangora zorion-agur asko ailegatu izana (Diez Unzueta eta Otermin, 2006: 50), «eta baita aholkuren bat edo beste ere. “Hain azkar ez hitz egiteko eskatu digute” —adierazi zuen *Amatiñok*».

Egun historikoa zen hura ere, lehen albistegia izateaz gain, orduan jorraturikoak ez zirelako tokiko albiste soilak, «“Euskal Autonomia Erkidegoari interesatzen zaion guztiaren berri emango dutenak baizik”, *Amatiñok* azaldu zuenez» (Diez Unzueta eta Otermin, 2006: 49). *Amatiñoren* azalpen horien atzean RTVEko

78. <http://paperekoa.berria.info/agenda/2009-11-24/035/007/Nafarroako_Gobernuak_ez_du_dirurik_emango_ETB_LTD_bidez_ikus_dadin.htm>.

orduko zuzendari nagusi Jose Maria Calviñok eragindako polemikari erantzuteko asmoa zegoen, Calviñoren arabera ETB bezalako telebistek tokikoak eta alternatiboak behar baitzuten izan. EAEko mugetatik harago joateko sortua zen, ordea, Euskal Telebista.

Zein hizkuntzatan mintzo zen, baina, telebista hura? Horri dagokionez, Amatiñok oso argi zituen ideiak (Diez Unzueta eta Otermin, 2006: 50):

Euskaraz eta gaztelaniaz informatzeko gai den taldea nahi dugu, gure ustez hau herri elebiduna delako. Funtzionamendua normalizatzen denean, informazioari eskainitako bi programa izango ditugu: bata gaueko bederatzietan, gaztelaniaz, eta bestea hamaiketan, euskaraz.

Bingen Zupiriak ere uste du ETBren asmoa (hasiera-hasieratik gainera) bi hizkuntzak baliatzea izan zela (komunikazio pertsonala, 2009ko urria)⁷⁹, eta gauza bera pentsarazten dute Torrealdaik bildutako lekukotzek ere (1985).

Kontuak kontu, euskarazko lehen filma apirilaren 21ean bota zuten. Apirila izan zen, halaber, lehen programazio finkoa aurkezteko hautaturiko hilabetea: batez ere albistegiak eta haur eta gazteei zuzenduriko saioak ardatz zituen lau orduko programazioa, hain zuzen ere. Egun berean aurkeztu zen ETBko aurreneko ardura-dunen taldea ere: albistegietako buru Luis Alberto Aranberri «Amatiño», ekoizpen-arduradun Iñaki Beobide, programazio-zuzendari Martin Ibarbia eta zuzendari tekniko Eugenio Iriondo.

Zertan zen, bestalde, publizitatea (hain ohikoa egun ezein telebistatan) telebista sortu berri hartan? Zazpi hilabete igaro behar izan ziren Euskal Telebistan lehen iragarkia ikusi ahal izateko. Uztailaren 15a zen, eta, *Gaur Egun* albistegiaren ondoren, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzian aurreztearen onurez hitz egin zien ikus-entzuleei iragarki batek, eta baita kredituak emateko eskaintzen zituzten erraztasunei buruz ere. Hurrengo egunean, berriz, Cafés Baqué-ren iragarkia ikusi ahal izan zen. Garai hartan, iragarkiak behin emateak 90.000 pezeta (540 €) balio zuen audientzia txikiko orduetan. *Prime time*-an, berriz, 150.000 pezetara (900 €) ailega zitekeen tarifa.

Ia urtebete geroago ailegatu zen gaztelaniazko Teleberri albistegiaren lehen emanaldia (euskara eta gaztelania tartekatzen baitzituen hastapen-garaietako ETB hark)⁸⁰; 1983ko abenduaren 19an, hain zuzen ere. David Barbero eta Maria Francisca Fernandez Valles aurkezleena izan zen ardura. Euskalgintzako sektore askok ez zuen begi onez ikusi albistegi sortu berria; EHE taldeak, esate baterako, *ETBn*

79. Hona iritzi hori indartzen duen datu bat: Hanburgora joaniko lagun dezentek ez zekien euskaraz eta ez du harrezkero ikasi.

80. Azpitituluak baliatzen ziren maiz (telesail eta telefilmekin batik bat) emisioan bi hizkuntzen presentzia bermatzeko.

erdararik ez kanpaina eratu zuen albistegi hori abiatu eta gutxira, erantzun modura.

Denboraren poderioz eta bidea eginez, Euskal Telebistaren ikusleak gehitzen joan ziren pixkanaka, nahiz eta garai hartan ez zegoen ikus-entzuleriari buruzko daturik. Telebista berriak bazuen, ordea, oihartzunik gizaratean, eta horrek, ikusledatuei zegokienez behinik behin, baikortasuna eragiten zien ETBko zuzendaritzako kideei. Gainera, zuzendaritzaatik azpimarratzen zenez, Euskal Telebistaren helburua, ikus-entzuleen kopuruaz harago, euskal hizkuntza eta kultura sustatzea zen (Diez Unzueta eta Otermin, 2006: 98):

Onartu beharra daukagu ETB Legean bertan definituta datorren funtsezko arrazoi batengatik existitzen dela: euskal hizkuntza eta kulturaren euskarri izateko. Ikus-entzuleen kuota handitzea ez lortzearen arrazoiak hizkuntzaren muga bada, guk existitzeko daukagun arrazoiari helduko diogu. Ez gaude ikus-entzule gehiago izateko xedeari begira jarrita.

Apurka-apurka, baina, audientzia-datuen morrontzapean sartuko zen ETB ere. Horrela, 1984-1985 telebista-denboraldiaren hasieran EITBko goi-karguek ikus-entzuleen kopuru kuantitatibo nahiz kualitatiboak jakin nahi izan zituzten. 3.000 pertsonaren lagina hartuta Gallup Institutuak eginiko neurketan, Euskal Telebistak EAEko biztanleen artean % 27ko audientzia lortzen zuela ondorioztatu zen. Urte batzuk pasatuko ziren oraindik, ordea, audientziei buruzko kezka bazterretan erabat hedatu eta ia obsesio bihurtu arte (Espainian 1980ko hamarraldiaren amaieran telebista-kate pribatuak sortu izanak eragin zuzena izan zuen fenomeno horretan)⁸¹.

ETBren historiak mugarri ugari izan ditu, beraz, gaur egunera arteko bidea markatu duten mugarriak. Lehen emisioa eta lehen albistegia izan ziren mugarri horietako batzuk, baina baita, besteak beste, *Kirolez Kirok* saioa eta *Goenkale* telesaila ere. Nork ez ditu ezagutzen, izan ere, *Kirolez Kirok* eta *Goenkale*? Une jakinetan eginiko apustu sendoen emaitza dira biak ala biak, urte luzez iraun duten apustuak.

Kirolei dagokienez, Jose Mari Iriondoren zuzendaritzapean egin zen (1983ko ekainaren 5ean, igandearekin) ia azken hiru hamarkadotan kirol-educien euskarazko ispilu izan den *Kirolez Kirok* saioaren lehen emisioa. 11 urte geroago jaio zen

81. Gaur egungo ikus-entzuleriaren datuei gagozkiela, gogora ditzagun liburu honen lehenengo atalean aipaturiko zifrak: CIES etxeak 2009ko maiatzaren 20an ezagutarazitako datuen arabera, 197.000 ikusle ditu ETB1ek (Hegoaldeko ikus-entzuleriaren % 3; jakina, datu horietan euskara dakitenak zein tutik ere ulertzen ez dutenak sartzen dira, eta, hortaz, ehuneko hori askoz altuagoa litzateke soilik euskaldunak aintzat hartuz gero; 2008ko datu metatuetan, berriz, ikus-entzuleriaren % 4,4 ematen dio ETB1i CIESek), eta 626.000 (% 14) ETB2k (Ipar Euskal Herriko ikus-entzuleak gehitu behar zaizkie zifra horiei; ETB2ren kasuan, 2008ko datu metatuetan % 15,1 ematen dio CIESek kate horri).

Goenkale, 1994ko urriaren 4ko 21:02an, astelehenarekin. Euskaraz eginiko fikzioan mugarri (bai aurrekontuari bai emisio-maiztasunari dagokienez, besteak beste), ETBk inoiz izan duen telesailik ezagunena da *Goenkale*.

11.4. ETB2, HIZKUNTZEN ETA INTERESEN ARTEKO BORROKA

1986. urteak jauzi kualitatibo nabarmena ekarri zuen ETBren hasierako egitura⁸², urte horretako maiatzaren 31ko eguerdiko ordu batean Euskal Telebistaren bigarren katea abiatu baitzen, *Il carnavale di Venezia* filmaren emanaldiarekin abiatu ere. Martxan zen, honenbestez, Euskal Telebistaren gaztelaniazko katea. Urrats horrekin bi katetan bereizita geratu zen ETB: ETB1 euskara hutsezko kate bihurtu zen, eta ETB2k, berriz, gaztelania hutsezko bideari ekin zion. ETB beraren sorrera bezalaxe, ETB2rena ere isilean egosi zen, erreakzio politikoen beldur. Pentsa isiltasuna zenbaterainokoa izan zen, ETB1en erreserba-ekipamenduak erabili zituztela sistema teknikoak instalatzeko, ETB1 bera balizko matxuren aurrean erreserba barik utzita (beste datu esanguratsu bat: Jose Maria Gorordo EITBko buruak⁸³ egun bat lehenago eman zien kate berriaren sorreraren albistea EITBko Administrazio Kontseiluko kideei).

Kate berriak ustekabean harrapatu zituen euskal herritarrak. Eta noski, iritzi-eta kritika-zaparrada eragin zuen erabakiak, EITBren eredu-aldaketa baitzekarren kate berriak; gainera, zenbaiten ustez euskararen normalizaziorako oztopo izan zitekeen. Horrela, EITB bertako kideen eta agintarien artean ere eztabaida ugari izan zen gaiaren inguruan, askok uste baitzuten kate berriak kalte egingo ziola euskararen gizarte-erabilerari. Honela oroitzen ditu gorabehera haiek, esaterako, Ramon Labaien Jaurlaritzako Kultura sailburu ohiak (Azurmendi, 2004: 12):

Gure orduko helburu nagusi eta bakarra euskara babestuko zuen euskarazko irrati-telebista sortzea zen, gaztelaniazko katea jartzea burutik pasatu ere egin gabe. Gero sortu ziren, noski, anbizio politikoak eta horrelakoak baina, telebistaren sorreran, euskara babestea izan zen lehentasuna, eta kalean ere oso zabalduta zegoen behar hura euskaltzaleen artean.

Kritikak kritika, ETB2ren jaiotza mugarri izan zen EITBren etorkizunean. Harrezkero kate bakoitzak bere bidea egiten jarraitu du: ETB1en albistegiak, erositako film onenen lehen emanaldiak, futbol-partidak eta haurrentzako programak eskaintzen zentratu ziren. ETB2, aldiz, osagarri gisara sortu zen hastapenetan, eta, urte batzuk igarotakoan, albistegiak garatu ziren bertan.

82. Bingen Zupiriaren arabera (komunikazio pertsonala, 2009ko urria), orduan abiatzen da EITBren historiako bigarren aldia, zeinak, ETB2ren sorreraz gain, beste osagai nagusi hauek dituen: entretenimenduaren aldeko apustua (Miramon), lehen korrespontsalien eraketa (Brusela, Madril, Paris, Bilbo...), uhin bidezko komunikazioa (RXak) abian jarri izana, nazioarteko emanaldiak eta Interneten ailegaera.

83. Urtebete lehenago jarri zuten Gorordo kargu horretan, EAJ zatitu eta gero.

11.5. ETORKIZUNEKO ERRONKA: DIGITALIZAZIOA

Sorrera-garaiak urrun geratzen dira, ordea, eta alderdi tekniko-teknologikoak aurrerapen itzela izan du ordutik gaur egunera bitarte. Hori dela-eta, aurrerabide horrek berarekin ekarritako erronkei taxuz aurre egiteko asmoz, EITBk digitalizazioa izan du azken urteetako helburu eta ipar nagusi. Bilboko Erakustazoka Barakaldoko BECera lekualdatu behar zela aprobetxatuta, EITBko arduradunek irrati-telebista publikoaren egoitza nagusia Erakustazokaren ordura arteko kokalekuan jartzeko aukera aztertu zuten; izan ere, mende berriak digitalizazioa zuen ezaugarri nagusi eta, hori horrela izanik, uste zuten kokagune berri hark egoitza erabat digital batean sartzeko aukera emango ziela (Diez Unzueta eta Otermin, 2006: 254):

Mende berria hastera zihoan eta, horrekin batera, EITBren aro berria⁸⁴. Egin beharrekoa oso argia zen: lehen postuetan egongo zen komunikazio-talde publiko euskaldun multimedia bat osatzea (...). Plana, gainera 2007. urteari begira zegoen, hain zuzen ere orduan emango baitzuen erakundeak agertoki digital berrirako jauzia. Horregatik, EITB digitalizatzeko beharrezko inbertsioak ere aurreikusten ziren.

2000. urtean, bestalde, EITBko goi-karguak etorkizuneko estrategia garatzen ari ziren bitartean eta etxeak 18 urte betetzen zituela ospatuz, logotipo berritua aurkeztu zuten erakundeko arduradunek. Euskalcom enpresak egina, EITBren lehen logotipoarekin harremana mantentzea zuen helburu, baina irudi berritzailea eskainita.

Programazioa ere asko aldatu eta aberastu da EITBren ibilbidean. Horrela, ETB1ek, betiko espiritua mantenduz baina berrikuntzez horniturik, haurrentzako programazioa, albistegien aitzindaritzza eta entretenimendua izan ditu ildo nagusi. Albistegien sendotze horren erakusle da, esate baterako, urteak igaro ahala ETBren presentzia nabarmen areagotu izana munduko lekuri esanguratsuenetan. Haatik, albistegiez ari garela, ETBn erdarazkoak lehenesten ez ote diren, hori da behin baino gehiagotan haizatu den kexua; hainbat adibide jarri izan dira gainera kexu hori arrazoitzeko: dela albistegi bakoitzaren iraupen desberdina (gaztelaniazkoak luzeagoak dira oro har), dela garrantzizko zerbait jazotakoan kate bateko zein beste albistegietan jarritako baliabideen arteko aldea...⁸⁵.

Bestelakoan, euskarri berrien sorrera ere baliatu du ETBk. Azpimarratzekoa da, horri gagozkiola, EITBnet elkartearen sorrerarekin taldeak bere lekua egin duela Interneten, euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez nahiz ingelesez egin ere. Horren ispilu da www.eitb.com ataria.

84. Iritzi berekoa da Bingen Zupiria ere. Beraren ustez (komunikazio pertsonala, 2009ko urria), digitalizazioak eta egoitza berriak markatzen dute hirugarren aro hau, baina baita beste ezaugarri hauek ere: taldearen indarrak, emaitzen garrantziak, kudeaketak (lidergoa eta kalitatea ardatz nagusi direla) eta, azkenik, informazioan lider eta entretenimenduan erreferente izateak.

85. 2001eko irailaren 11ko eraso jazo zenean, barbarako, gai horren zuzeneko jarraipena egin zuten ETB2n, arratsalde osoan egin ere. Gaiaren berri euskaraz jaso gura izan zuenak, ordea, ez zuten horretarako aukerarik eduki harik eta ordu batzuk igaro arte.

DIGIBat proiektuari jarraiki, bestalde, taldearen egoitzak berritzeko lanak ere abian jarri ziren. Baionako eta Iruñeko egoitzak izan ziren lehenak, eta Miramongoa ondoren. EITBren Bilboko egoitza nagusiaren eraikitze-lanak izan ziren, ordea, esanguratsuenak. 2007an bertan lanean hastea izan zuten helburu, eta lortu ere lortu zuten. Modu horretan, ordura arte lau egoitzatan banaturik zeuden hedabideak (irratia, telebista eta Interneteko ataria) Bilboko egoitza nagusian bateratzea lortu zuten⁸⁶. Aro baten amaiera izan zen, beraz, 2007a: EITBren 25. urteurrena ospatzearekin batera, aro digitala abiarazi zuen taldeak, eta, bertako arduradunek ziotenez, hastapen-garaietako helburuei eutsiz betiere (Diez Unzueta eta Otermin, 2006: 260):

Edonola ere, sortu zenean finkatutako helburu berberak izaten jarraituko du EITBk: Euskara normalizatzea, ikus-entzunezko sektorea eta berezko produkzioa sustatzea, albistegietan aitzindari izatea eta euskaldun guztiei, euskarri guztien bidez, dauden lekuan daudela, zerbitzua ematea.

EITBren garapenaz ari garela, ezin ETB3 katea ere ahantzi. Itzalaldi analogikoaren ondorioz sorturiko katea da hau. Izan ere, seinale digitalera pasatzearekin batera, multiplex digital bat dagokio telebista bakoitzari, eta lau katerentzako lekua dago multiplex bakoitzean. Lehendik zeuden ETB1 eta ETB2z gain, beraz, beste kate bi pentsatu, diseinatu eta martxan jarri beharrean izan ziren EITBko ardura-dunak, teknologiak zabalduetako esparru berria betetze aldera.

ETB3 katea 2008ko urriaren 10ean abiatu zen, euskara hutsez aritzeko xedearekin. Lurreko Telebista Digitalean edota Euskaltelen kable bidez ikus daiteke egun; hiru marka ditu ardatz nagusizat ETBren euskarazko bigarren kateak: *Betizu*, *Gaztea* eta *EITB Kultura*. ETB4 katea zen, azkenik, multiplexa bete behar zuen laugarren katea. 2009ko azaroan zen emititzen hastekoa. Informazioari garrantzi berezia emango zion kate eleanitza izango zela esan zen hasiera batean, euskaraz eta gaztelaniaz aritzeaz gain frantsesa eta ingelesa ere txertatuko zirela haren jardunean. Haatik, krisi ekonomikoak etxea sosez urri utzi zuela-eta, EITBren zuzendaritza berriak ETB4ren egitasmoa oraingoz bertan behera uztea hobetsi zuen 2009ko udazkenean⁸⁷.

Telebista-kateei dagokienez, Ameriketako diasporari begira erdara hutsez diharduen Canal Vascok eta Europara begira euskaraz zein gaztelaniaz ari den

86. Urtebete geroago (2008ko abenduaren 31ko goizean), ETAk bonba-furgoneta zartarazi zuen eraikin horren kontra eta kalte material handiak eragin zituen.

87. Alberto Surio EITBko zuzendari nagusi berriaren arabera, etxe horrek 5,5 milioi euro gutxiago jaso zituen 2009an, aurrekontuetan izaniko murrizketak tarteko; Suriok, horrez gain, EITBk hurrengo ekitaldian 7,5 milioi gutxiago jasoko zituela ere iragarri zuen, krisiak publizitateari bete-betean eragin izanaren poderioz. Kontuak kontu, ETB4ri emaniko ezezkoa behin-behinekoa dela ere esan zuen, kate horri buruzko behin betiko erabakia EITBko eta Jaurlaritzako ordezkariak biltzen dituen kontratu-programaren jarraipen-batzordearen esku dagoela gaineratzeaz batera.

ETBSat-ek osatzen dute EITB taldea (batak zein besteak EITBren beste kateetako produktuak bota ohi dituzte).

11.6. EUSKADI IRRATIA: TELEBISTARI AURREA HARTUZ

Telebista gora eta telebista behera ari gara, baina EITBren historian ETBren sorrera baino lehenagokoa da Euskadi Irratiarena. Irratian euskara entzutea, hori bai, askoz ohikoagoa zen euskal herritarrentzat, eta, horregatik ziurrenik, Euskadi Irratiaren jaiotzak ez zuen Euskal Telebistaren sorrerak eragindakoaren pareko oihartzunik izan gizartean. 1982ko azaroaren 21ean aireratu zen Euskadi Irratia Donostian, Jose Mari Oterminen zuzendaritzapean. Irratian euskarazko erreferentziak izan bazituzten arren, ez zen bide erraza izan, ordura arte landu gabeko ildoak jorratzea apustu itzela baitzen. Honela azaltzen du kontua Jose Mari Otermin garai hartako Euskadi Irratiko zuzendariak (Azurmendi, 2004: 36):

Euskarazko irratiak formatu batzuetan bazuen eskarmentua, baina beste batzuetan ez. Informazioa goitik behera euskaraz lantzen, esaterako, ez genekien, eta kiroletan ere antzeko zerbait gertatzen zen. Hemengo kirolak ematen ziren euskaraz, baina futbola edota txirrindularitza ez. Entzuleak ere ez zeuden dena euskaraz entzutera ohituta. Profesionalen aldetik, berriz, ez genuen arazo handirik izan. Ondo prestatutako jendea zegoen, aurretik ere euskaraz lan egindakoa. Kezkak bagenituen, noski, baina baita abantaila handiak ere telebistaren aldean. Zortzi orduko programazioarekin hasi ginen, eta ametsetan ere ez zitzaigun orduan okurritzen 24 orduz emititzeko gauza izango ginenik.

1982ko azaroaren 21ean abiatu zuten, beraz, zuzenekoan ibilbidea; Donostiako Andia kaleko 13. zenbakiko estudioetatik ekin zion lanari Euskadi Irratia jaioberri hark. Gipuzkoako tokiko irratiek (Segura Irratiak eta Arrate Irratiak batik bat) bazuten esperientziarik euskarazko irratigintzan, baita Herri Irratiaren sarekoek ere (Bilbo, Loiola zein Donostiakoek nagusiki), eta horrek bidea nabarmen erraztu zion euskararen lurralde guztian jarduteko asmoa zeukan Euskadi Irratiari⁸⁸: alde batetik, jendea dagoeneko ohituta zegoen irratia euskaraz entzutera, eta, bestetik, baziren euskaraz jarduteko bezainbat esperientzia zuten profesionalak (arestian aipaturiko irratietan zihardutenak).

Hastapen gehienak bezalaxe, ordea, Euskadi Irratiaren hasiera ere ez zen xamurra izan. Presiopean jardun beharrak eta lanean topaturiko oztupoek ez zuten bidea erraztu, bistan denez (Diez Unzueta eta Otermin, 2006: 70):

1982ko abenduaren bukaera baino lehen hasi beharra zeukan emititzen —Otermin kaleratua izango zen epe hori betetzen ez bazuen—, eta eskakizun burokratikoiei

88. Hori horrela izanik (euskararen lurralde guztian jardutearena), harrigarri samarra da urtebete lehenagotik (1981eko Gabonetatik) euskara hutsez ziharduen Lapurdiko Gure Irratiari gehiago begiratu ez izana, ezta 1982an sorturiko Irulegiko Irratiari eta Xiberoko Botzari ere.

lotutako oztopoak izan zituen proiektuan aurrera egiteko. Sortuberria zen euskal administrazioak, lagundu baino gehiago, eragotzi egiten zuen martxan zeuden komunikazio-proiektuen garapena.

Telebistaren sorreraren aldean, baina, lasaiagoa izan zen irratia jaiotza, Ramon Labaien aburuz (Azurmendi, 2004: 22):

Irratiak eta telebistak helburu berbera zuten, euskara babestea, eta ente berekoak ziren, baina irratia abian jartzea telebista sortzea baino askoz ere errazagoa izan zen. Lehenik eta behin, euskarazko irratigintzan bazegoen eskarmentua, Herri Irratiaren inguruan batik bat, eta, hortaz, ondo prestatutako profesionalak ere bazeuden. Teknikoki ez zen horren konplikatu, eta hizkuntzaren inguruko auzia bi kate desberdin sortuta konpondu genuen. Hor bai, hor kontzesio bat egin genuen. Irratiaren sorrera askoz ere erlaxatuagoa izan zen, dena den.

Gorabeherak gorabehera, abiatu zen azkenean Euskadi Irratia, eta bide oparoa egin du ordudanik, euskarazko irratigintzan erreferente bihurtzeraino. Andia kaleko 13. ataria utzita, Donostiako Larramendi kalea izan zuen hurrengo egoitza. 1996an iritsi zen, baina, aldaketa nagusia, irratia EITBren Miramongo egoitzara lekualdatu baitzuten. Gaur egun ere bertan dauka egoitza nagusia Euskadi Irratiak, eta ordezkariak ditu Euskal Herriko hiri nagusietan. Sorreraz geroztik, lau zuzendarik gidatu dute Euskadi Irratia: Jose Mari Oterminek, Julian Belokik, Odile Kruzetak eta gaur egun zeregin horretan diharduen Rosa Diez Urrestarazuk.

11.7. EUSKADI GAZTEA, RADIO EUSKADI, EITB IRRATIA ETA RADIO VITORIA: TALDEA OSATUZ

Orain arte aipaturiko hedabideez gain, EITBk beste irradi hauek ere sortu edota bere baitan integratu eta garatu ditu: Radio Euskadi, Radio Vitoria, Gaztea (Euskadi Gaztea, sorreran) eta EITB Irratia.

Radio Euskadi 1983ko martxoan hasi zen emititzen Bilbotik, eta 1936ko Gerraren ostean sorturiko Radio Euzkadiren ildoari eutsi zion, hasieran ele bitan (baina euskara beti egoera diglosikoan zela) eta 1986tik aurrera (ETB2 sortzarekin batera) gaztelania hutsez.

Radio Vitoria, aldiz, dagoeneko ezagun zaigu liburu honetan, Arabako egunerokotasunean zazpi hamarkadako ibilbidea egina baitzuen 1983an EITBn sartu zenerako. Euskal Autonomia Erkidegoko irratigintza publiko berria eraikitzeko prozesua orduantxe eman zuten amaitutzat; alegia, Radio Vitoria izan zela talde horretan sartzen azkena, eta, hortaz, prozesua osatu zuena (Gaztea eta EITB Irratia geroago sortu zituzten, baina taldearen barruan jaio ziren). Euskarak ia ez dauka presentziarik irradi horretan.

Gaztea (Euskadi Gaztea, sortu zenean), berriz, 1990ean jaio zen, irrati-formula ereduari jarraiki jaio ere, eta, hizkuntzari gagozkiola, honako hau izan zen hasierako planteamendua: euskaraz Gipuzkoa alderako eta gaztelaniaz Bizkai-Arabei begira. 1995ean, alabaina, gaztelaniazko adarra kendu zuten eta egun soilik euskarazkoak dihardu.

EITB Irratia izan da talde horretan sortu den azken irratia, 2001ean. Musika du oinarrian (euskal taldeen ekoizpenek presentzia handia daukate: euskal sortzaileriek eurek aurkeztu ohi dituzte euren kantuak, euskaraz maizenik) eta tarteka eguraldiari edo trafikoiari buruzko bristadak ere sartzen dituzte, euskaraz batzuetan eta gaztelaniaz hurrena.

Zertan dira euskaraz diharduten irratiok gaur egun? Zein da euren osasuna? Kuantifikazioaren eta dena neurtu beharraren sukarrak bazterrak oro blaitu dituen honetan, EITB taldeko irratiak sasoiko daudela esan daiteke. Egin kontu CIES etxeak 2009ko maiatzaren 20an ezagutarazitako datuen arabera (09ko lehen olatua, beraz) EITB taldeko euskarazko irratiak ia 200.000 entzule zituztela astelehenetik igandera Nafarroan eta EAEn (Ipar Euskal Herriko entzuleak zenbatu barik, beraz): 95.000 Euskadi Irratiak eta 91.000 Euskadi Gazteak. Horiez landa, EITB Irratiari 18.000 entzule eman zizkieten⁸⁹.

Euren seinalea Euskal Herri guztian (edota, Radio Vitoriaren kasuan, herrialde bakarrean) zabaltzen duten hedabideak bazter utzita, pausa dezagun orain begirada EITB taldea sortu eta urte batzuk geroago izaniko beste eztanda txiki batean; izan ere, euretako bakoitzarena askoz eragin-eremu mugatuagoa izan arren, mugimendu global modura hartuta tokiko hedabideek funtsezko zeregina betetzen baitute euskararen normalizazio-prozesuan 1980ko hamarraldiaren amaieraz gerortik; hedabide horien sorrera-prozesuari eta ondorengo bilakaerari erreparatzeko garaia dugu, honenbestez.

ATALEAN BALIATURIKO ITURRIAK

- Amezaga, J.; Arana, E. eta Azpillaga, P. (2010): *Hedabideak euskaraz*, EHU, Leioa, (argitaratzeaz).
- Arbelbide, X. (2002): *Maitte Barnetxe (1941-1986)*, Bidegileak bilduma, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.
- Azurmendi, N. (2004): *Ramon Labaien. Euskal telebista, hutsean sortua*, Andoingo Udala, Andoain.
- Basterretxea, J. I. (1997): “Telebistak 25 urte Hego Euskal Herrian”, *Jaki*, **98**, 11-20.

89. CIESen inkesta horretako datuek 243.000 entzule eman zizkieten Radio Euskadiri eta 32.000 Radio Vitoriari (astelehenetik igandera betiere).

- Diez Unzueta, J. R. eta Otermin, J. M. (2006): *EITB 1982-2007. Hegaldi-kronika*, EITB, Donostia.
- Torrealdai, J. M. (1985): *Euskal Telebista eta euskara*, Elkar, Donostia.
- Ubeda, J.A. (2008): *Jose Mari Iriondo. Euskal kulturaren komunikatzaile*, Andoaingo Udala, Andoain.
- Zenbait egile (2006): *Gu gara euskal prentsa. Hautu baten kronika 1976/2006*, [DVD], Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.

12. Tokiko prentsaren eztanda

Esango nuke lehenbizikoz dihardugula behar besteko giza baliabideekin eta baliabide teknikoekin lanean eta euskarak aurrea hartu diola gaztelerari munduan ematen ari diren esperientziak geureganatzeko orduan. Orain arte hau ez zen horrela gertatzen.

Euskarazko tokiko prentsaz mintzo da Joxe Felix Diaz de Tuesta *Arrasate Press* aldizkariko kidea (Torrealdai, 1992: 52-53). Izan ere, sarritan gertatu ez bezala, tokiko prentsaren alorrean, euskarak aurrea hartu zien 1980ko hamarkadaren amaieran mugakide dituen gainerako hizkuntzei.

Egoera zehatz baten existentzia izan zen, ordea, euskarazko tokiko prentsaren eztanda sorrarazi zuena. Testuinguru konkretua bizi zuen idatzizko prentsak 1980ko hamarraldian zehar Euskal Herrian, eta faktore horiek ahalbidetu zuten, hain zuzen ere, tokiko prentsaren eztanda gertatzea. Bost faktore nabarmen daitezke (Arrieta, 2004: 2-3):

1. Aurrerapen teknologikoak: autoedizioa ahalbidetuko zuen teknologia sortu zen 80ko hamarkadaren erdialdera. Eta ordenagailu berezituak etorri ziren.
2. Euskara batuaren egonkortasuna: 1989an euskara batuaren erabilera zabala eta ohikoa zen zenbait arlotan; bereziki hezkuntzan eta administrazioan. Komunikabideetan ere lekua egiten hasi zen.
3. Euskara elkarteak: 80ko hamarkadaren erdialdera Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) sortu zen Arrasaten. Taldearen helburua zen euskararen normalizazioa lortzea Arrasaten. Eta sorrerako lehen urteetan hizkuntzarekiko kontzientziazioa bultzatu zuten. Arrasatekoa izan zen euskarari bultzada emateko sorturiko lehen elkarteak. Eta beste herri askotan ere fenomeno bera abiatu zuten urte gutxian.
4. Instituzio publikoek euskararekiko jarrera irekia: Frankismoa eta gero sorturiko instituzio publikoek euskara eta euskal kulturarekiko jarrera irekia erakutsi zuten. Esaterako, garai hartan Arrasateko alkate Xabier Zubizarreta zen, HBkoa. Udaleko ordezkari zabalak euskaltzalea izateak lana erraztu zuen euskal aldizkari bat sortzeko garaian.
5. Euskal kazetari berriak: 80ko hamarkadan kazetari berrien belaunaldiak sortu ziren. Eta belaunaldi horiek izango ziren euskal komunikabideetan lan egingo zutenak: bertako kazetariak bertako komunikabideetan.

Faktore horiek sustatu zuten, beraz, euskara-elkarteen sorrera, eta horien baitan, euskarazko tokiko hedabideen garapena. Baina, tokiko prentsez mintzo, zeri egiten zaio erreferentzia? Zer esparru hartzen eta jorratzen ditu tokiko prentsak? Hara Miguel Angel Elkoroberezibarrek nola definitzen duen tokiko prentsa (*Jakin*, 1992: 11):

Nazio edota probintzi mailako prentsak betetzen ez duen hutsunea eta eskaintzen ez dituen aukerak hartzen ditu prentsa lokalak bere gain, hau da, herri eta eskualdeko informazioa zuzenki eta era sakonean plazaratzen du, egunkarietako herriko kartaren espazioa murrizta bait da, eta arlo guztietako pertsonaiek zein gaiak, denak herriari lotuak, dute lekua errebista hauetan.

Testuinguruak bidea erraztu bazuen ere, ez zen erraza izan euskarak tokiko prentsan bere lekua egin ahal izateko urraturiko bidea. Alderantziz, nekeza eta malkartsua izan zen ibilbidea. Izan ere, «makina bat traba gainditu behar izaten da horrelako proiektuak aurrera eramateko, eta normalean buruhauste handienak sortzen dituen zoriarekin diruaren arazoa izaten da» (Elkoroberezibar, 1992: 12).

12.1. ARRASATE PRESS, BIDE GILE

Euskara-elkarteen sorreran Arrasateko AED elkarte aitzindari izan bazen, gauza bertsua gertatu zen *Arrasate Press* aldizkariarekin ere euskarazko tokiko prentsa-aren eremuan. Izan ere, euskara hutsean modu profesionalean idatzitako aurreneko herri-aldizkaria izan zen⁹⁰, eta gerora beste hainbatek berau hartu zuten eredu euren proiektu propioak gauzatzeko. Bidegile izatearen lana aitortu behar zaio, beraz, *Arrasate Press* astekariari, eta, horregatik hain zuzen, ezinbestekoa da begiradaxo bat botatzea haren sorrerari eta garapenari.

90. Lehenagokoa da *Tipi-Ttapa* aldizkaria (1981eko neguan atera zuten lehen zenbakia, eta nagusiki Bortzirietan banatu ziren beronen 400 aleak), baina hura ez zen profesionala —ez lehen urteetan behintzat—, eta, Jose Manuel Irigoien beronen sustatzaileetako batek dioenez (1992: 103), nafar kazeta, hiruhilabetekari modura abiatzeaz gain, «ez zen kultur elkarte edo beste inolako erakunderen babespean sortu». Hona zertzuk argibide gehiago damaizkigun Irigoienek *Tipi-Ttaparen* lehen urte haiei buruz (1992: 104): «Ideiaren bultzatzailea, hamar bat pertsonen osatutako lagun-talde bat izan zen. Geroago, talde honek *Tipi-Ttapa* izena eramanen zuen Kultur Elkarte sortuko zuen, 1984ean zehazki. Euskara bultzatzeko lagungarri lekiokkeen ekimena aitzinera eramatea zen taldearen helburua, eta ekimen hori, aldizkari baten argitaratzean gorpuztu zen. Beraz, hasiera-hasieran hizkuntza bultzatzea izan zen soil-soilik aldizkaria argitaratzearen justifikazioa. Aldizkariaren edukina eta aldizkaria nagusiki informazio-esparruko izatea ez zen garbiki planteatu beranduago arte». Apurka-apurka, hori bai, kontu lokaletan zentratzen, eragin-eremua zabaltzen (Malerreka, Baztan eta Leitzaldera arte) eta botaldia handitzen joan ziren, baina borondatezko lan hutsean oinarrituta jarraitzen zuten, horrek dauzkan muga guztiekin. Hori dela-eta, Irigoienek mugari argi bat nabarmentzen du (1992: 104): «1989ko udazkenean eta *Arrasate Press*-en esperientzia hurbilagoetik ezagututakoan, aldizkariaren egitura osoa goitik behera birplanteatu eginen da eta emaitza gaur eguneko hamaboskaria izanen da».

1988ko abenduaren 2an jaio zen *Arrasate Press*, lau laguneko talde baten ideiatik jaio ere. Aipatu berri dugun garaiko testuingurua eta aldeko faktoreak profitatuz, Joxe Aranzabal erredaktoreburu zela arrakasta erdietsi zuen Arrasateko astekariak, ordura arteko errealitatea iraultzea lortu baitzuen. Izan ere, ordura arte, nekeza zen euskaraz landuriko aldizkariak arrakasta lortzea: salmenta urriak zituzten eta irakurle gutxiengana heltzen ziren. Hona hemen, esandakoaren indargarri, 1989an Arrasaten irakurtzen zen euskarazko prentsaren erradiografia (Arrieta, 2004: 3):

Aldizkaria	Saldutako ale kopurua
<i>Argia</i>	143
<i>Ipurbeltz</i>	148
<i>Aizu!</i>	65
<i>Jakin</i>	58
<i>Elhuyar</i>	55

Datu horiek gogoan, filosofia jakin bati erantzunez jaio zen *Arrasate Press*. Herritarren beharrak izan gura zituzten abiapuntu, herritarrek beste era bateko aldizkariak behar zituztela iritzi baitzion lau laguneko talde sortzaile hark (Arrieta, 2004: 3).

Orduko euskarazko prentsak literatura, euskara edota zientzia bezalako gai landuak zituen hizpide, era konplexuan gainera. Eta, ondorioz, gizartearen gutxiengo bati zuzendutako aldizkariak ziren. Laukotea konturatu zen herritar orori zuzendutako euskarazko aldizkariak falta zirela. Gai landuegi, konplexu eta intelektualak alde batera utziz, egunerokotasunean oinarritutako informazioa jorratzea interesgarria iruditu zitzairen. Euren asmoa euskara sustatzea zen, eta aldizkari bat jardun horretarako baliabide egokia iruditu zitzairen. Horretarako, baina, euskal prentsa tradizionaletik urrundu beharra ikusi zuten: gai barietatea eskainiz eta testu errazak sortuz. Euskara sustatzeko tokiko prentsaren formula egokia iruditu zitzairen. Izan ere, era honetako aldizkariak hurbileko eta eguneroko gaiak lantzea ahalbidetzen zuen, era ulerterraz batean.

Nola hornitu diruz, ordea, gisa horretako proiektu bat? Nafarroako Erriberan, Tuteran zehazki, topatu zuten irtenbidea: publizitatea. *La Ribera Navarra* gaztelania hutsezko Tuterako tokiko aldizkaria izan zuten eredu, eta aldizkarian iragarriak txertatzearen bideari ekin zioten. Gorabehera handiak izan ditzakeen publizitateaz gain, baina, egonkortasuna lortzeko, erakunde publikoen babesaren lortzen ere ahalegindu ziren: Eusko Jaurlaritzaren eta Arrasateko Udalaren atak jo zituzten. Baiezko erantzuna jaso zuten bietan. Baita herriko denda eta merkataritzaguneetan ere, publizitate-salmentak erantzun positiboak jaso baitzuen. Diru-iturri horiei esker, kazetari profesionalak kontratatzea lortu zuten, eta, horrenbestez, hasieran helburu zuten astekari profesionala errealitate bihurtu zen. Are gehiago,

aldizkariaren kudeaketa Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) elkartearen esku utzi zuten, egitasmoari sinesgarritasun handiagoa emateko asmoz.

Sortzaileek, erakundeek eta merkataritza-guneek ez ezik, herritarrek ere begi onez ikusi zuten *Arrasate Pressen* proiektua. Arrietak emaniko datuen arabera, lehenengo zenbakia Arrasateko 1.700 etxetan banatu zen doan (2004: 4):

Herritarrek sekulako sorpresa hartu zuten, inork ez zuen eta herriko aldizkari bat espero. Izan ere, lau laguneko taldeak erdi-ekzutuan eraman zuen aurrera proiektua.

Ezusteko polita izan zuten herritarrek *Arrasate Press*-ekin. Bi urteren buruan astekariaren irakurleek nabarmen egin zuten gora. Adibidez, 1990ean 7.000 ale banatzen ziren. Ale guzti horiek Arrasaten ez ezik, inguruko herrietan, Espainian, Katalunian eta munduko hainbat txokotan banatzen ziren posta bidez.

Hedadura eta zabaltze-prozesu itzela izan zuen, beraz, Arrasaten jaiotako tokiko aldizkariaren egitasmoak. Gakoa, honako hau: aldizkarian ateratzen ziren protagonistak hurbilekoak, bertakoak izatea (Arrieta, 2004: 7):

Jende ezaguna prentsan agertzea edota albisteen protagonista izateak artikulua edo albistea irakurtzera bultzatzen baititu herritarrak. Joxe Aranzabalek kontatzen du, nola euskaraz ez zekiten herritarrek ere jotzen zuten astekarira, esaterako, euren familiartekoren bat ezkontzen zenean argazkia astekarian jartzeko eskatzera. Hasieran harrituta geratzen omen ziren, baina ohartu ziren hain hurbileko informazioa eskaintzeak euskaraz irakurtzera ere bultzatzen zituela herritarrak.

Arrasate Press aldizkariak abiatutako ildoari esker, euskarazko tokiko prentsak apurka-apurka bidea egin zuen, bata bestearen laguntzaz eta inertziaz ziurrenik. Iritzi horretakoa da Estepan Plazaola *Berrigara* Bergarako aldizkariko kide ohia (Torrealdai, 1992: 53-54):

Fenomeno berria dela. *Arrasate Press* izan zen fenomeno honen aitzindari eta bere inguruan, edo haren eraginez, sortu dira eta sortzen ari dira aldizkari berriak edota birmoldatzen ari dira lehendik zeuden batzuk. (...) Arrasateko esperientzia ondo ateratzea oso inportantea izan da. Esperientzia batek leku batean arrakasta lortzen duenean beste lekuetan gauzak errazago egiten dira.

Baiki, domino-efektua begi-bistakoa izan zen: 1992ko urtarrilean, 72 tokiko argitalpen zeuden Euskal Herrian, euskaraz nahiz erdaraz. Aldizkari horietatik 38 Gipuzkoan kaleratzen ziren, 16 Bizkaian, 3 Araban, 7 Nafarroan eta 8 Ipar Euskal Herriko herrialdeetan (Elkoroberezibar, 1992: 13). Eta 72 aldizkari horietatik ia erdiak (% 48) txertatzen zuen euskara bere orrialdeetan. Hona hemen Elkoroberezibarrek bilduriko datuak (*Jakin*, 1992: 14):

	Gipuzkoa	Bizkaia	Araba	Nafarroa	Iparraldea	Guztira
Aldizkariak	38	16	3	7	8	72
Euskaraz	23	9	0	3	0	35

Tokiko prentsak euskararen erabilera eta sustapena bultzatzeko ideia, beraz, fruituak ematen ari zen 1992an (Elkoroberezibar, 1992: 14-15):

Euskararen presentzia nabarmena da azken urteotan prentsa lokalean, eta esan daiteke azken hiru urteotan agertu diren errebista ia guztiek euskara erabiltzen dutela euren orrialdeetan, proportzio handiago edo txikiagoan. Gipuzkoan, esaterako, argitaratzen diren aldizkarien % 100ak euskara dauka (% 60 euskara hutsez, % 36 euskaraz eta gazteleraz, eta % 2 euskaraz, gazteleraz eta frantsesez).

Erakunde publikoek ere (eskualde mailako erakundeek eta udalek, bereziki), bestalde, euskarazko tokiko prentsaren aldeko apustua egin zuten une historiko hartan. Izan ere, euskara hutsezko aldizkariak nahiz euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzen zirenak ziren 1990eko hamarraldiaren hastapenetan diru-laguntzak jasotzen zituzten bakarrak (Elkoroberezibar, 1992:15): «Bide askoren artean diru-laguntza hau euskararen normalizaziorako une honetan Euskal Herrian daramagun politikan kokatu beharko genuke, eta hortik akaso gaur egungo aldizkarien ugaltzea».

Publizitatearen ataka ere zabaltzeko gai izan zen, ordea, euskarazko tokiko prentsa. Ordura arte ia jorratu gabeko bidezidorra zen publizitatearena, eta tokiko kazeta haiekin esperimentu gisa hasitakoak erantzun ona jaso zuen merkatarien aldetik (Elkoroberezibar, 1992: 16):

Prentsa lokalak inoiz publizitaterik egin ez duten merkatariak jarri ditu publizitatea egiten. Euskaraz publizitaterik ezin zitekeela lortu uste zenean, urtebetean bide horretatik hogeitaka milioi lortu dituen astekaririk sortu zaigu, eta badira banaka batzuk diru-iturri nagusizat dutenak. Euskarak ere saltzen du, nahiz eta orain arte euskara baztertuta egon den publizitatearen munduan.

Funtsean, doako tokiko prentsaren aldeko hautua ekarri zuen diru-laguntzen eta publizitatearen sistemak. Izan ere, doakoa behar zuen tokiko prentsak, askoren iritziz. Hona zer zioen horri buruz Elkoroberezibarrek testuinguru konkretu hartan (1992: 26):

Britainia Haundiko *Association of Free Newspapers*-ek zera zioen: 'Etorbizuna doan da', etxeko buzoietara dohainik bidaltzen dizkigutelako argitalpenak, sistemarik egokiena izanik. Doan izango da etorkizuna, baina egunerokoak nahikoa lan ematen digu.

Ikuspegi-aldaketa ere gertatu zen, militantziak militantziarentzat eginiko prentsa izatetik, edonorentzako irakurgai izatera igaro baitzen euskarazko tokiko prentsa. Honela laburtzen du aldaketa hori Jose Felix Diaz de Tuesta *Arrasate Presseko* kideak (Torrealdai, 1992: 52):

Orain arteko euskal prentsa (...) euskararen aldeko militantziak eragindakoa eta betiko euskaltzaleei zuzendutakoa. Oraingo prentsa lokalean ikuspegi hori aldatu egin da eta helburua ez da betiko euskaltzaleek irakurtzea, baizik eta sekula euskaraz irakurri ez duen jendearentzat produktu on eta erakargarri bat egitea.

Gauza batek bestea zekarren: faktore bat edo bestea zirela medio, jendea euskaraz gehiago irakurtzen hasi zen. Hona zer zioen, esate baterako, Jose Manuel Irigoien *Ttipa-Ttipako* ordezkariak *Jakin* aldizkariak argitaraturiko mahai-inguruan (Torrealdai, 1992: 52): «Batetik, doan banatzen da eta honek aldaketa nagusi bat eragin du. Honi esker, euskal prentsak oraintsu arte zuen zabalkunde urriaren arazoa gainditzea eta esparru zabalagoetara iristea lortu da». Kazeta haiek irakurtzea ohitura bihurtu zen askorentzat; ohitura, bai, eta ez une jakin bateko apeta puntuala. Esana dugu dagoeneko jendearen artean harrera ona izan zutela egitasmo berriek; haien irakurketa jende askoren ohitura bihurtu izanak haien jarraipena bermatu zuen (are: baita berauen garapen nabarmena ahalbidetu ere, hurrengo azpiatalean ikusiko dugun moduan).

12.2. TOPAGUNEA EUSKARA-ELKARTEEN FEDERAZIOA: INDARRAK BATUZ

Euskarazko tokiko prentsa sendotu izanak, apurka-apurka, aldizkari horiek guztiak bilduko zituen elkarte bati buruzko eztabaida sorrarazi zuen euskarazko prentsaren eragileen artean (Elkoroberezibar, 1992: 26):

Aldizkarien federakuntza posible bati buruz ere hitz egin izan da. Aldizkarien elkartasun horrekin kostuak murriztu, lana erraztu, harremanak sendotu, elkarrengandik ikasi eta publizitatea ere hel dakiguke. Diru-laguntzak, bestalde, errazago jasoko genituzkeen. Momentuz hitzak besterik ez dira, baina intentzio bizikoak.

Ildo beretik mintzo zen *Jakin* aldizkariko zenbaki berebanean Jose Felix Diaz de Tuesta, *Arrasate Presseko* kidea ere (Torrealdai, 1992: 66):

Beharrezkoa da, beraz, bilgune bat —Prensa Lokalaren Elkarte— esperientziak kontrastatzeko. Eginkizun desberdinak honela zerrendatuko nituzke nik: informazioa elkarri pasatzea, publizitate-merkatua elkarrekin lantzea, teknologiaz hornitzea eta beronen erabilpenaz jabetzea, kazetal prestakuntza, kazetal enpresa-prestakuntza. Arlo guzti hauek ezin ditzakegu banaka jorratu, elkarturik baizik. Dena den, denbora gehiegi ere ez da iragan prentsa lokala sortu zenetik. Beraz, normala da oraindik ezer ez egotea.

Euskarazko tokiko prentsaren bilgune izango zen federazio baten asmoa edo helburua, egon, bazegoen beraz. Horrela, ahots horietatik abiatuta, 1996. urtearen bukaeran sortu zen Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioa.

Honelaxe laburbiltzen duen Topaguneak berak federazioaren sorrera-garaiko testuingurua (www.topagunea.org):

Euskara elkartearen oinarri izan zen euskararen aldeko gizarte mugimendua 80ko hamarkadaren erdi aldean hasi zen indartzen. Garai hartan sortutako mugimendua hitz eta kontzeptu berriak plazaratzen hasi zen: ‘Ez da nahikoa euskara jakitea. Iraungo badu, nonahi eta noiznahi erabili behar da’. Horretarako euskara elkarteak sortu ziren, euskaldunon bilgune.

Baina zer dira euskara-elkarteak? Helburu bera duten elkarteak dira: euskarren normalizazioa, hain zuzen. Hau da, Euskal Herrian, eta tokian-tokian, euskaldunek euskara erabil dezaten nahi dute, hala etxean, nola gizarteko edozein esparrutan eta zeinahi eginkizunetan.

Topagunearen irudiko, «euskara elkarteak jardun eremuak ezaugarritzen ditu». Horrela, euskara-elkarte horiek, norberaren ingurunerik hurbilenean normalizatu nahi dute, lehenik, euskara: hau da, familian, auzoan, lagunartean, herrian edota lanean. Horregatik tokian tokikoak dira euskara-elkarteak, herritar euskaldunek talde-lanean sortuak.

Euskara-elkarateek eta Topaguneak euskaraz bizitzeko egitasmoak prestatu eta garatzen dituzte, eta egitasmo horien baitan, beste hainbat ekimenekin batera, «hedabideen bitartez herri eta eskualdeko informazioa lantzea» da helburuetako bat, federazioaren webgunean bertan irakur daitekeenez. Baita euskaldunak elkar-tzea, euskaldun berrientzako erabilera-programak sustatzea edota haur eta gazteei aisialdirako euskarazko alternatibak eskaintzea ere, besteren artean.

Euskara-elkarateen testuinguru eta sare zabal horretan, Topaguneak euskara-elkarteak sustatu eta beraientzako zerbitzuak antolatzen ditu, euskara-elkarte horien lana errazteko. Esperientziak trukatu, zerbitzu eta programak adostu eta erakundeen aurrean solaskide ere bada Euskara Elkarateen Federazioa (dela dirulaguntzak lortzeko, edota hitzarmenak sinatzeko).

Euskara-elkarte horien jardunaren fruitu dira, beraz, Euskal Herri osoan barreiatuak dauden euskarazko tokiko aldizkari gehienak. Elkarte horietako asko, gainera, 1990eko hamarkadaren hasieran desio zen bezala, Topagunean federatuta daude egun: elkarlanerako eta antolakuntza bateraturako aukera ematen duen erakunde komun batean, alegia. Hona hemen Topagunearen babesean argitaratzen diren euskarazko tokiko aldizkarien zerrenda:

Hedabidea	Maiztasuna	Zabalkundea	Eremua	Herrialdea
<i>Aikor</i>	Hilabetekaria	5.300	Txorierrri	Bizkaia
<i>Aiurri</i>	Astekaria	4.000	Andoain-Urnieta	Gipuzkoa
<i>Aiurri</i>	Hamaboskaria	2.500	Beterri-Aiztondo	Gipuzkoa
<i>Aldaize</i>	Bi hilabetekaria	1.000	----	Gipuzkoa
<i>Anboto</i>	Astekaria	8.600	Durangaldea	Bizkaia
<i>Artzape</i>	Hilabetekaria	1.075	Getaria	Gipuzkoa
<i>Baleike</i>	Hilabetekaria	1.050	Zumaia	Gipuzkoa
<i>Barren</i>	Astekaria	4.750	Elgoibar	Gipuzkoa
<i>Begitu</i>	Hilabetekaria	5.200	Arratia	Bizkaia

<i>Berton</i>	Hilabetekaria	1.800	Bilbo	Bizkaia
<i>Danbolin</i>	Hilabetekaria	1.350	Zestoa	Gipuzkoa
<i>Drogetenitturri</i>	Hilabetekaria	1.650	Ermua-Mallabia	Bizkaia
<i>Eta Kitto!</i>	Astekaria	7.950	Eibar	Gipuzkoa
<i>Galtzaundi</i>	Hamabostekaria	5.000	Tolosa	Gipuzkoa
<i>Gaztezulo</i>	Hilabetekaria	----	Donostia	Gipuzkoa
<i>Geu</i>	Hilabetekaria	2.500	Gasteiz	Araba
<i>Goienkaria</i>	Astekaria	19.950	Debagoiena	Gipuzkoa
<i>Guaixe</i>	Astekaria	4.500	Sakana	Nafarroa
<i>Hernaniko kronika</i>	Egunkaria	3.700	Hernani	Gipuzkoa
<i>Kalaputxi</i>	Hilabetekaria	1.900	Mutriku	Gipuzkoa
<i>Karkara</i>	Hamabostekaria	3.100	Aia-Orio	Gipuzkoa
<i>Karrika</i>	Hilabetekaria	----	Iruñea	Nafarroa
<i>Mailope</i>	Hilabetekaria	1.300	Araitz-Betelu	Nafarroa
<i>Maxixatzen</i>	Astekaria	4.400	Azkoitia	Gipuzkoa
<i>Noaua!</i>	Hamabostekaria	2.650	Usurbil	Gipuzkoa
<i>Otamotz</i>	Hilabetekaria	----	Urretxu-Zumarraga	Gipuzkoa
<i>Pil-pilean</i>	Hamabostekaria	1.920	Soraluze	Gipuzkoa
<i>Prest</i>	Hilabetekaria	2.200	Deustua	Bizkaia
<i>Pulunpe</i>		1.500	Ultzama-Basaburua	Nafarroa
<i>Ttípi-Ttapa</i>	Hamabostekaria	6.000	Etxalar	Nafarroa
<i>Txaparro</i>	Hamabostekaria	5.500	Zarautz	Gipuzkoa
<i>Txintzarri</i>	Astean bitan	7.600	Lasarte-Oria	Gipuzkoa
<i>UK</i>	Hamabostekaria	4.000	Getxo	Bizkaia
<i>Uztarrai</i>	Hilabetekaria	2.430	Azpeitia	Gipuzkoa
<i>Uztarri.com</i>	Orainkaria	----	Azpeitia	Gipuzkoa
<i>Xuka</i>	Hilabetekaria	----	Atarrabia	Nafarroa

* Iturria: www.topagunea.org

12.3. HITZA EGUNKARIAK: TOKIKOAK, EGUNEROKOAK ETA EUSKARAZ

Tokiko astekari, hamaboskari edota hilabetekariez harago, eguneroko prentsaren beharra eta eskaera ere zabalduz zihoazen euskal herritarren nahiz euskal eragileen artean. Euskara normalizatzen jarraitzeko, urrats bat gehiago egin beharra zegoen (Elkoroberezibar, 1992: 17):

Ez dugu egunkaririk Euskal Herriko prentsa lokalean, ezta astean birritan edo hirutan agertzen den errebistarik ere. Badauzkagu astekariak.

Erredakzioen bitarteko, azpiegitura, aukera, asmo, era guztietako baldintza eta lantaldeen egiturek erabakitzen dute errebistaren maiztasuna: astekaria, hamaboskaria, hilabetekaria edota bestelako epetakoa. Hemen ere hasieran aipatutako nahia eta ezina.

Maiztasunak aldizkariaren edukia baldintzatzen du dudarik gabe. Prentsa lokalak eskaini beharko lukeen aktualitatea eta egunerokotasuna, hau da, herriari buruzko informazio zuzena, gutxi batzuek egin dezakete.

Tokiko informazioa goizero-goizero emango zuten egunkariak helburu hartuta, Euskarazko Komunikazio Taldeak (EKT) *Hitzak* sortzeko bidea martxan jarri zuen. Arrazoiak eta xedeak, honakoak (Iratxe Bidaola, komunikazio pertsonala, 2009):

Euskal eskualdeetan herri informazioa egunero euskaraz jorrazteko zegoen hutsunea betetzeko sortu ziren *Hitzak*. Euskarazko prentsak pauso handiak eman zituen *Egunkaria*-ri, *Argia*-ri eta aldizkarietarako esker, baina egunero euskaraz informazio lokalik ematen zuten euskaririk ez zegoen (bai, aldiz, erdaretan)⁹¹, eta horregatik erabaki zen, elkarlanaren bidetik, *Hitzen* bidez esparru hori jorratzen hastea⁹².

91. *Hernaniko Kronika* egunkaria zen baieztapen horri ihes egiten zion salbuespen bakarra. Egun ere lanean dihardute *Kronikakoek*.

92. EKT *Hitza* egunerokoak hedatzen hasi baino lehen ere, *Euskaldunon Egunkariako* arduradunak saiatu ziren bide horri ekiten, ez, ordea, tirabira barik. Mikel Irizarrek damaigu horren berri (2002: ork. gabe): «Mugimendurik berriena Tolosan abiatu da oraintsu. *Egunkaria* eta *Galtzaundi*, *Egunero* toki egunkaria kaleratzen hasi ziren [2001eko] abenduan. Zentzuzko antolaketaren ikuspegitik, ezinbestekoa da lankidetzaren bidez hedabide tokikoen eta nazionalen artean. Nire ustez, lankidetzaren bidez elkar indartzera bideratu behar da, ur handitan ibiltzeak txikia susper dezan eta erroen luzatzeak handia garatzen lagundu. Baina Tolosakoaren itzalak ikusita, beldur naiz hangoa ez ote den lankidetzaren bidez gehiago zurrupaketa izan, eta ez ote dituen *Egunkaria*-k enpresa interesak beste guztien gainetik jarri». Tirabirak ez ziren soilik Tolosara mugatu. Zer zegoen, baina, beraien oinarrian? Hara zer dioen Zuberogoiak horri buruz (2005: 278): «(...) Alegia, Tolosaldean ez ezik beste bazter batzuetan ere batzuek zera sentitu zutela: kanpotik zetorren eragile bat (*Egunkaria*) eurak aintzat hartu barik euren esparru naturalean sartu guran zebilela». Zuberogoiaren irudiko, logika desberdin bi zeuden aurrez aurre (2005: 278-279): «(...) tokian tokiko elkarte eta kazeten autonomian oinarriturikoa da Topagunearen ildoak (ez alferrik, federazioa da TEEF (...)), eta eredu zentralizatuagoa da EKTrena. Era berean, euskararen normalizazioa da TEEFen xede nagusia, euskararen erabilerrari eragin gura dio, eta, helburu hori gauzatzeko aldera, euskaldunak bizi diren etxe guztietara iristea du lehentasun (aipatu ditugu lehen ere

Batetik, garrantzitsua delako euskarazko komunikabideek ere herri informazioa eguneroko euskaraz ematea eta erreferentzialtasuna lortzea. Bestetik, eguneroko euskarazko egunkari bat oso garrantzitsua delako euskararen normalizazio bidean.

Euskalgintzan eta euskararen alde dauden gizarte mugimendu eta erakundeekin bat, funtzio soziala betetzeko ere sortu da *Hitza*. Honetarako, bide ezberdinak erabiliz informazioa zabaltzen jarraitzeaz gain, ekitaldi ezberdinetan parte hartu eta lagundu du, eta elkarte eta erakunde ezberdinekin akordioak eta hitzarmenak egiten jarraitu du.

Helburu eta xede horiek oinarri hartuta, apurka joan dira *Hitza* egunkariak Euskal Herriko txoko eta eskualdeetan hedatzen: bai geografiari erreparatuta baita irakurleen kopuruei so eginda ere. Horrenbestez, egun, Euskal Herriko zortzi eskualdetan goizero euskarazko tokiko egunkaria irakurtzeko aukera dute. Hona hemen *Hitza* egunkariaren esparruak, eguneroko botaldia eta irakurle kopuruak taula batean laburbilduta:

Egunkaria	Hedadura	Botaldia eguneko *1	Irakurle kopurua *2
<i>Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza</i>	Tolosaldea (28 herri), Leitza eta Areso	7.500	20.000
<i>Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza</i>	Lea-Artibai eskualdea (11 herri) eta Mutriku	6.000	16.000
<i>Urola Kostako Hitza</i>	Urola-Kosta: (11 herri)	8.500	28.000
<i>Goierriko Hitza</i>	Goierri (21 herri)	8.000	23.000
<i>Oarsoaldeko Hitza</i>	Errenteria, Oiartzun, Lezo eta Pasaia	6.000	43.000
<i>Irutxuloko Hitza</i>	Donostia	9.000	

estrategia horren zutabe diren doakotasuna eta erabateko zabalkundea). EKTren helburu nagusia, aldiz, ez da erabateko zabalkundea (etxe euskaldun bakoitzeko kazeta bat) bermatzea, eskualde bakoitzean gehien saltzen den egunkariak beste ale (edo gehiago) zabaltzea [ordainduta] baizik (...). Dena dela, desberdintasunak desberdintasun, elkarriketak izan dituzte 2004an, eta alde bakoitzak bere uste eta asmoak azaldu dizkio besteari, nork bere estrategiari eusten diola». Egun ere hortxe diraute bi ildo horiek, bakoitzak bere eragin-esparru eta estrategia propioak dauzkala.

<i>Busturialdeko Hitza</i>	Busturia (20 herri)	5.000	18.000
<i>Behe Bidasoako Hitza</i>	Irun, Hondarribia, Biriatsu eta Hendaia	6.000	20.000
GUZTIRA	----	56.000	168.000

*1-Botaldien kopuruak aleka eta egunka dira. *Hitza* guztiak asteartetik igandera argitaratu izan dira 2009ko azarora arte; harrezkero hainbat aldaketa izan dira. Egun, asteartetik igandera (biak barne) kaleratzen jarraitzen dute *Tolosaldeko eta Leitzaaldeko Hitzak*, *Urola Kostako Hitzak* eta *Goierriko Hitzak*; aldiz, asteartetik ostiralera (biak barne) argitaratzen dira *Busturialdeko Hitza*, *Oarsoaldeko Hitza*, *Irutxuloko Hitza* eta *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza*. 2009an sorturiko *Behe Bidasoako Hitza*, berriz, sorreratik asteen behin (ostiraletan) baino ez da argitaratzen paperean, eta egunero, aldiz, Interneten.

*2-Iturria: CIES. 2009ko martxoa. *Behe Bidasoako Hitzaren* kasuan oraindik ez dago datu zehatzik. 2009an sortu den egunkaria delako. Beraz, irakurle potentzialen datuak dira taulan ageri direnak.

Bidea sendotzen ari dira, beraz, Euskal Herriko *Hitzak*. Etorkizunari begira ere badaude, ordea, EKTn. Bi ataletan banatzen dituzte etorkizuneko erronka horiek:

Gaur egungo *Hitzei* dagokienez: paperaren krisia denon ahotan dagoen garaiotan etorkizuneko komunikazio-joerei adi egon beharra ikusten dute, eta etorkizuneko komunikazio-proiektu ahalik eta egokiena eta eraginkorra zehaztu, multimedia eta multiproduktu kontzeptuak oinarri hartuta. Gaur egun horren inguruan hausnartzen ari dira, eta ezinbesteko deritzote pauso eraginkorrek emateari.

Eguneroko euskarazko informazio lokalik ez duten hainbat herri eta eskualde daude Euskal Herrian, merkatua bada egoera zain, eta hizkuntza-normalizazioa lortzen laguntzeko, erronka bada euskarazko komunikazio-proiektuak gauzatzen laguntzea eskualde horietan.

Tokiko prentsak, beraz, ibilbide oparoa egin du 1980ko hamarralditik gaur egunera bidean. Sare zabala du osaturik Euskal Herri osoan zehar, eta hasieran tokian-tokian sorturiko aldizkari haiez gain, gaur egun bada batasunera jo duen elkarerik⁹³. Horrez gain, *Hitzei* esker Euskal Herriko eskualde askotan, euskarazko tokiko egunkariak kaleratzea ere lortu dute. Ezin ukatu, beraz, Euskal Herrian

93. 2000ko hamarkadaren hasieran, adibidez, hauxe aholkatu zien Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak bere bazkide ziren kazetei: asteroko maiztasuna hobestea (erritmo hori ekonomikoki bideragarria zelako) eta, elkarrekin indarrak bilduta, eskualdeka antolatzen hastea, *Goienkariak* Debagoienean, *Anbotok* Durangaldean, *Ttiti-Ttapak* Bortzirriak-Baztan-Malerrekan edota *Guaixek* Sakanan zabaldu ildoei jarraiki. Gerora sorturiko zenbait kazetak ere (Arratiako *Begituk* edota Txorierriko *Aikorrek*, esate baterako), eskualde-antolamendu hori hobetsi dute, sinergiak bilatze aldera. Estrategia horren ardatz nagusiei (asteroko maiztasuna + eskualdekako antolaketa) buruzko argibide gehiago jasotzeko, ikus Joxemari Muxikaren "Euskarazko prentsa: tokiko hedabideen estrategia posiblea" (Zenbait Egile, 2003: 43-46).

tokiko prentsaren aldeko apustu sendoa egin denik. Egun, hedapenerako bidean jarraitzean datza gakoa, baita, horrez gain, komunikazio-joera, kontsumo-molde, teknologia eta desafio berriei aurre egitean ere.

ATALEAN BALIATURIKO ITURRIAK

- Arrieta, D. (2004): “Arrasate Press: Hamasei urte tokiko prentsaren aitzindari-tzan”, Euskarazko Kazetaritzaren I. Kongresua, Bilbo, 2004ko azaroa.
- Elkoroberezibar, M.A. (1992): “Prensa lokala Euskal Herrian”, *Jakin*, **69**, 11-37.
- Irigoién, J. M. (1992): “*Tipi-Ttapa*”, *Jakin*, **69**, 103-114.
- Irizar, M. (2002): “Euskarazko tokiko hedabideak eta informazio gizartea”, in *Euskonews&Media*, **157**, [euskarazko tokiko hedabideei eskainitako zenbaki monografikoa], 2002-03-1-8.
2009-12-06ko kontsulta: <<http://www.euskonews.com/0157zbk/portada.html>>
<www.topagunea.org>.
- Torrealdai, J.M. (1992): “Euskal prentsa lokalaren problematika” mahai-ingurua, *Jakin*, **69**, 51-66.
- Zenbait Egile (2003): *Tokiko hedabideak etorkizunera begira*, Topagunea Euskara Elkarleen Federazioa, Abadiño
- Zuberogoitia, A. (2005): *Bidegorriak hizkuntzentzat. Euskarazko komunikazio-esparrua trinkotzeari buruzko burutazioak*, Elkar, Donostia.

13. Kazeta nazionalen ugalketa

Eguneroko edota asteroko maiztasuna duten euskarazko informazio orokorreko kazeten artean, lau dira gaur egun Euskal Herri guztian (edo beronen zati handi batean) zabaltzen direnak: *Herria*, *Argia*, *Berria* eta *Aldaketa 16*⁹⁴. *Kazeta nazional* modura izendatu ditugu horiek atal honen goiburuan, baina jakin badakigu, aipu honek iradokitzen duen moduan, etiketa hori ez dela erabat zuzena (Zuberogoitia, 2006: ork. gabe):

Badugu, beraz, neurri handi edo txikiagoan, zazpi herrialdeetako kontuak jorratu eta esparru hori eragin-eremu nagusitzat hartzen duen prentsa. Baina (...), zein puntutaraino esan dezakegu nazionala dela? Zein puntutaraino dago errotua Euskal Herriaren luze-zabal osoan? *Euskaldunon Egunkariak*, berbarako, itxi zutenean, 111 harpidedun baino ez zeuzkan Ipar Euskal Herrian. *Berria* ez da 200era iristen; hau da, Hego Euskal Herrian baino 50 bider gutxiago. *Argiaren* 8.000 harpidedunetatik, berriz, % 3 baino ez dira Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoakoak. *Aldaketa 16*ren kasua are argigarriagoa da: ez du alerik zabaltzen Ipar Euskal Herrian (eta Nafarroan ere oso gutxi). *Herriak*, azkenik, bere 2.400 harpidedunetatik 160 baino ez ditu Hego Euskal Herrian, Iparraldeak oraindik ere *far west* izaten jarraitzen duen seinale.

Kontuan hartu behar genuke, era berean, Interneten, satelitearen eta telekomunikazioen garapen bizkorrak hedabideen zabalkundeari eta haien lurraldetasunari buruzko orain arteko kontzeptualizazioa birpentsatzera behartzen gaituela. Behin zehaztaper horiek eginda, beraz, gatozen aipaturiko kazeten kontuak aletzera.

13.1. ARGIA-TIK EUSKALDUNON EGUNKARIA-RA

Liburu honetako zazpigarren atalean aipatu ditugu dagoeneko bai *Argiako* lantaldeak 1980ko hamarraldiaren hasieran bizitako kinka larria, bai ondorengo susperaldia. Lantalde horren ekimenez sortu zen, hain zuzen ere, *Euskaldunon Egunkaria*

94. Haren orrialde kopuruari erreparatuta (prentsa elebiduneko euskarazko beste ezein gehigarrik baino dezentez gehiago), *Gaur 8* ere (*Gara* egunkariaren larunbatetako euskara hutsezko gehigarria: <http://www.gaur8.info>) zaku horretan sar genezakeen, baina ez dugu hori egin *Gaur 8* ez delako kazeta autonomoa, egunkari baten eranskina baizik. Edozelan ere, aipagarria da gehigarri horrek 2007an sortu zenez geroztik euskarazko hedabideen esparruari egiten dion ekarpena (bereziki azpimarragarria da papera eta sarea uztartzeko eta bi euskarrion osagarritasuna bilatzeko egin duen ahalegina).

1990. urtean. Ez zen, ordea, gauetik goizera sortu. Izan ere, 1980ko hamarkada osoan zabaldu zen eztabaida izan zen euskarazko egunkari baten beharrarena. Artikulu, hitzaldi eta mahai-inguruak asko izan ziren han eta hemen, eta beti ageri zen *Argia* guztien eragile.

Idatzizko hedabide elebidunek 1976tik 1978ra erakutsi zuten ezintasunetik sortu zen euskarazko egunkariaren eztabaida. Baina, ideia eta proiektua bera, 1980ko hamarkadan zehar garatu ziren, apurka-apurka.

Berebiziko interesa du, gainera, testuinguru horretan 1988ko azaroaren 13an ospaturiko Argia Egunak, orduantxe esan baitzen argi eta garbi aldizkari horrek prest zituela baldintza teknikoak egunkari bat sortu ahal izateko. Argia Egunaren bezperetan ere ildo beretik aritu zen Laura Mintegi *Argiako* erredaktorea *Eguna* astegunkarian (Jexuxmari Zalakainek 1986an Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzaz kaleraturiko asteburuko egunkariei emandako izendapena) (Ortiz de Landaluze, 1988: 8):

Guk uste dugu egin daitekeela eta egin behar dela euskarazko egunkaria. Instituzinoei adierazi nahi diegu, egiten bada gurekin kontatu behar dela eta ez badute egiten guk egingo dugula. Oso argiak izan nahi dugu hori esaten, Instituzinoen aurrean jarriko dugu egunkari egina eta eskatuko diegu horri erantzuteko. Alde horretatik ikusten dugu, Euskal Herrian ez dagoela beste talderik euskal prentsan kapazidade nahikoarekin hori egin ahal izateko, geu izan ezik.

Iñaki Uriak, bere aldetik, zehaztu egin zuen Mintegik adierazitakoa *Eginen*, 1988ko azaroaren 11n (Jon Basterra, 1988: 25):

Gure helburua egunkaria egitea da baina hori ulertu egin behar da. Ez da 'Argia' aldizkaria egunkaria bihurtzea, baizik eta aldizkaria egin eta egunkaria ere bai (...) Guk ere egunkariaren bidean urratsak emateko sekulako posibilitadeak baditugu. Hurrengo pausuak hori izan behar du, ikusita gainera Gobernuaren aldetik egin diren pauso guztiak despistatzekoak edo atzeratzekoak direla.

Egoera horretan, ordea, Eusko Jaurlaritzak bazuen zeresanik. *Euskaldunon Egunkariaren* sorrera bultzatu zuten gehienek argi dute Eusko Jaurlaritza etengabe oztupoak jartzen ibili zela prozesu guztian zehar. Horrela, Egunkaria Sortzen sustapen-taldeak egunkaria egiteko proiektu zehatza kaleratu ahala (1989ko abenduaren 6an Durangon), beste proiektu baten berri eman zuen Jaurlaritzaren Kultura Sailak.

Egunkaria Sortzen taldeak bere proiektua kaleratu aurretik, ordea, beste gertaera esanguratsu bat ere jazo zen; izan ere, Eusko Jaurlaritzak 1986an pauso batzuk eman zituen egunkariaren bidean. Hain zuzen ere, euskarazko astegunkariei diru-laguntzak emateko deialdia egin zuen. Baldintzak, nagusiki, bi ziren: astean behin ateratzea eta egunkarigintzatik sortua izatea. Astekarigintza ez zuen kontuan hartzen. Baina, hala ere, *Argiak* bere proiektua aurkeztu zuen, *Eginek* eta *Deiak* bezalaxe. Lehenak *Hemen* astegunkariaren proiektua aurkeztu zuen; bigarrenak, aldiz, *Eguna* proiektua.

Jaurlaritzak azken biak lagundu zituen diruz eta *Argiaren* egitasmoa atzera bota zuen, aintzat hartu gabe. Ondorioz, *Hemen* eta *Eguna* egunkari formatuko astekari bilakatu ziren, eta, haiena *Argiarentzat* lehia desleiala izan zitekeela ematen bazuen ere, aldizkariak ez zuen minik hartu. *Hemen* eta *Eguna*, berriz, diru-laguntza bukatu zen egunean desagertu ziren: 1990eko irailaren 27an *Eguna* eta 1990eko irailaren 28an *Hemen*.

Diru-laguntzekin batera jaio ziren, beraz, eta diru-laguntzen amaierarekin hil. Ez zuen, horrenbestez, esperientzia horrek emaitza handirik eman euskarazko egunkari baten bidean (balio izan zuen, hori bai, gero *Egunkarian* jardungo zuten zenbait kazetari trebatzeko). *Argiak* aurkeztu zuen proiektua Joxemi Zumalabek idatzi zuen, taldean hainbestetan hitz egindakoa jasoz. Atzera bota zutenean ere ez zuen etsi nahi izan. Esperientzia hartatik irakaspena ateratzen asmatu zuen; egitasmoa eraldatu egin zen, baina helburu berari begira jarraitu zuen: euskarazko egunkaria.

1986an *Hemen* eta *Eguna* jaio zirela ikusita ere, *Argiakoek* tinko jarraitu zuten euren asmoarekin eta 1987an hordagoa bota zuen Joxemi Zumalabek (Agirre, 2003: 67): «Dugun guztia mahai gainean jarri eta euskarazko egunkari baten aldeko apustua egin behar dugu».

Erronka hori gehiago ezin atzeratu zitekeela uste zuen. Heldua zela garaia.

Ez zen iritzi berekoa Jaurlaritzako garai hartako Kultura sailburu Joseba Arregi, esku artean zeukan informazioak besterik zioen arren. Kontua da CIES etxeak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eskatuta, euskarazko egunkari baten inguruko galdeketa egin zuela. Hori gauza jakina zen, baina emaitzarik ez zen argitara agertzen. Jaurlaritzak ez zuen haren berri eman nahi. *Argiak* emaitzak lortu, eta 1989ko urrian argitaratu zituen aldizkarian. Eta argi geratu zen bideragarria zela euskarazko egunkari bat kaleratzea. Zertarako gehiago itxaron? *Argian* erabaki zen egin egingo zutela. Eta euskalgintzako ahalik eta indarririk gehien biltzeko asmoz, Euskal Kultur Erakundeak deituta lehen bilera egin zen Donostian, Barandiaran Lizeoan, 1989ko azaroaren 1ean. Egun horretan bildu zen lehen aldiz jende multzo oparo bat (30 bat lagun) euskarazko egunkaria martxan jartzeko. Prozesu osoaren lehen deialdi publiko zabala izan zen eta baiezkoa atera zen handik, egin egin behar zela. Jar dezagun gaia Jexuxmari Zalakainen hitzetan (1993: 196):

CIESek emandako datuek, euskaltzalegoak aspaldidanik ezagutzen zituen datuak onetsi baino ez zituzten egin. Eusko Jaurlaritzak propio eskatutako azterketak, herri mugimenduak bereziki intuizioz baino urte luzetako lan bizikizunez ere bai, zekiena aitortzean, ofizialtasunak eskaini ohi duen sinesgarritasuna baino ez zuen ematen.

Bigarren bilera 1989ko abenduaren 10ean izan zen, Durangoko Azokaren inguruan, Durangoko udaletxeko aretoan. 50 bat lagun bildu ziren eta han proiektua zehatz-mehatz lantzeko akordioa hartu zuten. Era berean balizko egunkariaren

oinarri nagusiak izango ziren 11 puntuen berri ere eman zuten: euskaltzalea, nazionala, baterakoa, zabala, alderdi politikoetatik independentea, erdarazko medioetatik independentea, ez-instituzionala, erakundeek diruz lagundua, militantea, profesionala eta berria.

Proiektua mamitu eta sendotzen zen bitartean, herri-indarrak biltzeari ekin zioten euskarazko egunkariaren aldeko lasterketan buru-belarri murgilduta zebiltzan haiek. Esaterako, sinadura-bilketak egin ziren. 30.000 sinadura bildu zituzten kanpainan. *Euskerazko eguneroko prentsaren alde* testuak hauxe zioen zehazki (Zalakain, 1993: 199):

Agiri hau izenpetzen dugunoi beste hizkuntzetan egunkariak betetzen duten funtzio soziala eta geurean dagoen hutsunea nabarmen agertzen zaigu. Alde horretatik eta Gobernuak enkargatutako CIESen ikerketak nahiko datu baikorrak agertzen dituela ikusirik, Euskal Herriko instituzio ezberdinei eskatu nahi diegu, dagokien bezala, arau ditzatela euskal prentsaren alorrean aldizkari zein eguneroko prentsarako beharrezko diren laguntzak. Euskal Herrian diren inizatibak ezin dira laguntzarik gabe bizi. Hemen izenpeturik, adierazi nahi dugu, beharrezko dugula eta zor zaigula, euskarazko eguneroko prentsa.

Bi bilera horien oinarriko, 1990eko urtarrilean, *Egunkaria* abian jarriko zuen Egunkaria Sortzen talde eragilea sortu zen, eta bertan aukeratu ziren Talde Eragileko partaideak eta hiru batzordetako kideak. Batzorde Bateragilea (edo diplomatikoa) Karlos Santamaria, Martin Ugalde, Joan Mari Torrealдай, Txema Auzmendi, Sagrario Aleman, Luzien Etxezaharreta, Karmele Aierbe eta Joxemi Zumalabek osatua; Ekonomia Batzordea Urtsa Errasti, Joseba Laka, Luis Goia, Fernando Unsain, Fermin Lazkano eta Joxemi Zumalabek osatua; Kazetaritza Batzordea Nerea Azurmendi, Iñaki Zabaleta, Jexuxmari Zalakain, Josu Landa, Martin Ugalde, Joan Mari Torrealдай, Koldo Izagirre eta Hasier Etxeberriak osatua.

1990eko maiatzaren 5etik uztailaren 15era egin zuen Egunkaria Sortzenek promozio kanpaina, eta amaitzeko jaialdi erraldoia antolatu zuten Donostiako belodromoa gainezka jarrita. Bertan aurkeztu zen, hain zuzen, *Euskaldunon Egunkariaren* 0 zenbakia, (28.000 ale saldu ziren).

Proiektua kaleratu orduko (edo kasik) erreakzioak ere agertu ziren eta Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, beste proiektu baterako azterketa abiatu zuen. Horrela, Egunkaria Sortzen sustapen-taldeak euskarazko egunkaria egiteko erabaki sendoaren berri eman zuenetik Jaurlaritza ez zen geldirik geratu. Berehala jakin zen beste proiektu bat aztertzeko martxan zeuzkala behar beste baliabide. Jexuxmari Zalakainen aburuz, horrek ondorio argi batera garamatza (Zalakain, 1993: 207-208):

Porrotaren mamua, kazetarien eza, ezina eta antzeko ideiak behin eta berriro aldarrikatzen ibili ondoren beste egunkari baten proiektua garatzeko batzorde tekniko bat izendatzeak egunkaria egiteko une aproposa zela aitortzen du batetik, eta bestetik *Egunkaria Sortzen*-ek hartutako inizatibarekin bategiterik nahi ez izatea adierazten.

ESen hamaika aginduak ezagututa ez zegoen zertan talde berririk sortu beharrik. Egindakoa aztertzea, kritikatzeta eta hobetzea nahikoa eta sobera zen. ESen proiektua zabala eta baterakoia izateko gauzatu zen. Edozein euskaltzalerentzat irekia. Inolaz ere ez instituzioen kontra, ez-instituzionala baizik.

1990eko apirilaren 4an Jose Ramon Belokiren taldea aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzak, hau da, euskarazko beste egunkari baten ardura hartuko zuen taldea. Zurrumbilola, beraz, sortuta zegoen.

Ekainaren 29an Jaurlaritzaren proiektuaren nondik norakoak azaldu zituen Joseba Arregi Jaurlaritzako Kultura sailburuak Gasteizko Legebiltzarrean. Hau esan zuen besteak beste hitzaldiaren une zehatz batean (Zalakain, 1993: 215):

Eusko Jaurlaritzak espero du oporrak aurretik Euskal Egunkariaren proiektua eskuartean izatea, batez ere gazetaritzari dagokionetan. Proiektu hori izango du aurrera jarrartzeko Eusko Jaurlaritzak gidari, Legebiltzar honetara biltzen diren alderdiekin elkarlanean, lehen esan bezala. Honetara biltzen joan beharko luke Euskal Egunkaria nahi duen guziak. Eusko Jaurlaritzak ez dago prest bi euskal egunkari laguntzeko. Bateratzerik ematen ez bada, beraz, ES proiektuak ez du Jaurlaritzaren babes eta laguntzarik izango.

Egunkaria Sortzenek euskarazko egunkariaren 0 zenbakia kaleratu zuen egun berean, berriz, beste ideia hau errepikatu zuen Zumalabek, Arregiren hitz horiei erantzunez edo (Zalakain, 1993: 216):

Guk gure aldetik zubi guztiak zabalik ditugu, baina gurekin batean Administrazioak ere bitartekoak jarri behar ditu eta elkar lanerako bideak eta euskaldungoak ere badu bere erantzukizuna, 60.000 irakurle potentzial horiek lortzea, euskaldungo osoaren zeregina baita.

Uztailaren 27an Belokiren taldeak bere txostena publikoki aurkeztu zuen. Kazetari taldearen proposamena proiektu bihurtu zen. Une horretatik aurrera ez zegoen zalantzarik: bi proiektu zeuden. Bi proiektu erabat ezberdin, ordea (Zalakain, 1993: 222):

ES promotorak 1990eko apirilean publikoki aurkeztutako proiektuaren eta Belokik uztailean aurkeztutakoaren artean bi mundu desberdin daude. Kazetaritzaren funtzioaz, euskararen balioaz, diseinuaz, banaketa-sistemaz, egunkari-ereduaz erabat desberdinak dira biak. Esaera bakarrean laburbiltzeko ESek egunkari arrunt, oso eta euskal esparru kulturean homologatua nahi zuen bitartean Belokiren taldeak egunkari nagusi baten egunkari osagarria nahi zuen. Belokik, zeukan aukerari heldu zion: ESek kaleratu zuen proiektuarekin zerikusirik ez zukeen proiektua gauzatzeari, alegia.

Eusko Jaurlaritzaren proiektuak, ordea, ez zuen sekula argirik ikusi. Bai, ordea, Egunkaria Sortzen sustapen-taldearenak. Horrela, 1990eko abenduaren 6an argitaratu zen lehen aldiz *Euskaldunon Egunkaria*, Pello Zubiria kazetaria zuzendari eta Martin Ugalde Administrazio Kontseiluko lehendakari zirela. Historian

azpimarraturik geraturiko eguna da hura, eta are gehiago, 2003ko otsailean Espainiako Auzitegi Nazionalako Juan Del Olmo epailearen aginduz *Euskaldunon Egunkaria* itxi, bertako hamar kide atxilotu eta haietako hainbat espetxeratu zituztenetik. 13 urte haietan, ordea, *Egunkariak* bere bidea egina zuen, eta ondoren sortu zen *Berriari* ere bidea erakutsi zion.

Uste hau agertu ohi zuen Joxemi Zumalabek, 1993an gaixotasun larri baten ondorioz zendu aurretik (Agirre, 2003: 82): «Bi urtez iraneuz gero, irabazi dugu». *Euskaldunon Egunkaria* ebidentzia handia izaki, diru-laguntzarik ezin ukatuko ziotelako pentsatzen zuen hori, eta denborak arrazoa eman ziola esan daiteke. Izan ere, 1992an Eusko Legebiltzarrak *Euskaldunon Egunkariari* diru-laguntzarik ez ematea erabaki zuen, eta Joseba Arregi Kultura sailburuak ez zutela eguneroko hura lagunduko esan zuen. 1994ko ekainean, ordea (Arregi ordurako sailburu ez zela), *Euskaldunon Egunkariak* eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak elkarlanean hitzarmena sinatu zuten, eta ordudanik Eusko Jaurlaritzak bere ordezkaria izan zuen Administrazio Kontseiluan, harik eta 2003an Espainiko Auzitegi Nazionalaren aginduz *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuten arte.

13.2. EUSKALDUNON EGUNKARIA: «ITXIA, BAINA EZ ISILDUA»

2003ko otsailaren 20 hartako goizaldean, 1990eko abenduaren 6an *Euskaldunon Egunkariak* abiatutako bidea kolpetik eten zuen Espainiako Auzitegi Nazionalak. Juan del Olmo epaileak aginduta, *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuten. 300 guardia zibilek hartu zuten parte polizia-operazioan eta 21 etxebizitza eta egoitza miatu zituzten, *Egunkariaren* Hegoaldeko lau egoitzak, *Argia* aldizkariarena, *Jakin* hilabetekariarena, Elkarlanean Fundazioarena eta Ikastolen Elkartearena tartean zirela. *Egunkaria* ixtearekin 300 langile geratu ziren kalean, bat operazioan parte hartu zuen guardia zibil bakoitzeko (Agirre, 2008-02-20: 12).

Hamar lagun atxilotu zituzten, *Euskaldunon Egunkariaren* sorreran nahiz beronen ondorengo bilakaeran buru-belarri murgilduta ibilitako hamar pertsona. Aurretik ere euskalgintzan ibilbide oparoa egindako hamar pertsona: Martxelo Otamendi, Iñaki Uria, Joan Mari Torrealдай, Txema Auzmendi, Pello Zubiria, Xabier Oleaga, Fermin Lazkano, Inma Gomila, Luis Goia (2006an hil zen) eta Xabier Alegria. Martin Ugalde, berriz, osasun-txosten baten mende geratu zen auzipetua izateko (handik urtebete pasatxora hil zen Ugalde, 2004ko urriaren 4an). Atxilotu guztiak eraman zituzten Madrilera, eta bost egun eta bost gauetz inkomunikatuta eduki zituzten. Epailearen aurretik pasatu ostean, Torrealдай, Uria, Oleaga, Auzmendi eta Alegria baldintzarik gabe espetxeratzeko agindu zuen epaileak. Aldiz, Otamendi, Gomila, Lazkano eta Goia aske utzi zituen, bermea ordainduta. Zubiriari 72 orduz luzatu zion inkomunikazioa epaileak. Guztiek ere tratatu txarrak eta torturak jasan izana salatu zuten.

Urteak geroago, berriz, hau idatzi zuen Lorea Agirrek itxieraren bosgarren urteurrenaren harira *Berria* egunkarian (2008: 12): «Bihar ere kalean izango da euskarazko egunkaria. Hori zen itxiera egun hartan goiz-goizetik langileek errepi-katzen zuten mezua». Xabier Lekuona *Euskaldunon Egunkariako* zuzendariordea ere antzera mintzo zen (Agirre, 2008: 12): «Jakin bagenekien egin behar genuela, baina ez nola: nondik hasi, nora jo, nola atera, zein izen erabili, zein errotatibatan bota».

Egunero izenarekin kaleratu zen itxieraren biharamuneko zenbakia. Tolosaldeko tokiko egunkariaren mantxetapean osatu zuten, eta *Egunkariaren* itxierari buruzko ale monografikoa izan zen hura. *Itxia, baina ez isildua* titularra jarri zioten. Lortu zuten, beraz, hurrengo goizean ere kaleratzea, baina esan beharrik ez dago egun zaila izan zela bezperakoa (Agirre, 2008: 13)

Alea osatu eta Iruñeko errotatibara bidali zen. Guardia Zibila bertan zen, eta bertako buruari *Egunkaria*-rekin zerikusirik zuen ezer ez zuela inprimatuko zioen paper bat sinarazi zion. Banatzaile batek baino gehiagok izan zituen poliziak atzetik.

Egunkaria itxi eta bi egunera, 2003ko otsailaren 22an, manifestazio erraldoia egin zen Donostian *Egunkaria aurrera* lelopean. Kontseiluak egin zuen deialdia eta jendetza itzela bildu zen. Eta halaxe jaso zuen *Eguneroren* biharamuneko aleak ere: «Mundu bat ‘Egunkariaren’ alde».

Xabier Lekuonaren iritziz, manifestazioak airea eman zion lantaldeari (Agirre, 2008: 13):

Indar hartze handi bat izan zen. Hasieratik erantzun genion egoerari talde modura, eta manifaren tamainak eta manifan oso kolore desberdineko jendea ikusteak indarra eman zigun aurrera jarraitzeko, bai *Egunkaria*-ren itxieraren kontra jarraitzeko eta baita egunkari berri bat egiteko ere.

Euskararen, euskalgintzaren eta adierazpen-askatasunaren aurkako erasotzat hartu zuen askok 2003ko otsailaren 20an *Euskaldunon Egunkariaren* aurka eginiko polizia-operazioa. Iritzi berekoa da Iñaki Uria *Egunkaria auziko* auzipetua ere (Uria, 2008: 7):

Espainiako estatu terrorismoaren biktima izan ginen *Egunkaria* bera eta horren itxieraren ondorioz atxilotutako lagunak. Munduan zegoen euskarazko egunkari bakarra ixteko erreparorik ez zuten izan. Europako hizkuntzarik zaharrenaren gordari den komunitatearen aurka atentatzeko kezkarik ez zuten izan. Adierazpen askatasuna, informazio eskubidea, giza eskubide guztiak urratzeko lotsarik ere ez.

(...) ETAk garrantzi estrategikoa eskaintzen dionez euskarari, euskararen alde aritzea arriskutsu bihurtu dute polizia, Auzitegi Nazionalako epaile eta Espainiako estatuko alderdi nagusiek. Ikastoletan, unibertsitatean, zientzian, lan munduan edota komunikabideetan euskaraz arrunt funtzionatzea ariketa kriminala gerta daiteke, ETaren helburuekin bat egiten baitu. Nahikoa dira ondoren “paper zahar batzuk” honelako prozesu batean kateatuta geratzeko.

Bien bitartean, Espainiako Gobernuko garaiko barne-arazoetako ministro Angel Acebesek euskaldunon askatasuna zuen hizpide (Uria, 2008: 7): «Se trata de una operación en defensa y protección de los derechos y de las libertades de los vascos, de su cultura, de su pensamiento, y de la expresión de su lengua en libertad».

Auzia ez zen, ordea, bere horretan geratu. Izan ere, 2008ko urriaren 16an Guardia Zibilak, Martin Ugalde Kultur Parkearen eta *Egunkariaren* enpresa taldearen aurkako operazioa burutu zuen, Del Olmok berak aginduta. Zortzi lagun atxilotu zituzten: Mikel Arrizabalaga, Angel Diez, Armando Hernandez, Mikel Sorozabal, Joxe Mari Sors, Mikel Azkune, Joanmari Larrarte eta Xabier Legarra. Bost egun geroago, urriaren 21ean, Arrizabalaga, Diez, Etxeberria eta Hernandez bermerik ordaindu gabe libre geratu ziren. Sorozabal, Sors, Azkune, Larrarte eta Legarra, berriz, hamabina mila euro ordainduta. Denak inkomunikatuta eduki zituzten. Bigarren polizia-operazio hark *Egunkariaren* aurkako auzi ekonomikoaren abiapuntua ezarri zuen.

Horiek horrela, ia zazpi urte igaro dira *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenetik, eta liburu hau amaitzen ari ginela hasi da epaiketa, 2009ko abenduaren 15ean, justu hiru urte lehenago (2006ko abenduaren 15ean) Miguel Angel Carballo Espainiako Auzitegi Nazionaleko fiskalak *Egunkaria* ixteko arrazoirik eta deliturik ez zegoela aitortu eta auzia ixteko eskatu zuen arren. Asociación de Víctimas del Terrorismo (AVT) eta Dignidad y Justicia taldeen herri-akusazioaren eskaera nahikoa izan da azkenean epaiketara iristeko. Honako zigorrak eskatzen dituzte bost auzipetuentzat:

- **Joan Mari Torrealdai** – Egunkaria SAko Administrazio Kontseiluko lehendakaria – Zigor-eskaera: 14 urteko espetxealdia eta 15 urteko inhabilitazioa.
- **Iñaki Uria** – Egunkaria SAko kontseilari ordezkaria – Zigor-eskaera: 14 urteko espetxealdia eta 15 urteko inhabilitazioa.
- **Txema Auzmendi** – Egunkaria SAko Administrazio Kontseiluko idazkaria – Zigor-eskaera: 14 urteko espetxealdia eta 15 urteko inhabilitazioa.
- **Martxelo Otamendi** – *Euskaldunon Egunkaria*ko zuzendaria – Zigor-eskaera: 14 urteko espetxealdia eta 15 urteko inhabilitazioa.
- **Xabier Oleaga** – *Egunkaria*ko erredaktoreburu izana – Zigor-eskaera: 12 urteko espetxealdia eta 14 urteko inhabilitazioa Dignidad y Justiciaren eskaeran; 14 urteko espetxealdia AVTrenean.

Auzi ekonomikoari dagokionez, berriz, honako zigor eskaerak dituzte zortzi auzipetuek, nahiz eta epaiketarako datarik oraindik ez dagoen:

- **Joan Mari Torrealdai** – Egunkaria SAko Administrazio Kontseiluko lehendakaria – Zigor-eskaera: 26 urte eta 4 hilabeteko espetxealdia eta 32.891.200 euroko isuna.

- **Iñaki Uria** – Egunkaria SAko kontseilari ordezkaria – Zigor-eskaera: 26 urte eta 4 hilabeteko espetxealdia eta 32.891.150 euroko isuna.
- **Txema Auzmendi** – Egunkaria SAko Administrazio Kontseiluko idazkaria – Zigor-eskaera: 26 urte eta 4 hilabeteko espetxealdia eta 32.891.150 euroko isuna.
- **Joxe Mari Sors** – Egunkaria SAko Administrazio Kontseiluko kidea – Zigor-eskaera: 26 urte eta 4 hilabeteko espetxealdia eta 32.891.150 euroko isuna.
- **Ainhoa Albisu** – Egunkaria SAko administrazio-saileko langilea – Zigor-eskaera: 26 urte eta 4 hilabeteko espetxealdia eta 32.891.150 euroko isuna.
- **Mikel Sorozabal** – Egunkaria SAko administrazio-saileko langilea – Zigor-eskaera: 21 urte eta 9 hilabeteko espetxealdia eta 27.265.727 euroko isuna.
- **Begoña Zubelzu** – Egunkaria SAko administrazio-saileko langilea – Zigor-eskaera: 17 urte eta 2 hilabeteko espetxealdia eta 21.640.933 euroko isuna.
- **Fernando Furundarena** – Egunkaria SAko administrazio-saileko langilea – Zigor-eskaera: 13 urte eta 3 hilabeteko espetxealdia eta 21.167.546 euroko isuna.

Epaiketaren eta etorkizunaren zain, auzipetu guztiek behin baino gehiagotan eskatu diote euskal gizarteari babes. 2009ko uztailaren 31n, esaterako, auzi nagusiko bost auzipetuek agerraldia egin zuten epaiketa egin egingo zela jakitera eman zenean⁹⁵:

Sekulan abandonatu ez gaituen euskal gizarteari bere laguntza, arnasa eta babesaren beharrean jarraitzen dugula esan behar diogu, hemendik epaiketara begira bereziki. Euskara sustatu izanaren errudun, euskal kultura sutsuki sustatu izanaren errudun, euskal komunikabidegintzan gartsuki jardun izanaren errudun... bai. Baina euskara sustatzeak, euskal kultura sustatzeak, euskal komunikabidegintzan jarduteak ez gaitu ETAkoak bihurtzen, tesi polizialak eta akusazio popularrak baieztatzen duen moduan.

13.3. BERRIA, IRAGANAREN OINORDEKO

Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz 2003ko otsailean *Egunkaria* itxi zutenean, jende ugari hasi zen antolatzen herri zein hirietan, gertatutakoari tamainako erantzuna emateko asmoz. Joanmari Larrarte EKT Euskarazko Komunikazio Taldeko kontseilari ordezkariaren arabera, erantzuna ez zen gainera kale-agerraldi eta gisako ekimenetara mugatu (Sarasola, 2008: 2):

95. http://www.berria.info/albisteak/35355/Egunkaria_auziko_bost_auzipetuek_babesa_eskatu_diote_euskal_gizarteari.htm (kontsulta: 2009-12-15).

Horri erantzutearekin batera, herriz herri lan hori, batzorde horiek eta jende horren indarra proiektu berri bat has zedin bideratu zen. Une hartan egin zen lanik handiena segur aski herriz herri eginiko informazio eta komunikazio lana eta diru bilketa izan zen.

Larrarteren arabera, herritar askok eta askok egin zuten proiektu berriaren alde eta, horri esker, denbora gutxian beste egitasmo bat abian jartzeko gai izan ziren (Zenbait Egile, 2006: ork. gabe):

2003an Egunkaria itxita, 90eko hamarkadatik euskarazko komunikazio eremuan egiten ari zen lanaren alde garrantzitsua deseginda utzi nahi izan zuten, baina itxiera hark zuzenean kaltetutakoek ekimenarekin eta euskal gizarte osoaren indarrarekin etorkizunerako giltzarri izango den proiektua abiatzea lortu zen oso denbora gutxian, Euskarazko Komunikazio Taldea SA (EKT taldea).

13 urte lehenago *Euskaldunon Egunkaria* sortu zen bezalaxe, herri-ekimene-
netik sortu ziren EKT eta *Berrria*. Eragile eta enpresa asko izan ziren proiektuaren aldeko apustua egin eta akzioak erosi zituztenak, baita norbanakoak ere. 50 euroren truke, makina bat euskal herritar egin zen EKTren akzionista 2003an. Hala mintzatu zen Joanmari Larrarte parte-hartze horren inguruan *Berriaren* bosgarren urteurrenaren harira eginiko adierazpenetan (Sarasola, 2008: 2):

Ez dugu ahaztu behar 2003an Egunkaria-ren itxieraren ondoren eta euskal gizarteak emandako laguntza eta babesari esker jarri zirela martxan EKT eta BERRIA. Proiektua posible izan da orduan ia bost milioi euroko kapitala bildu zelako, eta herriz herriz egindako lanari esker bildu zen hori.

(...) jendeak bere garaian eginiko ekarpenagatik ez balitz izan, proiektu hau ez zen posible izango.

Egunkaria itxi eta hurrengo goizetik *Egunero* argitaratzen bazen ere, Larrarteren esanetan behin-behinekotasun horretatik irten eta *Egunkariak* utzitako hutsunea beteko zuen euskarazko egunkari berri bat lehenbailehen kaleratzeko helburuarekin jarri zen martxan EKT (Zenbait Egile, 2006: ork. gabe):

EKT taldearen lehen eta presazko helburua berriro euskarazko egunkari nazional bat argitaratzea zen eta horra bideratu ziren lehen egitekoak. Baina egoera hartan, aurreko eskarmentua gogoan, argi izan genuen euskarazko prentsa indartzeko egitasmoa jarri behar genuela abian, egunkari bat sortzearekin batera azpiegitura sendo bat eratzeke oinarriak ere jartzen hasi behar genuela.

2003ko ekainaren 21ean bete zen ametsa, egun horretan *Egunerok Berriari* eman baitzion lekukoa. Euskarazko egunkari nazional berria jaioa zen.

Euskarazko beste egunkari nazional bat sortzea nahikoa ez zela eta testu-
guru hura euskarazko komunikazio-eremuak beharko zituen azpiegituraren oina-
rriak jartzeko ere baliatu behar zela iritzi, beraz, bi oinarri horien gainean eraiki
zuten EKT.

Urteak joan dira ordutik eta, Larrartek aitortzen duenez, iragana ahaztu gabe etorkizunari erreparatzen diote EKTn eta *Berrian*, komunikazio-talde sendoa osatzea ipartzat hartuta (Zenbait Egile, 2006: ork. gabe): «Etorkizunera begira, Euskal Herrian erdaraz ari diren komunikazio taldeei konpetentzia egiteko moduko egitura nahitaezkoa izango da, urrats sendoak eman eta euskarazko hedabideen sarea zabaltzea lortu nahi bada».

13.4. ZABALIK ETA ALDAKETA 16: APUSTU BERRIAK

Berriak ez ezik, euskarazko beste kazeta beterano bik ere jardun betean jarraitzen dute gaur egun: *Herriari* buruz hitz egin dugu dagoeneko liburu honetako 4. atalean; *Argia*, berriz, hustu antzean geratu zen *Euskaldunon Egunkaria* sortu eta gero, egunerokora igaro baitziren astekarian trebaturiko kazetari gehienak. Kinka horretan, talde berria egin beharrean izan ziren *Argiakoak* eta ez zen zeregin erraza, inondik ere. Haatik, lortu egin zuten euren xedea, eta egun nagusiki kazetari gaztez eta ibilbide luzedun beste zenbait lagunez osaturiko egitasmo sendoa da haiena (Rikardo Arregi Kazetaritza Sarien azken urteotako zerrendak, konparazio baterako, gazteen senaren eta irabazten ari diren erreferentzialtasunaren berri eman dezake): paperaren krisia gorabehera, astekaria sendo dago, hilean behin *Larrun* gehigarri mamitsua lagun duela, eta azpimarratzekoa da, era berean, *argia.com*-en multimediarantz egin duten jauzia.

Argia eta *Herria* sortu baino dezente geroago izan arren, bestalde, XX. mendearen amaieran eta XXI.aren hasieran euskarazko kazetaritzaren bidea urratzeari ekin zioten tradizioz eremu horretatik urrun antzean egoniko beste prentsa-talde bik: Vocentok eta Espainiako Grupo 16-ek, hain justu, biek ere astekari banarekin: *Zabalik* eta *Aldaketa16*, hurrenez hurren.

Zabaliki dagokionez, 1999ko azaroaren 27an plazaratu zen estreinakoz, Vocento taldearen magalean plazaratu ere, Nerea Azurmendi zuzendari zela. *Eguna* edo *Hemen* astegunkariaren antzeko formatua hartu zuen hastapenetan, hau da, egunkari formatuan baina asteroko maiztasunez.

Batik bat asteburura begira sortutako aldizkaria zen, eta aisialdiari buruzko gaiak eta asteburuari loturikoak jorratzen zituen nagusiki. 2002. urtean, errotatibak ematen zituen aukerez baliatuta, kolorez hornitu zuten. 2005eko urtarrilaren 20an, berriz, eraberrituta kaleratu zuten: formatua txikitu egin zuten, orrialde gehiago erantsi zizkieten, eta, horrez gain, ostiraletan beharrean, ostegunetan jarri zuten salgai. Ez hori bakarrik: *El Diario Vasco* eta *El Correo* egunkariekin batera eros-teko aukera ematen ere hasi ziren, 0,35 € gehiagoren truke. Ez zuen, ordea, arrakastarik izan, eta jaio eta sei urtera (2005eko abenduaren 29an) atera zuen azken zenbakia.

Euskara hutsez ailegatu zen *Aldaketa16* astekaria ere. *Cambio16* aldizkariaren parekide, 2003ko urriaren 7an plazaratu zuten lehen zenbakia. Gorka Landaburu kazetari zarautzarraren zuzendaritzapean, asteartero kioskorako bidea egiteari egin zion *Aldaketa16*k. Politika, ekonomia, kultura edota gizartea arloetako gaiak landuta, informazio orokorreko astekari gisara aurkeztu zuen bere burua. Aitapontekoa zuen, ordea, *Aldaketa16*k: *Cambio16*, hain zuzen ere (Iturriagaetxebarria, 2003: 18): «Aldizkariaren % 40 gutxi gorabehera *Cambio16* aldizkarirako idatzitako testuen itzulpenak izango dira, eta gainontzeko % 60 produkzio propioa».

Nolanahi dela, kazeta berriaren zuzendaritzak argi utzi nahi izan zuen *Aldaketa16* ez zela *Cambio16*en kopia hutsa izango. Proiektuaren hastapenetan, esate baterako, enpresa argitaratzaileak gutun bat helarazi zuen hedabideetara eta honako asmo hauek jakinarazi zituen bertan⁹⁶:

... helburu bikoitzarekin jaio da: euskal informazioaren merkatuan era honetako argitalpenen alorrean dagoen hutsunea betetzea batetik, eta bestetik, nazioartean euskara hedatu eta euskal nortasunaren zantzuak, sinboloak, erakundeak, kultura eta tradizioa defendatzeko baliabiderik eragingarriena bilakatzea.

(...) Gure asmoa *Aldaketa16* euskaldun guztion arteko lotura izatea da, hala Euskal Herrian bizi direnena nola munduan sakabanatuta dauden euskaldunen komunitateena. Euskararen normalizazioarekin eta hedapenarekin batera, *Aldaketa16* agertoki libre eta independente izan dadin nahi dugu, askotarikoa eta egiatia, iritzi eta planteamendu guztiak plazaratzeko gunea, betiere errespetuz eta askatasunez adierazita.

(...) *Aldaketa16* aldizkarian gauzei beren izenez deituko diegu, baina horretarako irakurle eta berriemaile izango zareten guztien laguntza behar dugu. Zeuen irizpideekin bat datorren komunikabidea eskaini nahi dizuegu, norberak bere iritzia iritsita, elkarrekin garapenean eta elkarbizitzan, bakean eta askatasunean aurrera egiteko.

Gorka Landaburu *Aldaketa 16*ko zuzendaria bera, berriz, honela mintzo zitzaion *Berriari* (Iturriagaetxebarria, 2003: 18):

Iritzi guztiak sartuko dira; nahi duenak bere iritzia emateko aukera izango du, batez ere herri honetan ahotsik ez daukatenek. Udaletan lan bikaina egiten duen jende asko dago, baina euren burua agertzeko aukerarik ez daukatenek dira. Horiei ere aukera eman nahi diegu. Herri honetako klase politikoak ez du akordioak lortzeko etsenplurik ematen, baina gu horretan ahaleginduko gara. Bizitzaren eskubidea eta giza eskubideak ere defendatuko ditugu, horiek baitira herri honetan defendatzeko ditugun gauzarik garrantzitsuenak.

Sei urte joanak dira *Aldaketa 16* lehen aldiz kioskoetan agertu zenetik, eta merkatuan lekua topatzea kostatzen ari zaio (Zuberogoitia, 2006: ork. gabe):

96. Ikus berria in <http://sustatu.com/1064415153> (kontsulta: 2009-12-15).

Euskarazko kazeten merkatu txikian lekua topatzea ez da erraza, baina horretan saiatzen ari da kazeta hau. Ez du lan erraza izango, besteak beste zenbakiko botatzen dituen 2.500 aleen erdia inguru (1.200 gutxi gorabehera) Hego Euskal Herriko liburutegi eta zentro publikoetan banatzen direlako; hau da, oso harpidedun partikular gutxi dauzkatela (134 baino ez). Botaldi bakoitzeko kioskoetara joaten diren aleak, azkenik, 1.000 pasatxo dira.

Zailtasunak zailtasun (ohiko prentsak ez ditu garairik gozoenak bizi, bistan denez), 2003an hasitako bidean aurrera jarraitzen du egun Gorka Landaburuk zuzenduriko proiektuak.

13.5. PRENTSA ESPEZIALIZATUA: GAIK ANITZ

Prentsa espezializatuarena, oro har, jendarte zabalarentzat ezezaguna den kazetari-tza-eredua da. Zientzia, teknologia, arkitektura, ekonomia, pentsamendua, gizartea, literatura, musika, hizkuntza edota kultura dira, beste askoren artean, prentsa mota horretan jorratu ohi dituzten gaiak, modu espezifikotan landuta betiere.

Anaia txikien artean, txikiena da prentsa espezializatua Jose Inazio Basterretxearen irudiko, baina ez horregatik kalitatez eskasena (Zenbait Egile, 2006: ork. gabe):

Euskararen hizkuntza-komunitatean, merkatu oso urria duen alor bati buruz ari gara. Txikien artean, txikiagoaz. *Terra incognita*, askorentzat.

(...) Agian ez dira asko euskarazko argitalpen espezializatuak, gaien aldetik oso zehatzak eta lerrotuak izaten diren horiek. Baina, zer ale onak kaleratu dituzten behin baino gehiagotan! Inoiz oso onak, sariak ere jaso izan dituzte batzuek. Eta, lan sakonen eta isilen lekuko izaten dira askotan sariok: ezezaguna erreskatatzen dute eta, ez-ezagutzaren basamortutik.

Basterretxea euskarazko prentsa espezializatuaren hutsunez ere mintzo da (Zenbait Egile, 2006: ork. gabe):

Bat: gai batzuk ez ditu inork lantzen modu espezifiko eta sakonean. Bi: sektorean ageri den joera orokor bat errepikatzen da hemen, alegia, kasu nabarmen batzuetan izan ezik, zer gutxi sinesten den sinergian eta espazio komunetan.

Euskarazko prentsan dezente dira gai espezializatuaren inguruan argitaratzen diren aldizkariak. Argitalpen bakoitzak oso errealitate ezberdina bizi du, ordea. Izan ere, batzuk indartsu kaleratzen ari diren bitartean, beste zenbait biziraupenaren eta heriotzaren arteko mugan daude, kolokan. Aldizkariaren ezaugarrien aldetik ere, ezin konpara daitezke ez maiztasunean, ez kazeten neurri eta formatuetan, ezta gaiak lantzeko moduan ere, astekari espezializatu oso teknikoak zein dibulgazioa helburu duten aldizkari arinagoak ere topa baitaitezke.

Euskarazko prentsa espezializatuaren panorama laburbiltze aldera, hona hemen Euskal Herrian euskaraz argitaratzen diren prentsa mota horretako argitalpen nagusien zerrenda:

Izena	Maiztasuna	Gaia	Argitaratzailea
ZIENTZIAK, MEDIKUNTZA eta TEKNOLOGIAK			
<i>Ekaita</i>	Urtean bi zenbaki	Zientzia eta teknologia	EHU
<i>Elhuyar</i>	Hilabetekaria	Zientzia eta teknologia	Elhuyar
<i>Aldiri</i>	Urtean lau zenbaki	Arkitektura	UEU
GIZA eta GIZARTE-ZIENTZIAK			
<i>Bat</i>	Urtean lau zenbaki	Soziolinguistika	Soziolinguistika Klusterra
<i>Eleria</i>	Urtean behin edo birritan	Buletin juridikoa: testuak eta hausnarketak	Eusko Ikaskuntza
<i>Gogoa</i>	Urtean bi zenbaki	Hizkuntza, ezagutza, komunikazioa eta ekintza	EHU
<i>Jakin</i>	Urtean lau zenbaki	Gizarte eta kultura munduaren azterketa	----
<i>Larrun</i>	Hilabetekaria	Pentsamendu eta eztabaida aldizkaria	<i>Argia</i> astekaria
<i>Uztaro</i>	Urtean lau zenbaki	Giza eta gizarte-zientziak	UEU
<i>Kondaira</i>	----	Historia	UEU
LITERATURA eta KULTURA⁹⁷			
<i>Bertsolari</i>	Urtean lau zenbaki	Bertsolaritza	Bertsolari taldea
<i>Egan</i>	Urtean bi zenbaki	Literatura	Euskal Herriaren Adiskideak elkarte
<i>Entzun</i>	Urtean sei zenbaki	Musika	----
<i>Hegats & Kalegats</i>	Urtean bi zenbaki	Literatura	Euskal Idazleen Elkarte

97. Ez dugu taula honetan sartu euskara hutsezkoa ez delako (euskaraz eta ingelesez argitaratzen da, erdi eta erdi), baina aipamen berezia merezi du bi hilerik behin kaleratzen den *The Balde* kazetak ere. Kultura garaikidea jorratzen du *The Baldek*. Informazio gehiago: <http://www.thebalde.net/> (kontsulta: 2009-12-15). Antzeko zerbait esan daiteke giza zientzietan zentratutako *Euskonews* astekari elektronikoaz (<http://www.euskonews.com>): euskaraz eta gaztelaniaz plazaratu ohi dute, eta zenbaitetan frantsesezko testuak ere agertu ohi dira.

<i>Idatz eta mintz</i>	Bi edo hiru zenbaki urtean	Literatura	Labayru Institutua
<i>Karmel</i>	Urtean lau zenbaki	Literatura	----
<i>Maiatz</i>	Urtean bi zenbaki	Literatura	Maiatz Elkarte
HEZKUNTZA, IRAKASKUNTZA eta HIZKUNTZA			
<i>Administrazioa Euskaraz</i>	Urtean lau zenbaki	----	IVAP Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea
<i>Aizu!</i>	Urtean hamar zenbaki	----	AEK
<i>Euskararen Berripapera</i>	Hilabetekaria	----	Eusko Jaurlaritza – Hizkuntza Politikarako sailburuordetza
<i>Euskera</i>	Urtean hiru zenbaki	----	Euskaltzaindia
<i>HABE</i>	Urtean hamaika zenbaki	----	HABE
<i>Hik Hasi</i>	Urtean hamar zenbaki	Pedagogia alorreko hausnarketak eta berriak	Hik Hasi taldea
<i>Litterae Vasconicae</i>	Urtean behin edo birritan	Euskara	Labayru Institutua – Iker atala
<i>Senex</i>	Urtekaria	----	Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte
<i>Tantak</i>	Urtean bi zenbaki	Hezkuntza	EHU
<i>Hizpide</i>	Urtean hiru zenbaki	Euskararen didaktika	HABE-Ikasbil
AISIA, BIDAIAK, KONTSUMOA			
<i>Nora</i>	Hilabetero	Bidaiak	Sua-EKT
<i>Aisia biziz</i>	Urtean lau zenbaki	Aisia	Urtxintxa Eskola
<i>Zazpi haizetara</i>	Hilabetero	Bidaiak	Astero argitaletxea
<i>Eroski</i>	Hilabetero	Kontsumitzaileentzako informazioa	Eroski kooperatiba

*Iturriak: Jose Inazio Basterretxea (Zenbait Egile, 2006) eta lanketa propioa.

Argi dago beraz, bere xumean bada ere euskarazko prentsa espezializatuak fruitu ugari eman duela. Kazeta horietako askok du, gainera, habia egin Interneten (*Kondaira*⁹⁸, berbarako, sarean baino ez da ateratzen). Ziberespazio euskaldunari erreparatzeko garaia dugu, beraz, honenbestez.

98. <http://www.kondaira.com>

ATALEAN BALIATURIKO ITURRIAK

- Agirre, L. (2003): *Ipurtargiaren itzal luzea, Euskaldunon Egunkaria*, Andoain.
- , (2004): *Gezurra ari du: 'Egunkaria'-ren itxieraren kronika*, Aise liburuak, Alberdania, Elkarlanean, Erein, Elhuyar Fundazioa, Pamiela, Susa, Ttartalo eta Txalaparta, Andoain.
- , (2008): “Xalotasuna erauzi zutenekoa”, *Berria*, 2008-02-20, 12-13.
- Basterra, J. (1988): “Egunkariranzko bidean, Antza inprimategia”, *Egin*, 1988-11-11, 25.
- Iturriagaetxebarria, A. (2003): “Euskararen esparrua ‘zabaltzeko’ asmoarekin”, *Berria*, 2003-10-09, 18.
- Ortiz de Landaluze, A. (1988): “Datorren igandean ‘Argia Eguna’ ospatuko da”, *Eguna*, 1988-11-10, 8.
- Sarasola, A. (2008): “Herriz herri gizarteari bostekoa luzatzen”, *Berria*, 2008-04-06, 2-3.
- Uria, I. (2008): “Euskaldunon askatasunaren alde”, *Berria*, 2008-02-20, 7.
- www.egunkaria.info
- www.sustatu.com
- Zalakain, J.M. (1993): *Joxemiren uzta, euskal prentsa herri proiektua da*, Txalaparta, Tafalla.
- Zuberogoitia, A. (2006): “Informazio-prentsa... nazionala?”, in Zenbait egile, *Gu gara euskal prentsa. Hautu baten kronika 1976/2006*, [DVD], Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.

14. Muga fisikoak apurtzen: unibertso elektronikoaren garaia

Beti pentsatu izan dut Internet euskararen arazoa konpontzeko bitarteko aproposa dela. Gaztelaniaren eta frantsesaren itzalean, euskarak asko sufritzen du. Beraz, hizkuntza horietan aurki ditzakezun edukiak euskaraz ematera mugatzen bazara, nahiz eta euskalduna izan, erraztasunera joko du jendeak. Oso militantea izan behar da bat euskararen aldeko apustua egiteko. Hori konpentsatzeko, mundu garbiak, euskaraz bakarrik aurki daitezkeen guneak eraiki behar dira. Internetek halako gauzak ahalbidetzen ditu. Euskaldun guztiengana irits daiteke inolako banaketa arazorik gabe, eta hainbat produktu eskaini ditzake kostuak handitu gabe. Euskararen mundua eraiki daiteke horrela, mundu hibridoa. Euskaraz dauden eduki guztien atari nagusi bat egin daiteke, eta, aldi berean, gune bakoitzak bere izaera propioa mantentzea. Mundu errealean halakorik egitea oso zaila da. Ni neu konbentzituta nago Internetek asko eman ahal diola euskarari, eta ahal dudana egingo dut sarean bere presentzia ziurtatzeko. Badakit ez dela kontu erraza izango, batzuetan pixka bat parrokialak baikara gauzak egiteko orduan. Baina azkenean lortuko dugula uste dut.

Javier Etxebeste zen dagoeneko urrun samar geratu zaigun 2003an horrela mintzo zena (ikus Ezkerra, 2003: ork. gabe). *Urrun samar* baldin badiogu, ez da horrenbeste ordudunik pasatutako urteengatik (gutxi baitira, gutxi direnez), ezpada Interneten aldaketa handia izan delako ordutik hona (Etxebestek, bestalde, bazuen zer edo zer jakiteko arrazoirik, artean Yahoo! Europe-ko zuzendaria baitzen). Nolanahi dela, aldaketa are handiagoa antzematen da mugarria urte batzuk lehenago jarriz gero. Luistxo Fernandezek ere, esate baterako, Internet eta euskara izan zituen hizpide 1990eko hamarkadaren amaieran, baina oso bestelakoa zen haren ikuspegia (1998: 11-12):

Etxeparek *Jalgi hadi plazara* kantatu zion euskarari; baina, jarraian, 26 urte mutu segitu zuen hizkuntzak liburuetan. Bataila hura galdu genuen: ez inprentarik, ez estaturik, ez berpizkunderik, ez kulturarik... Trena galdu genuen, eta treneko bagoietan zihoan zirko osoa. Ez ote gaude orain ere orduan bezala, geltokian kieto? Ez ote du jada makinistak txilibitua jo?

Badugu jada Etxepare porno bat⁹⁹. Baina apenas dugun beste ezer. Biluzik gaude, eta oraingoan ez da pornografia, ez erotismo eta ez nudismo. Biluzik gaude miseria gorrian gaudelako.

99. Vicente Gil de Paulesi buruz ari da Fernandez (1998: 9): «(...) nik badakit» dio Gil de Paulesen ipuin batez, «*Linguae Vasconum Primitiae* haren mailako mugarri bat dela *Goigoñoei*

Zer zegoen euskaraz sarean garai hartan? Fernandezek berak erantzungo digu (1998: 23):

1996ko urritik, bi urte hauetan, euskal internautak biderkatu egin dira batek daki zenbatetan. 1996an, atzerriko unibertsitateetan ikasten ari ziren gazteak ziren Interneteko euskaldun gehienak. Orain, estatistikak sinetsi behar baditugu, 30.000 internauta euskaldun inguru omen dago hor nonbait, ziberespazioan galduta. Ez Euskal Herriko internautak, baizik eta euskaldunak, euskaraz dakienak. Hogeita hamar mila? Eta zer egiten dute guztiek izebergaren azpian?

(...) Sortu dira halako proiektu telematiko batzuk, euskaldungotik sortu ere, eta euskaldungora begira, baina itxura batean ez dute indarrik edo ikusmirarik internauta euskaldunentzako espazio propio bat egituratzen hasteko. Eusnet, Jalgi, Ametzagaina taldea, Jaurlaritzak nolabait babesturiko Erlea proiektua, EHETik hurbil dagoen Ibainet ekimena... Ez dira iritsi, oraindik behintzat, katalanek Vilaweb edo galiziarrek Vieiros-ekin dutena errepikatuzera: Interneteko informazio zerbitzu, gida eta topagune bat.

Zein zen hutsune horren ondorioa? Fernandezen irudiko, honako hau (1998: 24-27):

Hortxe dago arriskua: euskaldunak hasi gara lotzen Internetera, eta ez dugu benetan euskarazko eduki eta zerbitzurik topatzen bertan, ez dugu Ziber-Euskal-Herririk aurkitzen. Aldiz, beste mila ate eta leiho aurki ditzakegu, eta haietara jotzen dugu, zuzenean. Izebergaren azpitik irteten garenean, ez dugu euskal arrantzale galdu horien amuarekin topo egiten. Beste edozeinen sare pelagikoetan erortzen gara.

(...) Nora goaz horrekin? Anekdotak bat bihurtzera goaz, ez beste inora. Interneten euskaldunak ez gara anekdotak bat baizik.

Idea hori behin eta berriro errepikatu zuen Fernandezek lan horretan (67. orrialdean, berbarako, hauxe utzi zigun idatzirik: «Eta orain, ondo edo txarto, hizkuntza kodetu estandar bat halamoduz egin dugunean, orain baztertuta uzi behar gaituen beste jauzi teknologiko baten aurrean gaude») Horregatik ausaz, liburu hori idatzi eta urte gutxi batzuk geroago Sustatu erreferentziatzko weblogaren sortzaileetako bat izan zen (aurrerago aipatuko ditugu zehatzago blog eta weblogei buruzko gorabeherak). Hara zer dioten Sustatukoek euren gunean euren buruaz (aurrerago ikusiko dugunez, Joxe Aranzabalen arabera —2007— berau izan zen euskarazko lehen bloga)¹⁰⁰:

maittea-maittea euskararen historian. Gutenberg galaxian Bernat Etxepare guretzat goizeko izarra izan zen bezala, ziberespazioko aro berri honetako lehenbiziko supernova disiratsua Vicente Gil de Paules pornografoa izan da. Goigoñoen ipuin hori, pornografia hutsa alegia, izan da ziberespazioan, Interneten, modu digital hutsean paperean baino lehenago euskaraz argitaratu den lehenbiziko literatur lana. Iruñeko sex-shop batek jarri zuen *online*, erran nahi baita Interneten, kontaktuen sekzioaren eta kontsoladore salmentaren artean».

100. <http://sustatu.com/zerda> (kontsulta: 2009-12-10).

Interneteko albistegi bat da Sustatu. 2001eko azaroan sortu zen: euskarazko lehen blogetakoa izan zen, eta orain ere webloga izaten jarraitzen du nagusiki. Weblog kolektiboa, non artikulua nagusiak idazteko aukera irakurleen esku ere badagoen. Sustatu.com Goiena Komunikazio Zerbitzuek eta CodeSyntax Interneteko zerbitzu-enpresak sortutako ekimena da.

Sustatu baino lehen ere izan zen mugimendu esanguratsurik euskal ziberespazioan. *Xuxen*, berbarako, euskarazko zuzentzaile automatikoa, abian zen ordurako, EHUren Donostiako Informatika Fakultateko informatikari euskaldunek sortua¹⁰¹. *Argiak*, berriz, 1997an eratu zuen *Sareko Argia*¹⁰², Aitor Lopez de Aberasturik kaixo.com-en (euskarari plaza zabala eskaini zion ataria) ibilbideari ekin zion urte berean¹⁰³, eta urtebete geroago (1998an) hasi zen Eusko Ikaskuntza *Euskonews* (euskal kultura eta zientziaren gaineko astekari elektronikoa) plazaratzen¹⁰⁴. Azpimarragarria da, halaber, Jabi Zabala eta Patxi Gaztelumendik 2000n abiarazitako www.irratia.com egitasmoa, euskarazko irrati digitalaren oinarriak jarri zituen webgunea¹⁰⁵.

Mugimendu esanguratsutzat jo ditugu horiek guztiak, baina argi dago ez zirela asko izan. Horregatik beharbada, modu honetan mintzatu zen Josu Landa Bilbon eginiko Euskarazko Kazetaritzaren I. Kongresuan (2004: 410):

Euskarazko hedabideen “esparru autonomoari” dagokionez, komunikaziorako teknologiek eskaini diguten aukera historikoa galtzen ari garela egingo nuke. Hedabide tradizionalak azken hamar urteetan gauzatu dutena aztertuz gero, etsipenerako bidea besterik ez dit ematen.

101. Fernandez arabera (1998: 70), «hitzez hitz hartu zituzten euskal gramatika eta hiztegi guztiak, eta banan bana egin zieten autopsia forma posible guztiei. Euskara den bihurriarekin, *Xuxen* egitea gaztelaniazko edo ingelesezko zuzentzaileak egitea baino mila bider zailagoa izan da (eta mila bider merkeago ere bai: dirurik ez delako egon, jakina)». Amezaga, Arana eta Azpillagaren irudiko (2010: ork. gabe), berriz, «zuzentzailea mugarria izan zen euskara informazioaren teknologia berrien munduan sartu zuen neurrian; zeregin nekeza inguruan nagusi diren hizkuntzen gramatika egiturarekin zerikusirik ez duen hizkuntzarentzat, hizkuntza nagusi horien inguruan garatu baita halakoak egiteko oinarritzko teknologia gehiena. Bestalde, zuzentzaile horrek euskara teknologia berrietara egokitzeko moduko hizkuntza delako irudia finkatzen lagundu ez ezik, ikaragarri lagundu zuen artean estandarizatu eta arautzeko prozesuan zegoen ortografia hedatzen ere; ez dugu ahanzi behar literaturako euskara batua 60. hamarkadaren amaieran sortua zela. Gaur egun, bertsio berri-tuekin, euskaraz idatzitako testuetarako erreferentziazko zuzentzailea izaten segitzen du *Xuxenek*».

102. www.argia.com

103. <http://kaixo.com/>

104. www.euskonews.com

105. Proiektu horrek bilakaera interesgarria izan du gerora. Zabala eta Gaztelumendik webgunean bertan diotenez (<http://www.irratia.com/aurrekariak>; kontsulta: 2009-12-10), «(...) 2004ko abenduaren 14an hasi ginen, beraz, irratia.com webgunearen 2.0 bertsioarekin (bloga bihurtuta). Izen bereko zuzeneko irratsaioa ere egiten dugu asteazkenero 13:00etatik 14:00etara. Bilbo Hiria sintonian entzun daiteke *irratia.com* saioa (FMaren 96.0an Bilbo Handian eta Interneten bidez mundu osoan). Teknologia berriak, gizarte gaiak, musika, Internet eta euskal blogosfera izaten ditugu hizpide astero ordubetez eta saiook, blog honetan aipatzeaz gain, bertan jartzen ditugu eskuragarri, *podcast* egiten dugu beraz».

Esan izan da, eta egia da, euskaldunok hedabideen arloan atzerapen historiko baten kontra borrokatu behar izan dugula beti. Beste komunitateek baino beranduago hasi, baliabide urriagoz saiatu eta ahal bezala ahal dena egitea izan ohi da gure patua. Horixe gertatu zen prentsarekin, irratiarekin, telebistarekin...

Internetek zabalduak informazio ahalmenari dagokionez, aitzitik, ez daukagu ohiko bertsio hori hain erraz onartzerik. Lasterketa horretan besteekin bateratsu abiatzeko aukera izan genuen. Ezin, beraz, atzerapen kronologikorik aipatu. Hizkuntza gutxitua izatearen ondorio omen den baliabideen urritasunari dagokionez, ezin esan euskarri berri horretan dirua beste euskarrietan bezain faktore erabakigarria denik. Salbuespenak salbu (...) benetan patetikoa iruditzen zait hedabide tradizionalak Interneten egiten dutena: paperean argitaratutakoa sareratu, aski modu erabilkaitzean maiz; paperean argitaratzeko luzeegia dena (txostenak, agiria...) toki mugarik gabeko weben ipini; eztabaida gaiak planteatu; eta ezer gutxi gehiago.

Ezer gutxi gehiago horren barruan oraindik indarrean diren ekimen hauek aipatu zituen: Nontzeberri (Landaren irudiko, haien webguneak¹⁰⁶ modu aipagarrian txertatzen zuen irudia), Indymedia Euskal Herria (mugimendu alternati- boen hedabide-sarea)¹⁰⁷, BIZKAIE! (bizkaierazko aldizkari elektronikoa garai hartan, egunero diharduen albistegia gaur egun)¹⁰⁸ eta EIZIERen *Itzul* posta- zerrenda (500 kide zeuzkan garai hartan).

Gauza handirik ez, beraz. Haatik, Luistxok aipaturiko makinistaren txilibitua urte batzuk geroago entzun zen ozen antzean bazter hauetan, web 1.0tik web 2.0rako jauzia eman zenean. Joxe Aranzabalek emango dizkigu jauzi horri buruzko argibideak (2007: 4):

1991n Tim Berners-Lee ingelesak World Wide Web asmatu zuenetik, sarea alegia, gure komunikatzeko moduak erabat aldatu dira. (...) Hasierako urte haietan, Netscape eta Mosaic nabigatzaileen garaian, webguneak antolatzen ziren dendetako erakusleihoak bezala, jendeak sartu eta ikus zezan zer zegoen han¹⁰⁹. Informazio gordailuak ziren, erabiltzaileek asko jota irakur zezaten han jarritakoa. Azken lau urteotan, berriz, sarea erabat aldatu zaigu, webgune dinamikoak agertu dira, eta erabiltzaileak, lehenengo aldiz, ahotsa hartu du, aukera du-eta orain bere arrastoa uzteko iritzi bidez, bere edukiak beste erabiltzaileekin batera antolatzeko eta komunitateak sortzeko (...). Blogak sortu dira, wikiak, txatak, argitarapen pertsonalak eta beste hainbat era sortzeko eta *peer-to-peer* komunikatzeko; jendea gero eta gehiago antolatzen da eskaintzeko informazioa, entretenimendua eta zerbitzuak. Internet berri honi hainbat izen eman zaizkio: Web 2.0, Web bizia, Hipersarea, Web eraginkorra eta irakurri/idazteko¹¹⁰ Web, besteak beste.

106. www.nontzeberri.com

107. <http://euskalherria.indymedia.org>

108. www.bizkaie.biz

109. www.kaixo.com ataria joera horren adibide garbi samarra da.

110. Irakurri eta idazteko... eta ikus-entzunezkoen euskarri izateko, ezen banda-zabalera hedatu eta konexioak bizkortu ahala nabarmen ugaltu baitira ikus-entzunezko edukiak sarean. Luistxo

Webgune zurrunetatik jendeari edukiak modu errazean sortzeko aukera ematen zieten webgune dinamikoetara pasatu ginela, berba batean. Fernandezek dioskunez, horrek eragin zuzena izan zuen komunikazio-munduan ere, bitartekariak ezinbesteko ziren garaia atzean utzi eta bitartekari gabeko komunikazioa ahalbidetu zuelako (2004: 399):

(...) hor sortzen den lehen ebidentzia hauxe da: bitartekaritarik gabeko kazetaritza, neurri handi batean, kazetaririk gabeko kazetaritza da. Nola aldatzen da komunikazioaren, informazioaren zikloa, lehen eskema hartan [ikus Fernandez, 2004: 397] Internet sartzen dugunean? (...)

Horren aurrean, Interneten zer? Zuzenean bota. Erakunde ekologista batek ez du medioetara informazioa zabaltu beharrik Interneten zer aterako dioten ikusteko, bere webgunean gauzak esan, horixe da egin dezakeena eta egin behar duena.

Indymedia informazio sare alternatiboaren leloa gogora dezagun: *don't hate the media, be the media*.

Erakundearen eta publikoaren arteko komunikazio modu honetan, kazetariarentzako tokirik ez dagoela ematen du... Ezabatu ditugu eskematik hedabideak eta kazetariak.

Josu Landa ere (2004) gisa bertsean mintzatu zen Fernandezek bere *speech*-a botatako foro berean, Euskarazko Kazetaritzaren I. Kongresuan. Ez alferrik, Dan Gillmorrek urte horretan bertan plazaratu zuen *We the media. Grassroots journalism, by the people, for the people* erreferentziazko lana, kultura berria hedabideen mundura ere iritsia zela adieraziz.

Eta zertan eragin ziezaiokeen horrek guztiak euskarazko komunikazioari? Fernandezek irudiko (2004), aukera handiak zabaltzen zizkion aro berri horrek; ohiko bideei jarraituz, barbarako, ezinezko zatekeen euskarazko xake-albizkari bat plazaratzea, banaketa- eta inprimatze-kostu altuak eta merkatu urria tarteko. Interneten, aldiz, banaketa- eta inprimatze-kostuak desagertu egiten ziren (haatik, merkatu urriak bere horretan jarraitzen zuen, eta ezin ahantzi era berean Interneteko hedabideen diru-sarrera urriak, baina azken atalean hartuko ditugu ahotan eragozpenok), aukera berriei eta zaleen sorkuntza-goseari ateak parez pare zabalduta...

Fernandezek urte batzuk lehenago iragarria zuen hori (1998: 30): «Internet, gaur egunean, idatzizko media da. Ikus-entzunezko alderdien ginetik, idatzizkoa da nagusi une honetan. (...) Internet hasten denean, benetako informazioaren autobide hori garatzen denean, ikus-entzunezko osagarriak edo multimedia deitzen diren horiek, testu idatzi hutsa baino askoz gehiago izango dira kantitatean». Hala ere, XXI. mendea ondo hasita zela joera hori artean gailendu barik zegoen, Fernandezek berak hau baitzioen sei urte geroago (2004: 406): «(...) Kazetari teknika ere, gauza bat da, funtsean, Interneten: idazten jakitea, gauzak kontatzen jakitea. Internet oro har, eta bereziki blogak, medio idatziak dira. Ez multimedia eta ez kristorik, ez sinetsi halakorik: medio idatzien kategoriakoa da Internet. Eta hortaz, abilezia tekniko nagusia behar du Interneteko komunikatzaileak: ondo idaztea, oro har, eta bereziki Interneterako. Horrez gain, Interneteko teknologiaren gaineko kontrol hobea duenak hobeto komunikatu ahal izango du, baina bigarren mailakoa da hori...».

Horregatik ausaz, 1998ko Fernandezen iragarpen ilunen aldean baikor mintzo zen Anjel Lertxundi (Aranzabalek aipatua in 2007: 3): «Bi milatik gora euskaldun beren burutazio, gogoeta eta kritikak euskaraz plazaratzen. Blogari izan gabe blogetako erantzunetan parte hartzen dutenen kopurua ere erantsi behar zaio aurreko kopuruari... Historian zehar noiz jardun du hainbeste jendeak euskaraz idazten?».

Zer jazo zen, baina, hain denbora-tarte gutxian jendearen pertzepzioa horrenbeste aldatzeko? Aranzabalek lehentxoago aipatu digun jauzi erabakigarria, Web 1.0tik 2.0rako aldaketa, zeinak, besteak beste, blogen eztanda ahalbidetu baitzuen (Aranzabal, 2007: 6):

1997an lehen blogak agertu ziren Interneten. Blogak dira webgune batzuk, txantilioitan datoz aurretik eginda, eta hor edukiak modu kronologikoan ordenatzen dira: berrienak goian eta zaharrenak beheago. Jendeak erantzun egin dezake bertan eta beste batzuek erantzun horri erantzun, eta horrela elkarrizketa etengabea sor daiteke blogen inguruan. Gainera, blogak elkarren artean lotzen dira, loturak erabilia. Blogak pertsonalak izan daitezke edo taldekoak [azken horiei, Sustaturenari adibidez, weblog ere deitu ohi zitzaien]. Baita tematikoak ere.

Blogekin aldatu egin dute Internet, beronen beste aro bat ispilatzen baitute, aro bat non erabiltzailea eduki sortzaile eta partekatzaile bihurtzen den¹¹¹. Web 2.0 deituaren ikurrik behinenetakoa bihurtu dira, wikiekin eta beste aplikazioekin batera.

Baiki: blogen sorrera mugari izan zen Interneten, baita euskarazko komunikazioan ere, hurrengo azpiatalean ikusiko dugun moduan.

14.1. BLOGAK: ZIBERESPAZIOA KOLONIZATZEN HASI GINENEOA

Urte gutxitan itzelezko hazkundera izan duen errealitatea da blogosferarena. Aranzabalek hazkunde horri buruzko datu zehatzak damaizkigu (2007: 6-7):

2007ko apirilean Dave Sifry-k 70 milioi zenbatu zituen mundu osoan “State of the Blogosphere” txostenean. Lehen aldiz argitaratu zuenean txosten hori, 2004ko urrian, artean 4 milioi blog zeuden. Gaur egun, oster, 70 milioi. Technorati blog bilatzaileak zenbatzen ditu blog horiek, baina denak ez daude bizirik. Sifry-ren iritziz, blog horien % 55 bakarrik daude bizirik, alegia, azken hiru hilabeteotan behin gutxienez zerbait argitaratu dutenak. Horrek esan nahiko luke 38,5 milioi blog bizirik daudela,

¹¹¹¹. Hona Fernandezen gogoeta interesgarri bat, horren harira (2004: 406): «Ez dut uste inor harritu beharko lukeenik. Gaur egungo medio tradizionaletan ere, informazio interesgarriena ez da kazetariak prozesatutako informazio arrunta, sekzioak titularrez betetzen dituzten albisteak edo teleberriko eskaletako piezak, baizik eta sinadura berezia daramaten analisiak: zutabegileak, analista politikoek kontatzen dizkiguten erradiografiak eta sekretutxoak, autoretza argia markatuta daramaten erreportaiak... Autorearen zutabean, hortxe dago kazetaritza hedabide tradizionaletan, inon badago. Eta zutabearen elementu antzekoena, sarean, bloga da (...).» Blogekin indarra galdu dute azken boladan Twitterren, sare sozialen eta enparauen mesedetan, baina gainerakoan Fernandezek kazetaritzari buruz egiten duen hausnarketak gaurkotatzen duelakoan gaude.

zelan edo halan. Kontua da bost-zazpi hilez behin blogosfera biderkatu egiten dela (Sifry, 2007).

Aranzabalen iritziz, euskaraz diharduen blogosfera ere ez da salbuespena (2007: 5):

Euskararen esparruan ere beste horrenbeste gertatu da. 2001ean Sustatu.com agertu zenetik, bera izan baitzen lehen bloga euskaraz, blogek sekulako hazkundera izan dute. Hasieran Sustatu izen zen lehen euskal blogarien eskola. Ondoren etorri ziren blog komunitateak, hala nola, Eibar.org, Goiena.net eta Uztarrria.com, eta horien inguruan hainbat jende hasi zen blog pertsonalak egiten. Baina benetako eztanda gertatu zen 2005etik aurrera, lehen blog plataforma automatikoak agertu zirenean: Blogari.net, Blogak.com eta Mundua.com. Harrezkero, edozeinek egin zezakeen blog bat, aurretik ezelango ikastarorik egin beharrik barik. (Aranzabal, 2006a). Eta, halaxe, euskarazko blogak perretxikoak bezala ugaritu dira azken bi urteotan.

Ba ote dago, baina, bat-bateko ugaltze hori zenbakitara ekartzetik? Hori ere egin du Aranzabalek (2007: 7):

Euskal blogosfera 2001ean sortu zen, Sustatu.com blogarekin. Gaur egun, berriz, ia sei urte igarota, **5.464** blog ditugu euskaraz, Farooan¹¹² argitaratu genuen moduan, 2007ko uztailaren 9an. Jakina, blog horiek guztiak ez daude bizirik. Euskarazko blog horiei aplikatzen badiegu David Sifryk Technorattin erabiltzen duen neurria, blog horien % 55 bakarrik leudeke bizirik, alegia, azken hiru hilabeteotan behin gutxienez zerbait argitaratu dutenak. Orduan esan beharko genuke euskarazko blogak **3.005** direla, zelan edo halan bizirik daudenak.

(...) Kopuru hauetara iristeko, arakatu ditugu hiru esparru: blog komunitateak, blog plataformak eta hortik zehar daudenak barreiatuta, beste plataformetan.

Horietako asko Aurki izeneko *planet* euskaldunean daude bilduta¹¹³. Egin kontu Amezaga, Arana eta Azpillagaren arabera (2010), Aurki.com atariak 500 blog inguru zeuzkala euskaraz 2009an. Aranzabalek emango digu Aurki.com-i buruzko informazio gehiago (2007: 9):

Aurki.com berez atari euskaldun bat da; Eibar.org elkarteak bultzatzen du, CodeSyntax enpresaren laguntzarekin, eta bi osagarri ditu: Jarioa eta Euskarazko Bilatzailea. Aurki.com-en osagarri zaharrena euskarazko bilatzailea da. Eibar.org elkarteak sortu zuen 1999an, elkartearen gunea egin behar zutenean, guneari

112. Joxe Aranzabalen blog pertsonala da *Faroo*: <http://goiena.net/blogak/faroo>.

113. Aranzabalen arabera (2007: 29), honela define daiteke *planet* bat: «*Internet planet* edo *planeta* terminoak izendatzen ditu batzailer tematiko edo lokalak. Espainian daude Planeta Canarias edo Planet Granada, adibidez. Aurki.com euskarazko planet bat da, eta atalka sailkatua dago». *Batzailer* berebarekin, berriz, hau adierazi gura du ikertzaile horrek (Aranzabal, 2007: 27): «Programa bat da, biltzen du informazioa beste informazio iturrietatik, eta antolatzen du informazio hori, dena batera, leihu bakar batean, irakurleak joan behar izan ez dezan, derrigorrean, jatorrizko iturrietara. Sarean egon daiteke edo off-line, norberaren ordenagailuan. Adibideak: Bloglines, Aurki.com, Google Reader».

bilatzaile euskaldun bat erantsi nahi izan zioten-eta. Harrezkero beti izan da sarean dauden euskarazko baliabideen direktorio edo aurkibide bat.

Euskarazko baliabideak antolatzen eta sailkatzen saiatu zen, beraz, bere garaian, Aurki.com. Horren harira, Josu Landak ere antzeman zion sarean sor zitekeen anabasaren arriskuari (2004: 415):

Atzematen zaila dirudien collage atomizatu sor daiteke horren ondorioz, baina hariok amaraunean harilkatzeko tresnak ere sortu dira, albisteen sindikazioa deritzona esate batera. Dispersioa eta fragmentazioa kontrako faktorea izan ez dadin bidea oraindik luzea da, hasi besterik ez da egin. Baina bada horren aldeko esfortzu handiak egiten ari den jendea, oraindik ere bere onenera iritsi ez den fenomenoak heldutasuna lor dezan.

Hortik etorri zen, hain zuzen ere, Aurki.com-en bigarren adarra: Jarioa (Aranzabal, 2007: 9): «Gurean, Bloglines agertu eta bi urte geroago, 2005eko urtarrilean, Eibarko enpresa batek, CodeSyntaxek, Aurki.com berritua aurkeztu zuen, eta orduko haren berritasunik azpimarragarriena Jarioa izan zen, batzaile bat, zeinek jasotzen baitzituen euskarazko blog askoren informazioak».

Gaur egun (2009ko abendua), Aurki.com-ez gain, beste *planet* bat ere badugu euskaraz: izan ere, Bermeoko *Hack.in#badakigu* informatika-elkarteko kideek hainbat blog batzen dituen komunitate birtual edo planeta sortu dute 2009ko abenduan, <http://euskalblogosfera.org> gunea martxan jarrita. Bi baldintza betetzen dituzten blogari guztientzat zabalik dago parte-hartzea: euskaraz idaztea eta lizentzia librean erabiltzea dira bi baldintzak. Sortzaileen arabera, hainbat iturritako informazioak webgune bakarrean bistartzeko sorturiko planeta da beraiena.

14.2. EUSKAL ZIBERESPASIOA: GAUR EGUNGO ERRETRATUA

Euskarazko *planet* bi dauzkagu beraz; zein da, ordea, *planet* horietan ageri den panorama? Zertan da gaur egun euskal ziberespazioa? Amezaga, Arana eta Azpillagak hedabide elektronikoei erreparatu diete batik bat, eta, horiei buruz berbetan hasita, faktore nagusi bi izendatzen dituzte (2010: ork. gabe):

Euskarak hedabide elektronikoetan duen presentzia bi faktore nagusik zehazten dute. Batetik, hizkuntza gutxitua, diglosikoa, milioi bat hiztun ere ez duena izatea. Bestetik, Euskal Herriko maila ekonomikoa, Barne Produktu Gordina Europako batez bestekoa baino apur bat handiagoa duena. Bi faktore horiek joera kontrajarriak sortzen dituzte, argi dago. Horrela, lehenengoak euskara hedabide berrietan erabiltzea eragozten du nolabait eta bigarrenak, berriz, bultzatu: adibidez, Euskal Herriko etxeen erdiak sarera konektatuta daude, 15en Europako batez bestekoen antzera eta Interneten erabiltzaileen portzentajea (Eurostaten terminologiaren arabera, “azken hiru hilabeteetan sarera konektatu diren pertsonak”) % 41 da Euskal Autonomia Erkidegoan. Ordenagailuren bat duten etxeen portzentajea hamar puntu altuagoa da.

Hori, azpiegiturari dagokionez, baina zer esan dezakegu euskarak berak sarean daukan presentziaz? Lehentxoago ikusi dugu zelan icebergaren azpian zeuden 30.000 internauta euskaldunez mintzo zen Fernandez 1998an. Amezaga, Arana eta Azpillagak datu gaurkotuagoak damaizkigute (2010: ork. gabe):

Euskara oraindik interneteko bilatzaile handietan automatikoki ezagutzen ez den hizkuntza denez¹¹⁴, ez dugu sarean dauden euskarazko web guneei buruz nahikoa onargarri zaigun daturik. 2003an egin zen azterlan batean (Mas i Hernández 2003) euskara 40. zegoen munduan orrialdeen kopuruari dagokionez¹¹⁵. Geroagoko azterlanek 34. tokia aipatzen zuten. Edozelan ere, iturri batzuek eta besteek erabiltzen dituzten gutxi gorabeherako kopuruak argi eta garbi erakusten dute euskararen eta Interneten presentean dauden hizkuntzen artean dagoen tarte ikaragarria. Ez dugu aiantzi behar ingelesa gaur egun sarean erabat nagusia den arren, nagusitasuna aldatuz doala beste hizkuntza batzuk gero eta gehiago hedatzen ari direlako inter-

114. Badago bilatzaile bat, hala ere, bere txikian euskarazko bilaketetan espezializatua dagoena: Elebila (www.elebila.eu). Hara zer irakur daitekeen bere webgunean: «Elebila euskarazko lehen Internet bilatzailea da. Interneteko bilatzaile ezagunen funtzioak eskaintzen ditu baina kalitatezko euskarazko emaitzak lortzeko bermearekin. Euskarazko bilaketak egiteko orduan bi arazo nagusi daude: alde batetik euskarak Interneten duen garrantzia erlatibo txikia eta bestetik atzizkien erabilera zabala. Euskarak sarean duen pisua txikia dela-eta, “anorexia” edo “energia” bezalako hitz teknikoak bilatuz gero euskaraz idatzitako dokumentuak inoiz ez dira lehen emaitzen artean agertzen, hitz horiek beste hizkuntza batzuetan ere existitzen direlako. Eta berdin gertatzen da “Newton” edo “Egipto” bezalako izen bereziekin, eta “katu” edo “esne” bezalako hitz laburrekin ere. Elebilak arazo hau konpontzen du. Bestalde, euskarak oso deklinabide aberatsa duenez, bilatzaile arruntek ematen dituzten emaitzak inoiz ez dira osoak: “energia” bilatzen badugu hitz zehatz hori duten dokumentuak agertzen dira soilik, eta “energiaren kontsumoa handitu da” moduko esaldiak ez dira emaitzen artean agertzen. Elebila arazo honi aurre egiteko prestatuta dago. Elebilak Elhuyar Fundazioko I+G sailak garatutako teknologia du oinarri (...). Erabilitako teknologia hori iNEWS 07 (Improving Non-English Web Searching) eta WAC3 (Web As Corpus) nazioarteko kongresuetan aurkeztu da (...). Oso harrera ona izan dute eta erabilitako metodologia beste hizkuntza batzuentzat baliagarri izan daitekeela aipatu da».

115. Joxe Aranzabalek damaigun informazioaren arabera (2007: 7), «ingelesa da jaun eta jabe» Interneten, «baita txinera, gaztelania, japoniera, alemana eta frantsesa, besteak beste, nahiz eta azken horiek lehena baino dezente gutxiago erabiltzen diren. 2007ko ekainaren 30ean, esate bate-rako, ingeles hiztunak Interneten ziren 365.893.996; txinera erabiltzen zutenak, aldiz, 166.001.513; eta espainolez ari zirenak, 101.539.204. Adibide bat aipatzearen hobeto ulertzeko zelakoa den hazkunde hori, espainiera hautatuko dugu. Internet World Stats erakundearen arabera, 101.539.204 espainol hiztunek erabiltzen zuten Internet gorago esandako datan, hau da, Internet erabiltzaile guztien % 8,8. Hala ere, munduan dauden 442.525.601 espainol hiztunetatik, bakarrik % 22,9k erabiltzen dute Internet. Baina espainola darabilten Internet erabiltzaile kopurua % 311,4 hazi da azken zazpi urteotan, 2000-2007 aldian (Internet World Stats, 2007)». Eta zertan da euskara? Horri buruz ere badihardu Aranzabalek (2007: 7): «Euskarari dagokionez, kopuruak askoz ere apalagoak dira, hizkuntza minorizatu bati dagokionez. EUSTAT Euskal Estatistika Erakundeak emandako datuen arabera, gaur egun EAEn euskara da hirugarren hizkuntza (% 22,0) Interneten nabigatzeko erabiltzen diren artean, gaztelaniaren (% 99,7) eta baita ingelesaren (% 23,2) atzetik. Hizkuntza horien artean hazkunde oso bestelakoa izan da, EAEn beti ere: ingelesez nabigatzen duten erabiltzaileen ehunekoak % 19,2 hazi da. Aitzitik, euskaraz nabigatzen dutenen ehunekoak % 1,5eko gorakada izan du eta gaztelaniaz nabigatzen dutenenak % 2,4koa (Eustat, 2007)».

neten; beraz, ikusi beharko da zer erabilera doazen finkatuz hedabide berri horretan, bertan zein hizkuntza erabiliko diren eta, bereziki, hizkuntza komunitate bakoitzeko kideek zer hizkuntza erabiliko duten gutxieneko proiektzioa egin ahal izateko.

Horren harira, Eusko Jaurlaritzaren estatistiken arabera (normalean Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleak dituzte hizpide, eta EAEn bizi dira 16 urtetik gorako euskal hiztunen % 84), gorako joera erakusten dute euskarazko orrialdeetarako sarre- rek, 2004an % 15 eta 2008an % 24 izan ziren eta. Horrela, esan dezakegu euskarazko orrialdeetara sartzen diren pertsonen portzentajea euskal hiztunak diren internauten portzentajera hurbilduz doala. Bestalde, azken urteetako hazkunde nabarmen hori ulertzeko, ziurrenik arestian aipatu dugun joera, Interneteko euskarazko eskaintza gehitzean islatzen dena, eta sarera erantsiz doazen belaunaldien artean euskara dakien jende gehiago dagoela kontuan hartu behar ditugu. Portzentaje horiei adituz, eta datuok Euskal Herriaren multzora estrapolatuz, beste hizkuntza batzuekin batera euskaraz ere nabigatzen duten 200.000 pertsona inguru izango lirateke. Ingelesezko orrialdeetara ere sartzen diren pertsonen kopurua baino apur bat handiagoa.”

Eta zelakoak dira euskarazko webguneak? Gai hori hizpide hartuta, Amezaga, Arana eta Azpillagak oinarrizko bereizketa bat egiten dute lehenengo eta behin (2010: ork. gabe):

Euskarazko web gune ugari daude, jakina. Hizkuntzen erabilerei dagokienez, elebidunak edo eleaniztunak —euskara beste aukera batzuen artean dutenak— eta euskara hutsekoak bereziko ditugu. Lehenengoan artean erakunde eta organismo publikoen mendekoak dira nagusi. Euskara hutsean eta nagusiki euskaraz argitaratzen direnen artean irabazi asmorik gabeko erakundeak dira gehienak. Bi esparru horiek, erakundeak eta gizarte ekimeneko organismoak, dira euskarazko web guneetara ekarpenik handienak egiten dituztenak; enpresa pribatu edo profesionalenak ematen diete gutxien.

Zeintzuk dira, azkenik, erabiltzaileek gehien estimatzen dituzten euskarazko webguneak? Honako hauek (Amezaga, Arana eta Azpillaga, 2010: ork. gabe):

Euskarazko web gunerik bisitatuena artean hedabideen on-line edizioak daude. Adibidez, *berria.info*, internauta gehien hartzen dituen euskarazko web gunea da, egunero 13.000 bisitari baino gehiagorekin. Erreferentziazko beste web gune bat *eitb.com*-en euskarazko bertsioa da, euskal irrati-telebistarena, aurrekoaren audientziaren erdiarekin. Atzetik lehen aipatutako *Elhuyar*, *Argia* eta *Hitza* argitalpenen edizio elektronikoak datoz, egunero 1.000 eta 2.000 bitarteko bisitekin.

Hedabide digitalak soilik direnen artean, *sustatu.com* aipatuko dugu, teknologia, kultura eta ekonomiari buruzko albisteekin, euskal hiztunak diren profesionaleri zuzenduta, egunero 1.000 erabiltzaile baino gehiago sartzen zaizkiona. Kontuan hartzeko beste fenomeno bat tokiko atari batzuen da (adibidez *eibar.org* edo *uztarria.com*), euskara sarean erabiltzailearen nolabait aitzindari direnak.

Aurrerago azalduko dugu zein egitasmotan murgilduta dauden sarean euskarazko hedabideak. Gatozen orain premia estrategiko bat aipatzera. Ramon Zallok sartuko gaitu arrastoan (2006: 206):

(...) los contenidos culturales digitales son cada vez más utilizados tanto para la producción cultural como para su difusión. Está pendiente un desarrollo equiparable de los recursos, tecnologías y contenidos, lo mismo en su expresión en euskera que como contenidos culturales, ya que son claves para evitar la clonación cultural y para generar mercados a medio plazo. En este sentido, sería interesante un dominio específico en Internet, por ejemplo *eus*, sobre contenidos en euskera, como el que han logrado los catalanes con *cat*.

Badago dagoeneko domeinu propio hori eskuratzea xede duen mugimendu bat, Puntueus elkartearen inguruan gorpuztua. Proiektu horren helburua euskara eta euskal kulturaren komunitatea modu esanguratsuan ordezkatzeko duen *.eus* domeinua sortzea da, Interneten euskara eta euskal kultura sustatzeko tresna berri gisa.

Elkarte horretako kideen arabera, domeinu hori irizpide linguistiko eta kultural batzuk betetzen dituzten webguneen marka identifikatzailea litzateke, bere baitan leudekeen webguneak geografikoki mugatu gabe. 2009ko apirilean sortu zen Puntueus, eta zabalkunde-prozesuan dago ordudanik. Dagoeneko 50 erakundek osatzen dute elkartea, eta 25.000 pertsona baino gehiagoren atxikimendua jaso du.

Euskarazko Wikipedia da euskarak Interneten daukan beste bandera-ontzieta-ko bat: egin kontu 48.000 artikulua baino gehiagorekin zebiltzala lanean 2009 hon-darrean. *Prosumer*-en garrantziaz jardun dugu liburu honetako estreinako atalean, eta arlo honetan ere funtsezkoa da *producer-consumer* horien ekarpena: haiek elikatzen dute Euskarazko Wikipedia, eta haiei zor zaie, halaber, software libreko programetan eginiko hainbat itzulpen (Amezaga, Arana eta Azpillaga, 2010: ork. gabe):

(...) esan dezagun, beste esparru batzuetan bezala, gizartearen ekimena erabakigarria izaten ari dela euskara hedabide berrien alorrean ere garatzeko. Motor horren indarrak kode irekietan oinarritutako aplikazioei buruzko interesa areagotu du, administrazio publikoen eta enpresa pribatuen gaur eguneko joera kontserbadoreagoaren aldean, haiek —salbuespenak albuespen— jabetun softwarea erabiltzearen aldekoak izaten baitira. Kode irekiko teknologiek hizkuntza gutxituei irekitzen dizkieten atek daude interes horren oinarrian.

Eta softwarea eta euskara aipatu ditugun honetan, zelako harremana dago bion artean. Amezaga, Arana eta Azpillagak emango digute horren berri (2010: ork. gabe):

Euskarak softwarearen esparruan duen erabilera *Softkat* katalogoaren bidez ikus daiteke orain; katalogo horretan euskaraz erabilgarri dauden 369 aplikazio informatico erregistratuta daude. Kode irekiko aplikazioak zein jabetun softwarekoak aurkituko ditugu bertan. Bulegoetarako aplikazioak dira (37), besteak beste *Openoffice* eta *Microsoft Office*; oinarritzko aplikazioak (31), doako zein ordaintzeko sistema eragile nagusiak hartzen dituztenak, Interneten nabigatzeko programak (70), dokumentaziorako (57), hizkuntzak erabiltzeko (hiztegiak, zuzentzaileak, eta abar,

50), irakaskuntzan erabiltzeko (78), entretenimendurako (33) eta bestelakoak (13). Herena produktu bertakotuak dira, hots, beste hizkuntza batean egindako aplikazioen euskaratzeak. Gainerakoak euskaraz sorturiko aplikazioak dira.

14.3. EUSKARAZKO HEDABIDEAK ZIBERESPAZIOAN

Amezaga, Arana eta Azpillagak euskarazko zenbait hedabidek (*Berria*, *Argia*, *eitb.com*, *Elhuyar*, *Hitza* kazetak) Interneten duten harreraren berri eman digute lehen. Hedabide horiek Interneten ez ezik beste esparru batzuetan ere badihardute, baina badira sarerako propio sortu eta sarean garaturiko zenbait ekimen. Sustatu da, beharbada, adibide argienetako bat. Zertan da Sustatu gaur egun? Datuei erreparatuta, sasoi betean dagoela esan daiteke: izan ere, 2008ko urrian baino % 143 orrialde gehiago ikuskatu ziren 2009ko urrian haien webgunean. Orotara 21.500 erabiltzailearen (% 64ko hazkundera) 57.600 bisita izan zituzten hilabete horretan (% 59ko igoera). Sustatu-koek, gainera, 178.000 orrialde bistaratu zituzten (urtebete lehenago baino % 143 gehiago) eta bisitari bakoitzak 3,10 orri bisitatu zituen batez beste (% 52 gora)¹¹⁶. Bisita bakoitzean batez beste emaniko denborartea, azkenik, 2:32koa izan zen (% 1 gora). 2009ko lehenengo sei hilabeteetako datuek ere goranzko joera hori berresten dute: 227.790 bisita (2008an 198.646; % 14,67ko hazkundera, beraz) eta 449.493 orrialde ikuskatuta (2008an 382.482; % 17,52ko hazkundera).

Sustatu-koei, hori bai, lehiakidea sortu zitzaion 2009an: Hasier Etxeberriak gidatu eta Digitalak produkzio-etxeak babesturiko Zuzen.com¹¹⁷, «internetzaileon albistari horizontala» (horrela definitzen du bere burua proiektu horrek). Horri buruz galdetu zion hain zuzen Argia.com-eko Eli Pombok Etxeberriari proiektua abiatu berritan. Galdera: «ZuZeuri antz handia hartzen diot Sustatuk egiten duenari. Badauka zentzurik euskarazkoa bezalako merkatu txiki batean antzeko beste proiektu bat sortzeak?» Etxeberriaren erantzuna¹¹⁸:

Ez dut uste ZuZeu *Sustaturen* berdina denik. Nik uste dut honek informazioari leiho zabalago batetik begiratzen diola.

Eta zergatik ez dauka zentzurik beste proiektu bat sortzeak? Hori erabiltzaileen esku dago. Erabiltzaileek eurek ikusiko dute ona den edo ez. Guk ez genuke inor ahuldu nahi. Hau dena aski geldoa zen panorama bat bizkortzeko asmoarekin egiten dugu,

116. Sustatu-ren zirkulazioari buruzko datu berriagoak (2009ko abenduaren 10etik 17ra bitartekoak) kontsulta daitezke helbide honetan: http://my8.statcounter.com/project/standard/stats.php?account_id=718917&login_id=2&code=7d30ad1b53ad67cccbe38217e9bc4f49&guest_logi n=1&project_id=937514 (kontsulta: 2009-12-17). Azpimarratzekoa da, azkenik, geroz eta jende gehiago (bisiten %10) sartzen dela Sustatu-n Facebook eta Twiter bidez (ikus horri buruz <http://sustatu.com/1251972125>; kontsulta: 2009-12-17).

117. <http://zuzen.com/>

118. Ikus bata zein bestea hemen: <http://argia.com/erredakzio-mahaia/eli-pombo/2009/04/21/hasier-etxeberria-%E2%80%9Cez-dut-ikusten-gure-inguruan-internetetik-interneterako-sortutako-proiekturik%E2%80%9D/> (kontsulta: 2009-12-14).

besteen osagarri izan nahiko nuke. Ez dut uste kaltea eragingo duenik. Nik uste dut alderantziz gertatuko dela, jende gehiago hasiko dela idazten, gauzak begiratzen. Kompetentzia sortuko balitz ere, kompetentzia naturala da.

Ekonomikoki baliteke esaten duzuna egia izatea. Ez dakit zer publizitate espazio dagoen. Baina gurea irabazi asmorik gabeko enpresa bat da. Horrek ez du esan nahi finantziatorik bilatuko ez dugunik. Finantziazioa bilatuko dugu tresnaren beraren garapenerako.

Internerako bereziki sorturiko euskarazko hedabideen artean, era berean, ezin Kazeta.info¹¹⁹ ere ahantzi. Ipar Euskal Herriko lehen egunkari elektronikoa da, Iparla Baigura Komunikazioa elkarteak 2008an sortua eta sei hilabeteren buruan arratsaldeko egunkari bihurtua. Astelehenetik ostiralera mezu elektronikoz ere zabaltzen dute¹²⁰, eta, beronen sustatzaileek diotenez, «[Ipar Euskal Herriko] barnealde eta kostalde arteko desoreka gainditzeko bidean komunikazio tresna idekia, zabala eta eraginkorra bultzatu» nahi lukete.

Ipar Euskal Herrian mamituriko proiektua da, halaber, Info7 irratia ere¹²¹, baina, Kazeta.info-k ez bezala, irradi horrek ez ditu soilik Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako kontuak aletzen: Euskal Herri osoa erreferentzia-eremutat hartuta Interneten dihardu Urruñan kokaturiko Info7-k (beraien nahia, hori bai, «Euskal Herriko txoko guztietara FM bidez iristea» dela diote webgunean, hori horrela izan dadin erakundeen aurrean «eman beharreko urrats guztiak» emango dituela iragartzeaz batera). Euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez ari da, baina euskara du hizkuntza nagusia («bi erdarak batera adina gutxienez», haien berbetan). Aztibegia elkarteak da beronen sustatzaile nagusia.

Info7 Arrosa sareko kide ere bada. Euskal Herri guztiko hainbat irratiren arteko elkarlanaren ondorio da sare hori. Bertan bildutako irradi gehienak (20 inguru dira orotara) txiki samarrak dira, eragin-eremutat herri edo eskualde jakinen bat daukatenak, baina badira herrialde oso baterako dihardutenak ere, hala nola Xiberoako Botza, Irulegiko Irratia edota Gure Irratia. Modu honetan ematen dute orain arteko ibilbidearen berri beraien webgunean¹²²:

Herria Mugi! ekimenak, Joxe Zumalabe Fundazioaren laguntzarekin, 2001eko udaberrian Euskal Herriko Herri Mugimenduen III. Topaketak antolatu zituen Barrian (Araba). Ekimen horretako Komunikazio lan taldeak proposatuta, Euskal Herriko irradi mordoxka bat deitu ziren planteamendu garbi batekin: irration arteko elkarlana areagotu eta gure baliabideei probetxu hobea ateratzeko ezer egin ote zitekeen hausnartzea. Bertan eta ondoren bileretan finkatu ziren gaur egun arte Arrosaren oinarriak direnak:

119. www.kazeta.info

120. Gauza bera egiten dute *Argiakoe* *Hari@* buletinarekin (nagusiki euskal kulturari buruzko berriak biltzen dituen doako buletina da).

121. <http://www.info7.com/>

122. <http://bitakora.arrosasarea.org/dokumentuak/arrosa-aurkezpena> (kontsulta: 2009-12-14).

- Euskal Herri osoan lanean dabiltzan irratien topalekua izan nahi du, eta hala da hein handi batean.
- Irrati ezberdinak bildu arren, hainbat behar eta nahietan bat egin dezakegu. Badugu elkarri zer hartu eta zer emana.
- Baliabide teknologikoek lehen zailagoa zena errazten dute, berak horiek probextu beharra dago
- Komunikabideen eremuan egunetik egunera enpresa handiak nagusitzen ari direnez, gertuko komunikabideen esparrua ere bereganatzen hasiak direla jakinik, gertuko komunikazio horretan aritzen garen euskarazko komunikabideek elkartu eta indartu beharra dugu, enpresa handiei aurre egingo badiegu.
- Irrati bakoitzaren izaera errespetatu beharra dago, bakoitzaren beharrei moldatzeko gaitasuna izan behar du Arrosak¹²³.
- Arrosak Euskal Herria du erreferentzia eremua eta euskara hizkuntza. Euskalki ezberdinen erabilera ere sustatu nahi du.

Oinarri horien gainean gorpuztu da, beraz, Arrosa irrati-sarea dena. Elkar ezagutzarako eta koordinaziorako sare izateaz gain, irrati-emankizunak trukatzeko egitura ere bada, eta horretarako euskarri ezin hobea da Internet (horren erakusgarri da, halaber, dagoeneko aipatua dugun www.irratia.com). Edozelan ere, irratia ez ezik euskarazko telebistak ere badira Interneten. Esanikoaren froga da Bilbon kokaturiko Ibaizabal Telebista¹²⁴, Bizkaiko hiriburuko euskalgintzako hainbat lagun eta elkarteren elkarlanaren emaitza. Zortzi kanal dauzka guztira (Bilboko berriak, aisia-eskaintza, musika, gizarte-mugimenduen gorabeherak, artea, dokumental eta erreportajeak, umorea eta Internetekin loturiko kontuak jorratzen dituzte beraietan), eta astero berritzen ditu edukiak¹²⁵.

Aipagarria da, era berean, Nafarroa Behereko Aldudarrak elkartearen Kanal-dude Telebistak¹²⁶ Interneten daukan presentzia. Aro analogikoan barnealderako ohiko telebista lokala egiten saiatu eta bideo-ekoizpenean luzaroan trebatu eta gero, ederto baliatu dituzte sareak eskainitako aukerak. Hamar kanal dituzte guztira eta euren bideoek 1.000 ikuskatzetik gora izan ohi dituzte batez beste.

Idatzizko hedabideen esparrura aldatuta, bestalde, gainerako *Hitza* kazeten planteamendutik apur bat aldendu eta Internetek eskainitako plataforma ahalik eta gehien baliatzeko asmoz sortu zen, bestalde, *Behe Bidasoako Hitza* egunkari berria

123. Egon ere, askotariko irratia daude egitasmo horretan: irrati libreak, elkarte-irradi estatusa daukatenak (Ipar Euskal Herrikoak), udalen babespean sorturikoak (Oiarzun Irratia) edota profesionalizazioa xede dutenak (Xorroxin, Info7), besteak beste.

124. <http://www.ibaizabaltb.com/>

125. Badira Bilbon euskarari lekua egiten dioten Internet bidezko telebista elebidun bi ere: *Lost in Bilbao* da bata (<http://eu.lostinbilbao.tv/>) eta *Proyección TV* bestea (<http://www.proyeccion.tv/blog/category/video-conferencias/>). Azken horrek, egia esan, gaur egun baino euskarazko eduki gehiago sartu ohi zituen garai batean (egun kasik ez baitute ezer hizkuntza horretan).

126. <http://www.aldudarrak-bideo.com/kalaldude/index.php?lang=eu>

2009an¹²⁷. Irun, Hondarribia eta Hendaiako informazioa bildu eta zabaltzen du egunero formatu elektronikoan, eta ostiralero paperezko edizioan.

Behe Bidasoako Hitzarako sarbidea eskaintzen du, besteak beste, Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoak prestatuturiko webgune bereziak: <http://www.euskarazko-hedabideak.com>. Aurkezpenean dioten moduan, euskara hutsez ari diren kazeta, irrati, telebista eta Interneteko guneak ezagutaraztea da webgunearen xedea, eta xede hori gauzatzeko hedabide hauen estekak eta berauen berriak sartzen dituzte bertan: *Kazeta.info*, *Behe Bidasoako Hitzza*, *Berria*, *Mintza*¹²⁸, *Herria*, *Argia*, Gure Irratia, Antxeta Irratia, Irulegiko Irratia, Xiberoko Botza, ETB1, ETB3, Gaztea eta Euskadi Irratia. Horrez gain, hedabideotan publikitate sartzeko bitartekaritza-bideak ere eskaintzen dituzte, baita azken inkesta soziolinguistikoek jasotako zenbait datu interesgarri bistaratu ere. Honako hauek, besteak beste¹²⁹:

- 877.000 biztanlek euskara badaki 3 lurraldeetan.
- % 54k euskarazko telebista begiratzen du egunero,
- % 22k euskarazko prentsa agerkari bat irakurtzen du egunero!
- Ipar Euskal Herrian bizi direnen % 39k behatzen ditu euskarazko irrati eta telebistak erregularki.

Gainerakoan, ohiko euskarrietan diharduten hedabideak ere Interneti neurria hartu guran dabilta. Horren erakusgarri da, esate baterako, *Berriak* euskal kanta-gintzari eskainitako webgunea aurkeztu izana 2009ko abenduan: www.badok.info. Bertan jaso dituzte, besteak beste, 1960ko hamarkadaz geroztiko kantugileen 160 biografia inguru, 1.000tik gora disko, DVD eta libururi buruzko informazioa, 270 diskotako hitzak jatorrizko diseinuarekin, ehunka argazki, 300dik gora kantu, 16 diskoetxeren biografia laburrak, bibliografia, bideoak eta albisteak.

2009ko abenduan, halaber, *Euskaraz* euskarazko atari berria plazaratu du [Eitb.com-ek](http://eitb.com-ek)¹³⁰. Hona beroni buruzko informazio gehiago, atari horretatik bertatik jasota¹³¹:

eitb.com-eko euskara atari berria lau hizkuntzatan egongo da, euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez. Erdarotan, euskara ikastaro bat eskainiko du, ordenagailutik bertatik on line egiteko diseinatutakoa. (...)

127. www.behebidasoakohitza.info

128. 2007an sortua, *Le Journal du Pays Basque* egunkariaren ostegunetako euskarazko gehigarria da *Mintza*. Hizpide dugun webgunean diotenez, «*Mintza* gehigarriak, aktualitatearen sakontzeko parada ematen du, egunerokotasunaren presiorik gabe. Etorkizunari buruz itzuliak eta teknologia berriei buruz ari diren sailak ditu, kultura sorkuntza ahantzi gabe».

129. http://www.euskarazko-hedabideak.com/promotion_medias.php (kontsulta: 2009-12-14).

130. <http://www.eitb.com/euskaraz/>

131. <http://www.eitb.com/albisteak/gizartea/osoa/306118/euskaraz-euskara-atari-berria-aireratu-du-eitbcom-ek/> (kontsulta: 2009-12-14).

Euskarazko bertsioan, bestalde, ikastarorako sarbidea ez ezik, beste hainbat eduki ere jarriko ditu atariak erabiltzaileen esku. Eduki nabarmengarrietako bat HIKEA da, ETBko Euskara Zerbitzuaren aplikazio informatikoa. HIKEA, hizkuntza kontsultak egiteko aplikazioa, helburu jakin batez jaio zen: Euskal Irrati Telebistaren euskarazko hedabideetan hiztegi erabilera bateratzea.

Datu basean Euskal Irrati Telebistan adostutako hitz arruntak eta terminoak biltzen dira, betiko gordeta eta beharra duenak kontsultatzeko moduan gera daitezten. Horrez gainera, kanpoko lanak ere daude bertan, EITBn erabilgarri badira: Euskaltzaindiak erabakitako onomastika, EIMak proposatutako izen-zerrendak, Elhuyarren izendegi bi (...)

Halaber, beste hainbat eduki osagarri aurkituko dituzte euskararen inguruko interesa dutenek, hala nola Interneten aurkitu ahal diren hiztegiatarako estekak, gaika antolatuta, eitb.com-en euskararen inguruan argitaratutako azken albisteak, eta ETBk azken urteotan emandako pastoralen testuak (...)

14.4. ZIBERESPazio EUSKALDUNAREN BESTE ELEMENTU INTERESGARRI BATZUK

Horiek, beraz, euskarazko hedabideek sarean eginiko urratsetako batzuk (ez dugu oraindik Goienak arlo horretan eginikorik aipatu, hurrengo atalean multimedia-konbergentzia jorratzean izango dugulako hizpide kontu hori). Ez dira ohiko hedabideak, baina, Internet baliatzen duten bakarrak: sareak komunikazio-aukerak biderkatu ditu, esparru berriak zabaldu dizkie pertsonen arteko harremani. Esanikoaren erakusgarri da, literalki gainera, Kaixomaitia.com harremanetarako webgune euskalduna. 2007an sortu zen ekimen hori, eta 2009an webgune guztiz eraberritua plazaratu zuten¹³².

Euskal musikariak ere gogotik baliatzen ari dira sareak eskainitako erakusleihoak. Albiste hau da horren lekuko¹³³:

TestMedia ikerketa-enpresak 146 talde edo bakarlari euskaldun aztertu berri ditu ondoko ondorio honetara heltzeko: euskal musika osasuntsu dago sarean, gogoz eta ekinean. Esaterako, gero eta gehiago erabiltzen dituzte internet bidezko musika zabaltzeko tresnak.

% 85ek Last FM bidez zabaltzen ditu bere kantak

% 81ek Myspacen dauka txoko propioa

10etik 6k eskaintzen dute beraien musika erosteko aukera iTunes-en

% 59a Spotifyn dago

Bestalde, % 52ek web edo bloga dute, eta % 41a Facebook-en dago. Wikipedian, aldiz, askoz urriagoa da euskal musikaren presentzia, bakarrik % 25ek baitute sarrera propioa bertan; eta are urriagoa, anekdotikoa ia, euskal musikarien presentzia Twitter-en, 100tik bakarrik bostek baitute konturik txoritxoaren sarean.

132. <http://www.kaixomaitia.com>

133. <http://sustatu.com/1259946572> (kontsulta: 2009-12-16).

Test-Mediak halako ranking bat osatu dute datu guzti hauekin, eta hiru dira eskal musikari “2.0enak”: Fermin Muguruza, Gatibu eta Ken Zazpi. Hiru hauen atzetik, baina hasierako postuetan, Benito Lertxundi, Kepa Junkera, Betagarri, Bide Ertzean, Kauta, Berri Txarrak eta Ekon daude, besteak beste.

Prosumer-ak, beraz, sarea edukiz betetzen ari dira, bitartekariak zer egingo zain geratu barik. Eta erabiltzaileak, gainera, indar handia daukate. Horren erakusgarri dira, besteak beste, nola Hotmail hala Gmail-en euskarazko bertsioak eskaldunen artean zabaltzeko erabiltzaileak eurek sustaturiko kanpainak¹³⁴. Tuenti-ren *evento* batean, berriz, 15.000 pertsona batu ziren sare sozial hori euskaraz, katalanez eta galegoz jar dezaten aldarrikatzeko. Sustatu-n irakurri genuenez¹³⁵, «horrelako ebentoak erabiltzen dira Tuentin aldarrikapenak egiteko: duela zenbait hilabete, adibidez, erabilera baldintzak aldatzeko presioa egiteko erabili zituzten ebentoak erabiltzaileak, eta lortu zuten».

Bada, presio-ekimen horretatik aste gutxira, beste hau irakurri genuen Sustatu-n bertan¹³⁶:

Azaroan erakutsi zuen Sustatuk nola Goenkalen Tuenti euskaraz agertu zen, eta litekeena zela laster euskaratuta egotea. Ba, Tuentik gaur iragarri du dagoeneko Tuenti erabilgarri dagoela “Estatuko edozein hizkuntza ofizialetan”. Prentsan ere hasi da irtetzen, Vocenton eta prentsari errepasoa eginez Euskadi Irratian ere bai. Baina sartu sartu gara, eta gaztelaniaz ageri zaigu, eta ez dugu preferentzietan hizkuntza aldaketarik ikusten. Lagun bati konfiguratu diote eta pantallazo batzuk utzi dizkigu.

Tuenti, beraz, euskararako jauzia egiten, baina bada sorreratik euskaraz sorturiko nerabeentzako sare sozial bat ere: Zugaz.com, 2009an sortua¹³⁷. Hona zelan aurkezten duen bere burua webgunean¹³⁸: «Zure lagunekin egoteko eta lagun berriak egiteko webgune aproposa duzu hau. Lagunekin konpartitu ahal izango dituzu argazkiak, bideoak eta beste zenbait kontu. Mezutxoen bidez elkarrekin komu-

134. Ikus adibidez kanpaina horietako baten azalpena in http://jane.h3m.com/~s02b99f7/acx/index.php?option=com_content&view=article&id=885:jasota-bezela&catid=42:euskara-gure-altxorra&Itemid=82; bideoa, berriz, hemen: <http://www.youtube.com/watch?v=kg-BROVOUbk>; soilik Hotmail-i buruzko azalpena, ostera, hemen: <http://oihanguren.com/bloga/hotmail-euskaraz-erabiltzeko-pausuak>; Gmail euskaratzeari buruzkoa, azkenik, hemen: <http://www.atxukale.com/blogak/tolon/gmail-euskeraz> (kontsultak: 2009-12-16).

135. http://sustatu.com/1257772729?utm_source=newsletter&utm_medium=email (kontsulta: 2009-12-16).

136. <http://sustatu.com/1259835012> (kontsulta: 2009-12-16)

137. Bide hori aurrez beste batzuek ere egina zuten. Del.icio.us-en esperientzian oinarrituta, adibidez, <http://www.bildu.net> sortu zuten laster-markak gorde, partekatu eta euskaraz etiketatzeko. Digg-en esperientziak, berriz, <http://www.zabaldur.com> inspiratu zuen (Interneten aurkitutako albiste interesgarrienak zabaltzeko aukera ematen duen sistema, parte-hartzaileen botoetan oinarritua), eta YouTube-k, azkenik, Euskaltube.com-i bide eman zion (euskarazko bideoak sarera igotzeko ataria).

138. <http://zugaz.com>

nikatuko zarete eta jokoak ere aurkituko dituzue, edozein momentutan jokatu ahal izateko. Animo eta sortu zure soslaia!». Zugaz.com baino lehenagokoa da, bestalde, Guraso.com¹³⁹, Txus Arrieta markinarraren ideia batetik abiatutako egitasmoa. Proiektu bata zein bestea Goienak bideratu ditu.

Hedabide guztiak sarean negozio-eredu bila dabilzan honetan, bestalde, ekimen interesgarria da 2009 hondarrean eraberrituta aurkeztu duten <http://www.iragarkilaburrak.com> (proiektua, berez, 2008ko azaroan abiatu zen). Euskarazko hogeit bat egunkari, aldizkari eta agerkari digitalek hartzen dute parte bertan, eta, haien esanetan, merkatuan zegoen hutsunea betetzea da haien xedea¹⁴⁰:

Orain arte bezala, iragarkiak sarean jartzea doan da norbanakoentzat.

Gainera, iragarkiak ostiraletan paperean argitaratzeko aukera ere izango du iragarleak. Webgunearen aldatetei esker iragarleak erraz hautatu ahal izango du papereko zein ediziotan argitaratu nahi duen iragarkia: hedabide guztietan, ala eskualde edo zonalde zehatz batean soilik, esaterako.

Gaur egun, BERRIA, Uztarrria, Txintxarri, Otamotz, Elgoibarren, Behe Bidasoako Hitza, ukberri.net, Oarsoaldeko Hitza, Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza, plaeNtxia.com, Busturialdeko Hitza, Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza, Urola Kostako Hitza, Irutxuloko Hitza, Goerriko Hitza, Baleike, Geu Gasteiz, Eta Kitto, larrabetzu.org eta Goiena dira proiektu honetan parte hartzen duten egunkariak, agerkari digitalak eta aldizkariak.

Plazagunea SL enpresak garatu du webgune berria.

Ekimen pribatua eta gizarte zibilaren bulkada garrantzitsuak dira arlo honetan ere, duda barik, baina, kontuak kontu, oso aintzat hartzekoa da Zalloren oharra (2006: 207):

Por su carácter incipiente, hoy el mercado no puede dinamizar el multimedia cultural, lo que exige la iniciativa pública —encargos en educación, en política lingüística, creaciones, recreación multimedia del patrimonio...— y acciones de creación de mercado. De no hacerlo de forma pionera, se carecerá de experiencia para cuando se dinamice, aunque no vale toda política de promoción, puesto que hay que evitar crear una industria irreal y sólo subvencionada.

Ekimen pribatuak berak bakarrik bere gain hartu ezin dituen lan batzuetan aginte publikoek ere esku hartzea esan gura du horrek, besteak beste. Kultura-ondarearen digitalizazioa da horietako bat. Zalloren ustez, erakundeak ahalegin handia egiten ari dira norabide horretan (2006: 205):

139. <http://guraso.com>

140. Informazio gehiago in http://sustatu.com/1258571690?utm_source=newsletter&utm_medium=email (kontsulta: 2009-12-16).

En este plano todas las instituciones están haciendo un esfuerzo importante e intensivo de digitalización: portal de acceso a contenidos digitalizados como biblioteca digital, archivos, prensa diaria, etc. (...) Las universidades, archivos públicos y eclesiásticos, las instituciones culturales, como Eusko Ikaskuntza, Fundación Sancho el Sabio, Eresbil, EITB, Susa¹⁴¹, Euskaltzaindia¹⁴² Euskadiko Filmategia... también están en pleno proceso de digitalización de fondos y algunas entidades se especializan en ello como Euskomedia, Elhuyar, Vicomtech, empresas asociadas a Gaia...¹⁴³.

Bizkaiko Foru Aldundiak, bestalde, Azkue Fundazioa aurkeztu zuen 2009ko azaroan, «euskara sarean josten» lelopean aurkeztu ere (ekimena Aldundiarena izanagatik, patronatuan beste partaide batzuk ere badira: EHU eta Deustuko Unibertsitatea, Euskaltzaindia eta Bilboko Udala, hain justu). Modu honetan aurkezten dute euren burua webgunean¹⁴⁴:

*Bizkaitarrentzat, gazteentzat bereziki,
eta mundu osoko euskaldun guztientzat,
AZKUE fundazioak
produktu digital erakargarriak eta erabilgarriak eskaintzen ditu
euskara modu berritzailean sustatzen duelako
teknologia berriak erabiltzen dituelako,
eta lan-sare zabala duelako inguruan elkarlanean.*

AZKUE fundazioak berrikuntzaren bidetik joko du eta horretarako, teknologia berriak erabili eta landuko ditu. Benetako 2.0 jarrera batekin sortu da: guztiz irekita ideiak eta egitasmoak jasotzeko eta partehartzea bultzatzeko. Fundazioaren inguruan elkarlanerako lan-sare zabala bat osatzea du helburutzat. Landuko dituen egitasmo eta produktuak euskaldun guztien mesederako izango diren arren, batik bat gazteak ditu jomugan.

Fundazioaren asmo nagusietako bat da sarean euskaraz dauden aplikazio eta materialen bilgune izan eta berauek hedatzen laguntzea; ildo horretan kokatu behar

141. Azpimarratzeko modukoa da Susakoek euskarazko literatura-ondarea (izan jatorriz euskaraz sortua, izan itzulitakoa) digitalizatzen egiten diharduten lana, are gehiago aintzat hartuz gero Zallok zerrenda horretan aipatzen dituen gainerako erakunde handiak ez bezala eurak argitaletxe txikia direla (haien lana hobeto ezagutzeko: URLa sartu).

142. Funtsezkoa da euskararentzat Hiztegi Batua edota Orotariko Euskal Hiztegia egun dauden moduan sarean eskuragarri egotea; Euskaltzaindiak, horrez gain, gizartetik egin zaizkion eskaerei erantzunez, norabide horretan urrats gehiago egiteko borondatea agertu du.

143. Amezaga, Arana, Azpillaga (2010, ork. gabe): «XVI. mendetik XX.era bitarteko euskarazko literatura-ekoizpenaren zati handi bat digitalizatzeak terminologia datutegi baliagarria eskaini die hizkuntzalariei eta, gainera, historian euskaraz idatzitako gehiena jarri dio eskuera jendeari. Hizkuntza txikia izatearen abantailak bat, agian. Horrela, gaur egun *Klasikoen Gordailua* bezalako proiektuak daude, tarte horretako hainbat generotako 300 obra baino gehiago *on-line* eskaintzen dituena, eta masa idatzi horretan guztian terminoak bilatzeko aukera ematen duena. Edo *Euskararen Corpusa*, XX. mende osoko ekoizpenaren oso lagin oparoarekin gauza bera egiten duena».

144. <http://www.azkuefundazioa.org/page/aurkezpena> (kontsulta: 2009-12-16).

da, adibidez, Mediategia egitasmoa: euskararen multimedia-gordailua izango da Mediategia, eta orain arte euskaraz argitaratu den material guztiarekin —CDak, disketeak, DVDak— artxibo multimedia osatzea du xede.

Fundazioaren webguneko edukiak libreak dira, Creative Commons Aitortu Partekatu lizentzia baitaukate. Nolanahi dela, erakundeen orain arteko joera ez da kode irekien aldekoa izan; maiz izan dira kritikagai, berbarako, Jaurlaritzak Micro-softi ordaindutako dirutzak. 2009ko udan, hala ere, software libreari keinu bat egin zitzaion Gasteizko gobernutik, baina hasierako promesa (hezkuntza-munduan software libreari sarbidea emango zitzaiola) erdibidean geratu izanak (azkenean abiatze bikoitza jarri zuten ia 20.000 ordenagailutan) zeresan dezente eman zuen¹⁴⁴.

Bitartean, Googlerekin ere hitzarmena sinatu zuen Jaurlaritzak 2009an bertan. Hona hitzarmen horri buruzko informazio gehiago¹⁴⁵:

EITBk, Googlek eta Eusko Jaurlaritzak gaur iragarri dutenez, euskal erakundeek Googleri zenbait produkturen ezarpena erosi diote. Google euskaraz izenburuarekin iragarritako ekitaldian, bi produktu ezarpenen berri eman dute. EITBk banatutako ohar batek dioenez, “Googlen euskarazko tresna eta zerbitzu berriak gehitzeko plangintzan, Expressive SL euskal enpresak, multinazional amerikarrarekin batera, ezartze eta aholkularitza lanak egingo ditu”.

145. Ikus, adibidez, bi artikulua hauek: <http://sustatu.com/1251876118> eta <http://softwarelibre.deusto.es/patxi-lopez-me-defrauda>. Jaurlaritzak berak ondoren izaniko jokabideari buruz, ikus <http://softwarelibre.deusto.es/patxi-lopez-me-asombra> (kontsultak: 2009-12-16).

146. <http://sustatu.com/1238760337> (kontsulta: 2009-12-16). Sustatu-koak eszeptiko antzean agertu ziren sarrera horretan. Hona zenbait pasarte, esanikoaren lekuko: «Produktu hauetan euskarak izango duen garrantzia azpimarratu dute gaurko aurkezpenean, baina berez gaur ez dute nobedaderik aurkeztu. Carlos Gracia Google-koak esan du Jaurlaritzak Googleko bilaketak euskarara egokitze txosten bat prestatu diela, eta hori aplikatzen hasi direla jada, urratsez urrats. Euskarazko edukien bilaketa espezifikoak barik, zaila izango da Google Search Appliance horretan oinarrituriko Euskarazko Bilatzaile Orokorrean euskarazko eta erdarazko edukien bereizketa egitea, Euskadi.net bezalako webgune batean eduki eleanitza baitago. Google Apps delakoaren euskal bertsioan, berriz, euskarazko e-posta ikusiko bada, alde aurretik Gmail euskaratzen badute izango da. Lan hori boluntarioek egin omen dago aspaldi, baina orain arte ez da agerian publiko egin behintzat. Hurrengo asteetan egingo da publiko Gmail euskarazkoa. Eusko Jaurlaritzak bideratua du jada Metaposta izeneko proiektu baten garapena, herritar guztiek e-posta kontuak izan ditzaten. Bizkaiko Foru Aldundiak, bestalde, Microsoft-ekin akordioa dauka, postontzi elektronikoa (eta beste zerbitzu batzuk) enpresa horren teknologiarekin garatzeko. Orain beste kontratu bat, nonbait, Googlerekin antzeko zerbitzu bat lortzeko. EITBk ekitaldian publiko egin duen ohar batean dioenez, EITBk lan egingo du “euskarazko edukiak zein zerbitzuak multinazional amerikarraren zenbait produktutan (Youtube, Books, Maps, Earth edo Blogger) ezartzearen alde”. Gaur egunean, Google Maps jada euskaratua dago. Googlek enpresa mailako zerbitzu hauek eskaintzen dituenean, izaten da bere oinarritako teknologian dauden aukerak aplikatzen dituela bezero baten mesedetan. Hortaz, produktu hauetarako euskarazko gaitasunak garatzen badira, pentsatzekoa da Google orokor eta doakoan ikusiko ditugula gaitasunik horiek (euskaraz bilaketa egiteko aukera, Gmail eta Docs euskaraz...)».

Batetik, Google Search Appliance delakoaren hardwarea ezarriko da, Jaurilaritzak eta EITBk beren webguneen edukia (eta beste erakunde batzuen) indexatzeko eta Euskarazko Bilatzaile Orokorra deituko duten zerbaitekin bilatu ahal izateko. Hemen beheko gailu hau bezalako zerbitzari multzo batek osatzen duen hardware multzoa da hori.

Bestalde, Google Apps aukeraren Enterprise kategoriako ezarpen bat egingo zaio Eusko Jaurilaritzari. Horrekin, Euskadi.net, eitb.com edo euskal erakunde publikoen beste domeinu batzuekin, sarbidea izango dute administrazioko langileek eta herritarrek Googlek eskaintzen dituen bere ofimatika produktuetara: Gmail, Google Docs eta Calendar direlakoak. Alegia, Gmail-eko e-posta, Gmail-eko kontu batekin izan beharrean, Euskadi.net edo Euskadimail.com moduko kontu batekin (Euskadimail izena aurkezpeneko diapositiba batean ikusi dugu).

Gainerakoan, kontu garrantzitsu bat argitu barik jarraitzen dugu: gai izango ote da Google miraria obratzeko? Zeri buruz ari garen? Luistxo Fernandezek ekarriko digu estreinako arrastoa (1998: 68): «Egiazki, euskara menderatuko duen itzultzaile automatikorik ikusiko ote dugun zalantzazkoa dirudi». Mendeak lehena-go izan zen antzekorik bota zuenik, baina esaldi horretan *itzultzaile automatiko* jartzen duen lekuan *gramatika* jarrita, harik eta Larramendi *El imposible vencido* besapean zeukala azaldu zen arte... Eta hori da, hain zuzen, funtsezko itauna: nor izan behar da XXI. mendeko Larramendi? Google? Ezetz dirudi oraingoz, Sustatukoek 2009ko azaroan bertan frogatutakoaren arabera¹⁴⁷: «Google Translatek idatzi ahala egiten ditu itzulpenak orain. Euskara ez dute gehitu oraindik, baina gazteleratik katalanera probatu dugu zuzeneko itzulpenak zelan egiten dituen (...).» Puntu honi buruzko informazio gehiago emango digute jarraian Amezaga, Arana eta Azpillagak (2010: ork. gabe):

Euskara hedabide horietan erabiltzen diren estandarretara egokitzeari buruz, ez dago oztoporik alfabetoari dagokionez, beste hizkuntza batzuekin gertatzen den bezala: euskararen alfabetoa oso ondo egokitzen da mendebaldeko teklatu eta kodeetara, eta ez du Europako beste hizkuntza batzuek ezagutzen ez dituzten karaktere bereizgarriarik. Baina inolako familiarik gabeko hizkuntza izateak eta inguruko zein komunikazioaren teknologia berrietako hizkuntza nagusien gramatikatik hain urrun dagoenez, itzulpen automatikoa elkarren antzeko edo gertukoagoak diren hizkuntzen artekoa baino zailago egiten dute. Horrek, eta hizkuntzaren txikitasunak itzulpen sistemak beste hizkuntza batzuetan bezain garatuak ez izatea ekarri du, urrats garrantzitsuak egin badira ere. Gaur egun euskarara eta euskaratik egiten diren itzulpen automatikoaren alorreko ekimenik garrantzitsuena *Opentrad* egitasmoaren inguruan artikulatzen da, hainbat unibertsiteren ekimenez eta kode irekiko teknologietan oinarrituta. *Opentrad* Espainiar Estatuko hizkuntza ofizialen arteko itzulpen automatikoko egitasmoa da (euskara, gaztelania, katalana eta galegoa), baina euskarari dagokionez behintzat beste hizkuntza batzuetara itzultzeko aukera emango duten sistema automatikoak garatzeko helburuaren barruan sartzen da.

147. http://sustatu.com/1258475392?utm_source=newsletter&utm_medium=email (kontsulta: 2009-12-16).

Opentrad-i loturik ere izan zen berririk hamarraldi amaieran, Eleka enpresak Matxin gaztelania-euskara itzultzaile automatikoaren bertsio hobetua aurkeztu baitzuen 2009ko abenduan. Elhuyar Fundazioarekin eta EHUko IXA taldearekin elkarlanean garatutako proiektua izan zen¹⁴⁸:

Bost urte pasa dira Eleka Ingeniaritza Linguistikoa, SL Galiziako eta Herralde Katalanetako enpresa eta unibertsitateekin batera Opentrad kode irekiko itzulpen automatikorako plataforma garatzen hasi zenetik (www.opentrad.com).

Matxin gaztelania-euskararen bertsio hobetua Opentrad plataformaren parte da, eta bertan itzulpen automatikoko teknika ezberdinak erabili dira.

Zalantza barik, funtsezkoa da euskararentzat itzulpen automatikoaren atea zabaltzea, bere burua mapan kokatzeko pauso erabakigarria bailitzateke hori¹⁴⁹, baina hori bezain funtsezkoa da, era berean, olatu digitalean igeri egiten jakitea, hurrengo atalean ikusiko dugun moduan.

ATALEAN BALIATURIKO ITURRIAK

- Amezaga, J.; Arana, E. eta Azpillaga, P. (2010; argitaratzean): *Hedabideak euskaraz*, EHU, Leioa.
- Aranzabal, J. (2006): “Web 2.0. Blogak”, 2006an sortutako wikia [linean], 2009-12-10eko kontsulta: <http://apunteak.pbwiki.com/Blogak>.
- Aranzabal, J. (2006): “Andoainen esandakoak Web 2.0ren gainean”, *Faroa* blogeko sarrera [linean], 2009-12-10eko kontsulta: <http://www.goiena.net/blogak/faroa/andoainen-esandakoak-web-20ren-gainean>
- Aranzabal, J. (2007): *Aurki.com batzailea, sareko euskal produkzioaren ispilu (2005eko irailetik 2006ko irailera)*, Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean (HUHEZI) ikerketa-nahikotasuna erdiesteko aurkezturiko lan argitaragabea, Eskoriatza.
- Ezkerra, E. (2003): “Hamabost urte beharko dira Internet normaltasun osoz eta bere potentzialtasun guztiarekin aritu dadin” (Javier Etxebesteri elkarrizketa) [linean], *Euskonews&Media*, **221**, 2003-09-11-19, 2009-12-03ko kontsulta: <http://www.euskonews.com/0221zkb/menu.html>.
- Fernandez, L. (1998): *Etxepare porno. Zibernetika.euskalduntzeko.metodoa*, Alberdania, Irun (Zerberri saila, 2).

148. http://sustatu.com/1260885784?utm_source=newsletter&utm_medium=email (kontsulta: 2009-12-17).

149. Badira, hori bai, euskara mapan kokatzeko modu xumeagoak: erreparatu bestela Tagzania aplikazioari (<http://www.tagzania.com>), EuskalMapa blogari (<http://www.euskalmapa.com/bloga>) edota izen bereko posta-zerrendari (azken horri buruz gehiago in http://sustatu.com/1260447548?utm_source=newsletter&utm_medium=email) (kontsultak: 2009-12-16).

- Fernandez, L. (2004): "Bitartekaritzarik gabeko kazetaritza", Euskarazko kazetaritzaren I. Kongresuan aurkezturiko txostena, Bilbo, 2004ko azaroa. Eskuragarri in Zenbait Egile, *Kazetaritza euskaraz. Oraina eta geroa* [linean], EHU, Bilbo. 2009-12-03ko kontsulta: http://www.argitalpenak.ehu.es/p291-content/eu/contenidos/librose_indice_ciencinfo/eu_ciencinf/adjuntos/kazetari.pdf
- Landa, J. (2004): "Informazioaren gizartea?", Euskarazko kazetaritzaren I. Kongresuan aurkezturiko komunikazioa, Bilbo, 2004ko azaroa. Eskuragarri in Zenbait Egile, *Kazetaritza euskaraz. Oraina eta geroa* [linean], Bilbo: EHU. 2009-12-03ko kontsulta:
- Mas i Hernández, J. (2003): "La salut del català a Internet", Softcatalá [linean,] 2009-12-13ko kontsulta: in <http://www.softcatala.org/articles/article26.htm>
<http://sustatu.com/>
- Zallo, R. (2006): *El pueblo vasco, hoy. Cultura, historia y sociedad en la era de la diversidad y del conocimiento*, Alberdania, Irun.

15. Digitalizazioa gurean

Liburu honen lehen atalean azaldu dugu zelan trantsizio-prozesu betean murgilduta dagoen komunikazio-mundua, paradigma batetik beste baterako aldaketa betean. Moragas-en aipu hau baliatu dugu esanikoa ilustratzeko (2000: ork. gabe): «(...) estamos en una etapa de tránsito, de la era de la comunicación de masas a una nueva era de la información multimedia y en red. (...) es necesario cambiar el enfoque de nuestra docencia e investigación: no estamos en la sociedad de los *mass media* sino en la sociedad *de la información*».

Baiki, duela ez hain aspaldiko igorle ahalguztidun urri horiek (eta, haiekin batera, baita norabide bakarreko komunikazioaren aroa ere) ahuldu egin dira nabarmen, eta ahotsen eta mezuen ugaritasuna gailendu da. Zurrumurru askotariko horiei erreparatu eta berauek bideratzen jakitea ei da orain kontua, merkatuak elkarrizketak direla baitio *mantra* berriak; paradigma hori, argi dago, hezkuntzara eta komunikazio-mundura ere iritsi da. Komunikazioari gagozkiola, hona zer dioten García, Vinuesa eta Lucasek hizpide dugun aro berriaz (Lucas, 2009: 355):

(...) recientemente hemos asistido a cambios en la mediación de la comunicación como consecuencia de la aparición de las TIC en general y muy concretamente por la extensión de los ordenadores, de Internet, de las páginas web. El uso creciente de estas tecnologías ha hecho cambiar las formas de comunicación y nos urge a ir señalando en términos generales las características de un nuevo modelo comunicativo (...).

El nuevo modelo, en un contexto de abundancia de información, insiste en que se acrecienta la confusión entre emisores y receptores, así como en el ambiente social conectivo y la gran importancia de los procesos de interacción internos estructurados tanto en emisores como en receptores. (...) ¹⁵⁰

Gurera etorrita, badira urte batzuk Josu Landak aldaketok usaindu zituela (2004: 411): «Internetek hedabideen mundura ekarri duen aldaketa pisuzkoenetako

150. Edozelan ere, lan bereko beste artikulua batean Lucas eta García, masa-komunikazioaren garaiko igorleen eta hartzaileen arteko muga garbiak gaur egun erabat lausotuta daudela berretsi eta gero, erlatibizatu egiten dute *feedback*aren eta elkarreraginaren garrantzia (Lucas, 2009: 210): «(...) los modelos circulares rompen la nítida distinción entre emisor y receptor propia de los modelos lineales (...). Pero no debemos olvidar que en muchas comunicaciones los procesos como el *feedback* son inexistentes. Por otra parte, esta idea de igualdad entre las partes en el proceso de comunicación puede llevarnos a una idea muy distorsionada de la realidad, donde lo normal es una patente desigualdad».

bat (...) mass media kontzeptua kolokan jartzea izan da. Informazio iturrien fragmentazioa ekarri du. Egia da fragmentazioa ez dela inolako mahuka berez. Oraindik orain, norbanakoei ahotsa emateak sortu ohi duen indibidualismoa kolektiboan nola uztartu konpontzeke dago».

Landak hori idatzi eta bost urtera, aurreko atalean ikusi bezala, 15.000 pertsona batu ziren Tuentiko *evento* batean sare sozial hori euskaraz, katalanez eta galegoz jar dezaten aldarrikatzeko. Izan ere, horrelako *eventoak* erabiltzen baitira Tuentin aldarrikapenak egiteko, norbanakoaren ahotsa kolektiboan uztartuta. Eta, esandako moduan, eraginkorrak dira, oso eraginkorrak: sarearen erabilera-baldintzak aldatzea lortu izan dute modu horretan... baita Tuenti Espainiako ezein hizkuntza ofizialetan mintzaraztea ere.

Aro digitalak ekarritako aldaketak dira horiek, bistan denez. Komunikazio-paradigmak ez ezik, telebistaren mundua ere hankaz gora jarri du digitalizazioak. Telebistak modu analogikoan emititzetik beren seinalea modu digitalean igortzera pasatzen ari dira. Zelan ari da gauzatzen prozesu hori Euskal Herrian? Hona zein ziren lehen asmoak eta zelan joan diren gero kontuak EAEn¹⁵¹:

Hasiera batean, Arabako hiriburua itzalaldi analogikoa biziko zuen Euskadiko lehen hiria izan behar zen, 2009ko ekainaren 30erako hitzartua. Gasteizekin batera, 23 udalerrri gehiagok (23 Arabakoak eta 1 Bizkaikoa) telebista digitalera salto egin behar zuten. Hala ere, estalduraren zabalkuntza aurrera eramateko, antenen egokitzapenak egiteko eta kontsumitzaileek deskodegailua eskuratzeko izan diren zailtasunak ikusi ostean, Gobernuak hasieran adostutako data hori atzeratzea erabaki zuen. Bilbon eta Donostian, bestalde, eta hasiera batean aurreikusia zegoen bezala, seinale digitalak analogikoa aldaketarako hitzartua dagoen egunean ordezkatuko du: 2010eko apirilaren 3a.

Horrela izango da, bai, Bizkaia eta Gipuzkoan, baina Arabara eta Nafarroara¹⁵² lehenago iritsi zen itzalaldia: 2009 hondarrean, hain zuzen. Ipar Euskal Herrian, berriz, 2011n gauzatuko da aldaketa (2012 urtea da Europar Batasunak prozesu horri amaiera emateko jarritako muga, baina egin kontu Herbehereetan 2006ko abendurako burutua zutela prozesua).

Eta zelako panorama geratuko zaigu behin trantsizioa amaitutakoan? EAERI dagokionez, erkidego horretako etxebizitza bakoitzak hamaika kanal digital izango ditu eskura; 44 telebista-programa, hain zuzen ere. Horietatik zortzi RTVE eta EITBren esku egongo dira, eta launa beste kateen esku (A3, T5, Cuatro, La Sexta,

151. http://www.hiru.com/komunikabideak/komunikabideak_01650.html (kontsulta: 2009-12-18).

152. Lau izango dira, hala ere, abendutik aurrera seinale analogikoa jasotzen jarraituko duten herriak Nafarroan; Leitza, Goizueta, Areso eta Arano. Kontua da herriotan Jaizkibelgo (Gipuzkoa) errepikagailuari esker ikusten dutela telebista, eta, esandako moduan, 2010eko apirilera arte ez da Gipuzkoan gertatuko itzalaldia.

NET TV, VEO eta telebista lokalak). Nafarroan ere ez da oso desberdina izango panorama; lokalak aldatuko dira, hori bai, eta, multiplex autonomikoari dagokionez, orain artekoa, aurrerago ikusiko dugun moduan, Nafarroako gaztelaniazko hiru kateek betetzen dute, eta lerrook idazterakoan ez dago batere argi Espainiako gobernuak bigarren multiplexa indarrean jarriko ote duen, eta ezta, beraz, zer jazoko den ETBekin Foru Erkidegoan.

Gainerakoan, kate bakoitzari esleitutako programa kopurua aurrez aipaturikoa izanagatik, telebistek eurek ez dute horrenbeste programa (44) eskainiko. Honela geratuko da kontua, hasiera batean behinik behin, EAEn:

Lurreko Telebista Digitalaren kanalen zerrenda (EAE)

Espainia guztirakoak¹⁵³:

- Radio Televisión Española: La1, La2, 24h, Clan, Teledeporte.
- Veo (Unidad Editorial): Veo7, SonyTv en Veo.
- Net TV (Vocento tartean dela, Intereconomía eta Walt Disney Iberiarekin batera): Intereconomía TV, Disney Channel.
- Sogecable: Cuatro, CNN+, 40 Latino.
- La Sexta: La Sexta, Hogar 10.
- Telecinco: Telecinco, FDF, La Siete.
- Antena3: Antena3, Antena.Neox, Antena.Nova.

Autonomikoak:

- EITB: ETB1, ETB2, ETB3, ETBSAT.

Tokikoak:

- Araba: Álava7 TV, Euve, Hamaika, Canal Gasteiz.
- Bizkaia: TeleBilbao, Bilbovision, Hamaika, Canal Bizkaia, Oizmendi.
- Gipuzkoa: Teledonosti, Hamaika, Gipuzkoa Telebista, Gipuzkoa Telebista Txingudi, Legazpi, 28, Erlo, Goierri eta Goiena.

* Iturria: www.hiru.com eta lanketa propioa.

Arreta berezia merezi du telebista lokalen kasuak. Izan ere, seinale analogikoaren itzalaldia baliatu du Administrazioak artean arautu barik zegoen sektore bat arautzeko. EAEn dagokionez, 15 barrutitan banatu zen mapa, barruti bakoitzarentzako multiplex bana (lau katerentzako lekua, beraz) gordeta. Lehiaketa publikoa deitu eta gero, Jaurlaritzak 2007ko uztailan esleitu zituen emisio-lizentziak¹⁵⁴.

153. Lerrook idazten ari garena jakinda Tele5k eta Cuatrok bat egingo dutela, eta baita La Sextak eta Antena 3k ere. Nolanahi dela, kate bakoitzak bere markarekin emititzen jarraituko ei du.

154. Hemen ikus daiteke zein diren barrutiak eta zer telebistak lortu zuen baimena barruti bakoitzean jarduteko: <http://www.sustatu.com/1184755581> (kontsulta: 2009-12-18).

Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan lau talde handi nagusitu ziren tokiko telebisten mapa berrian. Euskararen ikuspegitik begiratuta Hamaika Telebista taldea da¹⁵⁵, duda barik, lauretan garrantzitsuena. 2006ko irailean gorpuztu zen talde hori, indar-metaketa handi baten eraginez eta asmo argi bati jarraiki: EAEko barruti guztietan euskarazko tokiko telebistak sortzea eta ondoren guztien artean sarea osatzea.

Sei komunikazio-talde, enpresa eta eragilek osatzen dute Hamaika Taldea: dagoeneko ezagun dugun EKTk, *Gara* eta *Le Journal du Pays Basque* egiten dituen Euskal Komunikabideak hedatzeko Elkarteak (EKHE), *Deia* eta *Diario de Noticias* egunkariak kaleratzen dituen Corporación Multimedia del Norte-k (CMN), Elkar liburu eta disko ekoizpen-etxeak, Euskaltel telekomunikazio-eragileak eta Baintet telebista eta zinema ekoizpen-etxeak. Hamabost barrutitan euskarazko tokiko telebista bat izateko bide horretan, bestalde, Bilbokoa izan da abiatzen lehena (Euskaltel bidez EAE guztian ikus daiteke gainera), 2009an, eta Gasteizkoa eta Donostiakoa etorriko dira gero (Gasteizko egitasmoa 2009ko azaroan aurkeztu zuen).

Hamar lizentzia eskuratu zituen, beraz, Hamaika Taldeak bere kaxa, eta beste bost kasutan (Tolosa, Zarautz, Ordizia, Arrasate eta Gernika) tokiko euskarazko telebistekin batera aurkeztu zen. Hamabost lizentzia lortu zituzten, era berean, Localia ohiaren ondorengoek. 2008an eten zuen jarduera Localiak, eta 2009 hasieratik lau kanal desberdinetan banatu zen EAEn: Canal Bizkaia, Canal Gasteiz, Gipuzkoa Telebista eta Gipuzkoa Telebista Txingudi. Horiek guztiek beraien emisioari eutsi diote eta jasotako baimenekin telebista digitalaren eskaintzara batu dira. Horien atzetik, Localmedia (EAEn Telebilbao du ikur nagusi) eta Vocento taldea (Bilbovisión, Teledonosti...) datoz, bakoitza hamabina lizentziarekin. Tele 7 kateak, eskatutako bostetatik bi hartu zituen eta EUVE (European Virtual Engineering Technological Centre) eta Legazpi kateek, bana. Donostiako eta Barakaldoko udalei emandako lizentzia banarekin osatu zen mapa. Egin kontu, bestalde, 60 lizentzia zeudela jokoan (2 banatu barik geratu ziren azkenean) eta 81 proiektu aurkeztu zirela, eta, hortaz, Kultura Sailaren esleipenek banaketa horretatik kanpo utzi zituztela Cope (4 eskakizun egin zituen), Canal Euskadi (6 eskakizun) eta Kiss Radio (beste 6 eskakizun) moduko komunikazio-talde esanguratsuak.

Alabaina, lizentzia eskuratu duten tokiko telebistek ere ez dute bide errazik izango. Horren erakusgarri da, esate baterako, 2009-12-02ko *Berrian* argitaratutako albiste hau¹⁵⁶:

Itzalketa analogikoaren harira tokiko telebista kateak “diskriminazioa” jasotzen ari direla salatu du gaur Euskadiko Tokiko Telebisten elkarteak (Digibat), eta digitalizazio prozesuan kate generalistekiko “berdintasuna” eskatu du.

155. www.hamaika.tv

156. http://www.berria.info/albisteak/37741/Tokiko_telebisten_elkarteak_berdintasuna_eskatu_du_digitalizazio_prozesuan.htm (kontsulta: 2009-12-18).

Itzalketa analogikoa eta piztualdi digitala gidatzen ari diren erakunde publiko guztien aldetik jasaten ari garen tratua salatu nahi dugu. Erakunde publikoek diru publikoa banatu dute TVE, ETB, A3, Cuatro, Tele5 eta La Sexta digitalizatzeko, enpresa publiko nahiz pribatu horiei inolako gainkargarik ezarri gabe. Tokiko telebistok, aldiz, geure kabuz egin behar dugu analogikotik digitalerako trantsizioa. Zenbakieta-
ra ekarriz, 1,10 milioi eurotik gora eskatzen dizkigu urtean egokitze prozesu honek”, esan du Digibatek gaur, agerraldian. “Hau da, Espainiako [Estatuko] kate generalista handiak diru publikoz laguntzen dituzte, eta tokiko telebistak itotzeraino estutzen dira. Laster hiru urte beteko dira Eusko Jaurlaritzak EAEn Tokiko Telebista Digitalak banatzeko lehiaketa zabaldu zuenetik. Lehiaketaren ondorioz 58 lizentzia banatu zituzten 2007ko udan, EAeko 15 barrutietan.

2007ko udan sortu zuten Digibat elkarte, lizentziadun operadore guztien artean. Bertako kide dira, esaterako, Hamaika Telebista -EKT da bazkideetako-, Tokikoko Goitb, 28K,Goierri, Erlo, Oizmendi, Urola, Telebilbao, Teledonostia, Televitoria, EUVE, Bilbovisión, Teledonosti, Alava7, Tele 7 telebista, Canal Bizkaia, Canal Gasteiz eta Gipuzkoa Telebista.

15.1. EUSKARAREN LEKUA EREMU DIGITALEAN

Eta zein da euskarak telebisten eremu digital berri honetan daukan lekua? Tokikoei dagokienez, pauso interesgarriak sumatu ziren Jaurlaritzak dekretua atera eta lehiaketa deitu zuenean. Helburu nagusiak izendatzean ere, euskararen sustapena eta zabalkundea zen horietako bat (eduki propioak jorratzea eta tokiko informazioa eskaintzea ziren beste biak). Tokiko telebistetan euskara komunikazio-hizkuntza izango zela bermatzeko, neurri hauek aurreikusi ziren, besteak beste¹⁵⁷:

Euskara lehentasunezko hizkuntza izango da tokiko telebista guzti-guztietan bai publikoetan baita pribatuetan ere. Ez da gaztelania hutsezko tokiko telebistarik izango. Orokorrean, eredu elebidun baten aldeko apustua egin dugu, baina bultzatu egingo dira euskara hutsezko emisioak edo gutxieneko batzuetatik goragoko euskararen eskaintza egiten duten eskabideak.

- Lortu nahi duguna da orain ez bezala, etorkizunera begira euskarak atek zabalik izatea tokiko telebistetan. Gaur egungo egoera aldatu nahi da.
- Proposatutako hizkuntza ereduak, barruti bakoitzaren egoera soziolinguistikoa du gogoan, bertako elebidunen portzentajea kontuan izanik.
- Gutxieneko orokor batzuetatik abiatuta, barruti bakoitzeko indize soziolinguistikoaren araberrako kuota sistema ezarri da, hiritarrek euskaraz zein gaztelaniaz informazioa jasotzeko eskubidea bermatuta izan dezaten.
- Euskarazko emisioei erreparatuz, euskara hutsean ematen ez diren kanaletan, bai zuzeneko kudeaketakoetan zein zeharkakoetan, goizeko 7:00etatik gauerdia arteko ordu-tartean eskainiko dira euskarazko emisioak, proportzionalki banatuta.

157. Edurne Basoa garai hartako Kultura Saileko Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen zuzendariak Komunikaldiak jardunaldien 2007ko ekitaldian Mondragon Unibertsitatearen HUHEZI Fakultatean emaniko hitzalditik hartuta. Eskuragarri hemen: <http://gizakom.blogspot.com/2007/02/edurne-basoa-tokiko-telebista-digitala.html> (kontsulta: 2009-12-18).

- Dena den, ikus-entzule gehien dagoen orduetan, barruti horri dagokion indize soziolinguistikoa hartu beharko du, gutxienez, euskarazko programazioak. Udalen kasuan, gutxienerako bat azkeneko eta indizea % 50ekoa izango da.
- Euskarak toki duina izango du toki telebista guztietan, publikoetan eta pribatuetan.
- Gutxienerako horietatik gora, euskara hutsezko emisioak egiteraino aukera dago eta horietatik lehenetsiko dira, bete beharreko bideragarritasun baldintza teknikoak eta ekonomikoak betetzen badira.
- Udalei, partikularrei baino betebeharrak altuagoa ezarri zaie, Erakunde Publikoetara politika publikoen ereduak izatea dagokigulako.

Tokikoetan euskararen presentzia bermatzeko neurriak hartu ziren, beraz, EAEn (izan zen neurrioi eskasegi iritzi zienik ere). Ezin gauza bera esan Nafarroari buruz: bost barruti ezarri zituzten bertan (Iruñea, Tuter, Lizarra, Tafalla eta Zangoza). Euskaraz ziharduten bi telebistak (Ttipi-Ttapa eta Xaloe), beraz, baimena lortzeko aukera barik utzi zituzten, biek ala biek barruti horietatik at geratutako esparru euskalduna (Baztan, Bortziriak eta Malerreka nagusiki) zutelako eragin-eremu. Eta baimenik ezean, diru-laguntza barik gelditzeko arriskua zeukaten.

Gertatu ere horixe gertatu zen, pentsatzekoa zen moduan: 2008an euskarazko hedabideek Nafarroako Gobernutik aurreko urtean baino 70.000 euro gutxiago jaso ostean (are handiagoa izan zen 2009ko murrizketa, urte horretan aurrekontuetan 9.500 euro aurrekusi arren azkenean ez baitzen euro bakarra ere bideratu euskarazkoentzan), Ttipi-Ttapa Fundazioak erabaki zaila hartu behar izan zuen: telebistaren emisioak eten, hiru behargin lan barik utzi eta indar guztiak aldizkarian eta webgunean metatu. Xaloeak, berriz, itzalaldi analogikoa gorabehera, seinale analogikoaren bidez emititzen jarraitzen du Baztanen, Malerrekan eta Bertizaranan eta ez du digitalean emititzea ahalbidetuko liokeen lizentzia eskuratzeko itxaropena galdu¹⁵⁸.

Euskarazko tokiko telebistek ez ezik, ETBk ere gorabehera dezente ditu Foru Erkidegoan digitalizazioa dela eta ez dela. 2009ko abenduan seinale analogikoa itzali eta gero, ordura arte ikusten ziren telebista-kate guztiak ikusi ahal dira LTD bidez, ETB izan ezik. Izan ere, Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak ez dute oraindik auzi horren inguruan egiazko akordiorik erdietsi. Hala, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan telebista-seinale analogikoa guztiz itzaltzen denean, 2010eko apirilean, ezingo da ETB Nafarroan ikusi, berau izango baita gaurtik analogikoan ikusiko den kate bakarra. Hartara, aldaketarik ezean, euskarazko telebistarik ez da ikusiko ordutik aurrera Nafarroan, *Berriak* 2009-12-10ean zioen moduan:

158. Ikus horri buruz:

http://paperekoa.berria.info/agenda/2009-12-16/041/006/%C2%ABAzkenean_digitalean_emititzeko_lizentzia_emango_digutela_espero_dut%C2%BB.htm (kontsulta: 2009-12-18).

Egun, Nafarroan ETBko seinalea igortzen duten hedagailuek Araba, Bizkai eta Gipuzkoatik jasotzen dute seinalea. Beraz, heldu den apirilaren 3an hiru lurralde horietan itzalaldi analogikoa izaten denean ez da izango Nafarroan ETB ikusteko inolako aukerarik, ez analogikoan ezta LTD bidez ere. Hori ikusita, Nafarroako Parlamentuko alderdi guztiek, UPNk izan ezik, «kezka» azaldu zuten, eta heldu den apirilaren 3tik aurrera Nafarroan ETB ikusteko aukerarik ez zela izango jakinarazi. (...)

ETB LTD bidez Nafarroan ikusi ahal izateko, bigarren multiplexa ezinbestekoa da. Izan ere, multiplex bakoitzak lau telebista kateentzako tokia bermatzen du. Eta egun multiplex bat bakarrik dago bermatuta, eta lau tokiak Nafarroako kateentzat soilik dira. (...)

Nafarroan apiriletik aurrera ere ETB ikusi ahal izateko, bi baldintza bete behar dira: Espainiako Industria Ministerioak Nafarroari bigarren multiplexa eman behar dio, eta Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak finantzaketa hitzarmena sinatu behar dute. Izan ere, aurreikuspenen arabera, bigarren multiplexa jartzeak milioi bat euroko kostua du. (...)

Catalanek argi utzi du Nafarroako Gobernuak ez duela bere gain hartuko ETB ikusteko egin behar den inbertsioa. (...) Miguel Angel Idigoras ETBko zuzendari nagusiaren esanetan, Nafarroako Gobernuak eta Jaurlaritzak sinatu beharreko ituna «bide onetik» doa. 2010eko lehen hiruhilekoan bai ETB1 eta bai ETB2 ere Nafarroan LTD bidez ikustea posible izango dela uste du Idigorasek.

Frantziari dagokionez, lehen esan dugun moduan 2011n izango da itzalaldi analogikoa. Lizentzia duten kate guztiak telebista eta enpresa handienak dira oro har, eta euskarak ez du lekurik haien programazioetan. Salbuespen modura aipa daiteke TVPI, Ipar Euskal Herriko telebista lokala, zeinak aurreko atalean aipatu dugun Kanalduderen edukiak bota ohi dituen, eta baita ETBren «Iparraldearen Orena» ere.

Hori da, beraz, panorama. Ezin aipatu barik utzi, hori bai,. EAEn izaniko aldaketa esanguratsu bat: duela gutxira arte euskarazko kate bakarra baino ezin zitekeen ikusi etxe askotan (kate lokalen bat ere bai beste batzuetan); orain, aldiz, ETB3z gain, beste dozena erditik gora euskarazko kate jasotzea ere badago Euskaltelen azpiegitura dela tarteko. Jauzi nabarmena da, bistan denez. Baina hazi egin da baita, nabarmen gainera (satelitea eta zuntza direla-eta), inguruko erdaretatik jaso ahal ditugun kateen kopurua. Euskarazkoek, beraz, gainerakoena kopiatzen ibili beharrean, balio erantsiak eskaini beharko dituzte jendea erakarri gura izanez gero.

Horrez gain, eta telebista hedabide oso garestia dela aintzat hartuta (teknologiaren garapenak azkenaldion kostuak murriztu dituen arren), ezinbestekoa da euskarazkoen arteko elkarlana. Hamaika Taldearen adibidea aipatu dugu lehen, eta badago beste adibide argigarri bat ere: Tokiko elkarteak eskaintzen duena¹⁵⁹.

159. <http://www.tokiko.tv/>

Euskarazko tokiko telebisten elkarteak da Tokiko. 2005. urtean sortu zen sektorea indartzeko asmoarekin. Gaur egun Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat telebista (Oizmendi, Goiena, Erlo, 28, Goierri, Xaloe eta oraingoz isilik dagoen Ttipi-Ttapa) eta Topagunea Euskara Elkartearen Federazioa ditu bazkide. Horrez gain, programa-trukea bermatzea hitzartu dute Hamaika Taldearekin, eta Kanalduderekin ere harremanetan hasiak dira.

Kideen artean esperientziak eta programak trukatzeari gain, Tokiko.tv euskarazko Internet bidezko telebista ere abian jarri du elkarte horrek. Programa-trukeari dagokionez, bestalde, digitalizazioak nabarmen bizkortu du lehendik ere abian zen ekimen hori (leheneago garraio-zerbitzuen bidez bidaltzen zizkieten zintak elkarri). Horri gagozkiola, Arrosa sareko irratientzat ere abantailak baino ez ditu ekarri aro digitalak.

15.2. ELKARLANAREN PREMIA KONBERGENTZIA-GARAIETARAKO

Aro digitalaren beste eraginetako bat da hedabideak ikus-entzunezkoetara lerratu izana. Hori nabarmena da, adibidez, euskarazko prentsaren bi bandera-ontzi nagusietan: *Argiak* bideoak eta multimedia-edukiak jorratzeari ekin dio, *Berriak* ere bere telebista dauka Interneten eta agerkari bakarrean zentratutako enpresa izatetik komunikazio-talde (EKT) izaterako jauzia eman du, horrek esan gura duen guztiarekin.

One content, all media esaldiak laburbiltzen duen multimediarako joera horri antzematen lehena, dena dela, Goiena taldea izan zen, bai behintzat bazterrotan. Mezu bakarra euskarri bakarrean maiz errepikatzea baino, mezu hori euskarri desberdinetan behin baino ez botatzea eraginkorragoa zela sinetsita, talde bakarrean bildu zituzten telebista, irratia, astean birritan agertzen den kazeta, Internet ataria eta Arteman komunikazio-agentzia. Ez hori bakarrik: hedabide horien artean lan egiteko modu integratu baterako urratsak emateari ere ekin zioten. Horri esker, Jotxo Larrañagak eginiko ikerketan islatzen denez (2008), Euskal Herriko beste edozein taldetan baino garatuago dago Goienan konbergentzia mediatikoa.

Hedabide atipikoa da Goiena, hiru hanka dituen kooperatiba: batetik, euskara-elkarteak; bestetik, eskualdeko udalak; hirugarrenik, langile bazkideak eurak. Egitura horretan oinarrituta, garapen bizkorra izan dute eta egun 60 langile inguruko taldea osatzen dute (garapen horri buruzko datu gehiago nahi izanez gero, ikus Arregi, 2003). Ezin ahantzi, hala ere, Goienaren sorburuan *Arrasate Press* egon zela, eta kazeta hori ez zatekeela posible Xabier Zubizarreta orduko Arrasateko alkateak egitasmoan sinetsi eta berau gogoz babestu izan ez balu. Eta ezin ahaztu, era berean, gaur egun ere talde horren diru-sarreraren ia erdia laguntza publikoetatik datorrela¹⁶⁰.

160. Goienako Iban Aranzabalek 2006-11-08an Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatean emaniko hitzaldian azaldu zuenez, publizitate eta zerbitzuetatik lortzen dute sarreraren % 51; % 34, udal-laguntzetatik, eta % 15, Jaurlaritzaren eta Aldundiaren laguntzetatik.

Egoera dagoen moduan egonda euskarazko komunikazioa ezelako babes barik merkatu-legeen menpe utziz gero, ez dagoela euskararen zirkulazio askea bermatzerik, alegia. Galde diezaietela bestela Nafarroako hedabideei: ikusi dugu lehen diru-laguntzen murrizketak zer ondorio izan zuen Ttipi-Ttarentzat, eta Foru Erkidegoko gainerako euskarazko hedabideak ere estu eta larri dabilta. Xabier Letona *Argiako* zuzendariak idatzitakoa argigarria da¹⁶¹: «Nafarroako gaztelerazko hiru telebistek Nafarroako euskarazko komunikabide guztiek baino 313 bider diru-laguntza gehiago jasoko dute aurtan. Krisia dela eta Nafarroako Gobernuak 2009an 9.567 euro emango die euskarazko komunikabideei. Bestela esanda euskal prentsan hain ohikoa den *mileurista* baten soldata erdi». Nafarroan ez ezik, beste bazter batzuetan ere ortozik dabilta txakurrak diru-laguntzen eskasia dela-eta: Gasteizko *Geu* hilabetekariak, esate baterako, kazeta behin-behinean ixteko erabakia hartu du 2009ko abenduan¹⁶².

Egia da, hala ere, diru-laguntzen gehiegizko murrizketak hainbat aje eragin ditzakeela (ikus Josu Landak horri buruz idatzitakoa in 2004: 412), baina, horrelako kasuak izan badiren arren, berriz esango dugu: euskarazko komunikazio-esparru sendo bat zurkaiztu gura bada, ezinbestekoa da aginte publikoen laguntza. Eta laguntza hori, gainera, ez litzateke mugatu behar —sektoretik maiz salatu izan denez— unean uneko behar larrienak nola edo hala estaltzera; gauzak ganoraz egitekotan, egungo ziurgabetasun-egoera gainditu (urtea sasoi horretako sosa jasoko dituzten ala ez jakin ezinik ematen baitute hedabideetan) eta epe ertain-luzera begiratzea eta inbertsioak egitea ahalbidetuko luketen kontratu-programen edo gisako hitzarmenen bidetik jotzea eskatzen du egoerak.

Horrek ez du kentzen, noski, euskarazko hedabideen mapa adostu beharra, ezta ahalik eta autofinantziazio-mailarik altuenak erdiesteko ahalegina egin beharra ere, bistan denez. Autofinantziazioa handitzeko ahalegin horretan, dena dela, arazo batekin egiten dute topo behin eta berriro, etxe handien publizitate-merkatuetara ezin helduta ibiltzen baitira. Topaguneak hori gainditu eta bide batez bertan federaturiko kazetak trinkotzeko ahalegina egin zuen bere garaian *Asteon* astekariarekin, euskarazko prentsan ordura artekoak baino botaldi handiagoak (60.000 ale zenbakiko) merkaturatuta, baina, arrazoi desberdinak tarteko, huts egin zuen saio hark (ikus Zuberogitia, 2005: 279).

Luistxo Fernandezek (2004: 407-408) *prosumer*-en jarduna aipatu izan du alternatiba modura, *Telezaborra* bloga¹⁶³, adibidez, *Asteon* baino merkeagoa eta

161. <http://argia.com/erredakzio-mahaia/xabier-letona/2009/12/01/hiru-telebistek-euskarazko-hedabide-guztiek-baino-313-bider-dirulaguntza-gehiago-jaso-dute/> (kontsulta: 2009-12-18).

162. Ikus *Geuko* zuzendari Estitxu Breñasen gutuna in <http://www.ukberri.net/modules.php?op=modload&name=News&file=article&sid=11590&mode=thread&order=0&thold=0> (kontsulta: 2009-12-18).

163. <http://eibar.org/blogak/telezaborra>

eraginkorragoa zela argudiatuta. Haatik, *Telezaborrak* ere ez du oso luze iraun, bertako azken sarrera 2007-01-19koa baita... Hori da Interneten (bai behintzat hedabideen arloan) oraingoz dagoen arazoa: negozio-eredua ez dago definituta eta oso diru gutxi sartzen da sarera¹⁶⁴.

Arazo estrukturalok direla kausa, berriro diogu, premia estrategikoa da euskarazko hedabideentzat proiektu batzuei behinik behin elkarlanean ekitea, betiere elkarren autonomia errespetatuta, baina, Josu Landak dioen moduan, bestelako joerak gailentzen dira zenbaitetan (2004: 411):

Euskarazko hedabideen artean gero eta erakunde-enpresa sendoagoak sortzearekin batera, gaizki (edo gaizto) ulertutako kompetentzia sentimendua ere nabarmen garatu da. Egia da euskalgintzako agenteok elkarrekin lehiatzen garela, dirulaguntzen partiketa hil edo bizikoan batez ere, baina benetako konkurrentzia komertzial batetik urruti gaude. Hala ere, ia lobby bezalako portaeretara heldu gara geure ekosistema txikitxo honetan: *Berria*, *Goiena*, *Argia*, *Topagunea*, etab. Ez nago seguru berriki aipatutako kompetentzia horren ondorioa soilik ote den, baina euskarazko hedabideen artean, argitaratzen diren emaitzei behatuta, halako autismo harrigarria islatzen da. Ez da kasik elkarren berri ematen (...)

Edozelan ere, egon badaude Landak salaturiko autismo-suerte hori gaintzeko ekimenak: jada ezagun ditugun Tokiko, Hamaika edota Arrosa aipa daitezke, adibidez, edo baita 2009 hondarreko beste bi ekimen hauek:

1. Topagunean federatutako tokiko hedabideek Tokikom aurkeztu zuten 2009ko abenduan, tokiko hedabideen marka bateratua. Beronen sustatzaileen esanetan, Tokikomek tokiko hedabideen sektoreak duen indarra azpimarratzea eta barne-kohesioa areagotzea du helburu nagusitzat. Bere lehen fruitua Durangoko Azokan aurkeztutako Tokikom aldizkariaren agregatzailea da. Modu honetan eman zuten haren berri Topaguneko kideek¹⁶⁵:

Webgune berriak TOKIKOMeko aldizkariaren edizio digitaletako titularrak jaso eta batera aurkezten ditu automatikoki, Euskal Herriko tokiko errealitatearen orainkari moduko bat eratuz. Titular batean klik eginez gero, jatorrizko webgunea eramango gaitu, informazio osoa lehen eskutik jaso dezagun.

Horrez gain, eskualdekako aukeraketa ere egin dezakegu, leku jakin bateko albisteak irakurri edo bertako aldizkaria zein den jakin nahi izanez gero. Webgunea aldizkariaren eskaparatea ere bada nolabait, eta bertan aurki daiteke hala

164. Argigarria da Espainian Soitu-rekin (<http://www.soitu.es>) jazotakoa. Badirudi, hala ere, gauzak aldatzen has daitezkeela, Rupert Murdoch-en presioen ondorioz Google News-ek onartu baitu News Corporation-eko hedabideetatik hartutako informazioaren truke dirua ordaintzea. Pentsaren krisiak, berriz, informazioaren doakotasuna auzitan jarri eta mikroordainketen bidea indarrean jartzera behartu ditu zenbait egunkari.

165. <http://sustatu.com/1260351150> (kontsulta: 2009-12-18).

TOKIKOMen beraren nola aldizkari bakoitzaren inguruko informazio zehatza, kontaktatzeko modua eta abar.

2. 2009ko Durangoko Azokan, halaber, Azoka Telebista ekimena bideratu zuten Hamaika Telebistak, Tokikok (Goiena protagonista nagusi zela) eta ETB3-k, Gipuzkoako Foru Aldundiak lagunduta. Esperientzian parte hartu zutenak pozik geratu ziren eta denek aitortu zuten ekimen bateratu berrien hazia izan daitekeela Durangokoa¹⁶⁶.

Horrelaxe izan ohi dira kontuak: konturatzeko mende eta erdi joan zaigu ia masa-komunikazioaren estratetan barrena abiatu ginenetik, eta, sekula baino euskarazko hedabide gehiago ditugun honetan, inoiz ez bezalako aukera dago erdarazkoetan ere; kinka konplexuan ekin zion masa-komunikazioaren bideari euskarak, eta kinka konplexua bizi du orain, Informazioaren Gizartearen aroan. Oinarriak, hala ere, XIX. mendekoak baino sendoagoak dira: hedabideen ekosistema txiki bat daukagu, euskara batu estandarra egina eta gizarteratua dago, euskal hezkuntza-sistema ere badugu eta nola-halako ofizialtasuna lurraldearen zati batean. Horiek guztiak eta arestian aipaturiko elkarlan-esperientzia aberasgarriak gogoan, beraz, bada arrazoirik euskarazko komunikazioaren garairik onenak etorkizun direla pentsatzeko.

ATALEAN BALIATURIKO ITURRIAK:

Arregi, I. (2003): “Goiena multimedia proiektua: ametsetik errealitatera”, in Zenbait Egile, *Tokiko hedabideak etorkizunera begira*, Topagunea Euskara Elkartearen Federazioa, Abadiño, 139-151.

Gaztelumendi, P. (2009): “Telebista eredu berriak ikusten”, *Gaztelumendi.org* blogeko sarrera [linean], 2009-12-17ko kontsulta:
<http://www.larrabetzu.org/gaztelumendi/?p=1176>

www.hamaika.tv

www.hiru.com

Jauregi, I. (2004): “Arrosa: irratien elkarlanerako sortua”, Euskarazko Kazetaritzaren I. Kongresuan aurkezturiko txostena, Bilbo, 2004ko azaroa. Eskuragarri in Zenbait Egile, *Kazetaritza euskaraz. Oraina eta geroa* [linean], EHU, Bilbo, 2009-12-17ko kontsulta.

166. Ikus adibidez Iban Arantzabalek eta Patxi Gaztelumendik gaiari buruz idatzitakoa (<http://www.arantzabal.com/azoka-telebistaren-indarra> eta <http://www.larrabetzu.org/gaztelumendi/?p=1176>, hurrenez hurren).

- Landa, J. (2004): “Informazioaren gizartea?”, Euskarazko Kazetaritzaren I. Kongresuan aurkezturiko komunikazioa, Bilbo, 2004ko azaroa. Eskuragarri in Zenbait Egile, *Kazetaritza euskaraz. Oraina eta geroa* [linean], EHU, Bilbo, 2009-12-18ko kontsulta.
- Larrañaga, J. (arg.) (2008): “Ikerketa-bideak konbergentzia mediatikora hurreratzeko”, *Uztaro*, **64**, 69-81, [linean] 2009-12-17ko kontsulta: http://www.uztaro.com/artikulua/65/Ikerketa-bideak-konbergentzia-mediatikora-hurreratzeko_962.html
- Lucas, A. (2009): *La nueva comunicación*, Trotta, Madril.
www.tokiko.tv
- Zuberogoitia, A. (2005): *Bidegorriak hizkuntzentzat. Euskarazko komunikazio-esparrua trinkotzeari buruzko burutazioak*, Elkar, Donostia.
- Zupiria, B. (2004): “XXI. mendeko EITB: jomuga berriak”, Euskarazko Kazetaritzaren I. Kongresuan aurkezturiko komunikazioa, Bilbo, 2004ko azaroa. Eskuragarri in Zenbait Egile, *Kazetaritza euskaraz. Oraina eta geroa* [linean], EHU, Bilbo, 2009-12-18ko kontsulta.

Kazetaritza sailean argitaratu diren beste liburu batzuk

Semiotika eta masa-komunikazioa. Panorama europarra

Joxe Inazio Basterretxea eta Marian Gonzalez
1997an argitaratua
ISBN: 84-86967-84-8

Komunikazioaren ikerkuntzarako metodologia

Iñaki Zabaleta Urkiola
1997an argitaratua
ISBN: 84-86967-85-6

Komunikazioaren eta informazioaren oinarriak

Jose Inazio Basterretxea
1997an argitaratua
ISBN: 84-86967-87-2

Kazetari-l@na Euskal Herrian

Txema Ramirez de la Piscina
1998an argitaratua
ISBN: 84-86967-94-5

Irratibidearen barrunbean zehar

Gorka Jakobe Palazio
2000n argitaratua
ISBN: 84-8438-005-10

Irratirako idazketa eta gidoigintza

Arantza Gutierrez Paz
2000n argitaratua
ISBN: 84-8438-008-4

Hedabideak eta Euskal Herria

Nor ikerketa-taldea
2000n argitaratua
ISBN: 84-8438-010-6

Ekoizpena eta errealizazioa

Arantza Gutierrez Paz
2001ean argitaratua
ISBN: 84-8438-019-X

Kultura-aniztasuna eta gizarte-komunikazioa

Jose Inazio Basterretxea Polo
2002an argitaratua
ISBN: 84-8438-026-2

Ikus-entzunezko informazioaren teknologia
Iñaki Zabaleta Urkiola
2002an argitaratua
ISBN: 84-8438-032-7

Euskal irratigintzaren historia
Arantza Gutierrez Paz
2002an argitaratua
ISBN: 84-8438-0031-9

Informazioaren teoria eta teknika irrati eta telebista digital eta analogikoan
Iñaki Zabaleta, Jexuxmari Zalakain
2004an argitaratua
ISBN: 84-8438-050-5

Programaziogintza irrati-telebistan
Edorta Arana Arrieta
2004an argitaratua
ISBN: 84-8438-055-6

Nola esan albisteak ikus-entzuleari
Jose Larrañaga Zubidarreta
2005ean argitaratua
ISBN: 84-8438-057-2

Irratsaio bat egiteko tailer praktikoa
Arantza Gutierrez eta Itxaso Fernandez
2005ean argitaratua
ISBN: 84-8438-070-X

Informaziorako dokumentazioaren oinarriak. 2. argitalpena
Teresa Agirreazaldegi Berriozabal
2006an argitaratua
ISBN: 84-8438-078-5

Enpresa Komunikazioa profesionalen ikuspegitik
Ana Urkiza Ibaibarriaga (arg.)
2007an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-093-1

Arrazoiaren hitza. Argudio-bideen arrastoan
Jose Inazio Basterretxea Polo
2007an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-096-2

Kazetari aditua unibertso digitalean
Txema Ramirez de la Piscina (edit.)
2009an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-229-4

Kazetaritza Sailean *Uztaro* aldizkarian argitaratu diren artikuluak

Analisi sintomatikoa eta politika nazionala
Agirre, J. Kolektiboa, *Uztaro* 23, 65-86.

Euskarazko prentsa elkarlanerako estrategien bila
Aiestaran, A., *Uztaro* 49, 45-57.

Debabarreneko euskarazko komunikazio-sistema. Tokian tokiko kazetaritza-genero eta gaien analisisia 2000-2004 bitartean
Aiestaran, A., *Uztaro* 62, 81-97.

Euskarazko hedabideetako profesionalen lan-baldintzen analisisia
Aiestaran, A., *Uztaro* 69, 79-101.

Iritzi publikoa, iritzi publikatua eta publikoaren iritzia: hedabideen eragina euskal politikagintzan
Amezaga, J.; Arana, E.; Iturriotz, A.; Martín, R., *Uztaro* 22, 41-57.

Kale-borroka Euskadiko prentsan. ETAre su-etenaren garaian, aurretik eta ondoren (1997-2000)
Andonegi, A.; Azurmendi, I.; Osa, M., *Uztaro* 43, 87-103.

Telebista-albistegiak eta errealtatearen errepresentazioa
Arana, E., *Uztaro* 5, 47-57.

Telebista-albistegiak: *diversitas inter pares*
Arana, E., *Uztaro* 19, 41-54.

Tokian tokiko telebistagintzaren programazioa, ordainsariak eta erronkak
Arana, E.; Azpillaga P.; Narbaiza, B., *Uztaro* 46, 61-80.

EEBB-etako kazeta azterketa
Armentia, J. I., *Uztaro* 6, 89-97.

Euskal Herriko egunkarien irudi berria
Armentia, J. I., *Uztaro* 11, 37-46.

Kazetarien tipologiarako zenbait ohar
Azkargorta, A., *Uztaro* 6, 99-109.

Egia eta egiantzekotasuna. Prentsa Euskadin
Azkargorta, A. eta Xamardo, N., *Uztaro* 0, 37-46.

Herri mugimenduak eta komunikazio prozesua
Azkargorta, A. eta Xamardo, N., *Uztaro* 3, 77-85.

PRAVDA eta IZVESTIĀ sobietar egunkariak
Basterretxea, J. I., *Uztaro* 8, 63-91.

Kartel politiko sobietarra: propaganda eredu baten azterketa eskripto-ikonikoa
Basterretxea, J. I., *Uztaro* 17, 85-107.

Uldertaraztaile kolektiboa: interpretazio-eredu mass-mediaticoa
Basterretxea, J. I., *Uztaro 24*, 49-58.

Masa-komunikazioaren funtzio eta pragmatika sozialak identitateen eraikuntzan
Basterretxea, J. I., *Uztaro 29*, 39-50.

Hizkuntza eta hedabideak: prentsa idatziaren kasua
Basterretxea, J. I., *Uztaro 39*, 63-74.

Euskal Herriko eskola-gazteak telebistaren katean
Basterretxea, J. I.; Idoiaga, P.; Zarandona, E.; Ramirez de la Piscina, Tx., *Uztaro 55*, 63-87.

Euskarazko herri-aldizkariak eta teknologia berriak
Camacho, I., *Uztaro 31*, 85-100.

Euskarazko herri-aldizkarien funtzioak hirugarren milurtekoaren atarian
Camacho, I., *Uztaro 43*, 67-85.

Euskal Preso politikoaren informazioa Nafarroako egunkarietan
Castañeda, K., *Uztaro 38*, 43-58.

Euskal informazio-kazetaritza abertzalea: *Euzkadi* eta *Euzko* 1913-1934
Díaz, J., *Uztaro 15*, 81-95.

Euskal komunikabideak Interneten
Díaz, J.; Meso, K., *Uztaro 27*, 25-32.

Kazetaritzari buruzko lehen doktore-tesia, euskaratua
Díaz, J., *Uztaro 50*, 59-75.

Semeiotike tekhne
Erzila, J. M., *Uztaro 10*, 85-94.

Zuzeneko marketing-a, enpresa berrirako disziplina
Etxebarria, J., *Uztaro 4*, 85-101.

Emakumearen irudia aldizkari femeninoetan
Expósito, M., *Uztaro 13*, 87-105.

Alkoholaren kontrako kanpainak: edan-neurriaren bila marketingaren bidez
Expósito, M., *Uztaro 16*, 79-97.

Zurumurrueen mekanismoak. Argelgo mahaiaren kasua
González, M., *Uztaro 1*, 115-123.

Euskarazko tokiko hedabideen kalitatea
Gonzalez Gorosarri, M., *Uztaro 59*, 41-61.

Tokiko irratia, herri-partaidetasunaren guneak
Gutiérrez, A., *Uztaro 18*, 41-48.

Irratia erronka digitalaren aurrean
Gutiérrez, A., *Uztaro 32*, 35-47.

Irratiak eta internet bat eginda, hedabide erraldoien aurrean
Gutiérrez, A., *Uztaro* 48, 55-66.

Eskola-irratia, komunikabidea tresna pedagogikoa bihurtuta
Gutiérrez, A., *Uztaro* 56, 87-106.

Euskal gatazka, prentsaren portaera eta herritarren iritzia (1998-2001)
Idoia, P.; Ramirez de la Piscina, Tx., *Uztaro* 42, 85-101.

Ikerketa-bideak konbergentzia mediatikora hurreratzeko
Larrañaga, J., *Uztaro* 64, 69-81.

Perpauk adjetibalak albisteetako testuetan
Larrinaga, A., *Uztaro* 8, 53-61.

Iraganeko jazoerak zelan hurbildu narrazioan eta albisteetan
Larrinaga, A., *Uztaro* 16, 99-108.

Fikzio poliziakoaren logika, gaur eguneko irudian
López, E., *Uztaro* 0, 47-84.

Euskal Telebista, Golkoko gerran
Martín, R. M., *Uztaro* 3, 69-75.

Euskal irratia eta telebistetako kazetarien soslai soziologikoa
Martín, R. M.; Amurrio, M. *Uztaro* 58, 29-52.

Irrati modernoaren testuinguru teknologizatua
Murelaga Ibarra, Jon, *Uztaro* 51, 65-80.

Norberarenganako konfiantza eta beldur eszenikoa irratia eta telebistan
Murelaga, J.; Lopez, N.; Toral, G., *Uztaro* 63, 65-75.

Gogoetak irratia-programazioaren kontzeptuaren inguruan. Programaziotik mezura
Murelaga, J., *Uztaro* 65, 21-32.

Komunikazio emozionala: herdurari aurre egiteko komunikatzaileentzako trebakun-
tza-programa baten efektuak
Murelaga, J.; Garcia, I.; Barea, P.; Cea, I.; Toral, G., *Uztaro* 70, 65-77.

Euskarazko publizitatea prentsan
Ogiza, J., *Uztaro* 7, 97-109.

Euskal komunikabideetako euskara
Palazio, G. J., *Uztaro* 1, 105-114.

Exotoponimiazko problemak kazetagintzan
Palazio, G. J., *Uztaro* 7, 77-95.

Ziberguneak: komunikazioguneez haratago (III. milurtekoko enpresa multimediatikoak)
Palazio, G. J., *Uztaro* 32, 49-57.

Kable bidezko telebista Hego Euskal Herrian
Peñafiel, C.; Zabaleta, I.; Agirreazaldegui, T.; Xamardo, N., *Uztaro* 28, 79-88.

Birmoldaketa digitala
Peñafiel, C., *Uztaro 32*, 59-68.

Politikariak-kazetariak: boterearekiko lilura
Ramírez, Tx., *Uztaro 3*, 87-96.

Masa-hedabideen efektuen inguruko zenbait xehetasun
Ramírez de la Piscina, Tx., *Uztaro 21*, 68-78.

Drogak eta komunikabideak. Fenomenoaren eguneroko eszenifikazioa eta irudikapen
soziala
Rekalde, A., *Uztaro 50*, 77-87.

Informazioaren iraultza
Swerdlow, J. L., [Itzul.: Xabier Artola], *Uztaro 17*, 169-177 [Jokin Zaitegi Itzulpen Laburren
Sariketa].

Citizen Kane, hedabideak, boterea eta beren mugak
Xamardo, N. eta Zalakain, J. M., *Uztaro 52*, 35-74.

Hurbiltasun-zatidura irrati-telebistako kazetaritzan: praktika desegokia
Zabaleta, I., *Uztaro 14*, 49-60.

Prensa nazionala eta prentsa lokala
Zalakain, J. M., *Uztaro 12*, 55-65.

EGUNKARIA itxi dute, baina proiektua bizirik dago
Zalakain, J. M., *Uztaro 45*, 29-69